

E U S K E R A

Euskaltzaindiaren lan eta agiriak
Trabajos y actas de la Real Academia de la lengua Vasca
Travaux et actes de L'Academie de la langue Basque



Zuzendaritzaren buru: Fr. Luis Villasante

EUSKALTZAINDIAREN IX. BILTZARRA ARRASATEN / 1979 ABENDUA

Euskera XXV (2. aldia)
(1980)-2
25
BILBO

EUSKALTZAINDIA

Arbieto, 3 - Bilbo-8

ISSN. Euskera 0210-1564

ISBN. 85479

Dep. Leg.: BI-584-1980

A. G. ELKAR, S. Coop.
G. Baiparda, 71-Bilbao



Seber Altube (1879-1979)

EUSKALTZAINDIAREN IX. BILTZARRA

BATZORDE ORGANIGRAMA

Hizkuntz Batzordea

Buru: L. Mitxelena
J. Haritschelhar
A. Irigoien
P. Lafitte
R. Badiola
P. Goenaga
J. A. Mujika
Idazkari: J. A. Letamendia
Idazkari-orde: M.^a P. Lasarte

Antolakizun Batzordea

Buru: J. M.^a Satrustegi
J. R. Aiausti
A. Akizu
J. M. Elkoro
J. Iria
I. Laspiur
E. Olabarrieta
I. Sagasta
P. Zabala
J. J. Zearreta
X. Zubizarreta
Idazkari: J. L. Lizundia
Idazkari-orde: J. M.^a Velez de Mendizabal

Batzorde Orokor eta Koordinatzailea

Buru: J. Villasante
L. Mitxelena
J. M.^a Satrustegi
J. A. Letamendia
Idazkari: J. L. Lizundia

ARRASATE, 1979-XII-20

**EUSKALTZAINDIKO IX.
BILTZARRERA ONGI ETORRIA**

Arrasate, 1979-XII-20

*J. A. Ardantza
Arrasateko Alkate jauna*

Euskaltzainburua, Euskaltzainak, jaun-andreok, agur:

Euskararen historian urrezko hizkiz grabaturik geldi daitekeen ekintza baten hasieran aurkitzen gara. Eta Arrasateko alkate bezala Biltzar honi argi berdea ematea tokatu zait, neure pozerako.

Euskaltzaindiak gure herria aukeratu du IXgn Biltzarra egiteko. Eta ez diogu aterik itxi nahi izan. Arrasateko herriak ohoretzat har dezake Biltzar hau, Euskararen Liburuan bere izena azaltzen jarraituko baita.

Eta jarraituko esatean atzean gelditu zaizkigun uneak etorri dira nire gogora. Euskarak ezagutzen dituen koplarik zaharrenetakoetan hasten baita agertzen gure herriko izena:

Lasturko Miliaren endetxak, Arrasateko Errekotetako eta Martin Bañez de Artazubiagaren koplak...

Horra hor aintzinako tradizio baten ezaugarriak. Hizke-
ra landu eta heldu baten ondorio paregabeak.

Geroztik mundua apurño bat zahartu zaigu, gizona aurrerakoiago bilakatzen delarik. Unetxo bat historiaren historian. Baina une honetan -500 urte ez gehiagorik- gure gizarteak urrats erraldoia eman digu, gaurko berritasuna biharko zahartontzi asegaitezian uzten ari garelarik.

Eta gizona bere baloreak galtzen joan da; gizartea hondatzen.

Euskal gizona, munduko zilborra dela uste izatetik, larrugorritan dabilen ia itzaropengabeko gizaki ahula bihurtu

zaigu. Eta gure ezinean elkar irainka, elkar borroka hasiak gara. Bere bidea garbi ikusten ez duen Herri baten ezaugarri tristea.

Baina gaur nire bihotza pozez beterik daukat, itxaropenak —itxaropen argi eta dirdiratsua— indar guztiaz hartu baitu leku nire aurrean. Eta ez dut uste zisnearen kanta denik...

Sebero Altube, arrasatearra, omendu nahi dugu egun hauetan IX. Biltzar honen bitartez. Bera jaio zenetik ehun urte eman dira, erdia baino gehiago ixiltasunik izugarrienean igaro behar izan dugularik.

Ez noakizue Sebero Altuberan lan edo eta gorabeherak azaltzera. Ez!! Zuek askozaz gertuago baitzaudete ni baino eta —gainera— ez da nire zeregina. Baina pozik aurkitzen naitzela berresan nahi dizuet, zioak azalduz, gainera:

Alde batetik,

1) Sebero Altube euskaltzale haundi eta abiatzailearen herkideen izenean mintzatzeko baitnaiz. Hau, berez, nahiko garrantzitsua da.

Eta bestetik,

2) Nire aurrean zeuek zaituztedalako. Zeuek baitzarete lehen aipatutako itxaropen argi eta dirdiratsua. Eta hau, benetan, arrazoirik garrantzitsuena dut.

Seberok bere egunean piztutako zuzia zeuen esku hartu nahi duzue. Ez bakarrik berak eman dezakeen garra gorde-tzeko, ahalik eta indartsuen eremu zabalago argitzeko, baizik.

Euskara du euskaldunak bere ezaugarriarik nabarmena. Euskal arima, gogoia orotzapenezko gauan galduko da, ez baitugu euskara goimendietako ura bezain bizirik irauten.

Seberoren jaioterrira etorri zarete euskararen ingurura bildu nahian. Datozen belaunaldi gazteei utz diezaiekegun gure hizkuntzaren azpiegitura egokia egiteke daukagu oraindik, baina hori guztion artean lor daitekeen zerbait da. Eta —seguru nago— lortuko dugu.

Dela zenbait egun euskara politikak salbatuko duela irakurtzen genuen egunkari batetan. Ez nago erabat ados baiez-tapen horrekin; nik honela esango nuke:

“Euskara salbatuko bada *euskal politikak* egingo du, eta ez beste inork.”

Baina euskal politikoez zeuen laguntza behar dute, hildoa erreztatu ahal izateko. Ez ukatu laguntza hori!!! Eta euskal politikoen ahoan euskara ikusten duzuenean, lasai zaitezte! hildoa lorez hornitzen hasi baita.

Seberoren atal bat datorkit gogora:

“Atara aixetara geure izkera maitiau, erabilli beti ta beti, edonun eta edonorekin: emon orretaraxe bizija ta indarra... Beste asmokeri ta barrikerizko bideok, alperriko ta kaltegarri baiño eztira.”

Izan dezagun beti helburu hau aurrean. Altuberi egin dakioken omenaldirik zintzoena baita. Berarentzat, maixuarrentzat, txaloaldi bat eskatzen dizuet.

EUSKALTZAINBURUAREN BILTZAR-HASIERAKO HITZAK

Arrasate, 1979-XII-20

Fr. Luis Villasante

Arrasateko alkate jaun agurgarria,
Euskaltzain jaunak,
Jaun-Andreak:

Euskaltzaindiak joan den urtean erabaki zuen Biltzar hau hemen Arrasaten egitea eta era horretara Altube jaunaren mendeurrena ospatzea. Euskal gramatikari, eta zehazkiago, euskal sintasi edo joskerari da eskeinia Biltzarra.

Guztiok dakigunez, orain dela ehun urte jaio zen Altube jauna hemen Arrasaten. Eta berau izan da, ezpairik gabe, euskal gramatikaren alor hori —joskera— gorritzen lanik gehiena egin duena. Bidezkoa zen, beraz, Altuberen omenez joskerari buruz Biltzar hau egitea.

Euskal joskera aztertzen eta joskera horren legeak bilatzen higitu zituen bere indarrak Altube jaunak. Eta gure Biltzarrek azterketa eta bilaketa horietan urrats bat aitzina egin nahi luke.

Biltzarreko programari begiratu bat ematea aski da lan guztiak joskera edo sintasiari buruz direla ohartzeko. Gainera, lehen egunean galdegaiaren arazoa aztertuko da, Altubek aparteko modu batez landu eta aztertu zuen auzi hori, alegia.

Gainerako lanak ere euskal sintasiaren azterketak dira, baina gure idazleetan barna eginak. Iruditu zaigu hortik hasi behar genuela, zeren geure tradizioa gehienetan ez baitugu ongi ezagutzen ere. Eta badirudi hori dela lehenik egin behar den gauza. Anitzetan ez dugu jakiten zer erabili den, nola eta

nork erabili duen etab. Eta hori gabe gramatikagintzan lan sendorik ezin egin.

Idazleetan topatzen den guztia ez da eredutzat hartze-koa, noski. Jasotzen dena galbahetu beharko da. Baina gure tradizioa ezagutzea, gure idazleen bideak jakitea, hori da aitzineko puntua. Horretara goaz, bada.

Euskal Gramatika, neurri handi batean, eginkizun dago oraindik. Euskara bere osotasunean hartzen duen Gramatika, esan nahi dut. Egiten dira, bai, saioak, eta ongi etorriak izan bitez; baina gure idazleen monografia edo ikerketa bereziak eskas ditugu. Xede horri buruz zuzendua da gure Biltzarra.

* * *

Altube jaunaren izena eta itzala nahi ditu Biltzar honek berekin. Altubek euskararen kezka gutik bezala ekarri du bihotzean tinkatua. Kezka horrek bultzatu zuen lanera. Euskarak bizirik irauteko dituen oztopoak nola gainditu: hori hartu zuen aztergai. Horretarako argibideak ematen, euskararen salbamendurako estrategia bilatzen ahalegindu zen baitipat. Bere ikasketak, ikerketak, irakurketak horretara zuzendu zituen.

Altube jauna dela eta ez dela, hitzerdi bat gehitu beharrean naiz oraino, hortik zabaldu diren esamesei bidera irte-teko. Guk Altuberi alde batetik omenaldia eta bestetik ostikoa ematen omen diogu.

Azaldu beharra dut, bada, hitz guttiz, zein den gure jarrera. Bere galtzarrean izan dituen gizon jakintsu eta maisu agurgarrienetako bat bezala dauka Euskaltzaindiak Altube jauna. Horrek ez du esan nahi, bestalde, haren irakaspen guzti-guztiak, dauden-daudenean eta itsu-itsuan dogmatzat hartu behar dituela. Altubereren emaitzak ildo nabaria utzi du gaur euskara lantzen dutenen artean; zerbait, lehen ez zegoen zerbait, ekarri du, beraz; hori ezin ukatua da. Baina haren teoretan zerbait mugatu, zehaztu, aldatu, gehitu edo zuzendu beharra egotea, hori ere gerta daitekeena da. Denok dakigu gizon jakintsuen teoriak aurrerapenerako bide, aitzakia eta akuilu izaten direla, nahiz eta teoriak, berez eta gehienetan, iragankorrak izan; eta inoiz edo sarri gaindituak izaten badira ere, beti gelditzen da zerbait, berei esker lortu

zena. "Non omnis moriar" esan daiteke, bada, hemen ere, Mitxelenak Barandiaranen omenaldian esan zuen bezala. *Ez naiz osoki hilko*. Altube gauditua izango balitz ere, beti izango da egia berari esker lortu zela aurrerapen hori.

Gizon bati, maisu bati zor zaion leialtasunak ez du baztertzen, eta ez du baztertu behar, kritika. Kritika gabe giza ezagupenen munduan ez zen sekula aurrerapenik egingo. Eta hauxe da maisu bati eman dakioken saririk hoberena: hark egindako obra kritika bidez hobetzea, gaurkotzea eta iraunkor bihurtzea.

Gure postura, beraz, garbi dago. Idolorik ez. Altube jaunaren maisutza aitortzen dugu. Haren irakaspentetan zerbait mugatu edo hobetu behar ote den, hori beste kontua da. Biltzarrean mintzo direnek esango dute. Dena dela, maisuaren obra hobetzea ez dut uste hari ostiko ematea denik. Aitzitik, hori da hari omenaldirik onena egitea, haren lana aintzat hartzea eta hari berari behar bezalako leialtasuna gordetzea.

Uste dut, bada, puntu hau argi gelditzen dela.

* * *

Iaz, Bergaran, VIII. Biltzarra egin zen. Biltzar hura epe baten bukaera bezala jo daiteke. Hamar urte lehenago Arantzazun idikitako epearen bukaera. Epe hori guztiok dakizute zergatik eta zertarako behar zen: batasun bideak Euskal-Herrian erroak egiten ote zituen ikusteko. Hamar urteren buruan, eta Bergararako egin ziren azterketei esker, garbi ikusi da baietz, handia izan dela batasun arauak izan duten eragina. Beraz, bide hura finkaturik gelditu da. Horregatik nion epe baten amaiera bezala izan zela Biltzar hura.

Orain, berriz, beste urrats bat egin nahi dugu, hots, euskararen gramatikarako gaiak bildu eta prestatu, batez ere gure literatur tradizioa aztertuz. Hortik jo nahi du Biltzar honek.

* * *

Biltzarraren amaieran erabakirik hartuko ote da? Ez dakit. Agian ez. Eta hartzekotan ere Euskaltzaindiak hartuko

luke. Baina gure tradizioa ezagutzeko gaiak biltzea, hori bera ez ote da erabakirik asko honelako Biltzar batean?

* * *

Gainerakoan, eskerrak ematea beste lanik ez zait gelditzen. Eskerrak Arrasateko alkate jaunari, Lankide Aurrezkiari, eta eskerrak, noski, Biltzarraren antolatzaileei, eta, aparteko modu batez, bertarako azterketa lanak prestatu dituztenei.

Egun on eta ongi etorria denoi!

SEBERO ALTUBE ETA EUSKAL HIZKUNTZAREN PLEGUAK

Arrasate, 1979-XII-20

Alfonso Irigoyen

Ondo merezia Sebero Altuberi jaio zen Mondragoiko hiri honetan bertan egiten zaion omenaldia, haren mendeurrena Euskaltzaindiaren IX-garren biltzarre honen bidez ospatzen dugula. Izan ere egin ahal zekiokkeen gorazarrerik handiena iker lanean jarraitzea eta ekin zion arloan oinarri harturik gaia sakontzea zen, hori egin ahal daitekeen neurrian bederen. Hara bada ni ere hemen, hark, Azkueren lehenengo liburuan, geroago autoreak berak gaztetako bekatutzat aitortuko zuen hartan alegia, esanikakoa gogoan harturik (1), landu eta hedatu zuen gai famatua eta axolazkoa esku artean dudala. Izan bedi harentzat eta baita aitzinagokoentzat ere ohore.

2. Azkue-k bere *Euskal-izkindea* delakoan, Astarloaren gogoetetan oinarritzen dela, lehenengo aldiz erabili zuen gure artean *elemento inquirido* forma erdal terminologian, euskarara *gai bilatua* hitzen bidez itzulirik. Egun, ordea, euskaraz *galdegaia* berba konposatua zabaldu da Altuberena itzultzeko, hark ontzat hartu baitzuen Azkueren erdarazkoa. Astarloa-k *movilidad* deitzen dio bere *Apología* eta *Discursos Filosóficos* direlakoetan (2).

3. Honela dio Azkue-k: "*Regla única. Los complementos regidos deben ponerse delante de los regentes*". Eta aurrerago: "Por movilidad a veces el ser o el agente suele ser el elemento de más importancia, otras veces el objeto, y con frecuencia algún complemento. *¿Quién se ha ido a casa? El*

(1) R. M. Azkue, *Euskal-izkindea*, Bilbao 1891, 334-345 orr.

(2) *Apología de la lengua bascongada*, Madrid 1803, "Orden de movilidad. Tercera regla para la colocación de voces en los conceptos Bascongados", 179-187 orr., *Discursos filosóficos sobre la lengua primitiva*, Bilbao 1883, 520-527 eta 766-773 orr.

padre se ha ido a casa. En estos ejemplos la movilidad está a favor de *el padre*". Euskaraz: "*¿Nor ioan dai etxera? Aita ioan dai etxera*". "*¿Adónde se ha ido el padre? A casa se ha ido el padre*. En cambio en estos ejemplos el complemento tiene la importancia de movilidad." Euskaraz: "*¿Nora ioan dai aita? Etxera ioan dai aita (sic)*", 334-335 orr. Geroago honela mintzatzten da, ordea: "La construcción de los elementos de oraciones no siempre suele ser la misma: a veces se dice el ser antes del objeto, otras veces por detrás. Otro tanto sucede también con los demás elementos. Para saber cuál sea el elemento prepositivo debe saberse cuál tiene la importancia de movilidad: se coloca por delante el elemento que más importancia tenga, el que menos tenga por detrás. Para adivinar a favor de cuál está la importancia lo mejor es conocer la intención del que habla, y la intención del que habla podremos conocerla sabiendo *cuál sea el elemento inquirido*. He aquí la primera regla: *el saber cuál sea el elemento inquirido*. Los elementos inquiridos son respuestas de las palabras inquisitivas; las palabras inquisitivas... son ocho: *quién, qué, dónde, cómo, cuándo, de qué naturaleza, cuál y cuántos*". Euskaraz: "*nor, zer, non, zelan, noiz, zelangoa, zein ta zeinbait (sic)*", 341 orr. Darabilen euskara bitxiagatik nahiago izan dut erdarazko testoak ematea, euskaraz adibideak bakarrik azalduz, eta uste dut barkagarri izango dudala. Bada ez bada ere ondo ulertuko ez balitz Azkue-k zer esan nahi duen *prepositivo* hitzaz hurrengo argigarri hau gaineratuko dut: frasearen hastapenean ezarri behar dela delako elementua. Ez du adierazi nahi berboaren aurrean joan behar duenik, joan ahal badaiteke ere. Geroago ematen dituen exenploetan argi ikusten da hori. Baina aurrerago itzuliko gara gai honetara, txanda egokia datorkionean.

4. Zer dio, ordea, Altuberen teoriak? Ikus dezagun ahal denik laburren. Haren *Erderismos* delakoan hurrengo hau irakur dezakegu: "La regla principal acerca del empleo en la oración del miembro nominal inquirido, es que debe ser colocado inmediatamente antes del verbo". Eta nota batean gaineratzen du: "Es la misma regla que rige en la colocación de los vocablos inquisitivos o interrogativos: v. gr., "Nor" *da?* "Noiz" *dator?* "Zeinbat sagar" *dituk?* Únicamente cuando el verbo de la oración *no está* conjugado, cabe apartarse de esta regla en la colocación del vocablo inquisitivo. Véase: —"Nok"

areri *esan*? —“Zergaitik” beti ola *ibili*?” Azentuaren kontua ere gogoan duenez gero beherago horrezaz hau dio: “En estas oraciones cuyo elemento inquirido es un miembro nominal, la flexión verbal que le sigue recibe una acentuación especial”. Eta geroago: “Los miembros de oración no inquiridos pueden colocarse antes del inquirido, o después del verbo, o distribuidos en ambos sitios; pero nunca inmediatamente antes del verbo. Si se pregunta: “Nork” *ekarri du ori*? estará mal contestado si decimos: Ori (ininquirido) *ekarri du* (verbo) “*aitak*” en vez de “*Aitak*” *ekarri du ori* u Ori “*aitak*” *ekarri du*. Únicamente a un euskaldun *castellanizado* le parecerá correcta la primera de esas contestaciones por aparecer ordenados los términos de ella en la misma forma que en la frase castellana: “Eso *lo ha traído* “el padre” que es la más usual en esta lengua tratándose de oraciones de esa clase” (3).

5. Hala ta guztiz ere delako elementua luzea denean euskaldunek ez dutela gehienetan lege hori betetzen aitortzen du: “Hay que reconocer que tratándose de oraciones con miembro inquirido largo y complejo, aún en el lenguaje hablado se infringe con frecuencia la regla establecida cuando el verbo de la oración expresa ideas tales como *decir*, *contestar*, etc.; así es muy frecuente oír frases como las siguientes: a) —Amak *esan dit* “biyar lan asko daukala eta ezin etorri al izango dala”. En este ejemplo es indudable que la frase acotada entre comillas es el miembro inquirido de la oración cuyo verbo es *esan dit*. La construcción correcta, aunque no la más usual, sería pues como sigue: “aa) —“Biyar lan asko daukala ta ezin etorri izango dala” *esan dit* amak”. Hemen galde egin daiteke ohitura linguistikoa “zuzentasun” logiko baten kanpoan baldin badago legea zeri deitu behar zaion, edo eta zer nolako kontestoetan neutraliza daitekeen (4).

6. Hurrengo, hemen aldatzen dugun testoa, Altube-k, galdegaiazko formulazioa egiten baldin badu ere, erdarazkoaren alderantzizkoa den elementuen ordenu normal batez

(3) S. Altube, *Erderismos*, Bermeo 1930, 6-7 orr. Gogora ekarri behar da, ordea, autore zaharretan berboa jokaturik dagoenean ere elementu galdetzai-learn ondorik behin baino gehiagotan berboa ez den zerbait irakur dezakegula. Ikus Leizarraga XVI-garren mendekoaren hurrengo testook: *Cergatic hori eguiten duçue?*, S. Marc, XI, 3; *Cergatic guc hura ecin campora egotzi dugu?*, S. Marc, IX, 28; *cerçaz hura gacituren duçue?*, S. Marc, IX, 50.

(4) *Op. cit.*, 11 orr.

hitz egiten digu: "En la mayoría de las oraciones, el elemento inquirido es un miembro nominal, es decir está fuera del verbo, lo cual obliga en euskera a que ese verbo aparezca generalmente como elemento pospositivo; lo contrario de lo que ocurre en castellano, en cuyo idioma la mayoría de las veces, los complementos van después del verbo:

"Ser "bueno"	—"Ona" izan.
"Estar "quieto"	—"Geldi" egon.
"Venir "hoy"	—"Gaur" etorri.
"Andar "bien"	—"Ondo" ibili.
"Ir "a casa"	—"Etxera" joan.
"Morir "por la patria"	—"Aberriarren" il.
"Comer "pan"	—"Ogia" jan.
"Ver "a la madre"	—"Ama" ikusi.

"En todos estos casos se ve la tendencia del castellano a colocar los adverbios, predicados y toda clase de complementos, después del verbo; en cambio en euskera (por lo mismo que esos miembros son inquiridos la mayoría de las veces) deben aparecer por lo general inmediatamente antes del verbo. Este antagonismo de las leyes sintácticas de ambas lenguas, da origen, lo repetimos, a los erderismos y euskarismos de que hemos hablado..." (5).

7. Hala ere Altube-k gogoan du eguzki aldeko euskaldunen erabiltze adierazkorra, perifrasién edo berbo multzoen inbersioa egiten dutela, ezezkoetan alderdi guztietan egin ohi den bezala alegia. Jadanik XVI-garren mendeko testoetan

(5) *Op. cit.*, 13 orr. Dirlako *euskarismo* horiezaz aurreko paragrafoan mintzatzen da: "La influencia de la regla que hemos formulado... conduce a muchos euskaldunes a construir, aun en español, oraciones ajustadas a ella, lo cual da origen a *euskarismos* como los siguientes, que los copiamos de un artículo del malogrado escritor Klin-Klon, publicado en el número 54 del diario de Bilbao *La Tarde*:

"—Con dos años y medio "cuarenta libras" *pesaba*. (En vez de... *pesaba* "cuarenta libras").

"—"Dolores" *se me ponen* en el costao. (En vez de *Se me ponen* "dolores...").

"—"Brujería" *parece*. (En vez de *Parece* "brujería")."

Argi ikusten da euskaraz osagarri zuzena berboaren aurrean ipintzea norma dela, baina hori berori erdaraz oso bitxi egiten dela. Izan ere erdarek halako kontestoetan konkordantzia eskatzen dute eta osagarri zuzenok markaturik gelditzen dira, baina euskaldunek konkordantzia beti beharrezkoa dutenez gero erdaraz mintzatzerakoan transposizioa berezi gabe egiteko joera dute, hizkuntza arrotza ondo menderatzen ez baldin badute behintzat, eta erderari oso kolore berezia ematen diote.

aurkitzen da, edozein irakurle erraz ohar daitekeenez: "Los vascos orientales se valen con frecuencia de un giro especial, muy expresivo, para recalcar aún más el carácter inquirido de los miembros de oración. Consiste en desarticular la flexión perifrástica invirtiendo sus componentes a fin de hacer seguir el nombre verbal al terminativo auxiliar; véase en los siguientes ejemplos:

"Han" **zako** *lotzen* bizkar-hezurrari —*Egunari*, 1913, p. 35—. (En vez de "Han" *lotzen* **zako**...).

"El miembro "Han" colocado inmediatamente antes de la flexión auxiliar *zako* alcanza un relieve particular muy adecuado a su carácter de inquirido."

Gai bereko beste exenplo bi eman eta inbersioa egiten denean perifrasiaren elementuen artean beste batzu sar daitezkeela adierazirik mendebal aldeko bat ere ematen du: "Aunque con menos frecuencia también recurren a ese giro los vascos occidentales, como se comprueba por el siguiente ejemplo de Domingo de Agirre:

"Zeuen "ontasunari" **deutsagu zor**" (6).

8. Adierazi beharra dago, ordea, hori Bizkaian normala dela, baina berbo multzoa elementu nominal eta berboaz osatzen denean bakarrik, eta ez bestelako perifrasiaren denean. Horrela *berba egin* 'mintzatu' honela erabil daiteke: *nok egin dau berba?* Beste alderdi batzuetan, Gipuzkoan bereziki, *hitz egin* zentzu berean erabiltzen dutenek ez dute halakorik egiten, berba bakarria balitz bezala hartzeko joera baitute, *aldegin* delakoan gertatzen den erara. Hala ere Ochoa de Arin-ek bere *Doctrina Christianaren explicacioa Villa Franca Guipuzcoaco onetan euscaraz itc eguiten dan moduan* delakoan, Donostian 1713, *bear deu equin*, 68 orr., *nay dituzu jaquin*, eta abar, behin baino sarriago darabiltza, Altube-k eguzki alderako aipatzen duen *behar du izan bezalaxe, izan behar* tipoko elementu nominalaren konposizioa etenik.

9. Liburu beraren bigarren kapituluan "Oraciones cuyo elemento inquirido es el nombre verbal" tituluaren azpian "**etorri**" *dátor aita*", "**ibili**" *dábil ori*", "**ekarri**" *dákar*" gisa-koak alderdi batetik, eta bestetik "**etorri**" *egín da aita*", "**ibi-**

(6) *Op. cit.*, 14, 15 orr.

li" *egiten* da ori", "**ekarri**" *egingo* du" gisakoak aztertzen ditu eta dio: "La nota sintáctica común a ambos casos consiste en que el nombre verbal asume en la oración el carácter de miembro inquirido, e *independiente* de los demás elementos componentes de la flexión verbal". Gainera, "nombre verbal" delako hori "ininquirido" ere izan omen daiteke: "**ekarri**" "ez" nekarren", **ekarri** "ez" neban égin", "**ekarri**" "neuk" dá-kart", "ba" dabilta **ibili**", eta abar (7).

10. Hirugarrenean "Oraciones cuyo elemento inquirido es la cualidad afirmativa o negativa del verbo" titulua dator. Hiru mota berezten ditu: "A) Negativas. B) Afirmativas con flexión verbal sintética. C) Afirmativas con flexión perifrástica". Lehenengoetan berboaren ezezkotasuna bera omen da galdegai ia kasurik gehienetan, baina inoiz beste elementuren bat izatea ere gerta omen daiteke: "a) —"Zergaitik" **eztátoz?** —"Dirurik eztaukalako" **eztátoz.** b) —"Nok" **eztáuko?** —"Egal onetan gagozenok" **eztáukagu**", eta abar. Bigarrenengoetan, hau da, sintetiko direnetan, berboa ezin ager omen daiteke frasearen hastapenean *ba-* edo *ez-* berrekailuetarik bat itsatsi gabe, zentzuz inperatibo ez baldin bada. Bigarrenengo horietan baiezko sintetikoen morfematzat *ba-* hartzen omen da, baina perifrastiko direnetan, hirugarrenengoetan alegia, azentua besterik ez omen da agertzen laguntzailearen lehenengo silaban (8). Hala ere aitortu beharra dago azentua ez dela alderdi

(7) *Op. cit.*, 26 orr. eta hurrengoak.

(8) *Op. cit.*, 47 orr. eta hurrengoak. Hala ere Leizarraga-k XVI-garren mendean maiz *cen* flesioaz hasten zuen frasa *ba-* delakorik erantsi gabe: *Cen bada Phariseuetaric edoceimbat Nicodemo deitzen cenic, Iuduén arteco principaetaric bat* 'Vulg.: Erat autem homo ex pharisaeis, Nicodemus nomine, princeps Judaeorum', S. Ioan, III, 1; *Cen bada Bazcoaren eta ogui altchagarri gabecoen bestá bi egunen buruán* 'Vulg.: Erant autem pascha et azyma post biduum', S. Marc, XIV, 1. Alabaina: *Eta baciraden batzu dembora hartan berean hari contatzen cerauca-tenic Galileanoéz...*, 'Vulg.: Aderant autem quidam ipso in tempore, nuntiantes illi de Galilaeis,...', S. Luc, XIII, 1; Baina bada, gainera, frasearen hastapenean kokatzen dela baiezko perifrasiaren inbersioa duenik eta *ba-* berrekailua ez daramanik, eta baita bestelako flesio sintetikorik ere: *Eta cen hurbiltzen altchagarri gaberico oguién bestá, Bazco erraiten dena: Eta çabiltzan Sacrificadore principalac eta Scribác nolatan hura hil ahal leçaqueten* 'Vulg.: Appropinquaret autem dies festus azymorum qui dicitur pascha; et quaerebant principes sacerdotum, et scribae, quomodo Jesum interficerent', S. Lvc, XXII, 1-2.

Eta Altube-k dioena mendebal aldekoon artean behintzat joera nabarmeneko bada ere *da* flesioa behin baino sarriago Leizarraga-k bezalatsu erabiltzen dugu aurrean esanikako zerbaiti jarraitzen baldin bagatzaizkio. Hona hemen Arratiako erara: *ak báki osterá suk estákisun séoser eta dá mutikoak esaneuéná gusurré dala*. Lege zaharreko dotrinetan agertzen den ordenu berbera da. Aipaturikako joera neutralizaturik gelditzen da kontesto horretan.

guztietan berdintsu egiten eta argi nabari dena, Bizkai Gipuzkoetan behintzat, perifrasién aurrekaldeko geldiuena dela, frasa berboaz hasten ez baldin bada, markatzen duena, hain zuzen ere frasearen lehenengo lekua hartzea berezko baitu horretarako, geroago ikertuko dugunez, eta gainera zentzu inperatiboa dutenekin nahasten ez dela.

11. Azkenik liburu horretako hurrengo hau hartuko dugu gogoan: "Merece ser anotada otra irregularidad que se refiere únicamente a los sintagmas oracionales mixtos: consiste en que el vocablo subordinante *indeterminado* encabeza el sintagma, colocándose al final, en el lugar propio de dicho vocablo subordinante, el morfema *determinativo*; véase:

"a) *Verbo conjugado*.

"*Irreg.* —**Gizon** lanik egin nai eztaben-a.

"*Reg.* —Lanik egin nai eztaben **gizona**.

"b) *Verbo inconjugado*.

"*Irreg.* —**Gauza** paparrían iminteko-bat.

"*Reg.* —Paparrian iminteko **gauza-bat**.

"Esta composición irregular es empleada casi únicamente cuando entre el vocablo subordinante y la oración subordinada se interpone otro nombre adjetivo; así:

"aa)

"*Irreg.* —**Gizon**, *ustel*, lanik egin nai eztaben-a.

"*Reg.* —Lanik egin nai eztaben **gizon** *ustel*-a.

"bb)

"*Irreg.* —**Gauza**, *polit*, paparrían iminteko **bat**.

"*Reg.* —Paparrian iminteko **gauza** *polit* **bat**.

"El uso de las precedentes frases irregulares se justifica por lo siguiente: El nombre sustantivo *Gizon*, p. e., está determinado por dos adjetivos: el simple *ustel* y el sintagmático *lanik egin nai eztaben*. Los adjetivos simples, como se sabe, son *pospositivos* y los sintagmáticos se *anteponen* al vocablo subordinante. Pero si en la persona que habla predomina el deseo de manifestar la idea expresada por el adjetivo simple, concibe la frase tal como exige la sintaxis o régimen de éste, o sea: enuncia en primer lugar el sustantivo *gizon* para hacerle seguir el adjetivo simple *ustel*; y, como otro adjetivo secundario, sometido al régimen del principal, viene detrás de todo el

sintagmático *lanik egin nai eztaben*, que, en una construcción normal, ocuparía la presidencia de la frase" (9).

12. Ez da ikusten regularitateeza zertan datzan, *lanik egin nai eztaben* delakoa *eztau lanik egin nai* frasearen nominalizazioa izanik sintagma berrian hartzen duen sustantiboaren edo adjetiboaren balioa posizioaren arauerakoa baita. Posizio predikatiboan joan baledi ere ezin izan liteke adjetibo besterik: *gure artean bada gizon bat lanik egin nai eztabena*. Leizarraga-k posizio predikatiboan mugagabea erabiltzen du, nahiz pluralaren, nahiz singularraren atzean: *Iugebat cen hiri batetan laincoaren beldur etzenic, eta nehorçaz conturic eguiten etzuenic*, S. Lvc, XVIII, 2; *eta baciraden batzu denbora hartan berean hari contatzen ceraucatenic Galileanoéz...*, S. Lvc., XIII, 1.

13. Berdintsu gertatzen da posizio predikatiboan doan adjetiboa hitz bat bakarra denean. Esaterako, Arratian *mutikoa triste da(g)o* esaten den bitartean Bakion *mutikoa tristerik da(g)o* entzuten da, eta Baztanen *mutikoa triste da(g)o* alderdi batetik, eta bestetik, plurala denean, *mutikoak tristeak daude*. Gainerakoetan, ordea, pluralak ez du aldatzen posizio predikatiboan dagoen mugagabea: *mutikoak triste da(g)os* bata eta *mutikoak tristerik da(g)os* bestea. Beste exemplo bat: Ubidea: *nik etxie garbi(r)ik itxikotzet*. Zeanuri: *nik etzea garbi itxikot* edo *itxiko yoat*. Elgoibar: *nik etxia garbixa utzikot* edo *utziko juat* $-j = |x|$, *nik etxiak garbixak utziko jitzuat*. Hala ere Arratian *mutikoa bustirik etorri de* esaten da *bustite* < *bustita* baino gehiago —Ubiden *busti(r)ik bustite* baino gehiago—, azken forma, *-ta* lokarria posizio enklitikoan beti itsatsirik daramala —sistema berriago horren arauera *itsatsita*— geroago hedatu baita Bizkai Gipuzkoetan, posizio predikatiboan doana partizipioa edo partizipioaren balioko denean, edo, nahiago baldin bada, jatorriari begiraturik, latinezko ablatibo absolutoaren gisako. Ezaguna denez nominatiboaren funtzioan erabiltzen den *-(r)ik*, izen sintagma mugatzailerik gabekoetan itsasten den partitibozko

(9) *Op. cit.*, 150, 151 orr. Ezin utzi dezaket aipatu gabe Altube-k 99-garren orrialdetik aurrera dioena "Pronombres personales reproductivos" tituluaren azpian, zeren hor, jadanik 1900-garren urtean Leizarraga XVI-garren mendekoaren edizioa egin zenean Linschmann-ek H. Schuchardt-i azaldurikako teoria berdintsu agertzen baita, agian haiek esanikakoa ezagutzen zuelako.

markak ablatibo zaharrean du iturburua. Hala ere Ubiden *erropa bustijek or da(g)us -j = [dž]*-, edonon zabal dabilen erara esaten da, *busti* adjetibo bezala agertzen dela. Partizi-pioetan ere badira konkordantziadunak, ordea, *mutikoa etorria da* eta *mutikoak etorriak dira*, Zuberoa aldeko gramatiketan *etorririk dirá* ere agertzen dela.

14. Beraz, aurreragokoari jarraiturik, nominalizaturikako frasea adjetiboaren balioko, posizioaren arauera, izatea hizkuntzaren sistema barruan dago. Beste gauza bat da norma bezala gehiago edo gutxiago hedaturik agertzea. Edozein modutan ere autore zaharren testoetan oso erabilia izan da adjetibo huts bezala, hau da, predikatiboa ez dela. Ikus Leizarraga, S. Ioan, III, 13: *cein baita guiçonaren Seme ceruän dena*. Ez dago dudarik literaturazko testo honi, aurrean genitibo edutezko bat duela eta gainera beste frase bati *cein baita* delakoaren bidez loturik dagoela, *ceruän dena* nominalizazioa adjetibo bezala erabiltzearen bidez astuntasun handia kentzen zaiola eta hori egiteko eskua beti utzi behar zaio artistari, haren hegoak alde zurretik moztu nahi ez baldin baditugu. Horra Mogelen *Peru Abarca*-n irakur daitezkeen beste exenplo bi: *bere videco jancija da chano gorri bat ta bere ganian chapel esquerga berroguei urte euquico ditubana*. *Eztabil zu leguez basatzaric basatza oñetaco meiacaz, ta bai zaldi, berac beste urte ditubanian*, 45 orr., 1881 urtekoa.

15. Kanta zahar arkaikoetan *ene andra Milia Lastur-co* eta horrelakoak maiz irakurtzen dira (10) eta egungo egunean *Kresen Martxondikoa* eta *Kresen Ubidekoa* —ene lengusina bi dira— eta antzekoak entzun daitezke, eta baita *amandre gurea*, *Luis gurea*, eta abar, aldatu den *Aita gurea* otoitza ahortzi gabe. Mendigatxa Bidankozekoaren kartetan bada pasarte bitxi bat Azkue-k ulertu ez zuena eta horrexegatik beragatik gaizki zuzendu zuena. Honela dio: *eta guero fan-cren veren vide zameinz* 'y luego se fueron por el camino suyo que llevaban' (11). Azkue-k honela argitara zuen: *eta gero fan-zren beren bide zameina*, gramatikalitaterik ez duen frase

(10) L. Michelena, *Textos arcádicos vascos*, Madrid 1964, 75 orr.

(11) A. Irigoyen, "Cartas de Mariano Mendigacha a D. Resurrección María de Azkue escritas en vascuence roncalés y en castellano", *Euskera*, II (1957), 170 orr., ipuin bat da.

bihurturik (12). *Zameinz* euskara batuaren norman *zeramate-
nez* formari dagokio, hau da, *eta gero joan ziren beren bide
zeramatenez*, beste era bitara ere ezar daitekeena: *eta gero
joan ziren zeramaten beren bidez* edo *eta gero joan ziren
berek zeramaten bidez*. Eta argi dago Mendigatxa herriko
seme arrunt bat besterik ez zela eta hala ikasi zuela tradizio-
tik zetorren iturri geroago etenean.

16. Mitxelena-k 1953-garren urtean Altuberen legeei erasoaldi bat eman zien Oihenarti buruz argitara zuen hitzal-
dian eta geroago Altube-k berak erantzun zion eta Villasante
ere tartean sartu zen. "Labur esateko, zion, Altube jaunak
finkatutako legeak, euskerak gorde bear lituzkeanak izango
dira agian, baiña ez euskerak gorde edo gordetzen dituenak.
Eztira, geienez ere, euskerarenak, zenbait dialekturenak bai-
zik. Eta dialektu oietan ere zearo eta osoro betetzen eztirela
esan bearrik ez." "Eta, axulartarrek beintzat geiago begira
bear luketena, lege oiek eztira literatur-izkuntzarenak: erri-
izkuntzarenak dira uts-utsik. Literatur-izkuntzan zein den itz
eta orazioen lekua, banan-banako estatistikak bakarrik era-
kus lezake. Aldez aurretik esan genezake, ordea, beldurrik
gabe, estatistika orrek agertuko lituzkean legeak eztirela
Altube jaunarenak izango. Ez al digute erakutsi gauza bat
dela erri-izkuntza eta bestea, oso bestea gero, kultur-
izkuntza?" "Geiago ere esango nuke. Ur uts-utsak edateko
balio eztuen bezala, ezta euskal-joskera uts-uts orrek ere
gogoz irakurtzeko edo entzuteko. Nabarmenago oraindik:
euskal-adimenarentzat ez ba'da ere —eta eztakit orrelako
entelekiarik inon arki ote ditekean—, ots atsegiñagoa duela
euskal-belarriarentzat Axular'en prosak Altube'k eredutzat
autetsi dizkigun zenbait zatirenak baiño. Ezta dena irabazia
izan, bear bada, azken urteotan. Nekearen nekez irabaziak
galtzen utzi ditugu, batere kezkarik gabe" (13).

17. Mitxelenaren kritika hau, Altuberen legeen zehazta-
sUNETAN gehiegi sartzten ez dela, bereziki da Krutwig-en eragi-
nez sortu zen literaturari buruzko mogimendu berriaren
aurrean, Villasante bera ere bide horretan zehar murgilduri-
kakoen artean nabarmenenetariko bezala agertzen zela, hark

(12) R. M. de Azkue, "Particularidades del dialecto roncalés", *Euskera*, XII (1931), 308 orr., *Arzatzak eta otsoa* titulua ematen dio ipuinari.

(13) Luis Mitxelena, "Arnaut Oihenart", *BRSVAP*, IX (1953), 460, 462 orr.

hartzen duen postura. Krutwig-en planteamenduek, dudarik gabe, etendura bat sortzen dute gerra aurreko joeren inguruan, eta funtsean, forman ez bada ere, Mitxelena, jadanik linguistika gaietan abiatua, hor lerrokatzen da. Altube bitartekoa da eta gero ikusiko dugunez mogimendu berritik hurbilen eta iturburuan agertzen den garai zaharreko gizona. Ez da harritzekoa, hura izan baitzen purismoaren kontra, gerra hasi baino lehen zegoen giro hertsia hartan, saiatu zena, edonorentzat ezaguna denez. Sintasi kontuan jendearen aurrean puristago agertzea konpensaziozko zerbait zen dudarik gabe.

18. Berriz biztu zen, nik neuk eraginik, *Euskera* aldizkaria 1956-garren urtean eta han argitara zen Altuberen erantzuna eta Villasanteren lana (14). Altubek erauntsiari eusten dio eta berak nagusien bezala emanikako hiru sintasi lege dakartza gogora. Erantzunean 1946-garren urtean Baionako "Congreso de Estudios Vascos" delakoan "La Unificación del Euskera Literario" tituluaren azpian eginikako hitzaldi baten zatia ematen du (15). Altuberen azken garaiko pentsamendua ezagutzeko axolazkoa denez gero hona aldatzen dugu:

"Otro morfema de utilidad indiscutible, es el prefijo verbal **bait-** afortunadamente empleado en gran parte de Guipúzcoa, aunque en la parte que va hacia Goierri es sustituido en general por el prefijo (sic) **-ta**; así mientras hacia Beterri se dice:

"Goazen etxera, euria **baita** (o **bai-da**)" hacia Goierri se dice:

"Goazen etxera, euria **da-ta**."

"Basta leer los textos de los escritores continentales para apreciar la soltura, la gracia y la expresión que da a la frase euskérica el uso corriente del tal sufijo **bait**: por lo cual sería recomendable su generalización en el euskalki común.

"Hay otra razón que encarece la utilidad del uso del prefijo cuestionado. Veámosla.

(14) S. Altube "(Sobre sintaxis vasca) Literatur-euskera", *Euskera* I (1956), 9-13 orr., L. Villasante, "Comunicación del P. Villasante sobre la réplica del Sr. Altube al Sr. Michelena acerca de sintaxis vasca", *Euskera* I (1956), 14-18 orr.

(15) *Eusko-Jakintza* III (1949), 181-204 orr, ikus 191, 192, 193 orr.

“Hace ya una cuarentena de años, un culto escritor guipuzcoano, el sacerdote señor Orkaiztegi, se ensañó contra el giro erdérico que desde entonces se llama el “zeiñismo”, giro del que se había hecho un empleo abusivo, especialmente en cierto catecismo de la Doctrina Cristiana, escrito en un guipuzcoano estrafalarío. Así, por ejemplo, en el pasaje del Credo que decía: “Jesukristo gure jauna, *zeiña* konsebitu zan Espiritu Santuaren graziaz eta birtutez”.

“Pero en la reprobación de tal *zeiñismo* hemos ido demasiado lejos muchos *euskalzales* peninsulares (sin exceptuar al que escribe estas líneas).

“La construcción gramatical a la que se le aplicó despectivamente el nombre de “zeiñismo” consiste en emplear los inquisitivos como *Zein, Zer, Nor, Noiz, Nun* no propiamente en su verdadera función indagatoria o interrogativa, sino en la llamada por algunos lingüistas “anafórica”, vale decir como pronombres o adverbios relativos, que caracterizan en las lenguas que nos rodean casi todas las oraciones subordinadas construidas con verbo conjugado; así en ejemplos como:

“Sea *cual* fuere”. “El día en *que* te vi”. “La persona a *quien* hablé”. “La casa *donde* nació”, etc.

“Ordinariamente esta clase de dicciones, sobre todo las relativamente breves, pueden y deben construirse en euskera, como se sabe sin recurrir a tales interrogativos anafóricos; así el euskaldun traduce, más o menos perfectamente, las precedentes frases castellanas, en la siguiente forma:

“Dana dala” o “Dana dalakoa”.

“Ikusi zindudan eguna”.

“Itz egin nion gizona”.

“Jaio zan etxea”.

“Pero hay frases complejas en las que la construcción popular (y esto ocurre más o menos en todos los idiomas) no llega a satisfacer las condiciones de claridad necesarias.

“Axular por ejemplo, que hace un empleo abusivo (hay que reconocerlo) de los pronombres y adverbios anafóricos, se sirve de ellos también en casos suficientemente justificados

por el deseo de procurar una clara expresión de sus ideas; así en la siguiente frase:

“Munduko gauza guztiak, kondentzen dute alferra; *zeren* hartaz bertze guziek empletzen **baitute** bere denbora, *zertako* egiñak **baitira** hartan” (*). “Todas las cosas del mundo condenan al vago. Porque todas menos él emplean su tiempo en aquello *para lo cual fueron hechas*”.

“Para muchos euskaldunes quizá resultaría más clara la segunda frase de ese texto de Axular, invirtiendo así algunos de sus términos:

...“*zeren* hartaz bertze guztiek, *zertako* eginak **baitira** ta hartan empletzen **baitute** bere denbora”.

“Podría sustituirse también la flexión verbal **baitira** por *dira-n* sin perjuicio (al parecer) para nadie y aumentando, en cambio, la comprensibilidad de la frase para los oídos bizkainos y gran parte de los gipuzkoanos, así: “*Zeren* hartaz bertze guztiek, *zertako* egiñak *dira-n*, eta hartan empletzen **baitute** bere denbora”.

“Está a la vista que el pueblo no acude en sus conversaciones a construcciones tan complicadas: él expresa las ideas de este género dislocándolas y desdoblándolas en forma de poder manifestarlas en dos o tres frases más cortas.

“El Príncipe Luis Luciano Bonaparte había escrito sobre esta cuestión, que los pronombres relativos “eran desconocidos en el vasco primitivo”. A esto contestó J. Vinson como sigue:

“Ese caso no es especial del euskera: ¿es que el indoeuropeo prototipo, l'*Indogermanische Ursprache*, tenía pronombres relativos? El empleo de esos pronombres supone una sintaxis ya complicada, una cultura moral relativamente superior, una educación en alguna suerte literaria, lo que no es ciertamente el caso de los pueblos primitivos” (**).

“Análogamente se expresan los lingüistas más modernos, tales como Vendryes y Darmesteter. Este último escribe:

* *Guero* (Bordelen, M. DC XLIII) p. 34.

** *Revue de Linguistique*, Tome IX, p. 217.

“La sintaxis de la lengua escrita es la parte del lenguaje que sufre lo más fácilmente la marca del escritor, pero lo más frecuentemente la sintaxis de la lengua hablada y familiar ignora esas sabias combinaciones” (***)

“Los euskaldunes *continentales* acuden en sus escritos con bastante frecuencia al uso de los interrogativos anafóricos. El “Guero” de Axular, sobre todo, está desde arriba hasta abajo plagado de ellos; allí hay una cantera inmensa de especímenes de frases así compuestas; convendría examinarlas para entresacar los modelos que, por ofrecer medios de expresión ventajosos, merecen ser imitados.”

19. Villasante-ren lana, *Euskera* aldizkariaren ale berean ondorik argitaratua, bitarteko egitera dator. Altube-k *Erderismos* delakoan finkaturikako legeak hark gorde egin behar direla esan bazuen ere Euskaltzaindiaren sarrera hitzaldian, Mitxelenaren kritikak zirkin eragin ziola aitortzen du eta harrezkero bere baitan eta baita besteren bidez ere ohar-turik, ez lukeela horretan lehengoa hain bermu sostengatuko.

“Alguna temporada que he estado tomando la lección de Catecismo a los niños de nuestro barrio de Aránzazu, dio Villasante-k, me ha parecido observar que esta construcción impecablemente ortodoxa según los cánones del Sr. Altube, se les hace difícil de tragar. Eso de tener que aprender respuestas un tanto largas en las que la atención tiene que estar como suspensa y sin descanso hasta el fin, en que viene la principal, era algo con lo que siempre tropezaban los pequeños.

“Además, aún en el lenguaje hablado suele el pueblo apartarse con bastante frecuencia de estas reglas, y creo que hay razones prácticas de comodidad, etc., que explican este hecho. Una vez que a uno de estos niños de Catecismo le mandé narrar la parábola del hijo pródigo recuerdo que empezó de la siguiente manera:

“*Gizon batek eukan bi seme.*”

“(Eso, después que a mí me la habían oído contar al modo consabido:

“*Gizon batek bi seme zeuzkan.*)

*** *Cours de Grammaire de la langue Française*, I partie, p. 39 (Paris, 1891).

“El hecho puede tener su explicación psicológica; echando primero el verbo, el narrador hace una pausa y tiene tiempo para pensar lo que tiene que decir a continuación. Ya razones de este orden o parecido hay mil, que aún en el lenguaje hablado nos hacen apartarnos de las reglas de una sintaxis ideal.

“Amak esan du kalera joateko, eta an au ta ori ta bestea egiteko...”

“Si trasposiciones semejantes son corrientes en el habla oral (porque son indudablemente más claras), con mayor razón se han de poder hacer en el escrito.

“A un Padre predicador de la Orden tengo oído que en Navarra existen pueblos absolutamente euskaldunes que en su habla no guardan muchas de las mencionadas reglas de Erderismos. Y recuerdo en concreto el precioso libro del P. Iraizoz, compuesto en vascuence navarro, *Yesukristo gure Yaunaren bizia* (Pamplona, 1934), en el que nunca o casi nunca se guarda aquella regla del “*gaixotu egin da aita*”; ello es sin duda debido a que el vascuence oral que el autor toma por norma, desconoce tal regla” (16).

20. Villasante-ren hitzok ikuspegi berri bat ekarri zuten, badela estilo narraziozko bat argi uzten baitu. Gainera, narraziozko estilo, herri ipuinetan hain ugari agertzen den horretan, ez du hiztunak bakarrik erraztasunaren bidetik jotzen, horrela gerokoa pentsatzeko astia duela, berak dioenez, entzulearen gogoia ere adi gelditzen da gero datorrenari begira, bereziki haurra baldin bada.

Ikus dezagun hurrengo testoa, Juan Manuel Etxebarria eta Ander Manterola-k 1976-77-garren urteetako lanaldian Basilio Etxebarria hirurogei tñ hamazortzi urteko artzainaganik Zeanurin bildua: “Supileor dao Itxinean. Atxulaurgo bentanati(k) sartute eskoatara. Andi(k) aurrera dao Askorrigan.

(16) *Op. cit.*, 16, 17 orr. Nafarroan *egin* delakoa Bizkai Gipuzkoetan bezala ez dutela erabiltzen argi ikusi ahal izan nuen bertsolarien txapelketetan han zehar ibili nintzen garaiean. Hain zuzen ere Bautista Madariaga Arantzako bertsolariari horrezaz galde egin nion eta erantzunetarik ondo ohartu nintzen kontesto eta zentzu horretan ez dutela ezertarako erabiltzen. Ifarraldeko autoreetan ere zail da halakorik aurkitzea.

Axe be leku polite! Askorriganetik agiri de Orosko, barranka gustie da Orduñe alderdie..." (17).

Edozein modutan ere orduan izan ziren eztabaidok euskal literaturaren bide zabalagotikako loraldi berriaren atarian daude.

21. Bide beretsutik dabil Aita Justo Mari Mokoroa ere 1966-garreneko agorraren 8-an Iñaki Eizmendi, Basarri-ri egin zion karta batean. Hain zuzen ere azken honek hitzen ordenuagatik kritika gogorra egin zion Beobide-ren liburu berrargitaratu bati, honela (18):

"Oso egun gutxi dirala, A. Krispin Beobide prantziskotarrak idatzitako liburu bat irakurtzeari ekin nion. "Asisko Loria" da liburuaren izenburua. Aurre-itzak A. Villasante Euskaltzaingo akademiko jakintsuak idatzi ditu. A. Villasantek berebiziko txaloak jotzen dizkio; oso goitara jasotzen du. Orduko erri-euskeraren ispillu jatorra utzi digula esaten digu. Tamalez, irakurri ditudan orri bakarretan, ez tet ikusten iñongo ispillu jatorrik. A. Beobideren zati bat: "Biurtu zion aurra iñudiari, esanaz: aur au izango da santu aundi bat; guarda biar dezu beraz arrixku guzietatik arreta bizi batekin". Zati au, erderarekin kutsutu gabeko euskaldun oso batek era ontan esango luke: "Au esanaz biurtu zion aurra iñudiari: Aur au santu aundi bat izango da; arreta berezi batekin guarda bear dezu arrixku guzietatik". Era ontan idatzia egon balitz esango genuke... orduko erri-euskera egoki ta aberatsa zala. Beste zati batean au dio A. Beobidek: "Aitaren naiari txit ondo semeak erantzun zion". Nere aita ta aitona zanak era ontan esango zuten: "Aitaren naiari txit ondo erantzun zion semeak". Orrialde gutxi ditut oraindik irakurriak. Beldur naiz ordea gerora ere olako utsegiteak erruz ez ote diran izango. Joskera baldarrez liburu egokirik egin ote diteke?"

22. Mokoroa-k eginikako karta luzetik zati hau aldatzen dugu:

(17) Ikus "Gorbeia inguruko ipuñak eta esaundak", *Etniker*, 3. zenbakia, iraila 1978, Bizkaiko Etniker taldea, Instituto Labayru ikastegia, Bilbao, 113 orr.

(18) *La Voz de España* egunkaria, "Mi atalaya montañera", 1966-VIII-7.

“Baña esaiguzu, arren Basarri! Itzak itzakin lotzearen legeak nungo gramatikan dauden osorik eta *diran bezela* erakutsiak. *Diran-diran bezela erakutsiak!*

“Bá dakizu noski’ Altube-k eta, oso tajuz artu zizkatela bere itxura batzuk euskerari, eta jatortzat dauzkala edozeñek’ aek azaldutako legeak... ¿Ez al da ordea *beste legerik?* ¿Lege estu orietan sartu bear al da *euskeraren joan-etorri guzia?* ¿Ez al du gure izkuntzak nun-ibillirik, muga orietatik landara?... Ni nerez’ baietzean nago... Bá dala beste legerik ere. Nik esango nuke’ berezko “iraña” gal-azten diola askotan itzaren iturriari, dalako gramatika estuegi orrek; eta ibilpidea lotzen edo trabatzen izlari naiz idazle *nor-danari...* *Izan bear dula beraz euskaldunarentzat’ ainbeste estuasun eta kezka-gabe ibiltzen utziko dion igespideren bat bederen!...*

“¿Ez dute bada or batzuk eta besteak esaten, gizonen arteko izkuntza guziak, —iñun diran korapilloz, arantzez, eta sorginkeriz josiak egonakatik-ere— *Logika*-tik sortuak dirala berez, eta *Logika*-ren erraño bizi?... *Logika* utsa aitatzea gutxitxo baderitzazu’ emaiouzu lagun *Estetika*’ eta egiña dago. Ots bada: ¿zenbat *arpegi* ikusten dizka *gauza bakoitzari* *Logika*-k? —*Ditun ainbat*, ezta? —Zenbat beraz? Atera kontua zerorrek, nik eztakit-eta, al badezu... Ederki esana. Zenbat *alderdi* ta saieskera... zenbat *saiets-bide* artu dezaiozke beraz izkuntza baten jabe danak bere “gauza”-ri, begika ta segika? —Bere izkuntza orren *Estetikak* norañoko eskua artzen uzten dion... esan bearko! —Orra bada! Ori da arrazoia!

“Izan bear du beraz igespide ori Euskaldunak... Bá al du ordea?... Baita-ere!... Buruan darabildan guzia esateko astirik-gabe ari naiz; baña itz gutxiz naikoa izango dula uste det’ zu bezelako aditzalle onak:

“¿Zure ta nere adiñeko euskaldunik bá ote da, suondoan onako onen antzera ipui zarren bat kontatzen aditu eztunik?... “*Beñ bizi omen ziran’ aita ta ama’ ta Katalin da Benardo... eta biak juten omen ziran’ eskolara... eta egun batean amak esan omen zioten’... eta Katalinek ikusi omen zituen pertzean’ Beñardoren atzaparrak gal-gal gal-gal irakitzen zeoztela...* etc.” Zuk eta nik, eta beste edozeñek’ irakurri ditzake olakoxe ipuiak, erri-erriari jalki zaizkan bezelaxe jatorrik’ edozein folk-lore liburutan. Egingo nuke’ eundaka

urtetan orrelaxe esan izan dirala ipui oiek gure sukaldeetan. Zuk ez? Gure basarrietako laratzak izketan baleki!...

“Joxeri esaiozu’ etortzeko!... Aitari galde-iozu’ ea noiz etorriko dan...” “Sartu zan tximistaka,... jo zun ostikoz mandioko atea, artu zitun sega-gotoak,... eta izkutatu zan laio-tzean barrena...” Oen antzeko esaerak’ zuk eta nik eta beste edozeñek’ belarri-belarritan daramazkigu... ez beti euskalgaitoen aotik entzunak. ¿Erderak euskerari erantsiak? Orixe bai ez nukela esaten asmatuko!... Antziña-antziñako izkeramodua dala bai, iñundik-ere! Gogoan izango dezun *Milia Lasturr-en* kanta... ez atzo goizekoa bera! *“Arren, ene andra Milia Lasturko... mandatariak egin deust gaxtoto: zerurean jausi da abea, jo dau Lastur-ko torre gorea... Eroan ditu ango jauna eta andrea,* etc. Andik beraxeago: Mondragoeri **artu deusat gorroto, giputz andraok artu ditu gaxtoto, Iturrioz-kalean andra Maria Baldako,** etc.

“Esan-postura guzi oetan’ bá dirudi’ bere buruari naiz entzuleen azpitikako galde txikiak egiñaziz ari dala itzegillea: “Beñ bizi omen ziran’... (Nortzu?)” —“Biak juten omen ziran’... (Nora?)” —“Joxeri esaiozu’... (Zer?). Eta abar eta abar... Nik ala esango nuke.

“Zuk orain zere artean egingo dezuna —eta ni-ere ortantxe nago—: Itzai indar emateko moduak? esaeraren doñuak’ azentuak’ asko esan nai dula... alegia. —Orratx! Orixe ta bera! Irakurleari’ euskal-irakurleari’ lagundu egin bear litzaiokela nolabait’ itzak olako ta alako tokitan ze doñu bear duten eta ura eman-azten. Altube zanak-ere alako zerbait aurreratu zigun aspaldi, iñor askok aintzakotzat artu ezipadio-ere oraindañokoan.

*“Beobide-ren liburuaz’ ezer gutxi gañeratu bearko dizut, beñ onezkero. ¿Ez al zaizu iruditzen, guziz bestelako itxura emango ziokeela praile bedeinkatu ark *Asis-ko Loriari,* ipui zarren gisako gertaerak ez baño bere buruan ernetako gogamenak artu balitu idaz-gai? Irakur zazu “Amabigarren burua”-ren azken-atala: “Egiten dio Santuak agur Españari”. (Edizio zarretik ari naiz; eztakit *Auspoa*-renak zeñ orritan dakarren). ¿Ez al diozu beste tankera bat artzen jardun orri?*

“*Asisko Loria*’ Frantziskotarren elizetan pulpitutik irakurtzeko egiña izango zala uste det: garai artan eta andik askoz geroagoan-ere Irugarren Ordenak indar aundia zun Tolosa batean. *Entzuteko bezela idatzia beraz. (Galdera txiki-ka ari zanari erantzunez bezela, esan nai det)*. Orra, gaur dan egunean ondo gogoan artu bear litzaken gauza, liturgiako irakurketak jendea gogaitu ez lezan; euskaldun belarriarentzat *zeñen joan-etorri aundiko arazoa dan’ itzak aurreraxeago ala atzeraxeago jartzea: itzak elkarrekin ondo lotzeak zenbat esan nai dun gure jendearentzat.*”

23. Ez da alferrikakoa izango hemen aipatzea 1967-garren urteko *Jaunaren Deia*-n agertu ziren hiru lan. Tituluek berek ederki azaltzen dute gaia: Lekuona’tar Manuel’ek eta Mokoroa’tar J. M.’k, “Au da nere gorputza” ala “au nere gorputza da?”, Akesolo’tar Lino’k, “Sagarako itzak gure idazleetan” (“Au da nere gorputza” diotenak. “Au, nere gorputza da” diotenak. Bitara diotenak), (1967), 139-154 orr. Lekuona *auxe da Nere Gorputza* delakoaren alde ateratzen da, Mokoroa-k bietara ondo dagoela dio. Aita Lino-k autoreen testoak ematen ditu, batera edo bestera edo bietara diotene-nak.

24. Rudolf P. G. de Rijk-ek “Is Basque an S.O.V. language?” artikulua argitara zuen 1969-garrenean, *FLV*, I (1969), 319-351 orr., eta euskaraz nagusi den eskema, baina ez bakar, *SOV* dela adierazten du, enfasiar indartzen den fokoaren kontua ere gogoan harturik, gramatika sortzailearen arauera.

25. Latinez ere baziren arrazoi estilistikoengatik posizioaren aldatzeak fraseko elementu bati indar berezia eman ahal izateko. Horrela, adjetiboaren leku normala, euskaraz bezala, sustantiboaren atzean joatea bazen ere inbersioa egirik enfasi berezi bat hartzen zuen: *bellum ciuile* > *ciuile belum*. Honek gaztelanian badu bere ordaina, epiteto izena hartzen duela, batzuetan zentzuz ere aldaera txiki bat sortu zaiola. Alderdi batetik: *es un hombre bueno*, eta bestetik *es un buen hombre*. Jakina, euskaraz adjetiboa bere posizio normaletik ezin aldatuzkoa da eta lizentzia poetiko bezala ere, egun-go bertsolarien artean bederen, aldaketa ontzat ez hartzekoa, posizio predikatiboan ez baldin bada. Genitiboarekin ere berdintsu gertatzen zen latinez: *domus patris* > *patris domus*.

Disjuntzioa ere bazen latinez: *magnam belli gloriam*, eta baita translazioa ere, eta abar. Hain zuzen ere ordenu normala apurtzeak berak ematen zion indar berezia.

26. Behin Euskaltzaindiak 1972-garreneko urriaren 27-an Donostiako Diputazioan izan zuen batzarrean Aita Villasante-k eskaturik hitzaldi bat egin nuen eta bide honetarik abiatzen nintzela hurrengo hau azaldu nuen, jadanik Deustuko ene ikasleei azaldu izan niena:

Gizona ona da frasea gogoan hartzen baldin badugu, eta frase hori berori izan zen exenplotzat ipini nuena, ordenu normal batean egina dagoela eta ez diola inongo galderi erantzuten, aski dela beste norbaiti zerbait adierazi nahi izatea inolako enfasi gabe horrela esateko. Ordenu hori apurtzen baldin bada, ordea, hartzen duela balio enfatikoa. Esaterako, norbaitek *ona gizona da* esaten baldin badu, sujetoa predikatu nominalaren lekuan kokaturik, *gizona* hitza oso markatua gertatzen dela eta *gizona* dela ona dena eta ez elkar hizketan ari direnak edo hitz egiten duenak eta entzuten duenak edo dutenek gogoan duten beste inor, emakumea esate baterako, hori baldin bada gogoan dutena.

Gizona da ona ere zentzu berdintsukoa dela, frasearen lehenengo lekua hartzen duena, berboa ondorik doala eta gainerako elementu guztiak geroago, markaturik gelditzen baita. Narraziozko kontesto batean, ordea, gorago ikusi den bezala, marka hori neutralizaturik geldituko litzateke eta berboaren ondoan geldiune bat eginik eta dagokion azentua emanik beste zentzu batez markatua izango genduke, narraziozko estilo bereziz, hain zuzen ere.

Predikatu nominala markatu nahi baldin bada aski dela, nion, frasearen lehenengo lekuan berboaren aurretik ematea, sujetoa atzera iragaiten dela: *ona da gizona*. Lehenengo lekuan ez balego, geldiune bat egin beharko litzateke haren aurretik, dagokion azentua emanik, lehenengoan balego bezala indar izan dezan.

Jakina, baietza markatu nahi baldin balitz *bada ona gizona* esan beharko litzatekeela, berboari lehenengo lekua emanik, eta lehenengo lekuan jarriko ez bagendu eta gainera predikatu nominalaren ondorik, geldiune eta azentu bereziaz markatzen dela, kondiziozko *ba-* berrekailuarekin nahasi

nahi ez baldin bada. Hala ere, lehenengo lekuan ez joanik, baina bai predikatu nominalaren aurretik, hau da, inbertsioa eginik, berboa ezezkoa denean bezala, normalki baiezkotasunez markaturik agertzeko joera duela, eta kontesto horretan azentuaz kondiziozkotasuna agertu nahi balitz ere zail gertatzen dela agertzea, kondiziozko *ba-* berrekailuak ez baitu inbersiorik eskatzen. Halako problemarik ez da sortzen, ordea, berboa perifrasi baten bidez azaltzen denean, baiezkorako ez baitu normalki *ba-* berrekailurik hartzen, batek *ez da etorri* esanik, beste batek aurrekoaren atrazioz *bada etorri* erantzuten ez baldin badio, *bai, etorri da* erantzun beharrean. Goragokoan, jakina, *bai, gizona ona da*, edo *bai, ona da gizona* ere esan daitezke.

Beraz, adjetiboa posizio predikatiboan normalki, inolako enfasirik hartzen ez duela, dagokion izen sintagmaren atzean doa, edo, beste elementu bat bitartean agertzen baldin bada, atzerago: *Maritxu nora zoaz eder galantori* kanta ezaguneko zatia ederto dator hemen. *Eder galanta Maritxu!* markatua litzateke, ordea, *ederra eguna!* esaten dugunean bezalaxe.

Berdintsu gertatzen da bestelako egituretan ere, hala nola, *mutikoa gizon egin da* edo iragankorra izanik *mutikoak sagarrak jan ditu*. Eta predikatiboa dutela *hiru baserritar artzain joan dira Ameriketara* edo *amak seme bi artzain bidali ditu Ameriketara*, lehenengo frasea iragangaitz dela eta bigarrena iragankor.

Funtsean hori esan nuen han eta gogoan dut beste batzuen artean han zirela Haritschelhar, Villasante, Lafitte, Kintana, Aita Altuna eta orain gure artean ez den Aita Angel Goenaga ere. Azkenengo biak ez ziren konforme agertu, bereziki Goenaga. Izan ere Aita Altuna-ren metodoan, *Euskera ire laguna* alegia, geroago *Euskara hire laguna* izango zena, kasu guztietan egiten ziren galdeak, baita ene ustez markatuak ez zirenetan ere, eta ene belarrietarako ez zetozen ondo.

27. Mitxelena-k, 1978-garren azkenbururaino salgai izan ez genduen *Fonética Histórica Vasca* delakoaren bigarren argitaraldian, gorago ikusi ditugunen azentua estudiatzen du Errenteriako hizkeraren arauera (19).

(19) San Sebastián 1977, 581, 582 orr.

28. Geroago Aita Altuna-k bere tesia argitara du eta bertan hurrengo hau irakur dezakegu: "El género mismo narrativo, constituido por las acciones o, como se dice, por las funciones, implica que en él el actuar se erige en elemento inquirido. Y el nivel del **hacer** o **actuar** se expresa gramaticalmente por lo común con los verbos. Esta concepción resulta, por lo que al vasco se refiere, cuando menos sospechosa, toda vez que, de ser el verbo *simpliciter* el elemento inquirido, debería éste ir reforzado, como en la frase 5. de las arriba mencionadas (*nik bart etxean legatza jan egin nuen* (← ¿qué hiciste con ella?), por **egin**: "...**jan egin nuen**" ("La comí", que en vasco reviste la forma "**comer** es lo que hice", en oposición a cualquier otro destino en que pudiera acabar la merluza: "La eché a la basura", "se la dí a un amigo", etc.). Este **egin** nunca refuerza al verbo en tal lenguaje narrativo-descriptivo. La razón pudiera ser ésta: en la exposición-narración de unos hechos objetivos no es pertinente destacar que tal acción concreta es realizada **en oposición** a cualquier otra que hubiera podido realizarse. Ni cabe razonablemente esperar del oyente —aun supuesta su presencia y siendo él el destinatario de la narración, aún con formas alocutivas respetuosas— una instancia poniendo en duda la verdad de las funciones que se narran" (20).

29. Horren ondorik Mitxelena-k Euskaltzaindian irakurririkako eta gero *Euskera* aldizkarian argitara emanikako lan batean, oraino Aita Altuna-ren tesia argitara gabe zegoe-la, baina beretzat ezaguna zela, hurrengo hau dio: "Gure euskalkietan, mendebal aldekoetan, ez da, zerbaiten berri ematen ari garenean, *egin*-ik erabiltzen: **etorri egin da** eta horren antzekorik, alegia. Hori erantzunari dagokio, galdegaia aditza bera denean. Dakidanez, Altunak ikusi du hau lehenbizi" (21).

30. Jose Migel Barandiaran-ek agerturikako testoe-k, ordea, ez digute hori ontzat hartzera uzten. Esaterako, Atauen bildurikako *Jentillbátza* ipuinean, eta Barandiaran fidagarria bada ere bildu izan dituen gaietan, kontuan izan behar

(20) Francisco María Altuna Bengoechea, *Versificación de Dechepare. Métrica y pronunciación*, Bilbao 1979, 31, 32 orr.

(21) Luis Mitxelena, "Euskal hizkera eta euskal neurkera", *Euskera*, XXII (1977), 731 orr.

dugu, gainera, kasu honi buruz, bera ataundarra dela jaiotzez eta orain bizitzez ere bai, halako testoa dator: *Beñ Agerreko nausie gaizkittu eiñ ementzan, da Elizakók eittea ementzijôn.* Eta Kortezubin bildurikako batean: *Garaiko andra orrek, orraziek artu da etzera eruan eiñ zituen* (22). Begien histakoa da narraziozko izanarren *gaizkittu eiñ ementzan eta eruan eiñ zituen* agertzen direla.

Etxepare-ren testuetan halakorik ezin irakurri izatea zeharo normala iruditzen zait, ordea, gorago Nafarroarako

(22) *Obras completas*, II, Bilbao 1973, 24 orr.

La gentil de Boluna

“Munduan asko lez, arto kokkofez” (1).

Garaiko (2) andra bat Goikolako (3) efotatik etzera doiela, Boluna (4) ondoko kurtzeruen enbra bat uliek ofaztuten topau eban. A ikusi ebanien, itxi beren ofazijek, da iez eiñ eban. Garaiko andra ofek, ofaziek artu da etzera eruan eiñ zituen. Ufengo gabien etofi eijakon ofazien bille etzera uliek ofazten egon zana, da esan eutzen emoteko, bestela bengantzie eingo eutzela. Gero emon eutzon, da jentille juen zan kobara.

“Ori alan bada sartu deittella kalabazan, da urten deittella Bitorijako plazan”

(5).

(Contado en 1919 por D. Tomás de Kobeaga, de Kortezubi.)

JENTILBATZA (6)

Lênao Jentillbâtzan jentillek bizi izete ementzien. Askotan gaez Agefea (7) jetxi oi ementzien t'an jokûn aitze ementzien eusentiñ ollârak kukufuku jo artên.

Beñ Agefeko nausie gaizkittu eiñ ementzan, da Elizakók eittea ementzijôn. Au jentillek jakintzoenên, kristauek ez izen âtio, ufezko sobrekamea Agefea jetxi ementzoên, da bearekiñ gaixôn oia, Elizakók jûteako, jantzi ementzoên.

Agefêkók jentillen sobrekamên gure izen nunbaitt ê, ta ala iltzez oiâri josi ementzioên, da baitta geroxâgôn ollâfâri kukufuku joâziñ ê. Jentillek ollârkantue aittu zoenên, eldu ên sobrekamêri ta berealdiko erûn abittu ementzien; baño sobrekamapuskât oiân ertzâri jositta bertan geatu emen zitzaieñ. Urdûn jentillek deadaif eiñ ementzoên Agefe Agefe zan bittârtên etzala etxe artan erik eo makik paltako. T'afezkeo erie eo makie beti ize emen da Agefen.

(Ataun)

Los que refieren la precedente leyenda saben que no es verdad el hecho que se consigna en la última frase; sin embargo, nunca dejan de hacerlo constar.

(1) Fórmula con que se empiezan los cuentos y leyendas.

(2) *Garai* = caserío de Gabika.

(3) Molino de Nabarniz.

(4) Cueva y sima de Gabika.

(5) Fórmula con que se acaban los cuentos y leyendas.

(6) Peña de Ataun en cuyo pico existen una cueva y las ruinas de un castillo medioeval.

(7) Caserío de Ataun, cerca de *Jentillbâtza*.

eta Ifarralderako ikusi ahal izan dugunez. Eta alderdi horietako testo bakanen batean ager baledi ere behar bada ez luke zentzuaren aldetik ikuspegi berbera izango.

31. Gertatzen dena da galderik ez dagoela galde egiten denean baino eta *etorri egin da* perifrasiak ez diola nahi ta nahi ez galde bati erantzun behar. Beste modu batera esanik *etorri egin da* delakoa *etorri da* formaren aldaera estilistikoa besterik ez dela eta balio enfatiko hartzen duela. Ez du hemen oposizio markaturik adierazten —Altube-k halakoak *opositivos* deitzen ditu eta bere terminologiaren arauera haiek *inquiridos* edo *ininquiridos* izan daitezke (23)—, *ona gizona da* diogunean bezala, azkenengo honek sujetoa predikatu nominalaren lekuan kokatze hutsaren bidez lortzen duela zentzu markatu hori, sujetoaren lekuan adjetiboa baitu, predikatu nominal besterik ezin izan daitekeena. Gertatu ere inolako ilungunerik gabe gertatzen da elementuen inbersioa.

Altuberen arauera ezezko fraseetan ezetza bera da normalki markatzen dena. Hala ere Arratian *asko da ba agertu ez (eg)itea!* eta horrelakoak, *egin* eta guzti, erabiltzen dira, baita miragarritzko balio enfatiko gabe ere, eta ez diote ezeri erantzuten: *yan ez (eg)itea esta ona*.

Halakoak jadanik Betolaça XVI-garren mendeko Dokto-rearen dotrinan aurki ditzakegu: *Bigarrena juramenturic equin ez eytea necessidade бага... Bostgarrena iñor hil ez eytea... Seygarrena luxuriazco peccatuetan jausi ez eytea*, eta abar (24).

Eragin erabiliz gero, *egin* partizipioaren faktitiboa alegia, *hil eragin* eta halakoak ditugu, sustantibo berbala *hil eragitea* eta ezezko forman *hil ez eragitea*.

32. *Egin* delakoa kontesto horretan erabiltzearen iturburuari eta hedadudari gagozkiola ez dugu ahortzi behar, beste alderdi batetik, mendebal aldeko hizkerak direla, hain zuzen ere, laguntzaile bezala garatu dutenak, *-eza* Euskal Herri osoan zabaldurik zegoenaren lekuan. Ikus Bizkairako RS, n.º 513: *Eznea guria ta odola errorean atera neban ta ezer yrabaci ez neçan ta ene beychua galneçan* 'leche, mante-

(23) *Erderismos*, op. cit., 36-42 orr.

(24) Luis Michelena, "La Doctrina Cristiana de Betolaza", *BRSVAP*, XI (1955), 96 orr.

ca y sangre saque de la teta y nada no gane y perdi mi vaquilla', n.º 167: *Erioac ereçan Butroeco alabea Plencian* 'el tartago mato a la hija de Butron en Plencia', *ereçan* < **era* + *eçan* < **ero* + *eçan*, baina hala ere, n.º 319: *Iaraunsi edo yrabaci eguia* 'heredolo o ganolo', n.º 555 (TAV, 175 orr.): *Gastelauna neguia senar, oñean arr ta beguian negar*, n.º 75: *Oparinac nenguian bearguin ta alperqueric auzquin* 'la necesidad me hizo obrero y la vagamundez pleytista', *azkenengo biotan neguia eta nenguian sintetikotzat har daitezkeela*, n.º 535: *Oçac yl eguia Mayaça ta ni asenenza* 'el frio matole al Mayo y me hartó a mí', egungo eguneko Lekeitioko hizkerara honela itzul daitekeena, 'otzak ill eban maiatza ta ni ase eiñ nendun', bigarren perifrasiak *eiñ* duela erdian eta lehenengoak ez, eta errefau zaharrean agertzen diren berboaren aldetikako matizazioak zeharo gorderik, Oihenarten errefau berean ez bezala, n.º 253. Gauza agiria da Bizkaiko hizkeretan, eta neurri batean Gipuzkoakoetan ere bai, *-eza* sustraidunak zeharo desagertu direla eta ordeztu *egin* delakoaren flesioak nagusitu direla laguntzaile funtzioan, jadanik modu indikatiboan erabiltzen ez badira ere, gainerako hizkeretan *-eza* berboaren flesioekin gertatzen den bezala bezalaxe.

33. Gramatika sortzailean ere ez da galdegaia delakoa oinarritzat harturik planteatu arazo hau, gure artean egin izan den bezala. Horrela, ikus dezagun nola biltzen duten Jean Dubois eta haren lankideek *Dictionnaire de linguistique* delakoan (25) gai hau: "Le terme d'*emphase*, repris à la rhétorique, désigne en syntaxe transformationnelle un accent particulier porté sur un constituant de la phrase. Le signifié "*emphase*" peut se trouver représenté uniquement au niveau phonologique (intonation particulière frappant un mot de la phrase), mais aussi par des constructions syntaxiques (*Paul, lui, c'est un ami*)". Euskaraz *Adiskidea da Paul* edo *Paul, adiskidea da*, eta enfasirik gabe *Paul adiskidea da*. "*Emphatiser une phrase*, c'est lui faire subir une transformation emphatique. Soit la phrase *Pierre a vu ce film*; elle peut subir une emphatisation qui extrapose l'objet, par exemple, dans *Ce film, Pierre l'a vu*". Hain zuzen ere gure inguruko hizkuntza

(25) Paris 1973. Ikus *emphase*, *emphatique*, *emphatiser*, *focus*, zehatz eta mehatz azaltzen baita gramatika sortzailearen teoria. Baita ere *topique* eta *topicalisation*. Esaterako, euskaraz *lo ondo egiten zuen*, baina *jan ez dioenak lo* eta *jan topiko* bihurturik jartzen ditu.

romanikoak, osagarri zuzena berboaren aurrera eramaten dutenean, beharturik daude harekin konkordantzia egitera, bestela normalki ez (26), euskaraz edozein kasutan gertatzen dela, ordea, konkordantzia finkatzen duten elementuak berboari loturik, ezin aska daitezkeela, agertzen baitira. Edozein modutan ere euskarak osagarri zuzenaren markatu gabeko lekua berboaren aurrean du, bestelako neutralizaziorik gertatzen ez baldin bada behintzat, hizkuntza romanikoek ez duten erara, atzean baitute. Berdintsu gertatzen da osagarri zeharkakoarekin, erdaretan konkordantziaren distribuzioa berdina ez bada ere. Jakina, euskaraz fraseak osagarri zuzenik baldin badu eta zeharkakoa berboaren aurrean badao, azkenengo hau markaturik gelditzen da. Baina berboaren forma iragankorra agerturik ere zuzen horietakorik ezin izan dezakeenean, ordea, haren aurrean ere markatu gabe joan daiteke, frasearen hastapenean kokatzen ez baldin bada: *Martinek Begoñari itxaron zion* (Axularrek ere *iguriki*, zentzu berekoa, datiboari begira erabiltzen du). Alabaina, baita *Martinek Begoñari kalean itxaron zion* ere. Berboaren forma iragangaitza agertzen denean, ordea, ez da hori beti gertatzen: *Martini bere osaba etorri zitzaion*, sujetotzat ergatiborik ezin izan dezakeena, eta *Edurneri dirua eman zaio*, ergatiborik ez duenez gero alderdi horretarik pertsona gabea; baina bereziki autore zaharretan *ekin*, *jarrain* (*jarraitu*, *jarraiki*), eta abar, datiboari begira iragangaitzaren forman agertzen ziren eta zenbait kasutan hura berboaren aurrean jartzen zen: *Behiari darraicala doha...*, Oihenart, n.º 555; hala ere *atxari ura dario*, ahozko literaturaz iritsi zaiguna.

Enfasiak nabarmentzen duen terminoari fokoa deitzen zaio.

(26) Esaterako, gaztelaniaz *Martín ha visto (las) (unas) manzanas* 'Martinek sagarrak ikusi ditu' esaten bada ere, *Martín le ha visto a Begoña* 'Martinek Begoña ikusi du' konkordantziaduna erabili behar da osagarri zeharkakoa duten fraseen gisara: *Martín le ha visto la mano a Begoña* 'Martinek Begoñari eskua ikusi dio'. Frantsesez, ordea, konkordantzia gabe: *Martin a vu Pierre*. Enfasidunak lirarteke: *Martín las manzanas las ha visto / las manzanas las ha visto Martín* 'sagarrak ikusi ditu Martinek' / 'Martinek ikusi ditu sagarrak' edo 'sagarrak Martinek ikusi ditu'; *Martín a Begoña le ha visto / a Begoña le ha visto Martín* (o si se prefiere *la ha visto*) 'Martinek Begoña ikusi egin du' / 'Begoña Martinek ikusi du' edo 'Martinek ikusi du Begoña'; *Martín a Begoña la mano se la ha visto / Martín la mano se la ha visto a Begoña / a Begoña la mano se la ha visto Martín o la mano a Begoña se la ha visto Martín* 'Martinek Begoñari eskua ikusi egin dio' / 'Martinek Begoñari ikusi dio eskua' / 'Martinek ikusi dio eskua Begoñari', eta abar.

34. Gorago 3. paragrafoan nioenez Azkue-k *prepositivo* hitzaz frasearen hastapenean ezarri behar omen dena adierazten du eta honetan Azkue-ren teoria eta Altube-rena ez datoz bat, frasearen lehenengo lekuari ematen baitio balio nabarmena. Altube-rentzat, ordea, berboaren aurea da, bereziki hura jokaturik agertzen denean. Ikus dezagun zer dioen Azkue-k *Euskal-izkindea* delakoan:

“*Andrés hoy un hermoso pez de(sde) el mar nos lo ha traído*, euskaraz: *Andresek gaur arrain eder bat itxasotik ekarri dausku*. En esta oración están expresos los cuatro elementos, y además también dos complementos del verbo: *Andresek (Andrés)* = ser (sujeto), *arrain eder bat (un hermoso pez)* = objeto, *ekarri (traído)* = atributo (atributo de acción o verbo), *dausku (nos lo ha)* = existencia o auxiliar, *gaur (hoy)* = complemento de tiempo, *itxasotik (desde el mar)* = complemento local. La palabra dicha por mí en primer lugar o cualquiera de las otras cinco puede tener para el que habla la mayor importancia, o su intención podrá tener en cualquier elemento, o por decirlo mejor, *la palabra inquirida* puede ser cualquiera de las seis palabras: por lo cual la construcción de estos elementos y complementos no suele siempre ser la misma. a) Si preguntásemos al que habla *cuándo* lo ha traído, o bien si su intención fuera manifestar *el tiempo*, esta sería la construcción de esta oración: **Hoy Andrés nos ha traído del mar un hermoso pez**, euskaraz: **Gaur Andresek arrain eder bat itxasotik ekarri dausku**. b) Preguntado *de dónde* lo ha traído, o sin que nadie le pregunte cosa alguna, si la intención del que habla fuese manifestar *el lugar*, he aquí la construcción: **Del mar un hermoso pez nos ha traído hoy Andrés**, euskaraz: **Itxasotik arrain eder bat ekarri dausku gaur Andresek**. z) En caso de querer manifestar el locutor sobre todo *quién* lo habría traído, ésta sería la construcción: **Andrés hoy un hermoso pez...**, euskaraz: **Andresek gaur arrain eder bat itxasotik ekarri dausku**. d) El que quisiera expresar intencionalmente *qué* sea lo que hubiere traído, manifestaría la oración de esta manera: **Un hermoso pez nos ha traído hoy...**, euskaraz: **Arrain eder bat ekarri dausku gaur itxasotik Andresek**. e) Pocas veces suele estar la intención del que habla en pro del verbo, menos veces en las oraciones largas. Si alguno preguntara *¿os lo ha traído Andrés?*, euskaraz: *ekarri dautsu Andresek?*, la importancia está en *el traer*, y podría

responderse *nos lo ha traído Andrés...*, euskaraz: *ekarri dauku Andresek...* Con los modificativos *ez* y *ba* (es con los que) suele con más frecuencia tener el verbo la movilidad a su favor", 342 orr.

Gainera Azkue-k hurrengo hau ere badio: "Cuando los elementos tienen casi idéntica importancia, primeramente se dice *el objeto*, a continuación *el verbo* (o el atributo) y el auxiliar si lo necesita; *el ser* puede muy bien decirse antes del objeto, o detrás del verbo y del auxiliar", 344, 345 orr.

Hala ere ene ustez Azkue-ren teorian, lehenengo lekuari balioa ematen saiatu zela, bada zerbait Altube-renean landu ez zena. Egia esateko, frasea berboaz hasten baldin bada hark du hain zuzen ere enfasi berezia, neutralizazioak salbo: *zure laguna dator* markatu gabea izanik, *badator zure laguna* markatua da, ordea. Jakina, *zure laguna badator* ere antzekoa da. Baina forma perifrastikoak erabiliz gero *etorri da zure laguna* besterik ez da markatua, zeren *zure laguna etorri da* baino ezin esan baitaiteke, sistema perifrastikoa osatzen duten elementuen ordenua aldatu gabe *ba-* prefixo baieztatzaileria flesio berbalaren aurrean sekula ezin sar daitekeelako balio kondizionala hartu gabe. *Zure laguna bada etorri* oso markatua da eta oso gutxitan erabiltzen da. Beste batek esanikako ezezkua baieztatzeko. *Bada etorri*, bakarrik entzuten bada ere, *bada etorri zure laguna* ez nuke entzuten denik esango. Ikus 26. paragrafoan azaltzen dena.

Ene ustez, gainera, *etxe bat egin dau Andresek* markatua da eta *Andresek etxe bat egin dau* ez, Azkue-k biak markatu gabekotzat ematen baditu ere, 344, 345 orr., baina neurre oinarria ez dut Altube-ren formulazioan finkatzen, sujetoa lehenengo lekutik berboaren atzera aldentzean baizik, lehenengo leku hori berboaren aurrean doanari utzirik.

35. Edozein modutan ere neurri handi batean eta lasai harturik Azkue eta Altube-k finkaturikakoak baliozkoak dira, batez ere Azkue-k 1891-garrenean esan zuena gogoan hartzen baldin bada: "...se ha explicado cuál palabra debe ponerse la primera. En caso de que las oraciones además de elementos tengan cuatro o cinco complementos ¿cómo se sabrá cuál debe decirse el primero, cuál el segundo, cuál el tercero, y cuál el último? Para esto debe recordarse también la impor-

tancia de los complementos, y no pudiendo hacerse bien esto, el buen *estilo* de cada cual acompañará al locutor o al escritor", p. 343 (27).

Beste alderdi batetik *elemento inquirido* delakoaren terminologia hautatu eta ondoren Altube-ren teoriaren formaz finkaturik hedatzeak ez dio arazo honi ilungune guztiak argitzeko mesederik egin eta berez duen zentzuari ez dagokion neurrian bederen mintzamolde hori baztertzea argitasunaren alde urratsa ematea dela uste dut.

(27) Nolanahi dela, ezin utzi daiteke aipatu gabe Harriet gramatikoak dioena, bere eritzia konstatatzeko besterik ez bada ere: "On place dans la langue basque indifferemment le cas devant les verbes comme, *salcen dut ene etchea*, ou *ene etchea salcen dut*, je vends ma maison, & c.", *Gramatica escuaraz eta francesez*, Bayonan 1741, 501 orr.

ADITZAREN GALDEGAI FUNTZINOAZ

Arrasate, 1979-XII-20

Adolfo Arejita

Azkuek formulatu eta Altubek desarroillatu eben *galde-gaiaren legeaz* berbarik asko egin daitekean arren, gure jarduna apala izango da asmoz: aditzera mugatu gara, eta gai hau sakon aztertzeke ezinbestekoak diran ahozko euskeraren erabillera errejistrorik egiten saiatu ez gareanez, mugatua dogu lantxo hau.

Idazle zaharren batzuk ere kontuan hartu ditugu lan hau egiterakoan. Bizkaierazko idazle klasikoren batzuk, ain zuzen ere: Jose Antonio Mogel, Pedro Astarloa, Prai Bartolome, Olaetxea, Pedro Antonio Añibarro eta Juan Jose Mogel. Baita Agirre Asteasuko eta Iturriaga ere erabilli ditugu kasuren batzuetan.

Lanaren mugaketa

Sebero Altubek euskal joskera zehaztu eta gramatika arauetan finkatu gura izan ebanean, mendebaldeko euskalkiez baliatu zan gehien baten, bizkaieraren eta gipuzkeraren egiturak ardatz legeaz hartuaz. Ba ekian ifar aldeko eta nafarreraren kutsuko euskalkiek oso-osoan betetzen ez ebena bere arauketa, aditzari egokionean berariaz, baiña aberatsen eta ugarienak, hemendirengo euskalkiei eritxoen nonbait.

Guk ere, euskeraren osotasunari jaramon egin beharra gogoan izan arren, mendebaldeko euskerakuneetan finkatu dogu geure lana, bizkaierazkoan batez ere, beti ere batasunari begira geure ikusgunetik egindako aportazino bat izango dalakoan.

Dana dala, euskerak gure inguruan halako ta halako egikerak dituelarik, Euskalerrri guztian erabilten ez diralako atxakiaz, joskera bera auzitan jartzeak ez dau balio.

Aditza galdegai. Erabillera

Aditzak, galdegai danean, jokaera ezbarდიწak izan oi ditu ahozkoan eta idatzizko euskeran. Ahozko euskeran hainbat egikera eder eta aberasgarri txitean pitean azaldu oi diranez, idatzizkoan darabilguzanak ostera askozaz urriagoak eta finkatuagoak dira, klitxetuagoak. Alde batetik, idazterakoan aurreko literatur tradizinoan ikasitakoak heredutzat hartu oi ditugulako. Bestetik, euskal literaturan, ahozko euskeratik urreko izkera mota eskatzen daben literatur jeneroak behar beste landu eta ugaritu ez ditugulako. Alkarrizketa, antzerki eta narratiba bizi gutxi da gure literaturan. Poesiazkoak eta esakune luzeak eskatzen dituen sermoe liburu ta enparauak, ostera, moltzo ugariagoa egiten dabe. Beraz, euskal literatura idatziak ahozko euskeraren adierazpide asko errejistratu ez dituan ezkeru, beharrezko deritxogu bateko ta besteko iturriei jaramon egitea.

Ahozko euskeran sarri entzun geinkez honako erak, aditzaren baietz-ezetzak nabarmentzerakoan:

a) (Norbaitek ezetza diñotsonean) - *Ba da joan*, neuk ikusi dot eta.

b) *Joan... egingo zan*, baiña *deitu*, ez dau *egin* beiñik bein.

d) *Ikusi bai egin dogu*, baiña ordubete geroago.

e) *Ekarri ba dakar* bazkaria, behar bada otzituta egongo da baiña.

Idazleek ere ahozko euskeratik adierazpide asko batu egiten dabe, baiña neurri baten. Izan ere joskeraren, izkuntzaren barne-egituraren kontzientzia ta ikertza Azkueren belaunaldiaz datorkigu. Orduantxe emoten deutse bere garrantzia eta ikerlanak egiten asi ere bai. Lehenago, Juan Antonio Mogeleg esaterako, euskeraren aberasgarri dirala-ta ainbat berba ta esakune eder batu baeban, joskera aldetik latin-erromantze landuen sunda askotxo somatzen zan.

Azkueren belaunaldi horretan Otxolua aitatu geinke eredu legez. Etenak egin arte ekin eutsan honek euskera biziaren egikera aberatsak idatziz emoten. Baita Azkuek berak, Agirrek, Kirikiñok eta beste askok ere bardin jarraitu eutsen bide honi. Azalekoak barik, euskeraren muin-muiñeko egiturak ondo erabiltearen kontzientziak eragindako frutu doguz S. Altuberen lan nagusi biak: *Erderismos* eta *El Acento vasco*. Bere lanok osotu, ugaritu eta, behar bada, ikusgune barri batetik begiratu geinkezan arren, arrezkero inork ez deute antzik emon. Eta neure eritxian, Azkuenagaz batera, lanik erraldoietakoa dogu euskeraren ikertzan, zentzunez eta begi zoliaz jokatuaz hainbat zeaztasun batu eta arrazoipetu zitualako.

Aditza galdegai. Erabillera

Aditza era bitara izan daiteke galdegai (eta Altubek azaldua labur labur aitatu baiño ez dot egingo): batetik aditzaren ekintza bera, beste edozein izen arrunt bailitzan: etorri, ikusi, joan... Azpi azpian ZER dogu itauna, baiña erantzuna, izen edo esaldi bat izan beharrean, aditza bera dogu:

ZER *dakar* ————— OGIA *dakar*
 ZER *diño* ————— IXILIK EGOTEKO
 ————— ETORRI DATORRELA
 ZER *egin dau* ————— APURTU *egin dau*
 IXILDU *egin da*.

Beraz, aditza esaldian galdegai danean, galdegaitasun hori azpimarratzeko darabilgun errekurtsua aditz-partizipioa da, lehen partizipioa. Aditzak izen baten zeregin berbera hartzen dau.

Aditz soilla danean, azpimarratze hori, bere partizipioa aditz jokatuaren aurretixoan ipiñiaz betetzen da:

Kepak JAKIN *daki*
Astiro, baiña ETORRI *dator*
Alperra zala baiña EGIN *egin dau*

Izan leiteke, halan eta ere, egikeraz holangoxeak izan arren, galdegaia beste itzen bat izatea.

ASKO *daki jakin*
Etorri BIAR *dator*

Aditz perifrastikoetan ere bardin: aditzaren ekintzagaitik itaun egikeran, aditz berorren partizipioak beteko dau zeregin hori, izen arrunt bat bailitzan, eta *egin* aditzak beteko dau bere lekua aditz jokatu legez:

Joxe etorri da — *Joxe ETORRI EGIN da*

Beraz, EGIN horri erantsi behar jakon -TEN eta -GO, oizko eta gerotasuneko aldi-ezaugarriak: *egiTEN*, *eginGO*. Baiña, halan ere, aditzizenak (*ekarri*, *etorri*, *joan*, *eroan*) ezarriko deuto bere nortasuna (iragankor edo irangangaitz iza-tea) aditz laguntzailleari:

Bidean GALDU $\overrightarrow{\text{egin}}$ DA

Tiroa BOTA $\overrightarrow{\text{egin}}$ EBAN

Aditz-ekintzaren marka honeek bizkaieraz zaintzen dira osoen, eta gipuzkeraz ere bai (zenbat eta mendebal alderago, gehiago). Aditz soilla naiko bakar eta urri darabilgun ezkerro, *IBILLI DABIL*, *JOAN NOA*, *EKARRI DAKAR* eta holako erak ere gutxi erabilliak dira, batez ere idatziz. Barruti mugatua dabe. Aditz perifrastikoaz egiñak, ostera, zabal dabilz gaur egun, ahoz zein idatziz, mendebaldeko euskalkietan berariaz.

Eta bizkaieraz, derriorrezko beharrizan barik ere, sarri sarri entzuten da ahoz *EGIN* hori beste aditzen bati laguntzen. Adibidez honako esaldi moduetan:

Zeu be zoaz, autoa gero ekarri EGITEKO
Afaldu daigun orain, gero kantatu EGITEKO
Sarritan EGITEN dogu jan kanpoan

Edo Añibarroren esalditxo hau:

"Sendotuco nozula, aurrerantzean jausi ECEITECO becatuan" (ESC. LIB. or. 154).

EGIN sartuaz aditz-ekintza indartzeaz era berean, jazo leiteke beste galdegaiaren bat egotea ere. Esaterako:

Txistua, jo ONDO egiten dau, baiña musikarik ez daki.
Izan, BERTOKOA da, euskerarik jakin ez arren.
Zaldun hori SARRITAN etorri egiten da, ez dakit zertara baiña.

Azentuak berebiziko garrantzia dauka holako aditz-egikeretan; esangura bat emoterakoan, azentuak ere bere leku berezia jagoten dau:

*Azkenean ere ETORRI egin dira
Etorri GAUR datoz*

Idazle zaharregana joten badogu, aditz-ekintza galdegai izatearen markarik nekez ikusiko dogu. Lehen esandako idazleetan barrena, arakatu eta arakatu ekin ondoren, EGIN laguntzaillerik aurkitu ere ez dogu egin ia, galdegai kasu argiak izan arren:

“eta obiaren sarrera arlosaz ichia bacegoan ere, IRTEN ZAN andic”

“Esan zuan Jesusec, ILLERACICO ZUELA Juduac...”
(J. B. Agirre, III, or. 5)

“Baiña pecatarijac eguiten badau bere pecatu guztien penitencija,..., BICICO DA ta ez illgo” (J. A. Mogel, CONF. ONA, 1853, or. 3).

“¿Cer esan gura dau Cristo ILL ZALA?” (Olaetxea, CRIST. DOTR. 1894, or. 47).

“ta aguinduban dagozanac, OBEIDU BIAR DEUTSEE errazuazco ordenetan” (Bartolome, EUSC. ERRIJ. 1816, or. 42).

“ichubac DACUSE, errenac DABILZ, sarnatijac GARBITUTEN DIRA, gorrac DANTZUBE, ilac VIZTUTEN DIRA...” (P. Astarloa, URTEC DOME. 1903, or. 13)

Azaldutako adibide guztiotan egoan EGIN edo soilletan aditz-partizipioa sartu beharra, baiña ez da holakorik subertatzen. Noiz edo noiz bai horregaitiño, Seber Altubek *ERDERISMOS* liburuan batzen dauan P. Bartolomeren hauxe esate-rako:

“Oneek esatia, galdu EGITEN dogu... geuri bere ostu EGITEN deuskubee...”

Egin beharko gendukean itauna, ia noiztikoak ditugun markaok. Berandukoak ete dira? Baietz dirudi, baiña gogoan izan behar da ahozko euskeran sortu diranetik eta idatzira pasatu diranera aldi luzea igaro oi dala. Ekialdeko eta iparraldeko euskalkietan agiri ez diranez, euskera guztian hedatua egon danik ere ezin esan daiteke. Euskerak, adierazpide

beharrak eraginda, aditz arrunten gaiñera galdegai marka hori sortu egin dau goiz edo berandutxoago, eta mendebaldeko euskeran hain zuzen ere.

Aditzaren BAIETZ-EZETZAK galdegai

Kasu honetan geure itauna aditz-ekintza gertatzen BAI dan ala EZ dan itauntzen dogu. Erantzuna, jakiña, baterakoa zein besterako izan leiteke:

1. *Baietza*

1.1. Aditz *soilla* danean, itaunean zein erantzunean BA edo BAI izkiak sartzen dira aditz aurretixoan:

– *BA dakizu nor datorren?*

– *Bai, BA dakit ondo ere.*

Baiña, baietz eta ezetz eztabaida sortzen danean, Lekeition adibidez BAI erabilten dabe, eta jakingarria dogu zeaztasun hau:

– *Ez da egia – BAI da!*

– *Zuk ez dakizu kontu hori. – BAI dakit!*

– *Etorriko ete da, ba! – BAI dator.*

Zelan edo halan, aditz-ekintzagaitik eta haren baietz-ezetzagaitik itauntzen daneko kasuak alkarren interferentzia bat izan dabe, nahasteko formak sortu eragiñaz. Gaiñera, aditz partizipioa, normalki aurrean ipiñi arren, atzean ere jarri daiteke:

– *JAKIN BA DAKI, baiña ez dau esan gura.*

– *JOAN BA DOA, baiña ez bere gogoz.*

– *Euskalduna BA DA IZAN, baiña euskerarik ez daki*

– *Askorik ikasi ez arren ere, IBILLI BA DABIL.*

– *Dirua berak BA DAUKA EUKI, baiña ez zuri emoteko.*

Nahasteko egikerok *baietza* indartzeko dira, aditz-ekintza nabarmentzeko baiño gehiago. Azentua ez dago aditz-partizipioan, forma jokatuan baiño.

BA marka hori barik ezin erabili leiteke aditz soilla galdegai zeregiñean, aginteeeran edo izan ezik (*Zatoz hona, Zoaz hortik,...*). Idazle zaharretan, ostera, behin baiño sarriago agiri dira **BA** marka bako aditz soillak galdegai eginkizunaz (gutxienetan, jakiña). Pedro Astarloagandik hartutako adibideok ikusi:

“DUA mutil, nai nescatilaren bat otzein edo crijadu”
(URT. DOM. 1903, or. 9).

“DUAZ confesetara, eztaquiye icasbide, edo doctrinieren apurric...” (Ib. 9-10).

Kasurik gehienetan, ostera, ondo darabille idazleok **BA** marka hau.

Adibidez:

“Baiña BAGOZ legue batzuc, jocuaren gainian gorde biar dirianac” (Bartolome, EUSC. ERRIJ. 1816, or. 29).

“BAQUIT ceure neque guztien artean e- ninduzula ceure gogotic aztu” (Añibarro, ESC. LIB. 1802, or. 206).

“BAZAUT guztiz esainduric, loituric, beartsuric, ta gaisoric nagoala. Baiña BAQUIT bere Zu zareaala Osaquilla...” (Ib. 159).

“Cristoc Aitaric, edo Amaric BAUCO Jangoico dan partez BAUCO Aita cén dan Aita Eternua” (Olaetxea, CRIST. DOTR. 1894, or. 46).

Azentua **BA** eta aditz soillaren gaiñean dago jarria.

Aditz soilla, **BA** eta guzti, esaldi hasieran edo esaldi barruan agertu oi da. Eta, naiz eta barru-barruan baietzagaitik itauna beti egon, ez dauka derriorez egindako itaun bati erantzuten egon beharrik:

“BA NOA, berandu da-ta” erantzun geinke, erderaz *“me voy”* esatea legez, eta inork itaunik egin barik. Beste hainbeste ondorengo honeetan ere: *“BA ZABILZ bai, eta azkenean jausi egingo zara”*, *“BA LEITEKE iñor ez agertzea”* eta abar.

Bitartean erabili ezinik ere ez dago, **BA** izkia eta azentua beragan dituelarik: *“Ni ere BA NOK izatekoa”*, *“Bi-*

zitzeko lain *BA DAUKAT eta*”, “*Asteguna BA DA, baiña katurik ere ez dabil kalean*”...

1.2. Aditz *perifrastikoa* daukagularik, aditzaren baietza adierazteko ez daukagu marka agirikorik normalki, azentua edo izan ezik. Adibidez:

“*ETORRI DA eta ez dau ezertxo ere esan*”

“*JAKINGO DAU zeozer, nonzebarri utsa da-ta*”

Baiña eztabaida baten baietz eta ezetz ibillita, kasu honetan ere *BA* bategaz indartu geinke aditzori:

EZ da etorri. – BA DA ETORRI, neuk ikusi dot eta.

– Zenbat jokatu ez dauala ezer ekarri. – BA DAU EKA-RRI, neuk dakit eta.

Dana dala, gehienetan beste honetara erabilten da hola-ko kasuetan: “*BAI ekarri dau*”, “*BAI etorri da*”.

Aditzoi errez igarten jake galdegai direna esaldi hasieran. Ez ostera esaldi barruan, testo idatzia bada. Pausa eta azentua izan oi dira galdegaitasunaren iragarle bakarrak kasu honetan:

– Gure semea... JOAN ZAN Ameriketara, aspaldi joan ere.

– Hamaika holako... IKUSI DITUT neure bizitzan.

– Gure etxean... EGON ZARA zu behin baiño sarriago.

Aditz aurretxoan geldiu-netxo bat egiten da eta aditzaren gaiñera jausten da bete-betea azentuaren indarra. Euron ordez “*BAI joan zan*” edo “*BAI ikusi ditut*” esan geinke.

Aditz soillaz hitz egiterakoan aitatu dogunez, hemen ere aditzekintza galdegai daneko egikerekin nahastean erabili daikeguz orain artertzen gagozanak. Ots, aditz partizipoaren eta aditz laguntzaillearen tartean *EGIN* sartuta. Aditz partizipioaren ostean geldiu-nea egiten da eta *EGIN* indartzen da azentuaz. Aditz partizipioak, hemen beste edozein (galdegai ez dan) esaldi atalen betekizuna dauka:

“*Kepa, etorri... EGIN DA, baiña atzera joateko*”

Beste hau jarriko baleu, bardin litzateke:

“*Keparen etorrera IZAN DA honezkero*”

Beste adibide batzuk:

“Galdu... *EGINGO DOGU, baiñ kostatuko jake bai.*”

“Ikusi... *EGITEN DIRA banakaren batzuk, baiña aspaldi aldendu dira.*”

“Bizi... *EGIN DIRA batzuk, baiña otsorik gehienak joan ziran.*”

“Etorri... *EGINGO DA gero, ikusia ikusita?*”

Esaldiko aditz ez dan beste atalen bat tartekatzea ere subertatu daiteke, zelan halan hitzorri indarra emoteko. Adibidez:

“Urten *GAUR* egingo dogu, eta eldu *BIAR* elduko gara.”

Idazle zaharrei dagokienez, aditzaren baiezkoa azaltzeak ezelango eragozpenik ez daukan ezkerro, zuzen erabilten dabe beti. Hara hemen adibidetzat:

“*POZTU ZAITEZTE egun andi onetan*” (Agirre, PLATICAC, III, or. 3).

“*DAMU DOT biotz guztiric*” (Añibarro, ESC. LIB. 1802, or. 8).

“*Ainguerubac bere JO EVEEN Jesus jaijo zanian. Ceruban bere JOTEN DAVEE. Eleiseetan bere JOTEN DA*” (Bartolome, EUSC. ERRIJ. 1816, or. 32).

“*JAGUI ZAN Jose, ARTU CITUBAN seina, eta bere Ama, eta ETORRI ZIRAN Israelgo lurrera*” (P. Astarloa, URT. DOM. 1903, or. 17)

2. Ezetza

2.1. *Aditz soillaz*, bere aurretxoan **EZ** izkia ipiñiaz egiten da galdegai funtzinoa: *EZ dator, EZ dakigu, EZ dabil...*

Ahozko euskeran fonetikaz aditzagaz bat egiñik erabilten da izki hori, ia beti: *ezTakit, Enoa, ezKoaz, Enekian, eTZenduan (eZenduan), eTXako, ezPadakar...*

Lege jakiñak jarraituaz egiten da batze hau: D > T; G > K; B > P. Gaiñera: Z + J > TX; Z + Z > TZ eta Z; Z + N > N.

Altubek berak ere ohartu eragiten gaituanez, aditzaren ezetza ez eze, beste galdegairik ere izan geinke, azentua itz indartu horren gaiñera jausten dala:

“Hik EUK ez dakik”

– *“KEPA ez dator” - “NOR ez dator?”*

Aditz-ekintza eta aditzaren ezetza galdegai diraneko formak batuaz honako formak sortzen dira:

– *Morroe horrek iraksteko JAKIN ez daki ezer baiña! Jakin EZ DAKI gauza haundirik, baiña ahalegin egiten dau.*

– *Osasuna zelan euki horrek, IBILLI ez dabil eta! Autoa ba dauka, baiña ibilli EZ DABIL beragaz.*

2.2. *Aditz perifrastikoaz*, aditzaren ezetza laguntzaillearen aurretxean EZ jarriaz egiten da. Orduan aditza atal bitan banandurik gelditzen da: EZ + aditz laguntzaillea / aditz partizipioa.

Esaldi soilletan gaur ordena horrexekin egiten dira esaldiok:

<u>1</u>	<u>2</u>
EZ GARA	OSATUKO

Esaldi menperatuetan ez da bardin jazoten:

1. *Osotzailletan (konpletiboetan)* bai zaintzen da 1- 2 ordena hori:

<u>1</u>	<u>2</u>	
EZ DALa	ETORRIKO	<i>esan dau</i>

2. Enparauetan 2 - 1 egikera darabilgu beti:

Modaletan:

	<u>2</u>	<u>1</u>
<i>Berbarik</i>	EGITEN	EZ DAU <i>ala dago gixajoa</i>

Zergaitizkoetan:

	<u>2</u>	<u>1</u>
<i>Inork</i>	JAGOTEN	EZ DAU <i>alako dago bertanbera.</i>

Erlatibozkoetan:

	<u>2</u>	<u>1</u>
	IKUSI	EZ DOGU <i>n gizonik ezin ezagutu.</i>

Lehenago, 2 - 1 egikera, ots, partizipioa aurretik dala erabiliko ete zan diñosku Altubek. Formarik zaharrena berau ez ete dogun. Esaldi menperatuotako lekukotasunaz gaiñera, esaldi soilletakoa ere ba daukagu idazle zaharretan. Bizkaierazko idazle batzuegandik hartutako 2-1 sistemako egikera batzuk:

- "*Ez, Jauna, neure ostatu pobre onetaric JUANGO ETZARA, ni ceure bendiciñoez bete baga*" (Olaetxea, CRIST. DOTR. 1894, or. 146)
- "*eta guc ELDU BERE GURA EZTOGU ain mirari andijac jazoten dirian Mezara*"
- "*baña EZAGUTUCO EZ LEUQUEE echecotzat*" (J. A. Mogel, CONF. ONA, Itaurre IV (Ib. 150/))
- "*ta bautismoco gracia GALDU EZ DARUE pecatu mortalic eguiten ez dabeenac*"
- "*eta ni beimbere JAGUICO ENAS becatuaren azpitic*" (Añibarro, ESC. LIB. 1802 (Ib. 1))
- "*Baquit GURA EZTOZULA becataria galdu dedin*" (Ib. 147)

Baiña orduraco ere 1-2 egikera franko erabilten eben, idazleok eurok darabille-ta. Adibidez:

- "*Errazuazco olqueetiac, ta diversinojac EZ DAU ERA-GOZTEN Jaungoicua servidutia*" (Bartolome, EUSC. ERRIJ. 1816, or. 17)
- "*Au eguinagaz echadi, edo familijetan, EZTIRA AUR-QUITUCO aimbeste ez-jaquite* (P. Astarloa, URT. DOM. 1903, or. 10)
- "*EZTEUTSUT ICHICO urteten nire arimaco ostaturic*" (Añibarro, ESC. LIB. 1802, or. 165)

Galdegaiaren kontuan ezezko esaldiotan ere ba dira biurrikeriak: 1-2 egikera daukagunetan, *EZ + Aditz laguntzaillea / Aditz partizipioa* bitartean beste izen edo esaldi atalen bat sartu geinkeala. Esaterako:

- "*EZ DEUSTEZEK gorroto ta iguin geijago EMOTEN*" (J. A. Mogel, PER. AB. or. 28)
- "*odola ateratiagaiti EZ LEUKKEE zubek legezkuak DIRU BEREZKORIK eruan biarko*" (Ib. 34)

- *“bada, gazte demporaco confesinoetan EZ OI DA AINBESTE CONTU TA ARDURA IMINI”* (Ola-etxea, or. 123)
- *“bada euren gomute bazara, ETZARA IÑOS JAUSICO pecatuan”* (Añibarro, or. 17).

Zer arrazoi euki leikean horrek? Ba, hitz edo txatal horri indarra emotea, azpimarratzea, zelanbaiteko galdegai indar bat. Guk *“Ez gara GAUR etorriko, BIAR baiño”* edo *“Ez da GELDI egoten”* badiñogu, GAUR eta BIAR azpimarratuak dagoz. Halan ere, horrek ez dau esan gura bitarteko txatal osoa azpimarratuta dagoanik. Goiko idazleen adibideetan dakusgu argiro zein dan hitz edo atal indartua.

Eta azkenez, esan daigun ezezko esaldiotan, ba daukagula izenak edo hainbako esaldi atalak indartzeko beste modu bat ere, aditzaren aurre-aurretxoan ipiñi eta berari azentu indarra emonaz. Esaterako:

“KEPA ez da agertu, beste guztiak bai”
“BERAK ez dau gura, nik bai”
“SASOE ONEAN ez zara etorri, bestela alperrik izango zan”

3. EZIN izkia eta bere erabillera aditz barruan

Gure lan honen azken puntu modura agertzen dogu atal hau, iñoiz eztabaida-istilluen sorburu izan daitekeala-ta.

3.1. Euskaldun jator askok EZIN izkia UKAN aditz laguntzailleaz erabilli oi dabe, eta aditz partizipioa atzetik dala. Esate baterako:

No puedo venir EZIN DOT ETORRI

EZIN honek ba dirudi UKAN laguntzaillea eskatzen dauala. Halan ere, eztabaidarik franko sortu da bazterretan. Guk geuk Bizkaialdeko berbakune batzuk aztertuz, jende elduak ondo darabillela egiztatu dogu: Maillabian, Zeanurin, Lezaman, Morgan, Durangon eta Arrazolan euskaldun jatorrek UKAN darabille:

“Ezin juat etorri”
(Mallabian)

“Ezin yoat in”
(Arantzazun)

Gazte eta ez hain gazte diranen artean, ostera, eskualde guztietan doa hedatuz IZAN laguntzaillearen erabillera. Arratiako jendeari "Ezin ñok yoan", Lekeitiokoari "Ezin naz dxuan" eta abar sarritxotan entzuten dira gaur egun.

Eta ahaleran, ostera, IZAN-en erabillera oso zabaldua dago: "Ezin NEINTEKE joan" esaterako, aitatutako herri guztietan darabille.

Idazle zaharretan, aditz iragangaitzekin, EZIN ipiñita ere, IZAN laguntzaillea agertzen da beti, guk ikertutako kasuetan:

"bizarra kendu baga EZIN EGON GEINDEZ" (J. A. Mogel, PER. AB. or. 34)

"Badaquite negua etorrico dala, eta orduan ECIN IRTENGO DIRALA beren eultzetic" (Iturriaga, or. 27)

"ECIN EZCONDU LEITE andra onen aistiagaz" (Olaetxea, ib. or. 114)

"edo ECIN beti Meza nagusitara JUAN OI DA." (P. Astarloa, or. 9)

"ta templura JUAN EZINDANAC." (Bartolome, ib. or. 41)

3.2. Aditzaren egitura

Gaurko euskeran, esaldi soilletan eta, batez ere egi-terako aditzekin, EZIN-Aditz laguntzaillea + Aditz partizipioa erabilli oi dogu, berbaz gabiltzanean berariaz.

1	2
EZIN DOT	ETORRI
EZIN IZAN DAU	ETORRI
EZIN IZANGO NEUKE	ETORRI
EZIN NEINTEKE	ETORRI

Goiko adibideok herri euskeratik zuzen zuzen hartuak ditugu. Baiña ahozko euskeran, eta kasu batzuetan, 1-2 egikera horrek aldakuntza batzuk ere ba ditu:

EZIN EMON IZAN DEUTSAT

Xedezko edo elburuzko esaldietan:

EZIN EMON IZAN DAGIAN
EMON EZIN IZAN DAGIAN

Gaurko erabilkera ugarienaren kontra, idazleetan beste honetara agertzen da gehienetan: *EZIN + Aditz partizipioa + A. laguntzailea*. Ara hemen kasu batzuk:

"Zuk *EZIN AITU ZINAIZ nik esan neikezan gauza asko...*" (Mogel, Per. AB. or. 37)

"Nik uste neban eztarri guztia euki biar ebala katigatuta, ta bertso gauzarik *EZIN GOMUTAU LITXAKIOLA*" (Ib. 51)

"Onaco aparteco bacocharen gogoco olgueetac gaiti, *EZIN errequela seguru bat IMINI LEGUI*" (P. Bartolome, EUS. ERRIJ. or. 28)

"orregaitic *ECIN inundic bere IGARRI AL EBAN...*" (P. Astarloa, URT. DOM. or. 6)

"*ECIN AURQUITU IZAN EBENIAN...*" (Ib. or. 18)

"Eztabe neurriric, *ECIN MUGATU, TA CEMBATU LEIZ...*" (Añibarro, ESC. LIB. 1802, or. 2)

"eta iñoc *EZAGUTU ECIN LEUQUEAN*" (Ib. 213)

"Senitasuna elduten bada irugarren gradu griño, *ECIN EZCONDU LEITE* (or. 115).

"Bai Jauna, bada berac lagundu baga, *ECIN ALCANZAU GUINAI gueure Salvaciñoia*" (Olaetxea, CRIST. DOTR. 1894, or. 54)

"*EZIN AZTERTU DABE nai leuquen gueija, EZIN SAMURTU DABE gogua*" (Juan Jose Mogel, CONF. COMUNIÑO, or. 40)

Kasu guztiok, irakurrjala, eurrezean batuak izan dira, eta baten izan ezik danetan aurkitzen dogu egikera bera. Ez ahaleran bakarrik, egiteeran bertan ere bai, naiz eta bakana-go agertu adizkera hau idalè zaharrotan EZIN izkiaz.

Esaldi menperatuetan gaur ere idazle zaharron egikera hau bizi bizirik dago oraindiñokarren, beti halan erabili ez arren ere:

EZIN ETORRI IZAN DAUALA
EZIN LORTU IZAN DAUANEAN

Eta IZAN aditza erabili barik beste honetara:

LORTU EZIN DAUANEAN
IRABAZI EZIN DAUALAKO
ETORRI EZIN BADAU

Osotzailleetan, ostera EZIN DAUALA ETORRI egikera darabilgu sarrien.

Hauxe izan da guztia. Besterik ez.

GALDEGAIAREKIKO AZTERGAI BAT EDO BESTE

Arrasate, 1979-XII-20

Lino Akesolo

Gai au noiztik onakoa

Euskal-joskeran galdegaia delakoak garrantzirik baduela ukatzerik ez dago. Galdegaiaren legea beti onartua edo ondo erabilia ez dala izan ere egia da; gramatikalariek oraintsu aurkitu eta aztertua da. Astarloak nolabait antz eman ziola dirudi. Euskaldunak ez omen du esango, erdaldunak bezela: Iré después de comer" (joango naz janda), "janda joango naz" baizik. Baiña Astarloak nik ez dakit nongo edo nolako filosofi sakonetara jo zuen, euskal-joskeraren lege au argitu eta azaltzeko.

Azkue izan zan (bere *Euskal-Izkindean*) "*elemento inquirido*" dalakoa asmatu eta ala bataiatu zuena. Berak euskeraz "gai bilatua" edo "itz bilatua" esaten zion. "Elemento inquirido" ori onako galdera auek ematen omen dute: *Nor, zer, non, zelan, noiz, zelangoa, zein eta zeinbat*.

Galde auei erantzuteko itzek, euskal-joskera jatorrez, esaldiaren aurrenengo lekua bear zutela esan zuen Azkuek "Euskal-Izkindea" orretan. Gai au ez zuen, orrela, argiegi uzten. Azterketa berriak etorri bearko zuten argi beteagoa egiteko. Eta olaxe gatoz Altube zanaren azterketa sakonagoe-tara.

Izan ere, Altube jaunak aztertu du gai au sakonen, eda-tuen eta zeatzen. "De sintaxis euskérica", eta "Euskerearen joskerea dala-ta" gaitzat arturik, "Euskal-Esnalea" aldizkarian plazaratu zituen, urrengorik urrengo, urtez urte, bere azterketa eta argibideak, eta geroago, dana bildu eta "Ederismos" liburuan argitaratu.

Gai au, gaur, gei-gutxi, Gramatikalaririk geienek jo eta aztertzen dute, izen batez edo bestez: 'galdegai, galdekizuna' euskeraz, "elemento inquirido" edo "mot de valeur, terme requis" (Lafitte), erderaz.

GALDEGAIA ZER DAN

Euskeraren lege au zer dan badakigu gutxi gorabera. Euskaldunak esaldiak asmatzean, dakiela edo ez dakiela, galdera nausi batzuei erantzuten omen die, eta egindako galderari erantzuten dion itza, mintzatzaillearen asmotan itz nagusia eta garrantzirik andikoena dana, aditzaren aurrean jartzten du. Galde-itzaren ordezekoak, euskal-esaldian, galde-itzak berak izan duen lekua darama. Nor dator? Aita dator, eta ez inñolaz ere, "dator aita". "Nondik dator? Menditik dator. Nola dator? Oñez dator, astiro dator, azkar dator", eta ola. Noiz dator? Gaur, oraintxe, biar, arratsaldean dator. Euskeraz ez dago: "dator menditik, dator gaur, dator azkar" edo olakorik esaterik. Gaizki esana legoke, euskal-gaiztoa litzake.

Lege onek badu beste alderditxo bat ere. Galdegaia aditzaren aurrean jarri bear dala esanez ez degu dana esan. Galdegai orrek, aditzaren aurretik joanez gaiñera, aditzari datxikola joan bear du; aditzaren eta galdegaiaren artean ez da etenik bear; biak bat egiñik bezela eta alkarri loturik esan bear dira. Koska au Lafittek ikusi duela uste dut ongien. Ona idazle eta gramatikolari onek dakarren esalditxo au: "Leihotik aurdikia da". Esaldi onetan "leihotik" aurrizki bezela lotzen zaio "aurdikia" itzari. Lafittek dionez, erderazko "defenestrar" itz batez esango bagenu bezela (Lafitte, Gram. n. 117, 2).

Lege au ongi gorde gabez, esaldi bat bera oker edo bi eratara ulertzea gerta daiteke. Bestela esanik, esaldi batek, batera esan, bestera esan, ez du gauza bera esango. Ona iru itz berdin: aita, etorri, da. Bi eratara esan dezaket: Aita etorri da, *aita* itza *etorri* itzarekin estu loturik dijoala. Onela, nor etorri da? galderari erantzun diot. Baiña beste era onetara: "Aita, etorri da" esaten baldin badut, beste galdera bati erantzungo diot: etorri al da? galderari. Erantzun bakoitzean

galdegaia zein dan, ari ematen zaio indarra. Leenengokoan, *Aitari* eman zaio indar au, eta aditzarekin batera dijoa, eta bigarrenekoan, *etorri* itzak artzen du indarra, joa, eta indar onek beronek banantzen eta bereizten du nolabait aurrean duen itzetik, edo onen ondoren etentxoia egin daiteke.

Egia da Altubek gai onegan azentuari edo doñuari ematen diola garrantzia eta azentuaren aldetik ematen dituela ainbat azalpen eta argibide. Etentxoia egin dan ala ez, indarra zein itzi ematen zaion begiratzeak ez ote du ainbeste edo berdintsu balio? Gaiñera azentua ez da alde guztietan berdiña.

ZEIN ADITZ JARRI GALDEGAIAREN ONDOREN, laguntzaillea ala bestea?

Aditza laguntzaillearekin danean, ez dabilta euskalki guztiak ildo beretik, ez diote ari leku berdiña ematen. Iparaldeko euskalkiek aditz laguntzaillea jarri oi dute galdegaiaren ondoren. "Orratzak baino ariak luzeago behar du izan", esango dute, guk, emengook, "izan behar du" esango genuken lekuan. Edo: "Nork du okela jan? Zakurrak du okela jan".

Ala ere, ez dezakegu esan aditz laguntzaillea aurreratze au iparraldekoena bakarrik danik. Eta ez bakarrik, gure bertsolariak, bertsoak bearturik, bide ori artu bear izaten dutelako. Itz-lauzko idazleek ere izan dute olako esaldirik. D. Agirre-ren esaldi bat dakar Altubek, onen argigarri, nere ustez ain argia ez dana! "Zeuen ondatsunari deutzagu zor". Ez dala ain argi diot, *zor* ori ez baita aditza. Nik adibide argiago bat aitatu nai dizuet, neronen aurtzarokoa, nere osaba bati luzarorako barregaia eman ziona. Bost-sei urteko nintzala, osaba orrenean nintzan, eta arek, zirikatzearren, neri: "Ara, guk lapikoa barria eta zuek ez". Eta nik: Lapikoa barria! Ba! Ori be, bateti baltzitu, besteti baltzitu, laster da zartu". *Laster da il, laster da galdu*, onelako esaldiak eurrez erabiltzen dira Bizkaian. Ona beste bat, Kardaberazena: "Deabruaren damugarri gaiztoan, santuak bear dezute izan". Kardaberaz, Ejerzizioak, II, 7.

ESALDI BAKOITZEAN ZENBAT GALDEGAI?

Esaldi bakoitzean bi aditz eta bi galdegai ere gerta daitezke esan bearra dago, eta bata aditz batari eta bestea besteari lotua aurki daiteke. Esaterako: "Gizon orrek ederki daki gezurrak zuritzan, ez dana badantzat ematen". Batak nola daki galderari erantzuten dio, eta besteak zer egiten edo zer zuritzen galderari. Gaiñera, bein baiño sarriagotan, norberak ere ez du jakingo zein dan galdegaia edo itzik garrantzitsuena ziur eta zeatz erabakitzen.

Altube zanak arlo onetan maisuki aztertu eta irakatsiek euskal joskeraren muiña argitzeko laguntza ederra ekarri dute, eta aurrerakada andia izan dira. Joskera-kontuan, euskerak gure inguruko izkuntzen molderik ez darabil; orretan bere berea duen orkoia eta egitura du. Itzak (euskal-esaldietan) atalka, sortaka bezela sartuak daude, alkarri tinko atxikiak, batzuk atxikiago eta lotuago besteak baiño. Euskal-joskeran, galdegaiaren garrantzia ukatuko duenik nekez aurkituko da gaur. Ala ere, ba-da joskera-araurik bete betean onartu ez danik. Beste batzuk, berriz, ez dira guztiz ongi ulertu edo estuegi artuak izan dira. Olakorik ere badegu.

"EGIN" aditz-laguntzaille arturik sortutako esaldiak

Joskera-arau bat, gure literatura zaarrean oiñarririk gabekoa, *egin* aditza laguntzailletzat arturik sortutako esaldiena da. Onelako esaldiak maiz erabiltzen dira gaur, bear bada maizegi. Literatura zaarrean ez dute ia aztarrenik utzi. Altubek Aita Bartolo Markin-Etxebarritarraren esaera bat edo beste aurkeztu digu. Beste guztiak berriak ditu, oraintsukoak, eta Bidasoaz onuzkoak, gaiñera. Lapurdi aldekorik bat ere ez. Ango euskalkietan ez ote da *egin* au onartzen? Lafitte jaunak baietz dio, itxasaldeko errietan beintzat. Baiña gramatikalari onek ez du ango *egin* au galdegaiarekin naastu ez alkartu. Esaten danari indar geiago ematekotzat dauka, ez bestetako. Ona berak jartzen dituen bi adibide: "Izertaldi on bat irabazi egin dut". Lafitté jaunak dionez, "izertaldi on bat

irabazi, orixe besterik ez dut egin'', esan nai du. Beste adibi-dea: "Etsaiak erraustu egin ditu". Emen ere "etsaiak auts biurtu, ez du gutxiagorik egin'', esan nai omen du. Literaturan nik onako au aurkitu dut: "Lurreko lertzoez zikindu egin da" (Prop. 1898,51).

"Egin" aditzaren beste erabilkera batzuk

Egin aditz onek izan ditu eta oraindik baditu beste erabilkera batzuk ere, galdegaiarekin zer ikusi andirik ez badute ere. Erabilkera bat, beste aditz baten ordeaz, aditz bera berriz ez aipatzearren jarririk: "Hala dabilanari gerthatzen zaikana egin zait neri ere" (Axular). Gomendiozko karta). "Konfesatu al zera? Bai, ni egin naiz, zuaz zu ere egitera." J. I. Arana, Euskal-Erria, 1881, 287. "Ni baño larriago/ezkontzeko bera. Zorrotz galdetu zidan:/Noiz egingo gera? (Txirrita, Galai bat etorri). Eta Chourio-ren au: "Hastantzen bazare Harenganik, maiz egiten zeran bezala" (Imit. Imit. III, 50, 2). Esaldi aue-tako *egin*, *egiten*, *egitera*, *egingo*, gerthatzen, konfesatzen ezkontzen eta hastantzen, berriz ez esatearren daude.

Eta egiteko au, beste aditz baten ordeaz sartzea, alegia, orixe besterik ez du, Altubek aztertu dituen zenbait esalditan. "Ekarri neuk egin neban", Altubek berak dionez, "ekarri neuk ekarri neban" ere esan daitekena. "Il be orrelaxe egingo dirala (il be orrelaxe ilgo dirala), Edo: "Irakurri, gitxi egiten dabe dabe euskaldunak, berdin liteke). Ainbat esaldi jator osatu edo sortu daitekez *egin* onekin. "Onek zer ikusi, a ikasi" egiten du... Dcminus Vobiscum: agindu eta emon ez, egin euskun... Ilondoan egin bear dira: ongarria itzuli, babazarra erein, eta txerria il..." Kanta zaarretan: "Askok egiten dio San Antoniori, egun batean joan, bestean etorri".

Orrelaxe, Iztuetak, aditz askodun esaldi bati askena emateko, eta guztiak alkarrekin lotzeko, *egin* aditzera jo zuen onako testu onetan: "Asi zan purrustaka, bein (baratzeko landare) batari murtxi, gero besteari ximikatu, zaiñak eten, besangak ausi, azalak zanpatu, mamiak miaztu, loreak usaindu, orriak igortzi, pipitak ortzikatu ete beste asmakeri guztiak... egiten" (Gipuzkoako Kondaira, 165-66.9

Esaldi auen antzekoak dira Altubek dakartzan beste batzuk ere: "Zuk ostera, "seme beartsuei kendu eta aberats zakurrei emon" egiten dozu... Orren aurrean guk "burua makurtu" egin bear dogu... Irabazi? "Galdu ez" egitea be nairoa izango dogu... Ik, emon bearrean, "euk jan" egin dok...

Esaldiok, noski, beste era batera ere moldatu zitezkean, baiña olaxe, dauden daudenean ere, badute beren koska eta zera, bai azentuak eta bai itzen alkartzeak emana. Olakoetan, esaldi mordoxka bat edo aditz-mordoa, *egin* datxikola jartzen da, onen geigarri bezela.

Eta onelaxe agertzen da *egin* au bertsolari askorengan, bertsoaren betegarri sartuta:

"Fogonerua trenetik/egin zan erori... Matxurarik etzaio/azaldu berari... (X).

"Zer edo nola dabilTZan/egingo zaie goatu... Lengo egunak egin zaizkate "gizarajuai muatu"... Soldaduzkako bertsoak, Auspoa (139), 69.

Orrelakorik ez nun pensatzen,/asko egin naiz arritu... (Id. 79.).

Ikusten danez, *egin* aditz onek gure izkuntzan leku zabaldu eta egikizunik asko. Emen esanak ez dira, noski, galdegaiaren joskerarekin ikusteko andikoak, baiña lagungarri, bai, izan daitezke, gai au ere ulertzeko.

Goazen, bada, arlo onetara, *egin* aditza eskatzen duten esaldietara, aditza bera galdegai dutenetara. Au noiz gertatzen da? Tartean, agerian naiz ez, urrengo galderen bat danean: Zer gertatu zaitzu? Urliari zer egin diozu? Artu ala artu ez, egin du? Erantzunak, aditzari loturik *egin* eramango du, aditz laguntzaille egiten diola, eta biak elkaturik dijoaztela. Otzitu egin naiz... Geixotu egin naiz... Beldurtu egin naiz... Urliari zer egin diozu? Jo egin dut... Ez dut jo egin, ikutu besterik ez... Irabazi ala galdu, zer egin duzu? Galdu egin dut...

Erantzun auetan aditza bera da galdegai eta erantzun orrek *egin* aditza artzen du, laguntzaille bezala, bera beti berdindin gelditzen dala. Zer egin duzu nik emandako sagarrarekin? Jan egin dut, bota egin dut, eman egin dut". Ola erantzungo

du euskaldun jatorrak, motz-motz erantzun nai ez badu: "jan, bota, eman". Eta esaldi auetan, ez dakigu, erantzuten duenak esan arte, zein izango dan erantzuneko aditza.

Beste erantzun batzuetan, galdegaia aditza izan arren, ba dakigu aurretiaz ere zein izango dan erantzuneko aditza, galderakoa bera. Bai ala ezko galderetan gertatzen dau au: Etorri da, bai ala ez? Ekarri du, bai ala ez". Galdera auek, *egin*-ik gabeko erantzuna eskatzen dute. Etorri al da aita? Aita etorri da, etorri da aita. Ekarri du aitak gozorik? Aitak ekarri du, bai, gozorik. Eta ez dezagun aantzi, orduan aditzak eraman bear duela indarra, galderari baiezkoa ematekotan. Ez dezakegu esan: Aitak ekarri du, aitak, ekarri du baizik.

Eta galdera auek ere izan dezakete *egin*-dun erantzunik, erantzuna ain garbi, osozkoa eta erabakia ez danean, *baiña*-duna danean. "Aita etorri egin da, baiña ez da iñon ageri, ez dugu ikusi... Aitak gozorik ekarri egin du, baiña ez guri emateko... Azken-erantzun onek bere koska, bere zera ezartzen dio besteari.

Azkenez, *egin*-dun erantzuna gerta daiteke beste galdera batekin, bi aditzdun galderekin: "Joan ala gelditu egiten zera? Gelditu egiten naiz... Diozuna entzun ala ikusia egin duzu? Ikusi egin dut"...

Egia da galdera auek bestela ere egin daitezke eta orduan beste erantzunik eskatuko dutela. Esaterako: "Diozuna entzuna ala ikusia duzu? Ikusia dut". Nola galdetu, ala erantzun, gertatzen da emen. Iparraldekoek ez dute, bear bada, gure antzeko galderarik egiten eta ala ez dute berdin erantzuten. Au ere galdegaiaren legeak eskatzen duena da.

Galdera laburrezko esaldietan lege auek erraz dira betetzen. Baiña askotan ez da ain erraz erabakiko non dan edo zein dan galdegaia, zein dan une bakoitzean garrantzi geien duena, batez ere, esaldi asko saillean datoztenean.

Altubek bai ala ezko esaldiak aztertzean, argitasun egokirik eman du. Eta ona auetako bat: Baiezko euskal-esaldiek gaztelerara itzultzerakoan, askotan "ya" adverbioa eskatzen dutela dio, baiña ez beti: "Ekarri dute, ya han traído. Etorri dira, ya han venido". Emen, galdegaia aditza bera bada ere, ez du *egin*-ik bear. Eta orixe bera gertatzen da esaldi luze

askotan, kontaeretan aditz-mordoa bata bestearen ondoren datorrenean. Aditz auek, aditz trinkoa, sintetikoa, erabiltzen danean, *ba* aurretik dutela jartzen dira; eta aditz ori, lagun-tzailleduna baldin bada, *ba*-rik ez du, baiña berak artzen du indarra, azentua

Altubek D. Agirre-ren *Kresala*-tik artuta, onako puska bat dakar argigarri: "Gabon aurrettxoa zan. *Bagagoz, bagagoz*, potin txiki baten lau lagun, berdeletan... *Jaso genduan* triketa, ta bagentozan kezka barik... joten gaitu aize dunbada batek eta braust!, danak itxasora, txalopa, barruko arrain, otzara, soka ta tresna guztiakaz batera ta nasteen. Alan be, urten genduan urazpitik, or batak eta emen besteak, danak otzak ikaraz: inguratu gara igarian, popaz gora egoan txalopara, ta itandu geuntsan alkarri: Gizonak, zer izan da au?".

Beste adibide bat edo beste Aita Bartolo-rena dakar. Besterik ere ekarri dezakegu. Aita Ipolitok (Legoaldik) *Txapelgørritxo* ipuian: Gero (otsoak) jantzi ebazan (amamaren) soñekoak, imiñi eban buruan izeratxoa, sartu zan oian... Liturjiako irakurgaietatik, ona bat, Jesukristok jarritako konparaketa batekoa: "Egin zuen euria, etorri ziran uoldeak, atera zuen aizea, jo zuen etxe ura, eta erori egin zan" (Mar. 7, 27).

Esaldi auen antzekoak, kontakizun baten arian datoztenak, berarizko bizitasuna ematen diote itz-jardunari, oso jatorrak dira eta aintzat dauzka Altubek. Galdegaia zein dan edo ez dan burua austen ibilli gabe sortzen dira. Gertakizunak alkarren ondoan datoz eta auetako bakoitzeko aditzak dioena dute ardatz eta galdegai. Erri-literaturan bada orrelako joserik: "Errotara niñoiala, topa neban erbi bat, atera neutsan begi bat, ipiñi neutsan barri bat. Errota txikiñak: Klin-klan!".

Altuberen irakatsiak bein baiño sarriago aantzi egiten ditugula -ta nago ni, edo beintzat oker samar ulertzen ditugula, erdizka, ez zuzenegi. Orrela, geiegitan, aditza atzera bota bearrez, ez ote gabiltza? Ola egiñez, aditza atzeratuz, askotan asmatuko dugu, jator idatziko dugu, baiña ez beti. Noizik bein, uste dugun baiño geiagotan, aditzak aurreko lekua berea du. Batez ere, gertakarizko esaldietan.

Arlo onetan maisuak eman zigun irakatsia ez dugu aantziz bearko, ta ola maisu berak emandako beste irakatsi batzuk obeto ulertu al izango ditugu edo beintzat, ez estuegi artu. Eta ona auetako bat: kontaera baten barruan, gertakarien arian, norbaiten itzak sartu bear diranekoa. Orduan, aipatu bear diran itzei sarreratxo bat jartzea egoki izango dala dio maisuak, "Au, auxe, edo *onelaxe esan* edo *erantzun zuen*", edo olakoren bat sarreratztat ipiñiz.

Orra kontuan artzekoa: ez du esan maisuak ori egitea bearrezkoa edo ezinbestekoa danik. Eta aitorten auxe egiten du berak: erri erriak jaramonik gitxi egiten diola lege orri. Eta adibide au jartzen du: "Amak esan dit biyar lan asko daukala eta ezin etorri al izango dala". Jatorrago legokela dio beste onetara: "Biyar lan asko daukala eta ezin etorri al izango dala esan dit amak". Ala ote da? Jatorrago ote dago? Nik ez nuke esango or argiegi dagoenik zein dan galdegaia edo zein dan garrantzitsuena, ala amak esan didalakoa, ala amak zer esan didan, ala bata nai bestea zein bere eñean. Nola nai ere, lege au ez zitzaion gogoratu Altuberi berari, lentxeago irakurri digun D. Agirre-ren testua ain jator aurkitu zuenean. An garbi eta soil dugu azkeneko esaldi au: "Eta itandu geuntzan alkarri: Gizonak, zer izan da au?" (Altubek azken au kopiatu ez zuen arren, neuk jarri dut emen). "Itandu geuntzan" orrek ez du bear aurretik ez *auxe*, ez *orixe*, ez *onelantxe* ez antzekorik. Olakorik izan balu, esaldi orrek, abiada galduko zuen, ez zen jatorrago geldituko, motelago baizik.

Berdintsu gertatzen dala uste dut nik Ebanjelietako itze-kin ere: Bein eta berriz "Jesusek auxe esan zuen edo onela erantzun zuen" esateak ez ote du testua bitxiegitxo edo moteltxoago egiten?

Puntu au argitzeko, gogora dezagun Altube beraren beste irakatsi au: Orren antzeko esaldietan, zerbait baiezko esan bear-eta, aditz sintetikoa erabiltzen dugunean, *ba* aurretik duela erabilli bear omen dugu: esaterako, Jesusek *badio*, edo *badirautso* Jesusek" edo ola. Eta jakiña: *ba* au aurretik duten esaldietan, aditza bera da galdegai, eta berak du indarra. Eta ez zaio ez *auxe* ez *orixe* ez besterik aurrera botatzen ez ezartzen. Au onela baldin bada, joskera-legea berdiña da, izan, bai aditz sintetikoa duten esaldietan, bai ez dutenetan, aingabe-koetan.

Ikutu gabe uzten ditut beste xeetasun batzu, eta emen bukatzen dut ene jarduna. Barkatu nere luze izana eta argi-ago ez izana. Orain azkena emateko, laburpen gisa, emen dijoa esandako batzuen mamia:

- 1) Galdegaiak euskal-joskeran garrantzi andia du; gure izkuntzaren bereizgarrietakoa da.
- 2) Galdegai, euskal-esaldietan, aditzaren aurrean eta oni datxikola dijoa, biak bat egiten dute, eta au oguzkerak ere erakutsi bear du.
- 3) Oguzkera ezberdiñak galdera ezberdiña adierazten du. Aita etorri da, eta "aita etorri da", biak itzez bat izan arren, biak galdera ezberdiña daukate, eta oguzkera ezberdiña, eta ez dute gauza bera esaten.
- 4) Aditza bera galdegai danean, batez ere Egoaldeko euskalkietan, *egin* ematen zaio ari laguntzaille eta euskarri. Baiña ez beti.
- 5) Baiezko esaldietan aditz galdegai onek ez du eramaten *egin* orren laguntzarik. Aita etorri da. Nola berezi? Oguzkeraz, aditz oni indarra emanaz. eta ola nola-bait aurreko itzetatik bananduz.
- 6) *Egin*-dun esaldiok ez dira beti bearrezkoak, bestela ere erabilli daitezke, *egin* ori gabe. "Ez duela ekarriko, baiña ekarri du, edo ekarri egin du". Bigarren onek, bear bada, indar geiago eman nai dio baiezkoari. Gaiñera, Bidasoaz onuzko idazleak jatorki idatziko du: "Eguzkiaren beroak ezkoa bigundu eta lurra gogortu egiten du". Baita ere Lapurdi aldekoak: "Iguzkiaren beroak ezkoa du biguntzen eta lurra gogortzen".
- 7) Arian datozten kontakizun luzeetan, besterik iruditzen arren, aditza bera izan daiteke galdegai eta bera joango da aurretik eta berak artuko du indarra, bai *ba*-dun esaldietan aditz sintetikoekin, eta bai bestelakoetan.
- 8) Onetan estuegi jokatzear, Altuberren irakatsi batzuei lotu bearrez, beste batzuk aanzteko arriskuan erori gaitzke.

ZENBAIT SINTAGMAREN BATASUN HAUSKORRA ZIBURU- KO ETXEBERRIGAN

Arrasate, 1979-XII-20

Patxi Altuna

Ez dakit titulua oso egokia den, ezetz uste dut, ezta artikuluan barrena diodana behar bezala biltzen eta aditzera ematen duen ere. Izen hoberik aurki zitekeen, agian. Gauza bat bederen garbi dio tituluak: Ziburuko Etxeberriz arituko naiz, ez bestez; laster esango dut zergatik. Ez dut, haatik, Ziburuko Etxeberriren obra osoaz aritzeko asmorik, sintagma aztertzeko *Manual devotioezcoa* bakarra hartzen delarik ere, ezin agortuzko iturria eta tesi handi batetarako gaia bait da. Mila bertsotako bilduma bat egin dut eta hori izango da lan honen *corpus*: mila bertso horietan ageri den zenbait sintagma bitxi eta berexi aztertuko dut. Hona zergatik hartu dudan Etxeberri aztergai: Oihenartek bera baino lehenagoko euskal poeten bertsogintzaz usteak eta iritziak agertzean, Etxepareri lauzpabost huts eta oker egotzi ondoren, Etxeberriri haiek berak eta beste bat egozten dio aski larria: "Et il se donne en plusieurs lieux d'autres licences exorbitantes" (1). Neurritik kanpoko baimen horietarik bat edo beste aipatzen du, bai, baina ez digu damurik zehazkiro adierazi zein diren eta zergatik diren neurritik kanpoko beste baimen horiek; "d'autres" dio eta aipatuez gain bazen nonbait besterik. Mitxelena ere aspaldi idatzi zuen: "Su lengua, con cierta inclinación al hiperbaton..." (2) eta oraintsu berriro esana du: "...el hiperbaton renacentista o barroco de Etcheberri de Ciboure" (3). Ni ere *Manual devotioezcoa* irakurtzean kon-

(1) OIHENART, A.: *L'Art Poétique Basque* (Lafitte jaunak hitzaurre oharrak ipini eta GURE HERRIA-n 1967an argitaratua, baita gero liburuxka gisa ere): or. 39.

(2) MITXELAN, K.: *Historia de la Literatura Vasca*, Madrid, Edic. Minotaurro, 1960, or. 72.

(3) MITXELAN, K.: ene liburu *Versificación de Dechepare. Métrica y pronunciación*, Bilbao, Edit. Mensajero, 1979, deritzanari ipini dion hitzaurrean.

turatzen nintzen, eta edozein kontura daiteke arreta pixka batez biak irakur baditza, Etxepareren eta Etxeberriren artean alde handia dagoela. Ez da, ordea, hamabost silabatako bertsoen lau zatitako eskema maiz samar - Etxeparek baino askoz gehiagotan - urratzen duelako bakarrik, ezta ere hitz batzuen esanahia ez ezaguna izan dakiokelako irakurleari. Etxeberriren zenbait bertsoak neke gehiago ematen diote Etxeparerenean baino: gelditu, berriz irakurri, maiz baita hitzak bere ordenuan ipini ere, eta gero, nekearen nekez, jabetzen da bat zenbait bertsoen esanahiaz. Hori zergatik ote zen eta Oihenartek neurritik kanpoko zerizten baimenak zein ote ziren bila abiatu nintzen eta hemen dakarkizuet Oihenartek Etxeparegan ez eta Etxeberrigan bai aurkitu bide zituen baimen itxuragabeko horien sorta.

Gero esango dudana hobeki ulertzeko bi hitz egin behar dizuet Etxepareren —eta Etxepareren bezala, herri bertso-gintzaz baliatu eta baliatzen diren bertsolari guztien— bertsoak paratzeko tankerari buruz. Eta barka, otoi, nere ausardia, bai bait da hemen lagun bat baino gehiago gai honezaz ni baino trebakiago mintza daitekeenik. Inoren hitzek baino hobeki adieraziko digu, ordea, nik orain agerian ipini nahi dudan bertso tankera hori Etxepareren beraren —beste edozein bertsolariaren ere bai— bertso bakar batzuen irakurraldiak. Hona Etxepareren lau lehenak:

Munduyan den / guizon oroc // behar luque / pensatu
 Iangoycoac / nola duyen // bat bedera / formatu
 Bere irudi / propiara // gure arima / creatu
 Memoriaz / vorondatez // endelguyaz / goarnitu.

Zer nabari da hemen? Bertsoaren zati bakoitza —eta hamabost silabatako bertsook lau zati dituzte, ez bi, beste zenbaitek bi eta beste zenbaitek bat bakarra duten bezalaxe—, bertsoaren zati bakoitza, berriro diot, katea delako hizkerak —egunoroko aho hizkerak— dituen banakoz edo hitz andanaz osatua dago; bestela esan, bertso horietako sintagmak aho hizkera arrunt eta normalean izan ohi diren berberak dira. Hor ez da hiperbaton berezirik, ez zangalatrau nabarmenik, ez sintagmen printzaturik, ez inolako bortxarik. Hirugarren bertsoan ez dio, esate baterako, “Bere irudi gure arima propiara formatu”, ezta, samurrago eta eramankorrago izan zitekeen beste hau ere: “Gure arima bere irudi propiara for-

matu", baizik "Bere irudi propiara...", sintagma berez den bezalaxe, puskatu gabe, batetik, eta zesurak sintagma horren bi osagaiak erditik ebaki gabe, bestetik. Eta hori Etxeparek hor eta beste nonnahi, zesurak horrelako sintagmarik ezin erdibi dezakeelarik.

Eta Ziburuko Etxeberrik zer? Ziburuko Etxeberrik ere bai, noski, gutxi gorabehera, gogoak ematen dionean edo, nahiago bada, bertsoak edota konkretuki bertsoaren puntuak uzten dionean. Entzun, otoi, esate baterako, liburuaren has-tean titulu eta abarren pean, Deuteronomio liburutik hartuta-ko "Ponite haec verba mea in cordibus et in animis vestris..." hitzak nola ematen dituen bertsoz:

Ene erranac / iduquitçac // bihotcean / gorderic
 Adimenduac eztuen // gogoeta / berceric
 Hartaracotz / ingura çac // señalea /erhian
 Bethi hautçaz / orhoitceco // bici aicen / guztian
 Eta pinta / çac beguien // aicinean / enea
 Athal gain eta pareta // churietan / leguea.

Bitan izan ezik, gainerako guztietan bertsoaren zesura (zesura beti, noski) eta bi hemistikoen erdiko etenak hitz azke-nean gertatzen dira: bigarrenean eta azkenekoan ez; bi horie-tan etena litzatekeenak hitza erdibitzen du. Baina ez da hori bakarrik: Etxepareren bertsoetan hauteman dugun bezalatsu -ez hainbeste, gero esango dugunez, eta horixe da lan honen gaia, hain zuzen- lau eta hiru silabatako banako horietarik gehienak aho hizkeraren katea osatzen duten hitz andanez osatua dago. Gehienak esan dut; ohar, ordea, "gogoeta berce-ric" dioela komunzki "bertze gogoetarik" dioguna; "beguien aicinean" den sintagma zesurak erdibitua dagoela; "enea... leguea" dioela, berez "ene legea" den sintagma printzatu eta bi zati eginik, bertso banaren azkenean puntua ateratzeko barreiatzen dituelarik eta horrezaz gainera izenari bakarrik dagokion mugatzailea posesivoari ere erasten diolarik.

Hona, beraz, nere lan honen gaia: noraino eta zenbate-taraino errespetatzen ditu Etxeberrik aho hizkeraren zenbait sintagma? Hemen ez da dudan jartzen inola ere Etxeberriren euskararen jatortasuna, ikusiko dugun bezala urratzen eta desegiten dituen sintagmen ondoan urratu eta desegin gabeak ere ehunka bait ditu. Hemen haxe bakarrik aztertu nahi da:

zein da lehen Etxeberrirentzat, zenbait sintagmaren aho hizkerazko taxua ala bertsoaren eskema eta batipat puntua? Bestela esan: urra al daitezke sintagma batzuk eta aho hizkeran esaten ez diren moduan tolestatu bertsoan, bertsoaren neurria, eskema eta puntua behar bezala paratzearren? Etxeparek ezetz (zenbait sintagmaz ari naiz, ez ahantz) erantzungo lukeen bezala, Etxeberrik baietz erantzuten digu.

Sintagmen hauzia oso mehea eta dudamudazkoa dela badakit, eta ez naiz ni, egia esan, trebatuena gai honezaz mintzatzeko; bada hemen bertan iaioagorik. Sintagma batzuen mugak zein diren eta non kokatu behar diren erabakitzen zaila dela badakit eta ezin daitekeela maiz "ex cathedra" defini zein den zuzena, zein okerra. Badakit ere euskalki batetik bestera alde handiak daudela eta batean esan ohi ez dena bestean txitian pitian esaten dela. Baina arrazoi guztio-gatik, hain zuzen, ni ez nator hona euskal sintagmari buruz dotrinarik erakustera; are gutxiago zein den zuzen, zein oker erabakitzera, hau edo bestea ongi ala gaizki dagoen esatera. Ez nator ere, ezta hurrik eman ere, Etxeberriri deus kentzera eta Etxepare baino poeta hobeala baldanagoa den agerian ipintzera. Bataren bertso-gintzaren zenbait alderdi lehen aztertutako ditudan bezala, orain bestearen bertso-gintzaren bereizgarri batzuen berri ematera nator soilik eta hauxe bakarrik azaltzera: zenbait aldetatik guztiz desberdinak dira sintagma batzuk bertsoan barrena tolestatzeko bataren eta bestearen jokabideak.

Aztertutako ditudan sintagmak ez ditut noski alde aurretik nituen eskemen arabera hautatu —aitzitik lanari ekitean, Etxepareren sintagma horiekiko jokabide guztiz desberdina nuen nik buruan—, komeni zitzaizkidanak hartuz eta ez zitzaizkidanak arbuaiatuz, baizik mila bertsoan barrena nabarmenenak iruditu zitzaizkidan sintagma urratuak bildu, artean handik zer aterako zitzaidan eta are ezer aterako zitzaidanik ere jakin gabe, kidekoa kidekoari lotu eta gero ahal nuen moduan sailkatu. Urratu horien artean sintagma mota konkretu batzuk suertatu zaizkit eta ia beti modu konkretu batzuetara urratuak eta bertsoan barrena tolestatuak. Ez ditut haatik denak aipatuko: aditz perifrastikoa bertsoan nola agertzen den, esate baterako; bai, ordea, labur beharrez esango partizipioa eta laguntzailea nolanaahi nahasten ditue-

la, zesurak biak erdibitzen dituelarik, laguntzailea nahiz partizipioaren aurrean nahiz atzean ipintzen duelarik, elkarren segidan ez baizik beste hitzen bat edo batzuk tartean ezarri-rik, eta abar. Exenplu bakarra aipatuko dut, Etxeparegan inoiz ez bezalā bait daude hor laguntzailea eta partizipioa kokatuak:

“Halaber duc lehenbici liburua bietan
Nola baituc ikhussiren, erdiratcen partetan” (or. 5).

“Duc erdiratcen” bi bertsoetan zehar dago barreiatua, lehenean laguntzailea eta bigarreanean partizipioa.

Eta gatozen beste gabe gainerako sintagmak ikustera.

1) Puntu bakoitzean aztertzen dudan sintagmaren eredu gisa Etxeberrigandik beragandik hartutako bertsoa aipatuko dut, inork dudarik izan ez dezan bazekiela Etxeberrik ere, bertsoak uzten zionean, honako sintagma hau edo harako hura aho hizkeraren arabera esaten. Hona, beraz, lehenbiziko sintagmaren eredua: “*Creaturen podoreec* bere mugac dituzte” (or. 6) (4). Diodan aurrera baino lehen, guztiok dakizue eta esan beharrik ez badago ere, honelako sintagmak iparraldeko euskaldunek maiz bi izenak trukaturik eman ohi dituztela. Oso ezaguna da Etxepareren bertso hura: “Lehen impiçalia heuscararen hura da” (XV, 16), baina, jakina, horren ondoan Etxeparek badaki “çutan dago beqhatoren sperança gucia” (I, 50), bi izenak trukatu gabe, ere esaten. Etxeberrik orobat, arestian entzun dugunez: “*Creaturen podoreec...*”. Ikus, ordea, zein beste modutara tolestatzen dituen horrelako sintagmen bi elementuak:

a) Trukatu gabe, baina elkarrengandik eten eta bien artean beste hitzen bat sarturik. Hara nola:

“Bercela du Christauaren gueçurtatcen deitcea” (or. 3)
“Ecen herioaren dut hunen gatic beldurra” (pr. 47)
“Aingueruac eriaeren diotsa bihotçari” (or. 50)
“Iaincoaren ezta handi bethi ezttitassuna” (or. 51)

(4) Lan honetarako HORDAGO-k argitaratu edizioaz baliatu naiz. *Manual devotioenezcoa*-k bertsoak numeraziorik gabe ekartzeaz gainera orriak ere ez dauzka 1-tik hasi eta etengabeko sailean numeratuak, baizik bi zati egin eta 1-tik bi bider hasirik kontatuak: 1-137 lehena eta 1-213 bigarrena. Lanean barrena aipatzen ditudan bertsoei orriaren numeroa ezarri diet eta bigarren sailekoa denean 2 txikia erantsi ginean: hala nola, 129².

“Etsaiaren eçagun da orduan malecia” (or. 56)

“Hire faltan denaz gueroz nombrea hain handia” (or. 53)

“Baita aingueru onaren halaber çuhurtcia” (or. 56).

b) Elkarren segidan, baina trukaturik. Hau dela pentsatuko du norbaitek lehenxeago Etxepareren bertsoan ikusi duguna. Bada ez, Etxeparek ez bezala Etxeberrik trukatzear gainera genitiboan dagoen izenari erasten bait dio, besteari kendurik, haren mugatzailea. Ikus.

“Dolu belcez estalcen du corte dohatsuena” (or. 3)

“Beguietan beldurtassun duen Iaincoarena” (or. 51)

“Arima galdua dela beldur eztenarena” (or. 51)

“Ecen galdu behar etcen muga obra onarena” (or. 58)

“Barkhatu ere ez baçαιο pena venialena” (or. 59)

Behin, halere, mugatzailerik ez dio erantsi, baina ikus zergatik:

“Bekhatuen punimendu edo sari unguen

Bicia fiña artean Iaunac eztu ematen” (or. 52)

Determinante delakoa, lehen bertso erdiko sintagmak erakusten duenez (“Bekhatuen punimendu...”), mugatu gabe zegoen eta hainbestez ezin ere erantsi genitiboari. Konturatu zarete gainera bertso berean bi sintagma kide daudela: bata ereduaren arabera osatua eta bestea bi hitzak trukaturik dituela.

d) Bi izenak elkarrengandik erauzi eta bertso banatan barreiatzen ditu; ez, ordea, edozein lekutan, baizik biak bertso banaren puntu lekuan ezarririk, hots bertsoaren azkenean; hartarako, ordea, maiz bi hitzak hoskide ez direlarik —bata genitiboan eta bestea beste edozein kasutan egon bait daiteke—, determinante delakoari bere atzizkia kendu gabe, hura bera gehitzen dio genitiboan dagoenari. Alegia,

“Laur dote hauc principalqui CERURATUENEAN

Señale içanen dire handiro GORPUTCEAN” (or. 134)

Hor aho hizkeraren sintagma “zeruratuen gorputzean” da, noski.

“Baita travaillu handiac heure HOBENENERA

Pietosqui errecibi dietçaquen ALDERA” (or. 129²)

Hor sintagma arrunta aho hizkeran "hobenen aldera" da.

"Eta hala Iongoicoac ITSASSOARENETIC Guardatuco au puchantça bereaz PERILLETIC" (or. 130²)

"Itsasoaren periletik" da berez sintagma hori.

"Bañan, Iaun puchanta, othoi, falta HANDIENERA Urean fiñatcea har dioçoçu ALDERA" (or. 168²)

Sintagma soila hizkera egunorokoan "falta handien aldera" da.

Azken lau pasarte horietan genitiboa, beste izenaren atzizkia erantsirik bi bertsoetariko lehenean dago eta determinantea bigarrenetan; ondoko beste biotan, aldiz, atzekoz aurrera:

"Iongoicoa, badaquigu eztela BEGUITETIC Nihor ere escapatcen HERIOARENETIC" (or. 157²)

Berez hor sintagma "herioaren begitetik" da, dudarik gabe.

"Presenteco defuntua halacotz ONDARRERA Damuric etchatcen dugu ITSASSOARENENERA" (or. 158²) (5)

Berez sintagma "itsasoaren ondarrera" da.

2) Bigarren sintagmaren eredua bertso honetan dugu emana: "Eta *gende infidelac* ere sortcen gogorqui" (or. 3), hots izen adjetiboz osatua. Hona zein modutara ageri diren, horrezaz gain, sintagmok Etxeberrigan:

a) Trukatu gabe, berez duten hurrenkeran, baina elkarrengandik bereizirik, artean beste hitzen bat sartu zaielarik. Hara:

"Lehenbicioac gauça aiphatcen tic communac" (or. 5)
 "Pensamendu bethetcen du onez beguirailleac" (or. 57)
 "Arima seculacotçat condemnatu gachoac" (or. 59)

(5) Bertsoak *Itsassorenera* dio, baina inprenta hutsa da dudarik gabe, bigarren hemistikioak dagoen dagoenean silaba bat gutxiago bait du. *Itsassorenera* da, ene ustez.

“Consolamendu emoçu othoi seculacoa” (or. 157²)

“Baiñan errencura dute choill tristea altchatcen” (or. 113)

Behin, aurreko horietan ez bezala, izen adjetivoek biek dute atzizkia:

“Insensuaz hiruretan insensatu khetiaz” (or. 168²)

b) Izen adjetivoak lekuz aldatu eta atzekoz aurrera daude beste hauetan:

“Arren errecibiçaçu arrai begui tarteaz” (or. 7)

“Hala nola choriari navar ihiztariac” (or. 51)

“Cantu ederrez bethecten dire urdin ceruac” (or. 59)

“Baldin barrena baçαιο sartcen çorrotz burdiña” (or. 111)

“Ene arima, cer hari aiz enganoso munduan” (or. 136)

Era honetako exenpluak erruz dira. Aipatu dudan azken horretako “enganoso munduan” beste bertso batetan honela dator:

“Hautçaz beraz orhoit adi mundu enganosoan” (or. 115)

Behin, lehengo horietan ez bezala, biek, izenak eta adjetivoak, hartu dute mugatzailea, goiko “Insensuaz... khetiaz” hartan bezala:

“Eternala arren othoi eguidaçu donua” (or. 136)

d) Azkenik beste zenbait bertsoetan hona zer egin duen poetak: elkarren segidako bi bertsoaren puntuan kokatu sintagmaren izen adjetivoak eta horrenbestez punturik ezin izan zezakeenez gero, berez izenak ez bait du mugatzailearik, are gutxiago adjetivoak eraman dezakeen kasu atzizkirik, izenari ere adjetivoaren mugatzailea eta kasu atzizkia, beharrezko baldin bazen, erantsi. Hala nola:

“Halacotz bada gorputça nola uraren HEGUIRA

Ceure gratiaz baituçu erakharri CHURIRA” (or. 159²)

“Non guertha dadin enetçat eme IUIAMENDUA

Bereçiqui eman behar darotaçun IUSTUA” (or. 60)

“Alde batetic tentatu duenean ETSAIAC

Alabainan irabaci ez deus ENGANARIAC” (or. 51)

Hiru pasarte horietako sintagmak hauek dira berez: "hegui xurira", "iuiamendu iustua" eta "etsai enganariak". Hor, ageri denez, lehen bertsoan dago izena eta bigarreanean adjetiboa; beste biotan, aldiz, atzekoz aurrera:

"Ondra baicen ezтуqueçu, Iaun Prelata, ARROTCAZ
Entçutea mintço dena beldurqui AHARANTÇAZ" (or. 7)
"Illhabethe oro behin iracurra GUZTIA
Iesus Christoc munduari declaratu EGUIA" (or. 9)

Eta, zer esanik ez, sintagma horiek aho hizkera arruntaz "aharantza arrotzaz" eta "egia guztia" dira berez.

3. Hirugarren sintagmaren eredutzat bertso honek balio dezake: "Gorputça da *arimaren presondegui hertsia*" (or. 48). Horren antzeko sintagmak beste zenbait bertsoan honela daude bakanduak:

a) Hiru hitzak hurrenkera berean, bat ere aldatu gabe, baina genitiboaren ondoan beste hitzen bat txertatu delarik:

"Iaincoaren aguertceco iustitia aicena" (or. 48)
"Munduaren khassatçala gogoeta vanoac" (or. 50)
"Obra onen non baitatça contu eguiazcoa" (or. 56)

b) Hiru hitzak elkarrekin trukaturik eta hiru direnez gero lehengo sintagmetan baino konbinazio gehiago sortzen zaio poetari:

- genitiboa + adjetiboa + izena, atzizkia azkenak duela:

"Principalqui arimaren triste partiadaco" (or. 59)
"Ecen egundainoz hunen handi da egartsua" (or. 53)

Azken bertso honetan, ondokoa irakurri gabe ageri ez bada ere, sintagma hau da: "hunen egartsu handia" eta hainbestez izen adjetiboen artean sartua dago adizkia. Ondoko bertsoak honela dio: "Bekhatutan egotztea guiristiño pres-tua". Ez da, beraz, dudarik sintagma esandakoa dela.

- izen determinantea + genitiboa + adjetiboa, mugatzai-lea eta atzizkia, baldin bada, honek duela:

"... madaricatuac
çaratela!, cehatçaille arimen odolsuac" (or. 112)

- adjetiboa + genitiboan dagoen izena + determinantea, hau mugatua:

“Arren bada podoroso aingueruen Iaincoa” (or. 131)

Izen determinanteak mugatzaile gisa inoiz artikulua ordez izenordea izan ohi du. Ikus nola nahasten dituen orduan:

“Hura ohi da Iaunaren sententia larria” (or. 48)

Bertso horretan berez izen sintagma “Iaunaren sententzia larri hura” da eta ohar izenordeaz gain adjetiboak ere bere mugatzaile artikulua daramala.

d) Aurreko bi sintagmetan bezalaxe, sintagmaren hiru elementuak elkarrengandik askatu eta elkarren segidako bi bertsoen punturako gordetzen ditu, biei, hoskide gertatuko baldin badira, batari bakarrik dagokion mugatzailea eta, hala behar bada, kasu atzizkia ere erasten diela. Bi pasarteetarik batean izen adjetiboak hartzen ditu punturako, genitiboan dagoen izena libro utzirik. Hara:

“ADISQUIDEEN ondotic cerraiola HUSSUA
Etchetic eličaraño ohorez AHUCUA” (or. 158²)

Inork pentsa dezake genitiboak ez duela zer ikusirik beste izen adjetiboek osatzen duten sintagmarekin eta “adiskideen ondotic” dela hor beste sintagma berezia. Baina ez da hala: pasarte osoa —aski iluna, egia esateko— astiro irakurriz gero ohartzen da bat “ondotic cerraiola” delako hori *hilari* dagokiola eta “adiskideen ahuku husua” dela beste sintagma.

Beste pasartean, aldiz, izen determinantea delakoa gelditzen da libro eta beste bi izen adjetiboez baliatzen poeta bertsoen punturako:

“Ezteçaçula permetti urtan ITHOARENA
ARIMA surtan tormenta dadin GACHOARENA” (or. 168²)

“Itho gaxoaren arima” da komunzki horko sintagma hori.

4) Beste sail honetan aztertu nahi dudana sintagma mila bider ageri da Etxeberriren obran; posesiboz eta izenez osatua da. Bertso bat aipatzearren, hona hauxe: “Hala bedere balute *ene doloreec* fin” (or. 112). Hain sintagma laburra delarik, pentsa liteke beti bertso berean, are bertso erdi berean, agertu behar lukeela. Hala da beti Etxeparegan, zesu-

rak ere inoiz erdibitzen ez duela. Ez, ordea, Etxeberrigan; honengan bertsoaren bi erdietan ez ezen, bi bertso desberdinetan barreiatu ere ager daitezke posesivoa eta izena. Ikus:

a) Bertso berean, baina zesuraren alde banatan eta, areago dena, elkarren ondoan ez baizik artean beste hitzen bat dutela; adizkia edo izenkia ia beti eta posesivoa lehen bertso erdiaren bukaeran, zesuraren aurre aurrean, gertatzen dela:

“Eta eličari bere goratcen ohorea” (or. 3)

“Martyrio handiz gure penatcen da lohia” (or. 114)

“Aingueruen balsan ene lauda detčan mihiac” (or. 136)

Era berean, baina lekua bertsoan edozein duela, posesivoaren orde ez erlatibo gisa enplegatutako galde hitza baldin bada:

“O Iongoico, ceñen baita handi providentia” (or. 159²)

“Ceñen ediren baitugu gorputça bazterrean” (or. 159²)

b) bi hitzak trukaturik, izena lehenik eta gero posesivoa:

Bekhatorea eguiteco hambat buru ceurea” (or. 50)

“Bizquitartean flacatcen dire indar harenac” (or. 57)

“Guardatuco au puchantça bereaz perilletic” (or. 130²)

Posesivoaz gainera izenak beste adjetivoa baldin badu, bi modutara zatitzen du sintagma: adjetivoa beste bien artean sarturik, edota posesivoak eta izenak osatzen duten sintagma batera ipini eta adjetivoa aurrera eramanez:

“Handiroqui bozten darot neure triste gogoa” (or. 131)

“Libra eçaçu escalgaitz othoi ene mihia” (or. 131)

“Ene mihi eskalgaitza” da hor berez izen sintagma.

d) Orainoko sintagma guztietan bezalaxe, biak sakabatu eta elkarren ondoko bi bertsoen punturako gordetzen ditu posesivoa batetik eta izena bestetik, eta hoskide izan daitezen, posesivoari ere gehitu egiten dizkio berez izenak bakarrik eraman ohi dituen mugatzailea eta kasu atzizkia. Hona:

“Hequin eguiazco hitcez orhoituric GUEUREAN

Iuiamendu hunez griña guinduen BIHOTCEAN” (or. 59)

“Creatura gachoa da iustuqui CEÑENERA
Sententia hunec iausti behar baitu GAÑERA” (or. 48)

Bi exenplu horietan posesiboa lehen bertsoan dago eta izena bigarreanean; beste horrenbeste gertatzen da mintzaldi honen hasieran irakurri dizuedan Deuteronomioko hitzen itzulpenean:

“Eta pinta çac beguien aiticinean ENEA
Athal gain eta pareta churietan LEGUEA”.

Beste honako honetan ez: hemen lehen bertsoan izena ezarri du eta bigarreanean posesiboa, mugatzailea gehiturik:

“Bañan, Iauna, compli bedi bethi VORONDATEA
Berce gaucetan beçala hemen ere ^aUREA” (or. 159²)

Ez zaituztet gehiago nekatuko. Esanek aski ongi erakusten dutela uste dut Etxeberrirentzat, Etxeparerentzat ez bezala edo zehazkiago esateko, Etxeparerentzat baino askoz neurri handiagoan —sintagmak, sintagma asko eta asko bederen, bertsoaren zerbitzuan eta mendean daudela eta aho hizkeran modu batera esaten badira ere eta ezin urratuzko hitz andanak komunzki osatzen, hitz lotutan erabiltzean urra, bakan eta barreia daitezkeela bertsoari zor zaion eran. Gainerako sintagmak hor ipintzen ditut lanaren gehigarri, inork irakurri nahi baldin baditu.

5) Sintagmaren eredu: “Ceren reservatcen tuzten *halaco bekhatuac*” (or. 21).

- a) “Halacoa Iaunac eguin diecela gratia” (or. 137)
- b) “Khassa çatçu pensamendu burutic halacoac” (or. 51)
- d) “Iongoicoa, çuc ekhartçu HALACOA ORENA
ceña ene bicitceac behar baitu AZQUENA” (or. 60)
“Hartaracotz HALACOA guertha çaçu ORENA
ceña ene bicitceac behar baitu AZKENA” (or. 136)

Erka, otoi, elkarrekin azken biok; biotan izen sintagma hau da: “halako azken orena”.

6) Sintagmaren eredu: “*Iauna baiño gehiago nauela cerbitçatu*” (or. 54).

“çuhurtcia ere duque are handiagoa
çuhur deithu Salomonec çuen bañoagoa” (or. 134)

Sintagma berez “... Salomonek zuen baino handiagoa” da; -ago bi bider esana dago. Gogora, aldiz, Etxepareren -ago gabeko beste hura: “Salua bano damnaçeco perileco pundoñan” (I, 165). Tartasek ere modu berean: “...hambatequi diabrua baiño sordeich cerela ukha diroçu?” (32).

“Guero cer esca aiteque gauça hobeagoric
Manamenduen gratia baiño complitcecoric?” (or. 9)

Sintagma berez “... manamenduen konplitzeko grazia baino” da.

“Berriz contra handi eta francoago saria
Ematen du hartu baiño guiçonac icerdia” (or. 48)

Sintagma berez “...gizonak hartu izerdia baino” da.

“Ecen harc oñhazturen du guehiago çazpitan
Urre izpi iguzquiac baño eguralditan” (or. 135)

Sintagma, dirudienez, hau da: “...eguzkiak eguralditan urre izpi baino”.

7) Sintagmaren eredu: “Orainoco alfer dire *erran eta equinac*” (or. 53)

a) “O dolore balequigu eta pena balia” (or. 114)

b) “Alabainan guztietara ecin heda burua
Iongoicoac berac baicen, eta adimendua” (or. 6)

8. Sintagmaren eredu: “Bicitcean *equin tuen hutsac* ditu condatcen” (or. 55).

a) Euin duen eta eztuen erraten du guztia” (or. 55)
“Bañan illkhico eztiren diradela lecean” (or. 113)

b) “Gaizquiez eguiten badu asqui dena nigarte” (or. 55)

d) “Particulara deitcen da hilltcera DOANARI
Cergatic ematen çaiion bakharric PRESUNARI” (or. 48)

(6) Ikus *bainoago* eta gainerako konparazio hitzei buruz Lafonen lan hau: “L’expression de la comparaison en basque”, BULLETIN DE LA SOCIETE DE LINGUISTIQUE DE PARIS, 53 (1957-1958), or. 234-256.

Sintagma berez "...hiltzera doan presunari" da.

9) Sintagmaren eredu: "Iaunac eztu *ossassuna itçultce-co escua?*" (or. 50).

"Eta uretic doçun leguez eguin gratia
Illkhitceco, lur sainduan har deçantçat hobia" (or. 159²)

Sintagma berez "...uretik ilkitzeko grazia" da.

"Ecen hartçaz eguiteco gudu guehiagoric
Han hara eztuquetela badaquite bideric" (or. 50)

Sintagma berez "...gudu gehiago egiteko biderik" da.

10) Sintagmaren eredu: "Cer baitçuten *hambat prestu eta sainduc onhetsi*" (or. 114). Edota "Nola soffrituren dituc *hain dolore biciac*" (or. 115).

"Dio, hambat baiteducan gaitz enetçat gordea" (or. 112)

"Hambat dioçu hill eta errendatcen ohore" (or. 159²)

"Eta alferric eguiten hain aberats emaitçac" (or. 113)

11) Sintamaren eredu: "Liburu hau guztia duc *bi partetan* berezten" (or. 5).

"Berceac guero guiçonen fin çazpi azquenecoac" (or. 5)

"Eta hala dohatsuen bortz corporal sensuac" (or. 136)

"Halaber duc lehenbici liburua BIETAN

Nola baituc ikhussiren, erdiratcen PARTETAN" (or. 5)

Erka ezazu, otoi, azken hau sail honen beronen eredutarako hartu bertsoak dioen "bi partetan" horrekin.

12) Oihenartek egozten dizkion hutsen artean hau da bat: inoiz bertsoa luzatzeko hitz batek bakarrik eraman behar lukeen mugatzailea biri erasten diela. Hona bi exenplu:

"Eta eneac sinhetsi persuasioneac" (or. 55)

"Lurrean bici direnen presunen merecira" (or. 132)

Amaitzera noa, lan honen tituluak dioen bezala Ziburu-ko Etxeberrigan zenbait sintagmak batasun hauskorra dutela aski agerian gelditu delakoan. Ikus azkenik bi ale bakan hauek: "Aldaraciren ohico eztaozquic moldeac" (or. 115): elkarrekin gurutzaturik dauzka bertsoak izen sintagma eta aditz perifrastikoaren bi osagaiak. Bestea: "Bicitcean ni nauenaz ohoratu gueroztic" (or. 55): "nauenaz geroztik" sin-

tagma printzaturia dago, artean partizipioa sartu eta zesuraren alde banatara ezarririk bi hitzak.

Zangalatrauak –bertso batetik besterakoak, zesuraren gaidikakoak Etxeparek ere bai bait ditu— ez ditut bereziki aztertu, lan honetan barrena aipaturiko bertsoetan mordoxka agertu bada ere, konturatuko zineten bezala. Ezta *nola, non, zeren* konjuntzioek maiz bertsoan hartzen duten leku berezia ere, mendeko perpausaren hasierakoa hartu beharrean, inoiz konjuntzio horien mendeko adizkia konjuntzioen beren aurrean agertzen delarik bertsoan (ikus hau, *Samson beraren baitçuen non transitu bihotça*, or. 43). Ezta *ere*-k inoiz hartzen duena ere: *ere* enklitika delarik, Etxeparek beti, salbuespen bat bakarrik gabe, bere sostengu den hitzaren kontra ipintzen du, zesurak ez etenak hitz hartatik bereizten ez duelarik; Etxeberri, aldiz, baita bigarren hemistikioaren hasieran ere (ikus, *Sentituren du iustuac ere garratzassuna*, or. 81). Ezta *hau daroat conseillu* (or. 27) eta antzekoak ere. Ezta zenbait bertsoaren zesura okerra ere, hitzartearen gertatu eta hainbestez 8 + 7 eskema bera ere betetzen ez dutenena (ikus, *Sacramentuez berce alde bortz Sacramentali*, or. 23). Ezta hamabost silaba beharrean hamalau baizik ez dituzten bertsoak ere (ikus biok elkarren segidan: *Ceren huts equin duen gazteluan gordea, / Cembait pena direla iustuqui ordenatcen* (or. 120). Ezta gerundio gisako *partizipio* + *eta* hitz andana bakarria direlakoak eta Etxeparek beti bertso erdi berean, are ia beti bertso laurden berean, sartzen dituenak ere, Etxeberri, ostera, zesurak erdibiturik inoiz ematen dituelarik (ikus, *Gaichtaguiñec akhabatu eta bere damua*, or. 83). Eta abar, eta abar. Horiek ez ditut hemen aztertu, ez bereziki aipatu labur beharrez.

Etxeberriren bitxikeria direlako horietarik ez al du zenbait Etxeparek ere?, galdutako du agian norbaitek. Bai, badu bakarren bat; askozaz gutxiago eta ez hain nabarmenak, halere. Hona nik aurkitu ditudan bospasei bakarrak. *Acusari vera date eta conciencia* (I, 272) (ikus artikulua honen 7. puntuan *O dolore balequigu eta pena balia*). Beste bat: *Amoriaren harc veçala nic eztudan axola* (XII, 50) (ikus artikulua honen 1. puntua). Hirugarrena: *Nic norgatic pena vaytut harc ene eztu axolic* (VII, 20), *ene* eta *axolic* adizkia artean dutelarik daude, artikulua honen 4. puntuan bezala. Baina ez nago batere ziur

ene axolica hau eta Etxeberriren goiko haiek sintagma berdinak direnik. *Ene* ez bait da genitivo edo posesivo arrunta, *inoren* axola adierazten duena, baizik *enetaco*-ren ordez dagoe-na eta hainbestez ez hitz andana bakarra (7). Bestea: *Mundu oro iraganic ez eriden berceric / Ieyncoaren ama hona gracia oroz betheric* (II, 24-25). Hau ere, ongi begiratzen bazaio, ez da "Tainkoaren ama honaz bertzerik" den sintagma bera, Etxeberriren zenbaitetan zen bezala. Etxepareren bi bertso hauetan aposizioa dugu eta hainbestez bi sintagma azpi egituran ere, gaztelaniaz honela diogunean bezala: "No hay otra: sólo la Madre de Dios". Eta azkenik bi bertso gelditzen dira soilik, elkarren antzeko eta biak kantu berean ageri direnak. Hona: *Nic daquidan gauçaric eztaducat çureric* (IX, 5). Ikusi batera inork pentsa dezake bertso hori sintagma bakar honen destolestadura baizik ez dela, hots, "Nik, dakidala, ez dadukat zure gauzarik", Etxeparek berak *daquidala* beste bizpahirutan darabilenez gero eta esanahiari gagozkiola gauza bera esan nahi dutenez gero. Hori horrela balitz, *zure gauzarik* sintagma pintzatua eta bi zati egina legoke hor. Baina ikus beste bertso hau: *Nic daquidan leqhutaric ni baytara eztituçu* (IX, 26). Honako hau ezin daiteke bihur, lehengoa bezala, sintagma soil bakarrera, *dakidala* ipinirik *daquidan*-en ordez: ezin esan daiteke euskaraz, *Nik, dakidala, eztituzu ni baitara lekutarik*. Bi sintagma dira, beraz, jatorriz ere, eta Etxeparek modu batetara eman diguna gehienok bestetara esaten badugu ere, ezin esan daiteke Etxepareren lehen hura (IX, 5) —bigarrena are gutxiago— sintagma bakar baten urratzea denik.

Esanak esan, ni batipat biziki harritzen nauena, inola ere esplikatu ahal izan ez dudana, besterik da: hots, zenbait bertso duten hitzen ordenu arraroa, irakurri batera guttiz gogorra, hitzen bat lekuz aldatu eta beste gabe, hura bezain hamabost silabatako bertso jatorra eta nere belarrientzat bederen askoz morfosintaxiaren arauetzkoagoa gertatzen zelarik. Entzun bi bakarrik:

(7) *Ene axolic* honi buruz diogunak balio du, noski, aurreko (XII, 50) *Amoriaren... axola* delako sintagmarako ere. Hori eta *aitaren semea*, esate baterako, ez dira sintagma bera. Etxeparek, eta Tartasek ere bai, *enetaco*, *batendaco*, eta abarren ondoan batzuetan genitivo soila darabil. Ikus: *Berce amoreac baten veci ezitirade perestu* (II, 41): horko *baten* hori guk komunzki *batentzat*, Etxeparek berak *taco* nahiz *-tzat*, esanez adierazten duguna da. *Ene axolic* eta *amoriaren axola* sintagma bat badira ere, beraz, ez dira *aitaren semea* den bezain bat: bi hitzak elkarrengandik askatuago daude.

“Bakkun eta oratione bikkunac iracasten” (or. 5)

Zergatik ez ote zuen esan: “Oratione bakkun eta bikkunac iracasten”, zesura eta etenak berberak izango zituzkeelarik? Hona bestea:

“Gaisqui errailleac ceren baititutçu gaitcetsi” (or. 7)

Zergatik ez ote zuen bertso hori honela paratu: “Ceren gaisqui errailleac baitituçu gaitcetsi”? Hobe zatekeen gainera, Etxeberrirenak ez bezala honek laugarren silabaren ondoan etena zuzen izango bait zukeen. Ez dakit, egia esan.

Etsi etsian badirudi ez zuela Oihenartek arrazoi faltarik, Etxeberririk bere buruari “des licences exorbitantes” eman zizkiola idatzi zuenean. Hori nork eta Oihenartek esatea bada zerbait, bera ere ez bait zen puntu horretan zenbait aldiz motz gelditu (8).

(8) Ikus bertsook: “... / Banins besain / Sembait bezain / Edo ilhaguin sarpasu” (II, 28-30).

ARRASATE, 1979-XII-21

-N / -Z ERLAZIO HIZKIAK DENBORAZKO ADITZ LAGUNETAN AXULAR ETA ETXEBERRI SARAKOARENGAN

Arrasate, 1979-XII-21

Miren Azkarate Villar

Lan labur honetan, erlazio hizki bezala -N edo -Z dararmaten *denborazko* izen sintagmak aztertuko ditut, bien arteko diferentziaz jabetu nahirik. Beraz, azterketa honetatik kanpo geldituko dira bai denbora adierazteko erabiltzen ditugun beste erlazio hizkiak (-tik, -ko...), bai denborazko perpaus txertatuak; berdin egingo dugu sintagmaren ardatza nominalizazio bat denean, hemen ere geure konpetentziak adierazten baitigu -N bakarrik dela posible.

Azterketarako *corpus* bezala bi "klasiko" aukeratu nituen, XULAR-en *Gero* eta X. KINTANA-k prestatutako J. ETXEBERRI Sarakoaren *Lan Hautatuak* (1). Erlazio hizki bat edo bestearen aukera aditzak erabaki zezakeela pentsatuz (L. HJELMSLV-en rekzioaren teoriaren arauera (2), AXULAR-en *corpusa* bi kriterioren arauera antolatu nuen:

1) denborazko izen sintagma bakoitza zein textuingurutan azaltzen zen kontutan hartuz, ondoren sintagma bakoitzaren egitura ateratzeko

2) aditz sintagmako aditzari begira

Gero, aditzak ez zuela argibiderik ematen konturaturuz -aditz berbera azaltzen bait zen bi motatako aditz lagune-

(1) P. AXULAR: *Gero*, Jakin, Arantzazu, 1976.

J. ETXEBERRI: *Lan Hautatuak* (X. Kintanak prestatuak), Kriselu, 21, Donostia, 1972.

Hauek dira erabili ditudan edizioak.

(2) L. HJELMSLEV: *Ensayos lingüísticos*, Gredos, Madrid, 1972, 182-199 orrialdeak.

kin— ETXEBERRI-ren *corpusa* lehenengo kriterioari begira bakarrik antolatu nuen.

Corpusa aztertu ondoren, nabarmen azaltzen da -Z dun adibideen urritasuna, -N dunekin gonbaratuz: hirutik bat XULAR-en kasuan (484 bider -n / 135 bider -z), erdia baino gutxiago ETXEBERRI-gan (96 bider -n / 41 bider -z).

-N edo -Z ERLAZIO HIZKIDUN DENBORAZKO ADITZ LAGUNEN EGITURA
AXULAR-engan:

A) -N dun denborazko aditz lagunen egitura:

1) Izlg. + iz. + mg. + (a) + n: (3)

“zeren hura... *heriotzeko orenean* begiratuko eta libratuko du Iainkoak” (G. 146) (4)

“hala erran eta egin ere zuen Iainkoak berak *Noeren denboran*” (G. 78)

“Baldin *iuramenturik egiten eztuzun egunean*, hamar ezkuturen irabazteko seguratzaz bazendu” (G. 180)

“Etzuen *bere mendean* arnorik edan” edan” (G. 265)

“*koleraren lehenbiziko apoderan, abiaduran, eta indarreran*, ezta bere buruaren iaun eta iabe” (G. 201)

“haur da kontzientziaren kargua eta ofizioa, *bertzen ahantz orduetan* orhoitzen du” (G. 286)

2) (Grad) + iz. + adj. + mg. + n:

“nolatan zahartzean, *hain denbora laburrean eta adin flakoan eta erlabean* pagatuko eta satifatuko du, hanbat bekhaturen zorra eta obligazinoa?” (G. 124)

“*nagia ere negu hotzean... ohean* igitzen da” (G. 29)

“hala da bada erhoa... *hain denbora luzean*, garizuma-raiño, arimako eritasunarekin dagoena ere” (G. 350)

(3) Laburpen hauek P. GOENAGA-ren *Gramatika bideetan*, Erein, Donostia, 1978, liburutik hartuak daude.

(4) Adibideak aipatzerakoan, AXULAR-en kasuan, G. Gero-ren laburpen bezala azalduko da; ondoren datorren zenbakiak atala adierazten du eta ez orrialdea (atalen numerazioa ez baita aldatzen edizio batetik bestera). ETXEBERRI-ren kasuan, berriz, L. H. Lan *Hautatuak* horren orde z dago, eta edizio bakarra denez, hurrengo zenbakiak orrialdea adierazten du.

“Zer ahal daidike zahartzean, *adin flako hartan?*” (G. 118)

3) *Iz. + mg. + (ta) + n*: kasu honetan izenak *eguerdi*, *arratsalde*, *arrats*, *uda*, *negu*, etab. dira; hau da, denboratalak adierazteko erabiltzen ditugunak

“erraiten du Pliniok egotzten duela *neguan* bere pozoia” (G. 297)

“gero *udan* pozoin berriarekin, are lehena baiño gaixtoagoarekin agertzen dela” (G. 297)

“eguzkiak... luzeago egin behar du itzala *arratsaldean*, *eguerdian* baiño” (G. 130)

“plazer da *igandetan* eta *beste bestetan* solhasean... denboraren iragaita” (G. 310)

“*egun hetan*, orduan penetan daudenek, desiratuko dute bere egunen fina” (G. 381)

Beste kasu batzuetan izenak ez du hain garbi denbora adierazten:

“baiña gero *eritasunean*... egin behar dugu ahal dagiguna”

4) *Izlg. + iz. + guzti + mg. + (ta) + n*:

“gizon bati *zeure mende guztian* etsaigoa eduki diozunean” (G. 249)

“eta *gerthatu zaitzan okhasino guztietan*, ahal dagizun gaizki eta kontra guztia egin diozunean” (G. 249)

“non *gau guztian* lorik egin gabe eduki baitzaitu” (G. 289)

“*eztugu urte guztian*, garizumaraiño, kofesatu gabe egon behar” (G. 350)

“*egundaiñoz geroz, lege guztietan, eta mende guztietan*, usatu da eta usatzen da kofesatzea” (G. 337)

5) *Zenb. mugagabe + iz. + (adj.) + ta + n*:

“elizari, erregeri eta komun guztiari *anhitz okhasinotan* egin derauztetzun zerbitzuak eta endrezuak” (G. 4)

“zeren obra miserikordiazkoak hargatik deitzen dira miserikordiazkoak... zeren *zenbait behar ordu herstutan eta premiazkotan* baizen, ezpaikara obligatu heken egi-tera” (G. 162)

6) *Grad.* + *iz.* + *zenb. mugagabe* + *ta* + *n*:

“badirudi bidegabe egiten zaikala bekhatoreari, *hain denbora gutitan* egiten den bekhatuagatik hanbat denboratako gaztiguaren emaitiaz” (G. 391)

7) *Zenb. mugatu* + *iz.* + *ta* + *n*:

“gizonak, nehoiz ere izaitekotz, behar luke *hogoi urthe-tan* izan laster eta arin” (G. 129)

Izena ezaguna denean, ezabatu egiten da:

“gizonak nehoiz ere izaitekotz behar luke... izan... *hogoi eta hamarretan* indar eta sendo” (G. 129)

8) (*Izlg.*) + *zenb. mugatu* + *iz.* + *mg. erak.* + *ta* + *n*:

“zuk ere *ioan diren hamar urtheotan*, edo gehiagotan, hari izan baitzara Iainkoaganik urruntzen, beharko duzu hurbiltzeko ere, hainbertze denbora” (G. 55)

“berrogoi urthe horietan egin ditutzun ongiak” (G. 109)

B) -*Z dun denborazko aditz lagunen egitura*1) *Zenb. mugatu* + *iz.* + *z*:

“erraiten da hunelako bizi izatu zen *hirur hogoi urthez*” (G. 42)

“*hirur egunez eta gauzez* baleak sabelean bizirik erabilli zuenean” (G. 86)

“zeren *ehun eta hogoi urthez* egin behar zituzten bekhatuak, *ehunez* egin baizituzten” (G. 81)

2) *Zenb. mugagabe* + *iz.* + *z*:

“ene seme haserre da zure anaia Esau... etzaitzala *zenbait egunez* ikhus” (G. 193)

“sudurrak kirats hartaz *zenbait denboraz* betheak erabiliz gero” (G. 62)

“eta ez aitzinetik *anhitz urthez* ongi eta prestuki bizi izan denak” (G. 297)

Izena ezaguna bada, ezabatu egingo da:

“dolore finak eta beroak gehiago daidi denbora gutiz, dolore laxoak eta hotzak *anhitez* baiño” (G. 134)

3) *Iz. + guzti + mg. + z:*

“eta halatan egiten diogu *egun guztiaz* Iainkoari othoitz, barkha diatzagula” (G. 350)

“egun guztiaz barur zindezilla” (G. 37)

4) *Iz. + adj. + (mg) + z:*

“eta hala arrazoin hunengatik, *denbora gutiz eta laburrez* egiten den bekhatuari emaiten zaika sekulako pena” (G. (G. 393)

“hala da *denbora luzeaz*, gogoan eta bihotzean barrena sarthurik dagoen aztura gaixtoa ere” (G. 65)

“hala utzten du *denbora luzeaz* bekhatutan egoiteak ere” (G. 63)

“*denbora luzeaz* bide bat eduki duen urari” (G. 59)

5) *Iz. + z:*

“*gauaz* egiten nituen neure buruarekin, neure gogoetak” (G. 347)

“halakoari eta halakoei gerthatzen zaie, *gauaz* kandela argitan, iokoan hari direnei gerthatzen zaiena” (G. 393)

“manatu zuen Fabiano Aita sailduak, maizago izanzen ezpazen ere, urthean hiruretan, *bazkoz, mendekostez* eta *eguerri*z kofesaturik, gorputz saildua errezibi genezala” (G. 343)

J. ETXEBERRI SARAKOAGAN

A) -N *dun denborazko aditz lagunen egitura:*

1) *Izlg. iz. + mg. + (ta) + n:*

“ezen ezta dudarik bertze hizkuntzek ere *lehenbiziko hatsapenean eta abiaduran* nekhe eta arantze berak iragan zituztela” (L. H. 204)

“eta oraino *egungo egunean* ere nork eztaki gauza bera egiten dutela?” (L. H. 86)

“lehenbizitik *erremediatzeko erraz zen denboran* ezagutu faltaz” (L. H. 179)

“*Babyloniako dorrerainoko denboretan...* ez ohi zen hitzkuntza bat baizik mundu-herri guzian” (L. H. 264)

2) *Iz. + adj. + mg. + n:*

“ezen hainitz gauza berriroki argitara hilki dira, batzuek erresuma hartan, eta mende batean, bertzeak erresuma hunetan, eta *mende diferentean*” (L. H. 45)

3) *Iz. + mg. + n:*

“eta ikhusiko duzu zuk ere nola behar duzun aitzinerat *ethorkizunean*” (L. H. 186)

“erakuslerik eta gidaririk gabe, berak bere buruz biltzen du *udan* neguaren iragaiteko behar duen mantenua” (L. H. 185)

4) *Zenb. mugatu + iz. + mg. + n:*

“Doni Joannen emana, abendoaren hogoi, eta bortzean, *milla sei ehun eta berrogoi, eta bigarren urthean*” (L. H. 125)

Zenbatzaile mugatua *bat* bada, izenaren eskubitara azalduko da, noski:

“behin *okasino batean* hitz arrotz baten erraiteko zegoe-larikan, lehenik bere parlamentari, edo konseilluari galdegin zioela” (L. H. 155)

5) *Iz. + guzti + mg. + ta + n:*

“ezen lekhu, eta *denbora guztietan* berek berea ohortzen zuten” (L. H. 155)

6) *Zenb. mugagabe + iz. + adj. + ta + n:*

“eta segur ere hitz hauek lothu zaitzkotela *asko okhasino, eta denbora diferentean* haukien herrietarat joan izan diren *euskaldunetarik*” (L. H. 43)

B) *-Z dun denborazko aditz lagunen egitura:*1) *Zenb. mugatu + iz. + z:*

“Hazi zituzten haur hek, *bi urthez* ahuntzen artean” (L. H. 265)

“Hebreoa Babiloniako gatibutasunean *hirur hogoi, eta hamar urthez...* ganbiatu zen” (L. H. 57)

2) *Zenb. mugagabe + iz. + z:*

“baina hunen iskiribuak *hainitz urthez* baidirau” (L. H. 131)

“zeren *asko orduz* hainitz aitzindari, eta buruzagiren izaitea baino, hobe bailizate osoki bathere ez izaitea” (L. H. 116)

“lege hau segitu du eskuarak, zeina *hanbat mendez* mantenatu eta mantenatzen baita” (L. H. 57)

3) (*Izlg.*) + *iz.* + *guzti* + *mg.* + *z.*:

“mendreago hura erabiltzen balu *egun guztiaz* ongi garbitzen, eta olioztatzen luelarikan” (L. H. 48)

“bai, zeren *bi berbo junta*gaillurik *gabe ezartzen diren aldi guztiaz*, azkenekoak behar du izan infinitiboko” (L. H. 253)

“...baizik JESU KRISTO aldareko sakramendu sainduan *egun guztiaz* errezibitzen zuenaganaik?” (L. H. 134)

4) *Iz.* + *adj.* + *z.*:

“zeren haztura gaitz baita erremediatzeko, hala nola bita hektika, zeina... heldu baita berotasun langita bat, *denbora luzez*, eta aphur bana emeki emeki hezurretan barna sarthuz” (L. H. 181)

5) *Iz.* + *z.*:

“ordea hautarik bakotxak *egunaz*, eta *gabaz* argitzen, eta distiratzten du” (L. H. 84)

“Grekoa ere bada *denboraz* munduan izan zen istimu” (L. H. 34)

“Grekoak ere *denboraz* eta nausi zeino, iraun zuen” (L. H. 57)

-N edo -Z hartzen duten aditz lagun hauen egitura aztertu ondoren, ohartzen gara badela diferentzia bat baino gehiago:

a) Izen sintagman izen lagunik azaltzen bada, erlazio hizkia -N izango da, ez -Z. Salbuespen bat bakarrik aurkitu dut ETXEBERRIgan eta beronen explikazioa geroxeago ikusiko dugu (“*Bi berbo junta*gaillurik *gabe ezartzen diren aldi guztiaz*” (L. H. 253)

b) Izenaren eskubitara adjetiboa azaltzen bada, gehienetan, -N erlazio hizkia hartuko du izen sintagmak. Aztertu dudan *corpusean*, *luze* eta *labur* adjetiboek bakarrik onartzen dute -Z.

- c) *AXULAR-engan aurkitzen dugun bikotean*: "hain denbora gutitan" (G. 390, 391) / "denbora gutiz" (G. 300, 133, 114, 256, 391, 392, 392, 394, 297), badirudi hain graduatzaile hori dela -N eskatzen duena (eta bigarren kasuan, berriz, bere ausentzia -z zilegi egi-ten duena eta -n eragotzi)
- d) Azkenik, sintagman zenbatzaile mugagaberik azaltzen bada, -Z erlazio hizkia hartzeko joera du izen sintagmak. Hala ere, AXULAR-en *corpus* luzean, bi kasutan zenbatzaile mugagabea daraman sintagmak -N hartzen du erlazio hizkitzat; ETXEBERRI-gan ere aurkitu dut beste adibide bat:

"zenbait behar ordu herstutan eta premiazkotan" (G. 162)
 "anhitz okhasinotan" (G. 4)
 "asko okasino eta denbora diferentetan" (L. H. 43)

Sintaxi mailako diferentzia hauek exprikatu ahal izateko, adierazira, azterketa semantikora jo beharko dugu. Denborazko aditz sintagmen ardatz diren izenen adierazia semetan aztertzean, [\pm iraupen] sema kontutan hartzen badugu, ikusten dugu izen batzuek [-iraupen] motakoak direla (beste modu batera esanda, [+ denbora puntual] sema daramatela); beste izen batzuek, berriz, [+ iraupen] sema izango dute beren sememaren osagaietako bat bezala. Eta hain zuzen ere, lehen motako izenak azaltzen direnean ardatz bezala, sintagma horrek ez du -Z erlazio hizkia hartzen denbora adierazteko. Horrela, aditz lagunaren ardatza: *abiadura, aiphamen, aldi, apodera, artikulua, azkena, bazter, eritasun, adin, ethorkizun, errefusa, gutiziamendu, liskar, muga, puntu, sasoin...* denean, izen sintagmari -N erantsiko diogu denborazko aditz lagun bihurtzeko. Gainera hemen aipatu dugun izen batek baino gehiagok ez du berez denbora adierazten; textuinguru konkretu batetan, eta askotan *lehenbiziko* edo antzeko laguntzailereren bati eskerrak adierazten du ekintza noiz gertatzen den: *heriotzeko pontuan* (G. 133), *lehenbiziko errefusean* (G. 299), *lehenbiziko liskarrean* (G. 238) *lehenbiziko gutiziamenduan* edo *aiphamenean*" (G. 355), *bizitzaren bazterrean* (G. 333)...

Beste izen batzuek: *akhabantza, azkena, ethorkizun...* denbora adieraz dezakete, baina ez iraupena.

Kasu hauetan, ez dugu -N/-Z aukerarik, denbora adierazteko behintzat. Oso errez da prueba egiten: "*eritasunean...* egin behar dugu ahal dagiguna" (G. 161) esan ordez, "*eritasunaz* egin behar dugu ahal dagiguna" esango bagenu, esanahia erabat aldatuko litzateke; bigarrean adibidean *noiz* adierazi ordez, *zertaz* adierazten dugu edozein euskaldunek ondo dakien bezala.

Beraz, denbora adierazteko -N/-Z ren arteko aukera: *egun, mende, urte, gau, arratsalde, goiz, larunbat...* ardatz bezala azaltzen zaizkigunean dugu; iraupen sema onartzen duten izenetan, alegia (edo beste modu batera esanda, denboraren zatiketa adierazten duten izenetan). *Denbora* izena bera ere talde honetan sartu behar dugu.

Geneviève N'DIAYE-k ere *Structure du dialecte basque de Maya* liburuan dioenez, -Z erlazio hizkia daramaten denborazko aditz lagunek gertakizun baten iraupena adieraziko lukete (5). Horrela: "Ango alkatea izan zen bortz urtez". "Ai izan zen nigarrez bere ganbaran denbora puske batez". -N erlazio hizkiak, berriz:

"Il indique le point du temps où se situe un événement ou la période pendant laquelle il prend place, sans qu'il couvre nécessairement la totalité de cette période, ou encore l'espace de temps nécessaire à l'accomplissement de l'action" (6).

Beraz, -N daraman aditz lagunak momentu edo puntu konkretu batez gainera, ekintza, gertakizun batek gauzatzeko eskatzen duen denboraldia (iraupena) edo gertakizun hori zein denboralditan gertatu den ere adieraz dezake.

Antzerako bereizketa egiten duten latinezko gramatikek ere (latinez ere denbora adierazteko akusatiboa eta ablatiboa erabiltzen bait zituzten). Eta konkretuki A. ERNOUT eta F. THOMAS-en *Syntaxe latine*, edo M. BASSOLS DE CLIMENT-en *Sintaxis latina* liburuan irakur dezakegunez, akusatiboak

(5) G. N'DIAYE: *Structure du dialecte basque de Maya*, Mouton, The Hague Paris, 1970, 75 orr.

(6) G. N'DIAYE: *op. cit.*, 78 orr.

(zenbait zehaztasun gora behera) iraupena adieraziko luke, eta ablatiboak ekintza gertatzen den momentua edo ekintza kokatzen den denboraren mugak (7). Ablatiboaren bigarren balio honen eta akusatiboaren balioaren arteko diferentzia oso xumea zenez, bi kasuak nahastu ziren.

Beraz, badirudi mota bateko edo besteko iraupena (irau-pen soil edo muga jakinak dituena) aukera daitekeela (gorago aipatu ditugun motako izenetan, noski: *uda, negu, urte...*). Baina gauzak oraindik gehiago zehaztu behar dira. *Mende, gau, arratsalde* etabar sintagmaren ardatz izan arren, ez dugu beti *-N/-Z* ren arteko aukera egiterik. Sintaxi mailako mugak ditugu (lehen ikusi ditugunak hain zuzen):

1) Izenlagunik azaltzen bada, *-N* erantsi beharko dugu. Edo beste modu batera esanda, badirudi izenlaguna dela denboraren iraupenari ezar diezaiokegun muga bat. Horrela gertatzen da adibide hauetan:

“zuk ere *ioan diren hamar urtheotan*, edo gehiagotan, hari izan baitzara Iainkoaganik urruntzen, beharko duzu hurbiltzeko ere, hainbetze denbora” (G. 55)

“manatu zuen biziaren penan *hurreneko bortz egunetan Semiramis* hark manatzen zuen guztia egin zedilla” (G. 229)

“zahartzeraiño Iainkoagana itzultzen eztenak, peril du hoberenaz ere... *lehenbiziko urthean* zamarrrik edo arropa forraturik beharko eztuen” (G. 124)

“gisa hunetako gauzen izenak dira eskuarak *bere lehenbiziko mendean*, eta gero ondoan ere beharren zituenak?” (L. H. 46)

“*neure mendean* anhitz ikhusi dut halakorik” (G. 159)

“lehenbizirik hasten naizelarikan, *aitzineko mendetan* Eskual Herritik ilkhi izatu diren presunaia ohoratu, eta ospe handitako hetarik” (L. H. 71)

Beste kasu batzuetann, ordea, izenlagunak, muga konkretuak ezarri ordez, badirudi [+ iraupen] sema eragotzi egiten dioela, konkretuki *egun* ardatzari:

(7) A. ERNOU, F. THOMAS: *Syntaxe latine*, Klincksiek, Paris, 1964 (3.^a), 31 eta hurrengo orr.

M. BASSOLS DE CLIMENT: *Sintaxis latina*, I, Consejo Superior de Investigaciones Científicas, Madrid, 1963, 50 eta hurrengo orr.

"*mendekuzko egunean... galduko eta deseginen zaitu*"
(G. 51)

"*gure Salbatzailleak bere Pasioneko egunean, Ierusalemeko alabei erran zerauena*" (G. 234)

2) Aditz lagunean, mugatzailearen ordeaz erakuslea erabiltzen badugu ere, -N izango da posibilitate bakarra, guztiok ondo dakigun bezala. Zergatik? Ezaguna den zerbaiti erreferentzia egitean, mugak ipintzendituelako:

"denbora gutiz bizi izan bazen ere, *guti hartan* egin zuen anhitz" (G. 300)

"*eztugu egun hautan* eskean ibiltzeko perilik" (G. 14)

"zenbat ongi eta obra on egin dituzun *berrogoi urthe horietan*" (G. 109)

3) Adjetiboek ere (*corpusean* azaltzen zaizkigunetan *luze* eta *labur* bakarrik dira salbuespen eta gainera *denbora* izenari loturik daude), -Z hartzea eragozten dute, beraz, nola baiteko muga ezartzen diote ardatzari. Ez hori bakarrik izenlagunaren kasuan ikusi dugun bezala badirudi [+ iraupen] sema ezabatzeko ahalmena dutela. Horrela:

"zeren hura *egun gaitzean*, heriotzeko orenean begiratu-ko eta libratuko du Iainkoak" (G. 146)

"nagia ere *negu hotzean...* ohean igitzen da" (G. 29)

"*gau ilhunean* baxharrik dohana" (G. 281)

Beste kasu batzuetan, izenak [-iraupen] semea badarama, adjetiboak ez du inolako eraginik izango: *adin flakoan, erba-lean, muga aitzean...*

4) Eta zer gertatzen da denborazko aditz lagunen egituran zenbatzaileak, mugatuak edo mugagabeak, azaltzen direnean? Izen sintagmaren ardatzak [-iraupen] seme badarama, -N hartuko du denborazko aditz lagun bihurtzeko. Horrela gertatzen da lehen aipatu ditugun adibideetan (*anhitz okhasinotan, asko okasino diferentetan, zenbait behar ordu herstutan eta premiaskotan*). Norbaitek esan dezake ordu-k [+ iraupen] sema duela, baina *behar ordu* izen konposatuak ez, beraz, normala da -n aurkitzea).

Izen sintagmaren ardatzaren sememan [+ iraupen] sema aurkitzen badugu, zenbatzaile muggabeak —bere izenak dioen bezala—, muga konkreturik ipin ez dezakeenez, senborazko

aditz lagun bihurtzeko -Z erlazio hizkia beharko dugu. Eta zenbatzaile mugagabeak batez ere bigarren motako izen hauekin agertzen direlako esaten genuen zenbatzaile mugagaberen bat azaltzen bada, izen sintagmak -Z hartzeko joera duela. Horrela aurkituko ditugu:

“eta ez aitzinetik *anhitz urthez* ongi eta prestuki izan denak” (G. 297)

“eta eduki zituen *zenbait denboraz* diruak berekin” (G. 279)

“lege hau segitu du eskuarak zeina *hanbat mendez* mantentatu eta mantentzen baita” (L. H. 57)

“zeinek bihotz gori, eta karitate khartsu batekin Jainkoaren ohoretan emaiten baizituzten bere biziak *asko orduz* ikhusi izan den bezala” (L. H. 86)

Zenbatzaile mugatuekin ere berdin gertatzen da:

– izena, [-iraupen] motakoa bada, beti -N azalduko zaigu denbora adierazteko:

“behin *okasino batean* hitz arrotz bat erraiteko zegoelarik” (L. H. 155)

“ethortzen da iubilio bat, edo besta-buru bat, edo garizuma: eta *hetarik batetan* egiten duzu urrikimendi haundi batekin kofesione jeneral bat” (G. 244)

Hemen, noski, *okasino* edo antzeko izenen bat dugu azpian.

– beste kasu batzuetan, zenbatzaile mugatuaz gainera izenlaguna (edo erakuslea ere) azalduko zaigu; orduan, lehen esan dugunaren arauera, -N aurkituko dugu erlazio hizki bezala: *ioan diren hamar urtheotan* (G. 55), *berrogoi urthe horietan* (G. 109), *hurreneko bortz egunetan* (G. 229)

– zenbatzaile mugatua *ordinal* deitzen dugunetakoa bada (*hirugarren, laugarren...*), -N izango da aditz sintagma-
ren erlazio hizkia, egun edo urte konkretu bat adierazten delako, eta gainera ez iraupen bezala, baizik -iraupen bihurtzen ditu izenak:

“ediren zuten *hirugarren egunean*” (G. 56)

“dugun bilha hanitz eskualdunek eskiribaturik utzi darokuten eskuara bera eta bereziki aita Materrak, *milla sei ehun eta hamaseigarren urthean*” (L. H. 44)

— azkenik, adina adierazi nahi denean ere, zenb. muga-tu + iz. + ta + n izango dugu:

“gizonak, nehoiz ere izaitekotz, behar luke *hogoi urthetan* izan laster eta arin; *hogoi eta hamarretan* indar eta sendo; *berrogoietan* zentzu eta adimendu; *berrogoi eta hamarretan* diru eta hazienda, eta *hirur hogoietan* debozino eta konzientzia” (G. 129)

Bistan da kasu honetan ere *urte*-k [+ iraupen] sema galdu egiten duela (*hogoi urthetan* eta *hogoi urthez* konparatu besterik ez dugu)

Izen sintagmaren ardatzean [+iraupen] sema aurkitzen dugula, beste inolako mugarik edo konkretutasunik ez badu, -Z deklinabide hizkia aurkituko dugu iraupena adieraziz:

“Noe bere jendearekin Armenian gelditu zen eta han *ehun eta hogoi, eta hameka urthez* bizi izatu ziren ondoan” (L. H. 271)

“gero ethorkizunean dobla, barur *bi egunez*” (G. 107)

“egin zioen emazte gaixtoak othoitz erregeri arren *denbora aphur batez, bortz egunez*, eman ziazola bere zuen eskua, eta botherea” (G. 229)

“Babiloniako gathibutasunean *hirur hogoi eta hamar urthez* hebreoei ahantzizaien bere hitzkuntza propiala” (L. H. 34)

Orain arte esan dugunaren arauera, beraz, -N honako kasuotan aurkituko dugu:

- a) [-iraupen] sema daramaten izenak sintagmaren ardatz direnean
- b) izenak berez [+ iraupen] sema eramán ahal izan arren, izen sintagman, iraupena adieraztea galerazten duen izenlagun edo adjetiboren bat aurkitzen dugunean (edo zenbatzaile mugatu ordinalen bat)
- c) iraupenari muga jakin batzuk ipintzen dizkiogunean izenlagun edo erakusleren baten bitartez

-Z, berriz, muga ezagunik gabeko iraupena adierazteko gordeko dugu. Eta izen sintagmaren egiturari gagozkiola zenbatzaileak aurkitu ditugu edo *luze, labur* adjetiboak izenaren inguratzaile bezala.

Bereizketa hau onartzen badugu, ongi explikatzen da zergatik azaltzen zaigun *-N* nominalizazioaren bat dugunean ardatz bezala (*zahartzean, jaikitzean...*); edo zergatik esaten dugun beti *denbora gutiren barrenean* (eta ez *-z* erabiliaz), edo *hanbat urtheren buruan*, etabar.

Hala ere, aztertu dudun *corpusari* begira, zehaztasunen bat edo beste egin behar da:

1) Orain arte ez dugu aipatu sintagmen egiturak aztertzean azaldu zaigun egiturarik sinpleena: ozenak bakarrik osatzen duen izen sintagma, alegia. *Negu, arratsalde, eguerdi, goiz, uda, larunbat* etabarrek iraupena adieraz dezakete; baina bakarrik azaltzen zaizkigunean, *-N* hartzen dute, egitura honi dagozkion adibideetan ikusi dugun bezala. Hala ere, hiru kasutan, *egunaz, gabaz, denboraz*, *-Z* azalduko zaigu. Badirudi *egunaz/gabaz* fosilizatutako oposizio bezala erabiltzen dela. Gauza bera gertatzen da *Mendekostez, eguerriz, bazkoz* (G. 343) hitzekin ere: fosilizatutako expresioak dira. Diferentzia garbi ikusten da ETXEBERRI-gan:

“Ordea hala konplitu ere zerauen bere agintza *Mendekoste egunean*” (L. H. 278)

egun konkretu bati buruz (ez inolako iraupenari buruz) ari delako.

Autore berak *denboraz* hiru kasutan erabiliko du:

“grekoa ere bada *denboraz* munduan izan zen istimu” (L. H. 34)

“grekoak ere *denboraz* eta nausi zeino, irauun zuen” (L. H. 57)

“*denboraz* Athenasko hiria izan zen Greziako hiri guztietarik famatuena” (L. H. 140)

Badirudi antzina gehi iraupen balio duela; AXULAR-ek erabiltzen duen *zenbait denboraz*-en pareko dela.

2) Antzerako fosilizazio kasua dugu, *egun batez* aditz lagunaren kasuan ere. Gehienetan, formula fijo bezala erabiltzen da, *cierto dia* edo horrelako zerbait adierazteko, bere iraupen balioa erabat galdurik:

“gogoetan nengoelarikan *egun batez*, zer perpauis hautatuko nuen gure gazteriarri aiphatzeko...” (L. H. 169)

“*egun batez* Arkelao Erregeari... aurthiki zioten zenbait ur burutik behera” (G. 208)

“ediren baitzen *egun batez* hartzaz gaizki mintzo ziren konpainia batetan” (G. 208)

“*egun batez* galdegin zeraukaten Alexandro handiari” (G. 51)

Adibide hauen, eta honako beste hauen artean, diferentzia nabaria da:

“gehiago egiten du orai hemen *egun batez* obra onetan enplegatzeak” (G. 105)

“baldin iraganean *egun batez* barurtu behar bazen-duen...” (G. 113)

3) Izen sintagmen egitura aztertzean *guzti* azaltzen zen izen sintagma aparte kontsideratu dugu. Hain zuzen, *guztiaz* formak *oro*-ren balio bera du. Geneviève N'DIAYE-kere aipatzen du *guzi* “*médiatif*” edo *-Z* kasuan, *oro*-ren pareko dela berak aztertu duen euskalkian (8). ETXEBERRI-gan garbi dago balio hau, *egun* eta *aldi* erabiltzen dituela ardatz bezala:

“...baizik JESU KRISTO aldareko sakramendu sainduan *egun guztiaz* errezibitzen zuenaganik?” (L. H. 134)

“hau da bat *egun guztiaz* ikhusten dena” (L. H. 287)

“bi berbo juntagaillurik gabe ezartzen diren *aldi guztiaz*” (L. H. 253)

Hau da izenlagunari buruz aipatu dugun salbuespena: izen sintagman izenlaguna azaldu arren *-Z* azaltzen dela denborazko erlazio hizki bezala, alegia. Baina ez du inola ere iraupena adierazten, baizik frekuentzia.

“*egun guztiaz* ikhusten dugun gauza da, zenbat aldiz bertzeren hizkuntzen behartzen garen” (L. H. 276)

XULAR-ek bi adibide dakartza:

“Baldin Iainkoak manatu bazintu, *egun guztiaz* barur zindezilla, zur baten edo harri baten gainean, ohean sarthu gabe, etzin zindezilla; zilizio bat, zerdazko gerriko bat, larru arras bethi ere erabil zenezala...” (G. 37)

“bada bekhatuak dira zorrak: eta halatan egiten diogu

(8) G. N'DIAYE: *op. cit.*, 75 orr.

egun guztiaz Iainkoari othoitz, barkha diatzagula" (G. 350)

Bigarren adibidean nahiko garbi ikusten da *guztiaz* horrek *oro*-ren balioa duela; Aita VILLASANTE berak ere itzulpena ematean *todos los dias* bezala itzultzen du; lehenengo adibidean berriz, *durante todo el dia* emango du erdal ordain bezala. Baina agian textuinguru zabalagoari begira pentsa daiteke hor ere frekuentzia adierazten duela (nahiz eta AXULAR-ek *oro* ere erabili). Dena den, *egun guztian* eta *urthe guztian* ere erabiliko ditu:

"*urthe guztian*, eta batzutan gehiago ere, bekhatuaren eritasunean ustelduak eta khirastuak baitaude?" (G. 340)

"*egun guztian*, orai arteiño, ene kontra ibilli zara" (G. 142)

Beraz, badirudi *guztiaz*, *oro*-ren baliokide bezala hartu beharko genukeela.

4) Azkenik, ETXEBERRI-k erabiltzen duen *asko orduz* aditz lagunari buruz zera esan beharko genuke: hemen ere frekuentzia adierazteko erabiltzen duen expresioa dela; ez du iraupenik adierazten. Garbi ikus daiteke hau honako adibi-deotan:

"zeinek *asko orduz* eta gehienez ezbaitiote uzten bere umei estudiatzera adin samurra dela kausa" (L. H. 178)

"eta zeren gauzak *asko orduz* hobeki aditzen baititugu exenpluz, eta konparazinoz" (L. H. 282)

"ordea badira presuna batzuk *asko orduz* jakin gabe zer irakurtzen duten... berehala arbuiatzen, edo onhesten baitute autoraren alderat duketen gaitzerizkoaren edo onheritzkoaren eredura" (L. H. 209)

Hemen esan ditudan gauza guztiak, noski, AXULAR eta ETXEBERRI Sarakoarentzat balio dute, noski. Dudarik gabe, *corpus* zabalagoak aztertu beharko genituzke beste idazleengan ere gauza berdina gertatzen den ala ez jakiteko, eta batez ere euskalki diferenteetan (Ifarraldekoetan gutxienez) diferentzia hala den ala ez, eta gaur ere gordetzen ala ez ikusteko.

ERGATIBOAREN SUJETOTASUNAZ

Arrasate, 1979-XII-21

Karmele Rotaetxe

Gai honetaz, oso aspaldi ez dela, Koldo MITXELENak idatzi zuen: "...Este es un problema que nunca se ha resuelto. Las mismas tentativas que alguna rara vez se han publicado han tratado más bien de soslayarlo, de acuerdo con la sabiduría militar que suele tratar de rodear una posición que se resiste a ser tomada de frente (1)."

1971tik 1976ra Doktoradoko tesiaz (2) arduratzen nintzanean, delako puntu horretan azterketa egin beharrean nengoan eta, militarra ez naizenez gero, "de frente" atakatu behar izan nuen.

Jakina denez, antxinako arazo bat izan da gure hizkuntzaren gramatikan eta ondorio desberdinetara daramaten ikuspuntu desberdinetatik har daiteke problema:

- Ondoriorik ezagunena da, behar bada (+ tr.), euskal aditzari dagokiona: ergatiboa sujetotzat hartu edo hartzen ez dutenek (ta gehienak izan dira) aditz hori pasiboa dela onartu behar dute.
- Ondorio honetan kontraesan bat datzala MITXELENak behin baino sarriago adierazi du; zeren, bi terminoren artean oposiziorik edukitzen ez duenean sistema batetan termino markaturik (pasiboa, kasu honetan) ez da kabitzen.
- Izen-sintagmari dagokionez, terminologiak ekarritako istilua bistan dago: aspalditik, gure hizkuntzaz ardu-

(1) L. MICHELENA "Notas sobre compuestos verbales vascos", in Hom. a D. Vicente Garcia de Diego - 1976 n. argitaratu gabe, egilearengandik jasota.

(2) Karmele ROTAETXE, *Estudio estructural del euskara de Ondárroa* L. Zugaza, Durando 1978.

ratu direnek "nominatibo" erabili dute aktualizaturik dagoen base bat (etxe-a) izendatzeko (3).

- Hori dela ta, inguruko hizkuntzetan eta "kultura"zko deitzen diren hizkuntzetan, nominatibo ta sujetoa gauza bera izanik, terminologia horrek, nire ustez, modu batez edo bestez azterketa baldintzatu egin du.
- Neurri handi batez, ergatiboa sujetotzat ez onartzeko arrazoiak kulturalak izan direla esango nuke: gure hizkuntza astertzerakoan, hizkuntzalari asko ez dira ahaztuteko gauza-izan hizkuntza *indoeuroparrei* aplikatzen zaizkien oinarriak: hauetan, aditzamorfologiak izen-sintagma *batekin* konkordantzia eskatzen du: (Ad.: /Ahora, los niños salen de casa/ edo /Maintenant, les enfants sortent de la maison) edo /Now, children are leaving home), azterketa sakon batetan sartu barik). Eta, morfologiaren esker agertzen den izen-sintagma horri, *joskera*-azterketak *funtzio* bereizi bat ematen dio: *sujetoa* da. Bestalde, eta arazo honetan sakonki sartu gabe (tema≠ rema, topic≠ comment; diskurtsoko oposizioetan, esaterako) "sujeto" funtzio hau aditz-prozesuarekin lotu-loturik izanez, duen izen-sintagma perpausako besteak baino garrantzitsuagoa dela pentsa ohi da, eta esaldia bi partetan ebakia izan da, aipatutako hizkuntzetan. (Ad.:/Tu madre - no toma pescado/). Gure hizkuntzan, azterketa hau (-tr.) aditzekin egokitzen har daiteke (/orain, umeak etxetik doaz/); (+ tr.) aditzekin, baina, ez.

1) ERGATIBO-ERAIKUNTZA

- Mundu guztiak dakienez (+ tr.), euskal aditzamorfologiak bi izensintagmarekiko konkordantzia, behintzat, eskatzen du, eta eskaera hau izen-sintagmek ere aditzari eskatzen diote, solitaritatezko harremanak izanik. Beraz, eraikuntza honetan, konkordantziak ez dakarkigu (-tr.) aditzekin ekartzen digun informazioa: azterketa ilunago bihurtzen da.

(3) Esaterako, P. DARRIGOL, *Dissertation critique et apologétique sur la langue basque*, Bayone, 1827, liburuan agertzen da "nominatibo", ikus. p. 55.

Zeren, sarritan aipatu denez, konkordantziaren alde-
tik, honelako adibide bat /gizonak gizona ikusi du/
azter daiteke /gizonak (IS) gizona ikusi du (AS)/ edo /gi-
zona (IS) gizonak ikusi du(AS)/ edo, hiru partetan, /gi-
zonak - gizona - ikusi du/. Baina, hizkuntza nominati-
bodunak zituzten gogotan hizkuntzalariek, eta ez bes-
te, izan-sintagma bien arteko bat aukeratu egin behar
zuten, perpausa bi zatitan ebaki ahal-izateko.

- Jakina denez, ergatibo-eraikuntzan agertzen diren
izen-sintagmak bi dira: *ergatiboa* eta nik deitzen dio-
dan *absolutoa* (formalki, /Base-a/ edo /Predterm.
Base/) nahiz eta gehienek “nominatiboa” izendatu.
Hain zuzen, bigarren izen-sintagma honen forma eta
(-tr.) aditzaren *sujeitoaren forma* gauza bat da /gizo-
nak *gizona* ikusi du/ eta /*gizona* etorri da/ adibideetan
agertzen denez. Eta, bigarren adibidean /gizona/ suje-
toa izanez gero, lehen adibideko /gizona/ sujeta
izan behar. Hipotesi hau kontsideratzean, ez zaigu ahaztu
behar gaurko terminologia ofizialean ere aipatutako
/gizona/, *kasu bietan*, “nominatibo” izendatzen dela,
hau da, hizkuntza indoeuoparretan sujetaok hartzen
duten formaren izena. Linguista askok erakutsi ohi
duten arrazoirik sendoena hau izan da eta, formalki,
ez zaie beste irtenbiderik geratzen (4). Hortaz, /gizo-
nak gizona ikusi du/ adibidea aztetuko litzateke: suje-
toa, /gizona/; konplementoa, ergatiboa dena /gizonak/
eta (+ tr.) aditza, pasiboa.
- Zoritzarrez edo zorionez, hitzunek duten hizkuntzari
buruzko sendimenduarekin az dator ondo eta azterke-
ta baten deitzen den “intuizio linguistika” ere kontu-
tan hartu behar da. Beste arrazoi batzuegatik, ondo-
rio hau ez da bat ere komenigarria: horrelako azterke-
tari jarraituz, esaldi batzuek, adibidez, ez luke sujeta-
rik edukito /(B.) aittak urten dau/, esaterako. Batez
ere, gure hizkuntzaren egitura sintaktikoan —ergati-
boduna, hain zuzen— bigarren aktante bat izanez,
aktante hori (NOR, nire hipotesian) *ez da akusatibo
bat*. Zeren, L. TESNIERES hitzekin, ez dugu:

(4) W. H. JACOBSEN-ek “Linguistic Society of Americari komunikapenean,
L. Michelena-k aipatzen duenez in op. cit. (1).

“Second actant passif ou sémentiquement contre-sujet” (5).

- Hori dela ta, sujetoa zein izen-sintagma den jakiteko, kultura ofizialak eman dizkigun arrazoi-bideak (argumentoak) berriz ikusi behar ditugu.

2) ERGATIBO ETA, BEREIZIKI, EUSKAL ERGATIBOARI IRITZIAK. Pundu honetaz, ez naiz luzaz mintzatuko. Morfologiaren aldetik begiratuta, nire *Estudio estructural del esuskera de Ondárroa* (6) aurki daitezke izan diren interpretaziorik gehienak eta, nire ustez, garrantzitsuenak (aditza pasiboari buruzko teoriak, aditza izena dela sostengitzen dutenak: Cap. 32.04). Beste hiru kapitulutan -6.1-6.2.-6.3 ergatibo-erakuntzaz arduratu naiz: zer neurritan ergatiboaren markak geratzen diren (+ tr.) aditzean, diskurtsuko formetan, beste hizkuntza ergatibodunetan problema nola tratatu duten era; nolakoa den gure esaldia -aditza muina-duena (verbo-zentrista) ala ez-; nondik datorkigun perpausaren bi partetan ebaki-beharra... Gure herriko hizkuntzalarien iritziak ere jaso ditut —memento horretan argitaraturik zengozenak, jakina—. Bestalde, azken egun hauetan, Ibon SARA-SOLA-rengandik hartu dudana separatan izan diren interpretazioei buruzko bilduma on bat ikus daiteke, egilearen interpretazio generatibista aurkitu baino lehen (7). Bistan dago gauza bat: pasibotasunaren aldeko iritziak edota ergatibo-a sujetotzat hartzen ez dutenak sujetotasunaren aldekoak baino ugariagoak dira. Gure herrian, dakidanez, irizkideak ditut: P. LAFITTE (8), K. MITXELENA (69) eta I. SARASOLA (10).

(5) L. TESNIERES, *Eléments de syntaxe structurale*, Paris, 1966, 635 or.

(6) Karmele ROTAETXE, op. cit. Cap. 3.04, pp. 318-341.

(7) Ibon SARASOLA, “Sobre la bipartición inicial en el análisis en constituyentes”, in *Anuario del Seminario de Filología Vasca “Julio de Urquijo”* XI-1977, San Sebastián, 1979.

(8) P. LAFITTE, *Grammaire-basque* (Navarro-labourdin littéraire), Bayonne, 1944 - eta “Pour ou contre la passivité du verbe basque”, in *Gure Herria*, maijun, 1931.

(9) L. MICHELENA, “La lengua vasca” in *Guipuzcoa*, pp. 191-209, San Sebastián - geroago liburu bat *La lengua vasca*, L. Zugaza.

K. MITXELENA, *Zenbait Hitzaldai*, Bilbao, 1972 - 91-92 or. - 1 Ohar.

(10) I. SARASOLA - op. cit. in (7).

3) LOGIKA-LINGUISTIKAREN ARTEKO HARREMANAK.

Aurkeztu dugun esaldiaren ebakia gramatikak logikatik hartuta dauka, aspaldian. Esate baterako, Grezian —eta bistan dago Aristoteleren estudioetan—, gramatika logikarengandik ezin askatu daiteke. Baina, bide batez, delako logika hori hizkuntza partikular batek, alegia Grekoak, baldintzaturik dago, nahiz eta geroago filosofo horren ideiak mundu guztian zabaldu, unibertsalak balira bezala. Perpausak, halabeharrez, parte bi izan behar zituen: Sujetoa eta Predikatua. Bipartizio hau gramatikan sartu ta gero, gure mundu kulturaleko eskola garrantzitsuenetan eta mendetik zehar “dogma” balitz bezala geratu da. N CHMOSKY-k, berak ere, alegia, horrela ebakitzen du

PERPAUSA..... IZEN-SINTAGMA - ADITZ-SINTAGMA

Oraingo logikak, baina, ez du esaldia horrela ikusten: funtzio proposizionaltzat hartzen du, hain zuzen, operador eta argumento batzuekin. Eta, nire hipotesian (-tr.), aditzeraikuntzan sartzen diren operador eta argumentoak eta (+ tr.) eraikuntzan sartzen direnak ezin paretan jarri, esberdina direlako (11). Horrek esan nahi du gure memento honetan logikak ez dio gramatikari inposatzen goian aipatutako ebakia (Suj. / Pred.) (12).

4) SUJETOTASUNAZ

Sujetoa, problema larririk gabe, idoro dezakegun hizkuntzetan, izen-sintagma hoiek zenbait propietate aurkeztuten dute. Delako propietateak transformazio batzuen bitartez agertzen dira. Morfologia alde batetan utzita, taktika berri honek —*erlaziozko linguistikari* dagokiona— presupuestotzat zera hartu behar du: morfologiã ta joskera hizkuntzaren bi mailaren azterketari dagozkio. Hortaz, kasuak —eta haien artean ergatiboa— ez daude sakonezko egituran, azalezko egituraren notazio hutsak direlako. Kasuak eta erlazioak ez dira gauza bera: morfologiaren bitartez —hau da, notazio batzuen bitartez— kasuek joskerari buruz ematen digute zenbait infor-

(11) Karmele ROTAETXE - op. cit. in (2) - Cap. 6.3.

(12) Karmele ROTAETXE, “Lingüística-lógica: la construcción ergativa vasca”, in *Revista española de Lingüística*, R. E. L. 8, 2, Madrid, 1978.

mazio, baina ez dira erlazioak. Bestalde, onartu egin behar sujetotasunaren *neurri* bat dela; hau da, hizkuntza hatzuen sujetoek beste hizkuntza batzuen sujetoek baino propietate gehiago izan dezakete. Batez ere —eta hau da gure kasuan irtenbiderik inportanteena— izen-sintagma biren artean, sujetoa zein den jakiteko problema izaten denean, orduan propietate gehiago erakutsiko dituen sintagma sujetotzat har daiteke.

Abia-iritzi (presupuesto) hauek onartu ta gero, probapean jar daitezke euskal absoluta eta ergatiboa, ergatiboraikuntzan, hau da, problema agertu zaigun lekuan. Eta.

Propietate a), edo "Equi NP Deletion":

Funtzio berdinezko izen-sintagma biren artean, bata ken daiteke esaldian edo perpausan:

1) /Aitak etorri nahi du/: izen sintagma baten bitartez, adierazten dugu (+ tr.) aditzaren sujetoa /aitak/ dela, baina baita ere (-tr.) aditzaren sujetoa —agertzen ez dena— /aita/ izan behar dela. Eta bigarren kasu honetan, zalantzarik izaten ezpada /etorri/ ren sujetoa /aita/ dela onartzeko, beste horrenbeste aitortu behar ergatiboari dagokion /aitak/ sintagmari buruz. Aurka-proba (contraprueba) bat dugu: ergatiboraikuntzan den absolutoa, hau da konplementoa edo SN2 nire hipotesian, ezin errez ken daiteke:

2) /Ama joan da ikustera/ ez da ulertzen (edozein kontestotan, noski) eta adierazi behar dugu *zer* ikustera joan den.

Propietate b) Koordinaketari dogokiona

Propietate guztiak azaldu ezinik, azpimarratu nahi dut euskararen koordinaketan gertatzen dena:

3) /Katua etorri, arraina jan eta hor bertan geratu da/ esaldi honetan, nahiz eta aipatu gabe, aditz bakoitzaren sujetoa zein den ulertzen dugu. Lehen aditzak baldintzatzen du izen-sintagmaren forma (ergatiboa ala absolutoa) izen-sintagma hoi *funtzioa bat* delako (sujetoa kasu bietan) eta:

4) /Katuak arraina jan du eta kalera joan da/ (+ tr.), aditzagatik, ergatiboa agertzen da.

Propietate d) Semantikari dagokionez eta beste batzuen artean, oso inportantea dugu "existencia independiente" rena

deituta (berezko izatea?). Hau konprobatzeko, egiaren iritziak (criterios de verdad) sartzen dira:

5) /Umeak etxe bat egin du/, esaldi honetan /umeak/ benetako ume bat izan behar da, nahiz eta /etxe bat/ "etxe", ez.

Euskal-aditz konposatuetan —eta puntu honetan Mitxelenaren iritzikoa ez naiz (13)— deitzen dudan absolutoak eta, nire ustez, sintaktikaren aldetik konplementoa denak, predikatuan gorputz bat egiten du aditz-laguntzailearekin; ergati-boa, ostera, askoz ere askatuagoa geratzen da. Eguneroko hizketan dugu, adibidez:

6) /Mutil horrek hitz-egin du ikasgelan/ esaldian, /hitz-egin/, azentuari dagokionez, semantikari dagokionez, hizkuntzari dagokionez, unitate bat da. Jakina, entzun dezakegu:

6') /Mutil horrek ez du hitzik egin ikasgelan/, baina, duda barik, sarriago entzuten da:

6'') /Mutil horrek ez du hitz-egin ikasgelan/.

Propietate e) Erreferentzia autonomari dagokiona.

Erreferentzia autonoma edukitzen dute sujetoek eta propietate honekin lotuta —edo, propietate honek eskatzen dituen proben bitartez— erreflexibizazioetarako zenbait bide azter daitezke (nere/neure, zure/zeure, aren/bera... neure burua - Aditza. etab.).

Propietate f)

Erlatibizazioarekin lotuta den propietate hau ere konprobatu egin dut.

Baina, ezin pentsa daiteke egin ditudan proba guztiak eta atara ditudan propietate guztiak, zehatz eta mehatz, txosten honetara ekar ditzakedenik (14).

(13) L. MICHELENA, op. cit. in (1).

(14) Karmele ROTAETXE, op. cit. in (2) - of. 6.3. Apéndice.

KONKLUSIOAK

Hitz bi amaitzeko: aurkitu dituden propietateek argi ta garbi *erakusten* dute euskal-ergatiboa absolutoa baino sujeta-*toagoa* dela ergatibo-eraikuntzan. Ondorio honekin, nahiko dugu ergatiboa sujeta dela sostengitzeko. Esan dugunez, ergatiboaren marka (-k) azalezko egituraren marka bat da eta besterik ez (15). Beste sintagmari dagokionez (Base-a, edo Pred. Base), hau da absolutoa, ezin izendatu daiteke, nire ustez "nominatibo", gure hizkuntzan "nominatibo/akusatibo" oposiziorik ez dugulako eta izen honek nahaste bat baino gehiago ekarri dizkigulako.

Jakina, iker-lanek ez dute inoiz ere mugarik izaten eta ez dute izan behar; honek ere ez. Halan eta guztiz, eztabaida gorriekin edo gorrien esker hain luzaron iraun duen ergatibo-eraikuntzari buruzko arazo honi *erlazio-linguistikak*, azkenez, laguntza eder bat —zientifikoa delako— ekarri diola esango nuke. Bide batez, *erlazioen azterketek gure gramatikaren* puntu ilun asko argitzen digute eta, horregatik, *erlazio-linguistikak generatibak* baino ondorio aberatsagoak ekar diezazkigukela uste dut.

(15) Helburu honetara I. Sarasola ere heltzen da, ikus. op. cit. in (7).

LEKUTASUNEZKO FORMEN MUGABIDEA

Arrasate, 1979-XII-21

Karmele Rotaetxe

Txosten honetan agertzen diren ideiak nire *Estudio estructural del Euskara de Ondárroa* (1) -tik datoz, gehien bat. Lan horretan, hipotesi berri bat eman nuen inork, orain artean, kritikatu ez duena; horregatik, zuen aurren erakutsi nahi dut, "feed-back" bat lortzeko esperantzarekin. Hain zuzen, linguistikan, beste zientzietan bezela, iker-langileari beharrezkoa zaio kritika, bere hipotesiak sendotzeko ala baztertzeko.

Jakina denez, hizkuntza guztietan lekutasunezko formek elkar-ezaugarri batzuk izaten dituzte, aditzaren prozesuari dagokionez. Gure hizkuntzan, joskera ta semantikaren elkar-ezaugarri hoiak hazt formal batzuen bitartez agertzen dira. Luzeegi ez mintzatzeko, bizigabeko formak soilik hartuko ditut, nahiz eta kontutan eduki William H. JACOBSENEK bizigabeko ta bizidun formak elkarrekin tratatzeko hipotesi berri bat eskeini digula (2). Baina, Ameriketako linguista honen hipotesia nik jaso ditudan datuekin ondo ez datorrela erakutsiko dut.

Lekutasunezko paradigmek —ta, zalantzarik gabe, -ko duena hemen ere sartu behar— elkarrekin dituzten hatz formalak hauek dira: base (3) guztiekin, mugatu-plural eta

(1) Karmele ROTAETXE - *Estudio estructural del euskara de Ondárroa*, (3.10.01 - 3.10.11) - L. Zugaza, 1978.

(2) W. H. JACOBSEN - "The basque locative suffixe" in *Anglo-American Contributions to Basque Studies - Essays in honor of Jon Bilbao*.

(3) Atzizkirik gabe agertzen den *forma*: etxe, lur, tab. Eztut "sustrai" erabiltzen, hitz hau etimologiarekin lotuta dagoelako, gehien bat. "erro"-k, bestalde, beste adierazi bat du. Gazteleraz eta frantzesez, "base" normaliki erabiltzen da.

mugagabeko paradigmetan *-ta-* elemendu agertzen da, nahiz eta hizketa batetik bestera forma lotuak ("bound forms") esberdinak izan. Mugatu singularrari dagokionez, inesiboak izan ezik, beste paradigmek ez dute aktualizazioaren edo determinazioaren markarik erakusten (etxera, etxetik, etab..). Azkenez, inesibo singularreko paradigmaman, basea kontsonante batez bukatzen denean, *-e-* bat agertzen da: delako *-e-* hau epentetikotzat aurkeztu ohi da, baina, hain zuzen, fonologiazko erregelek ez dute eskatzen: adibidez, /*lurran/ fonologiari dagokionez posible izango litzateke, baina hizketa guztiek *-e-* hori sartzen dute errealizazio bat edo beste emateko (/lurrean), /lurrin/, etab..).

Pluralean, °g pluralizatzailea (°g ... > /k/ // - ≠) ez da ikusten, ez batuaren formetan (lurretan, mendietan) ez eta hizketetako formetan (lurretan, mendixetan) (4).

Aipatu ditudan bereizitasunek azpiko formen konposaketa (azpiko elementuak etab.) ilundu egiten dute ta azterketa batek erakutsi beharko luke:

a) zergaitik /mendietatik/, /mendietan/ edo /mendieta-ko/, adibidez, pluralak eta determinatuak diren.

b) zergaitik hizketa guztietan *-e-* bat sartzen den inesibo-singular-paradigman, nahiz eta *-e-* hori gaindizkoa (superflua) izan fonologiari begiratu, eta horrek esan nahi du epentetika ez dela.

d) zergaitik eta zein bidetan /mendiko/ edo /menditik/, esate baterako, mugatu singularrak diren eta zergaitik ez ditugun inon topatzen *mendiako edo *mendiatik.

Onartzen ditugun aurre-iritziak (presupuestoak) hauek dira: 1) lekutasunezko formak hizkuntza guztietan transformazio batzuen bitartez lortzen baldin badira, gure hizkuntza ez da salbuespen bat izango; 2) konponente fonologikoan gertatzen diren aldaketak euskara batuaren formetan neutrali-

(4) Morfofonologiaren erregelak erabiltzen dugu ontzat, °sinboloa azpiko forma baten aurrean jarri behar. Pluraleko /k/ ren azpiko forma °g izan behar zela aspaldian azaldu eta erakutsi nuen, "rewrite" erregela bat emanaz:

°g ... > /k/ // - ≠, hau da azpiko °g/k/ ahoskatzen da, forma baten mugan gertatzen denean, cf. K. ROTAECHÉ - J. L. DONEUX "Sur un point de morphologie nominale du basque", in *Fortes Linguae Vasconum*, 9, 1971, pp. 269-290.

zaturik izanez, hizketa baten formak erabili beharko ditut morfofonologiaren erregalak aplikatzeko (5). Erreferentzia Ondarroa-ko datuetan jarriko dut eta ez dut uste lokalismopekaturik denik; hain zuzen, beste hizketa batzuen datuekin, JACOBSEN (6) funtsezko ondorio berdinetara heldu da.

Aipatutako a), b), d) problemei, hona hemen aurkeztuten dizkiet azalpenak:

a') morfofonologiaren bitartez lortu dudan Ondarroako formen azterketak eta beste formei buruz JACOBSEN-ek lortu duen azterketak zera erakusten dute: mugagabeko formetan, azpiko egituran °Base-ta-n dugula; mugatu pluralean, berriz, °Base-e-g-ta-n (7).

Honek esan nahi du -ta- elementuaren adierazpena

“indifinitess especially as to quantity, much like the class meaning of English mass nouns”

dela, JACOBSEN-ek dinoenez (8). Eta, pluraleri dagokionez, azpiko formak °g pluralizatzailea erakusten du. Baina, pluralizko forma hauek determinaturik, aktualizaturik edo mugaturik daudela azalkizun daude oraindik.

Hain zuzen, Z.S. HARRIS-ek (9), artikulua mugatuaz ari denean, hau azaltzen digu: adibidez, /etxea/ edo /the house/, /la maison/ etab. erabiltzen dugunean “etxe-den-a” esaten ari garela; arrazoi beragatik /etxetik/ dinogunean “etxe-den-atik” adierazten dugula. Gero, diskurtsora pasatzean, erlatiboa ezabatzen den transformazio bat gertatzen da.

Gauzak honela ikusten baldin baditugu, /lurretan/ (azpian, °lurr-e-g-ta-n) forman hurrengo elementu hauek bereizi behar ditugu: inesibo paradigma guztietan agertzen delako -n *atzizkia*, inesiboaren formantetzat har dezakeguna; beste

(5) Morfofologia, Patxi GOENAGAK bere *Gramatika bideetan* aurkeztuten digun baino askoz ere aberatsagoa ta baliotsua da, behar den bezela aplikatzen denean, jakina.

(6) W. H. JACOBSEN - “Historical Implications of the western Basque Tonal Accent” - 2. Draft - 1977.

(7) Cf. op. cit. in (6) eta in (1).

(8) W. H. JACOBSEN - op. cit. in (6).

(9) Z. S. HARRIS - *Notes du cours de syntaxe* - M. Gross -en itzulp. Paris, 1976.

aldetik, forma honetan informazio gehiago aurkitzen dugu: *-ta* honegatik ulertzen dugu "mugagabeko kantitatea den zerbait"; *-g-* honegaitik, "plurala den zerbait". Hori dela ta, pluraleko sintagmak irakur daitezke:

gaztel.: ((en lo que es masa) que es plural) que es tierra),
eta

euskar.: (lurr-da-n-(g-da-n-(ta-da-n-a-n))).

Transformazio batzuen bitartez, erlatiboak jausi egiten dira eta, beti lez, zerbait errekuperatzen behar da haien orde. Nere ustez, hain zuzen, errekuperazioa "juntura" batzuen bitartez egiten da. Bestalde, formante *-n* (-sil.) izanez, *a-n* elementuak silabatzen dira. Hortaz: lurr + g + ta + an. Eta nire hipotesian, juntura hoi errealizazioak kontestu fonologikoak baldintzatzen ditu. Izan ere, bi vokalen artean, errealizazioa \emptyset (huts) da, baina beste kontestu foniko batetan, hau da:

V – V ez denean, juntura (+) ... > °e (azpiko e bat) da.

Honela, paradigma mugatu pluralean eta base guztiekin. °Base-egetan dugu, Base-e-g-e-ta- \emptyset -an, batetik sortuta.

Geroago, errepresentaziozko erregelak (morfofonologiari dagozkion artekoak) sartzen dira azpiko forma hauek diskurtsoko formetara eramateko: /mendietan/, /mendixetan (Ond.)/, /elixetara/, baina /elixetà/, Ond., adibidez.

Azterketa honek ondorio garrantzitsu bat dakarkigu: erlatiboen transformazioek juntura batzuetara eraman bagaituzte, beste horrenbeste gerta daitekela singularrean susmatu dezakegu.

b') hain zuzen, inesibo singularrean /etxean/ interpreta daiteke: "etxe-da-n-a-n".

Lehen transformazioa aplikatuz gero, etxe- \emptyset -an. Eta nola juntura ... > \emptyset // V–V, "rewriting" erregela honek /etxean/ ematen digu, edo /etxin/ morfofonologiazko erregela bat edo beste aplikatuz.

Baina, sakonezko formatik lurr + an izaten dugunean, contestua V–V ez izanez gero, /lurrean/ azalezko egituran edukitzen da. Berriz ere, morfofo-

nologiaren aldaketak eman ditzake forma desberdinak Onda-
rroan /lurrin/, esaterako, beste forma batzuk aldean utzita,
luzeegi ez mintzatzeko.

Hipotesi honen bitartez, inesiboaren -e- famatu hori uler
daiteke, behintzat.

Azterketa honetarako, JOCONSEN-ek *-gan* proposatzen
digu atzizkitzat, diakroniaren aldetik begiratuta eta *K*(kontso-
nante)*an* sinkroniari begiratu. Soluzio honek batu ditzake
bizigabeko ta bizidun formak; baina, gaurko euskaran eta nik
hartutako datuekin, behintzat, eragozpen larri bat sortzen da.
Hain zuzen, atzizkia *-gan* izango balitz edo *Kan*, zuzen-zuzen
baseari lotuta, orduan inolà ere ez genuke lortuko Ondarroako
/mendixan/ palatalizazioarekin. Zeren, beste paradigma
baten /ze orraziaz/ °orrazi-°gaz azpiko formatik etorrita dugu
palatalizaziorik gabe eta, /orrazixaz/ edukitzeko, konposaketa
izan behar da °orrazi -°a -°gaz (10). Amerikatako linguistaren
hipotesia nerea baino dotoreagoa da, baina ezin onar daiteke
helburura ez ba gaitu eramaten.

d') -TIK, -RA eta -KO paradigma singularrei dagokie-
nez, atzizkiak *silabikoak* dira (inesibo -n ez dena). Hortaz,
determinantea -a ez da behar azpiko formetan eta -e- epente-
tika agertzen da kasu baten: basea kontsonante batez buka-
tzen denean (etxetik, etxera, etxeko, baina lurretik, ... tab.).
Hizketa batzuetan, behintzat, junturaren aztarna geratzen
da. Adibidez, vokalen artean -r- biguna Ondarroan ez da
ahoskatzen beste hizketa askotan bezala ta irtenbidea -edo
diskurtsoko forma- /etxea/ da ta ez /etxera/. Baina, normalki,
hizketa horretan bi bokal hoiek elkarrekin aurkitzen direnean
kontrazio bat gertatzen da /i/ emanez; esate baterako absolu-
toa "etxe-a" /etxi/ da Ondarroan. Aipatu dudan kasuan, inesi-
boan, baina ez; argi ta garbi bi silabak entzuten dira: /etxe.a/.

Azkenez, *-ko* paradigmatic formak: /mendiko/ etab. ere
mugatu singularrak dira, nire hipotesian. Hemen, beste
transformazio bat izan da/dago/ aditza kentzeko eta /mendi-
ko etxea/ esate baterako sakonezko egitura (11) "mendian

(10) Karmele ROTAETXE - op. cit. in (1) pp. 468-482 (Cap. 3.07 - Base-
Sociativo - Instrumental).

(11) Zehatzago ikusteko, cf. op. cit. in (1) eta bereiziki Cap. 3.10.04 -
3.10.05).

dagoen etxea'' honetatik dator. Aholkatzen ditugun formetan izan zen junturaren urratsa ohar daiteke. Esate baterako, fonologiaren aldetik, /n-k/ aurkitzea posible da euskararen sisteman (/anka/ etab...), baina atzizki hau forma lotu batetan sartzen denean -e- bat gertatzen da /osasun oneko/ fonologiaren aldetik beharrezkoa ez dena. Eta zera azpimaratu nahi dut: transformazio-prozesorik izan ez denean, orduan /k/ homorganika /g/ bihurtzen da -e- epentetikarik sartu gabe: Ad.: han-ko... > /hango/, hemen-tik ... > /hemen-dik/. Hitz hauekin (base hauekin, hobe) transformazio-prozesurik izan ez bada, orduan junturaren aztarnarik ere ez da geratzen. Dakidanez, fenomeno hau kasu bitan gertatzen da: a) antxinan, inesibo izan diren baseekin /hango.../; b) berez eta basearen semantikagatik, berez aktualizaturik direnekin /Eibarko, tab.../, konprobatu ditudanez Ondarroako datuen bitartez.

NIRE/NEURE, ZURE/ZEURE LITERATUR TRADIZIOAN

Arrasate, 1979-XII-21

Ibon Sarasola

Linchmann-Aresti Legez

O. Linschmann-Aresti dei genezakeen (1) legearen berri X. Kintanak eman zuen FLV-en (1971, 7. z., 75-80 orr.) argitaratu zuen artikulu batean. Gure lan honen lehen partean lege hori gure literatur tradizioko autoreek nola eta noraino betetzen duten aztertuko dugu, eta bigarreanean, delako legeak esaldi txertaketaren arazoan eskain dezakeen argiaz arituko gara.

1. Lanerako, ondoko zatiok aztertu ditugu. Zatiotan, azterkizun diren *ene/neure*, *hire/(h)eure*, *zure/zeure*, *gure/geure*, *zuen/zeuen* eta horien aldaeren gertaketa guztiak aztertu dira. Parentesi artean lanean erabiliko ditugun laburdurak ematen ditugu.

1.1. B. Etxepare (E). *Linguae Vasconum Primitiae*. 1545eko arg. Azterkizun diren hitzen 192 gertaketa aurkitu eta aztertu ditugu.

1.2. I. Leizarraga (Lç). Ioana Albreteri eskaintza; Heuskaldunei; S. Mateoren Ebanjelioa; S. Joanen Ebanjelioa; Apostoluen akteak; Romanoetaratko Epistola; Timotheoginatko Epistolak; Apokalipsea; ABC-a. Guztira 1520 gertaketa.

1.3. Etxeberri Ziburukoa (EZ). *Manual debozinezkoatik*, Sarrerak; Lehen liburuko lehen parte eta bigarren parte-

(1) Legearen aurkikundeari buruz, ik L. Mitxelena "Euskaltzaindiaren iker lanez" *Euskera* XXI (1976), 160-166 orr., bereziki 1. oharra. Forma hauen balio erreflesibo eta intentsiboaz, K. Rotaetxe *Estudio estructural del euskara de Ondárroa*, Durango 1978, 3.05.10.2 eta 6.3. eraskinean 8. oharra 4. proposamenaz.

ko 1 eta 2 buruak; bigarren liburuko lehen parteko 1-5 buruak. Guztira 311 gertaketa.

1.4. Axular (Ax.). *Gero-ko "Gomendiozko Karta"*, "Irakurtzailleari" eta 1, 5, 10, 15, 20, 25, 30, 35, 40, 45, 50, 54 eta 60 kapituluak 244. gertaketa.

1.5. C. Harizmendi (Hm) *Ama Birjinaren Ofizioa*-ko 1-59/Vinsonen arg./orr. 204 gertaketa.

1.6. P. Argaiñarats (Aa). *Deboten Brebiarioa*-ko 1-43/Vinsonen arg./orr. 115 gertaketa.

1.7. Sylvain Pouvreau (SP). Vinsonen *Les petites Oeuvres Basques*-eko 13-35 orr. 97 gertaketa.

1.8. I. Tartas (Tt). *Onsa hilzeko bidia*-ko 1-54/Darricarrère-ren arg./orr. 506 gertaketa.

1.9. P; d'Urte (dU). *Biblia Saindua*-ko 1-20/Oxford-eko arg./orr. 72 gertaketa.

1.10. Etxeberry Sarakoa (ES). "Eskual Herriko gazteriarri"; "Irakurtzailleari"; "Lau-urdiri gomendiozko karta edo guthuna"/Kintanaren arg./109 gertaketa.

1.11. Iruñean saritutako poemak. TAV 3.1.20 eta 3.1.21.13 gertaketa.

1.12. J. Beriain (Ber). *Tratado de oyr Misa*-ko 1-6 kapituluak. 199 gertaketa.

1.13. F. Elizalde (Elal). *Apezendaco Dotrina Christiana*-ko 1-39 orr. 46 gertaketa.

1.14. J. Ochoa de Arin (OA). *Doktrina Kristianaren esplikazioa*-ko 1-9 orr. 22 gertaketa.

1.15. S. Mendiburu (Mb). "Mezaren enzun-bide laburerraza", *Otoitz-gaien* 9 liburukiaren hasieran. 221 gertaketa.

1.16. A. Kardaberaz (Kb). *Jesus Maria ta Joseren Debozioa*-ko 1-58 orr. 46 gertaketa.

1.17. J. A. Ubillos (Ub). *Kristau Doktriñ berri-ekarlea*-ko 1-77 orr. 27 gertaketa.

1.18. Bizkaierazko poesia zaharra. TAV 3.1.22, 3.1.23, 3.1.27 eta FLV 28, 63 orr. 14 gertaketa.

1.19. Betolaza (Bet.). *Doctrina Christiana*. 26 gertaketa.

1.20. M. Ochoa de Capanaga (Cap.). *Exposición breve de la Doctrina Christiana*-ko 1-85/Dogsonen arg./orr. 48 gertaketa.

1.21. B. Olaetxea (Oe). *Doctrina Kristiana*-ko 1-54 orr. 88 gertaketa.

1.22. P. A. Añibarro (Añ). *Esku-liburua*-ko 1-70 orr. 121 gertaketa.

1.23. F. Bartolomé S. Teresa (fB). *Euskal-Errijetako olgeeta*-ko 1-43 orr. *Ikasikizunak*-en 3. liburukiko hiru lehen ikasikizunak. Guztira 162 gertaketa.

Autore bakoitzetik liburu bat bakarrik (fB-ren kasuan ezik) aztertu delarik, aipuetan autoreari dagokion laburdura eta orrialde zenbakia besterik ez dugu adieraziko.

2. Linschmann-Aresti legea horrela defini daiteke:

2.1. Lehen eta bigarren pertsonetako posesiboek bi era dituzte, *lehen era (ene...)* eta *bigarren era (neure...)* deituko ditugunak. Sintagmaren batean posesibo bat gertatzen bada, delako posesibo hori lehen eran agertuko da baldin gertatzen den sintagmari dagokion aditzan pertsona eta numero bereko formanteren bat (2), NOR, NORK nahiz NORI motakoa, agertzen ez bada. Bestela posesiboak bigarren era hartuko du. Adibidez:

Ene ardiék ene boza enzuten duté Lç Io, 10, 27.

Perpausan, aditza (*dute*) NOR-NORK sailekoa da eta 3s-3p formanteak ditu. NOR sintagman (*ene boza*) posesiboa 1s da. Beraz lehen era hartzen du. Berdin gertatzen da *ene ardiék* NORK sintagman.

ezagutzen ditut neure ardiak Lç Io, 10, 14.

(2) Izenordeak horrela adierazko ditugu: *ni*, 1s; *hi*, 2s; *zu*, 2's; *gu*, 1p, *zuek*, 2'p, non zenbakiak pertsona adierazten baitu eta letrak singularra (s) eta plurala (p). Argi dago *gu* ez dela *ni*-ren plurala, baina hori ez delarik hemen aztertzen dugun auzia, tradizioko zeinu horiek erabiliko ditugu erraz beharrez. Aditz laguntzailearen eta sintetikoaren NOR, NORK, NORI formanteak ere berdin adieraziko ditugu.

Hemen aditzak 3p-1s formanteak ditu eta posesiboa 1s da. Beraz, bigarren era hartzen du.

2.2. Zenbait aditz formak laugarren formante bat agertzen dute, *etikoa* edo *hikakoa* deitzen dena. Formante honek, Kintanak dioen bezala, ez du posesiboak hartu behar duen eran eraginik:

O emaztea, handi dun hire fedea Lç Mt, 15, 28.

Perpaus honetan *dun*, *da*-ren hikazko forma bat da. Eta *da*-ren formantea 3s izanik eta posesiboa 2s, honek lehen era hartu behar du.

Eure Iainko Iauna adoraturen duk Lç Mt, 4, 10.

Hemen *duk* ez da *da*-ren hikazko forma, aditz laguntzailearen singularreko bigarren pertsona baizik. Horrela, aditza 2s formanteaz agertzen denez eta posesiboa 2s denez gero, hau bigarren eran agertzen da.

Ondoko adibidean bi kasuak gertatzen dira:

Hik eure buruaz testifikatzen duk, hire testimoniajea eztuk sinhesteko Lç Io 8, 13.

2.3. Aztertu ditugun testuen arabera Linschmann-Aresti legea areago zehaztu daiteke.

2.3.1. Hikako tratamenduari buruzko erregela zukaokoak ere betetzen du:

Iangoikua egin dizit zure kontra bekhatu EG, 1r.

non *dizit dut*-en zukako forma baita.

Hika-zukako tratamenduaren erregela honek, alderantziz hartuta, irizpide formal egokia eskaintzen digu zenbait formen anbiguotasuna askatzeko. Adibidez:

baldin Legearen hausle bahaiz, hire zirkonzisionea pre-puzio bilhatzen duk Lç Rom 2, 25.

non *duk*, 2s nahiz 3s-ren hikako forma izan baitaiteke testuiguru honetan. Posesiboaren *hire* erak *da*-ren hikako forma dela adierazten digu.

Berdin, *betheren nauk bozkarioz eure begitharte aitzi-nean* (Lç Act 2, 28) perpausan, non badirudi *nauk naiz*-en for-

ma dela. Posesiboak adierazten digu ez dela horrela. Cf Duvoisinin itzulpena, *goiheretasunez nauzu betheko*.

Bestalde, ondoriotzat zera esan dezakegu, hika-zukako tratamendua euskal gramatika sortzailean transformazio bidez, eta transformazio postzikliko baten bidez, sartzea komeni dela dirudiela, ez baitu eraginik, esan dugun bezala, posesiboak hartu behar duen eran.

2.3.2. Espero zen bezala, *enegan, enetzat, enekin, enegatik, enekiko...* eta berdin *hire-, gure-...* hitzek posesiboak bezala gordetzen dute legea.

Neuretako eztazagut zu nolako amarik E D, 3v.
idoki ezak hura, eta iraitzak eureganik Lç Mt 5, 29.
ezkenduke geuretzat aski Ax. 45.
Eztitzatzula heriotzeraiño zeurekin iduki Ax 131.

Hau kontutan hartu beharko litzateke hiztegegintzan posesiboari izenordetik aparteko sarrera ematen zaionean: *guregana*, adibidez, *gure-n* sartu beharko litzateke, eta ez *gu-n*.

2.3.3. Bokatihozko sintagmetako posesiboek ez dute legean betetzen:

Ene Iainkoa, Ene Iainkoa, zeren abandonatu nauk? Lç Mt 27, 46.
Bada segur naiz, ene anaieák, ni neuror-ere zuezaz Lç Rom 15, 14.
Gaiztoa, ene nekhangarria, ala nik gaizki enplegatu baitut hirekiko denbora Ax 358.

Honen arabera badirudi bokatihozko sintagmek tratamendu berezi bat eskatuko dutela euskal gramatika sortzailean.

2.3.4. Aditza perpausetik ezabatzen denean hainbat problema sor daitezke. Horrela *hona, horra...* agertzen diren zenbait kasutan:

Nola diotsok eure anaieri, Uztak idoki dezadan fitsa hire begitik, eta horrá, gapirioa hire begian? Lç Mt 7, 4.

Hemen, egitura sakonean —edo sakonago batean—, *horra non /edo nola/ dagoen gapirioa hire begian* edo antzeko zerbait aurkituko genuke.

Aditz ezabaketa honetaz ez konturatzea, legea betetzen duten zerbait perpaus salbuespentzat jotzera bultza gaitzake:

salbaturen aiz hi eta hire etxea Lç Act 16, 31.

Badirudi legearen arabera *eure* behar lukela. Gertatzen dena zera da, egitura sakonago batean *salbaturen aiz hi eta salbaturen duk /da/ hire etxea* aurkituko genukeela, azaleko egitura ezabatze trasformazio baten bidez ematen delarik (3).

2.3.5. Posesiboeak perpaus bakunaren mailan, hau da, perpaus nagusian txertatu baino lehen, hartzen dute azaleko egituraren agertzen duten forma. Baina puntu hau lanaren azken partean tratatuko dugu zehazkiago.

3. Ikus dezagun orain nola eta noraino betetzen den lege hau euskal literaturaren tradizioan.

3.1. Etxepare, Leizarraga eta Tartasek *ene* eta *hire*-ekin bakarrik betetzen dute legea: *geure, zeure, zeuen* formak ez dira inoiz agertzen autoreotatik aztertu ditugun zatietan.

Salbuespenei dagokionez, Leizarragagan aztertu ditugun 1520 formentan ez dugu huts bat aurkitu. Detxeparengan bi, jada Kintanak adierazten zituenak:

En/e/ etsaiak benzi enazan neure azken finian A 4v.
Nik eniak badakuskit ene gaitzaz bozturik G 1r.

Tartasengan hiru salbuespen esplikaezin aurkitu ditugu, aztertu ditugun 504 formatan:

*ene gorpitzari emaiten dudan oren guziez bere refekzio-
ne korporal, oren berian neure arimari emaiten dut bere
refekzioe espirituala* 27.

*Unguratu nute herioaren penek eta dolorek, eta ene ini-
kitatiaren nonbre handiak eta grabitatiak nahasi nute*
27s.

Ene pundura jin nadin 46.

(3) Honekin ez dugu adierazi nahi *eta* guztien azpian bi perpaus daudenik. Cf. *gaitz eritzi draukute niri eta ene Aitari* (Lç Io 15, 24). Bada Leizarragagan adibide aski interesgarria alde honetatik: *harturik hura eman iezék enegatik eta hire-gatik*. Legeak, ezabaketa gorabehera, *eure* eskatzen du. Behinbehineko hipotesi bezala zera esango genuke, horrelako sintagmetan bi posesiboeak era berean agertu behar dutela: *ene eta hire, hire eta ene* onartzen dira, baina ez *ene eta eure* edo *neure eta hire*. Baina gertaketa gehiago aztertu beharko lirateke hau baieztatzeko.

Bestalde, Tartasengan bokatibozko sintagmen arazoa dugu. Dirudienez, horrelakoetan, aditzaren formanteak gorabehera, posesiboak bigarren era hartzeko joera nabaria du.

Bekhatoria, neure bihotza, agian izan zira Parisen 24.

25 aldiz aurkitu dugu *neure* bokatibozko sintagmetan; *ene*, lau sintagmatan bakarrik. Ez dugu ikusten hori esplikatzeko modurik Linschmann-Aresti legearen barnean.

Leizarragagan, aipatu ditugun formez bestalde, *zeuron* (Mt 16, 8, Mt 13, 25... eta Kintanak dioen bezala Iak 1, 22), *zeurondako* Mt 25, 9...) etab. gertatzen dira. Baina badirudi forma horiek ez direla *zuen*-en sailekoak, baizik *neurorren* (Rom 16, 2...), *neurorrendako* (Rom 11, 4...), *eurorren* (Io 18, 34...) eta horrelakoen kidekoak, hau da, gradu hurbileko formak, *neuror*, *neurorrek*, *euror*, *eurorrek*, *geurok*, *zeurok*... bezala.

3.2. Lapurtar klasikoetako idazleekin, forma-bikoiztasuna kasu guztietara hedatzen da, ondoko eskemaren arabera:

ene	hire	zure	gure	zuen
neure	heure	zeure	geure	zeuen

Konsolatzeintugu geure buruok Ax 48.

zeren Gizon huntan duzun/ Zeure Karitatea Hm 7.

huna non duzuen bada ere orai zeuen merezia, zeuen ordain pagua Ax 286.

Axularrengan aztertu ditugun 244 kasuetan ez dugu salbuespenik aurkitu. Etxeberri Ziburukoagan, bat:

Deboziona handi baten iratxakdazu kharra/ zure handitasunaren ere beldurtasuna/ Bitz diezadazu, Iainko, ahal handi duzuna I, 39.

Harizmendi eta Argaiñaratsengan perpaus asko aurkitu ditugu legea betetzen ez dutenak, batez ere *gure* eta *zure*-rekin, esplikaziorik emateko gauza ez garelarik. Dena dela azpimarkagarria iruditzen zaigu kasu guztietan *gure geure*-ren orde (4) aurkitu dugula esatea, eta inoiz ez *geure gure* behar zukeenean.

(4) Hau da, lehen era bigarrenaren orde.

Sylvain Pouvreagan areago gertatzen da —beharbada euskaldun berri zelako— legearen ez betetze hori. Honek ere *gure geure*-ren ordeztartzen du baina ez alderantziz.

Etxeberrri Sarakoak hobeki betetzen du legea, baina ez dira hutsegiteak falta, denak *gure geure*-ren ordeztokoak.

D'Urteri dagokionez badirudi ez duela legea betetzen, beti lehen erako formak erabiltzen dituelarik. Bi aldiz bakarrik aurkitu ditugu bigarren erako formak, eta legearen arabera gertatzen dira:

eta erretira tzak heuregana Gen 6, 21.

egin dezagun geuretzat hiri bat Gen 11, 4.

Hortik aurrera badirudi Iparraldeko tradizioan forma-bikoiztasuna galtzen dela, lehen erako formak bakarrik erabiltzen direlarik.

3.3. Goi-nafarrerazko testu zaharrei dagokionez, TAV 3.2.6an ematen diren ezkontza-formuletan, *ene/neure*, *zure/zeure* formak legearen arabera gertatzen dira eta gainerako formak ez dira agertzen. Iruñeko poemetan forma bat agertzen da behin, *zeure*, eta legearen arabera. *Ene*, *zure*, *gure* ere legearen arabera gertatzen dira.

Berriainek eta Elizaldeek erabiltzen duten sistema, ondokoa da:

ene	—	gure	zure	zuen
neure	—	geuren	zeure	—

Ongi betetzen dute biek legea, orohar. Dena dela, Berriainentzat, dirudienez, *Iesu Kristo gure Jauna* esaldia aldagaitza da, aditza gorabehera, klixer bihurtu balitz bezala. Elizaldegan bi huts aurkitu ditugu, biak otowitz arruntetan:

gure etsaietatik libera gaitzazu gure Jaun eta Jangoikoa
4.

/Ave Maria/ Jauna da zeureki 5s.

Lehendabizikoan, bigarren *gure*-ak, bokatibozko sintagma batean gertatzen delarik, errespetatzen du legea, baina ez lehenak. Bigarren perpausan alderantzizko hutsa dugu.

3.4. Gipuzkerako testu zaharrek, hau da XVI eta XVII mendetakoek, bere urritasuenan azterketa-gai aski eskain-

tzen ez badute ere, badirudi legea betetzen dutela esan daitekeela. Cf. TAV 3.2.6-an 1557ko testoa, adibidez.

O. de Arinen kasua berezia dela dirudi. Aztertzeke aukera izan dugun zatia guztiz urria bada ere, argi bide dago Ordiziko idazleak ez duela bereizkuntza egiten eta erabiltzen dituen formak bigarren erakoak direla:

Aita geurea, Zeruetan zaudena, santifikatua izan bidi zeure izena. Betor zeure erreinua gugana 1.

Ildo berean, *zeugana, geugana* eta kideko formak ez dira falta aztertu dugun zatian.

Bestalde badirudi *geure* eta *ge(u)ren* formak berezi egiten dituela, dagokion izenaren arabera:

barkatu egizkutzu geuren zorrak, geuk geren /sic/ zordunai barkatzen diegun bezela 1.

geure eriotzako orduan 2.

geure proximoa geren buruak bezela 5.

Behin bakarrik egiten du kontrara: *geuren eguneroko ogia* (1).

Mendiburu eta Ubillosek sistema hau darabilte:

ner	—	gure	zure	—
ner	—	geren	zere	—

ni, nere beharrik gabe, zeretzat eta zere glorian idukinaiez Mb 10.

Gaitz berera bulkatzen gaituzte gu geren etsiak Mb 27.

Ikusten denez 1s kasuan neutralizazioa gertatzen da, gipuzkera (eta euskara) zaharreko *ene*-a galtzen delarik.

Kardaberaz eta Agirre Asteasukoak ez dute bikoiztasuna egiten: ez dugu hauenganik aztertu ditugun zatietan *geren* ez *zere*-rik aurkitu. Geroagoko idazleei dagokionez, badirudi Lardizabalek eta aurreko mendeko bertsolariak ere betetzen dutela. Jakina da, bestalde, gaur egun ere Gipuzkoako toki askotan betetzen dela.

3.5. Bizkaierazko testook dira ondorioak ateratzeko zailen gertatu zaizkigunak. Ondorio behinbehienekoen laburpena ematera mugatu behar dugu hemen.

Badirudi maitasun poema zaharretan, eta Betolaza eta Capanagaren (5) doktrinetan aski ongi betetzen dela legea. Dena dela, beste euskalkietan ez bezala, legea bi aldetatik hausten da, hau da, lehen era bigarrenaren ordeztan agertzen da, baina baita ere alderantziz.

Olaetxearekin badirudi ezin dela esan legea kontuan hartzen denik. Bi eratako formak agertzen dira, baina hautaketa idazlearen aukera dela dirudi. Bestalde, bilakaera, bigarren erako formen erabilera hedatzearen alde doala dirudi, posesiboetan eta baita ere izenordeen forma guztietan, lehen erako formak bikoiztasunaren termino markatu edo, bihurtuz doazelarik, batez ere frai Bartolomerengan. Baina ez gara gauza izan oposizioa —oposiziorik baldi bada— zertan datzan ikusteko.

* * *

4. Laugarren parte honetan perpaus txertaketaren arazoan Linschmann-Aresti legeak eskain dezakeen argiaz, gaingiroki bederen, arituko gara.

4.1. Lehenago esan dugun bezala, posesiboak, dagokion era perpaus bakunaren mailan hartzen du, hau da, delako esaldia beste nagusiago batean txertatzen bada, posesiboak ez du aldaketarik jasaten bere eran.

Erlatibozkoak dira gramatika sortzaileetan txertaketaren arazoa nola taxutzen den ikusteko perpausik egokienak. Adibidez, bi perpaus bakun baditugu:

1a *(Nik) erloju bat erosi dut.*

1b *Erlojuak asko balio du.*

Bi perpaus bakun hauekin bi perpaus konposatu era daitezke:

2a *Erosi dudan erlojuak asko balio du.*

2b *Asko balio duen erloju bat erosi dut.*

2a perpausan, la hartzen da perpaus nagusitzat eta 2a perpaus txertatutzat. 2b-n, aldiz, 1a da nagusia eta 1b txertatua.

(5) Hobeki, beharbada, Capanagagan.

Perpaus bat beste batean txertatzeko, bi perpausok elementu bat izan behar dute elkarrekin. Gure adibidean *erloju* da elementu hori. Erlatibozko transformazioan bi perpaus bakunak elkarrekin duten elementu horren gertaketa bat ezabatu egiten da. Ezabatzen dena, txertatuko den perpauskoa da (6). Horrela, 2a perpausan:

Erloju bat erosi dut + N erlojuak asko balio du
Erosi dudan erlojuak asko balio du,

txertatu den perpausan *erloju bat* ezabatuz.

4.2. Kontsidera dezagun Leizarragaren ondoko perpausa:

3a *deithuren dut ene populu etzena, neure populu* Rom 9, 25.

Perpaus konposatu hau, ondoko bi perpaus bakunen bidez eratu da:

3b *(Nik) (zerbait) deithuren dut neure populu.*

3e *(Hori) ene populu etzen.*

3b eta 3c perpausetan posesiboek, nor bere perpausko aditzaren formanteen arabera, harturik dute jadanik gero perpaus konposatuan agertuko duten era.

Berdin maila desberdinetako txertaketak gertatzen direnean:

4a *ene kontra dela dirudien arrazoin hunek... aitzinatzen nau* Ax 7. Perpaus bakunak hauek litzateke:

4b *arrazoin hunek (ni) aitzinatzen nau (zerbaitera).*

4c *arrazoinak (zerbait) dirudi.*

4d *arrazoina ene kontra da.*

Ikusten denez, gero konpletiba bezala erlatibozko perpaus txertatuan txertatuko den perpausko posesiboak perpaus bakunaren mailan hartzen du dagokion era.

(6) Gauzak bere osotasunean ez dira hain singleak, noski. Erlatibozko euskal esaldien azterketa bikain bat gramatika sortzaileen ikuspegitik, R. P. G. de Rijk "Relative clauses in Basque: a guided tour" *The Chicago which hunt, Papers from the relative Clause Festival*, Peranteau, Levi eta Phares-ek argitaratua, Chicago 1972, 115-135 orr.

Horrela, Linschmann-Aresti legea lagungarri gertatzen da esaldi konposatu konplexoetan nor norekin doan erabakitzeko orduan:

5a *badakusat berze lege bat neure menbroetan... ene menbroetan den bekhatuaren legeari gathibatzen neraukonik* Lç Rom 7, 23.

Hemen, *menbroetan*-en aurreko *ene*-a ez du *neraukonik*-ek gobernatzeko (*neure* beharko genuke orduan), baizik *denek*, noski.

Beste esaldi honetan, aldiz:

5b *eure Aita sekretuan dakusanak, rendraturen drauk agerrian* Lç Mt 6, 4.

Posesiboaren formak argi erakusten digu ez doala *dakusa*-rekin, zeren orduan perpaus bakuna *hire Aitak (zerbait) dakusa* litzateke. Perpaus bakunak hauek dira:

5c *eure Aitak rendraturen drauk.*

5d *Aitak sekretuan ikhusten du.*

Bigarren perpausa adjetibo bezala txertatzen da 5c-n, baina ordurako perpaus nagusiko posesiboak hartua du dago-kion era (7).

Herdin gertatzen da ondokoan:

5e *Huná ene zerbitzari elegitu dudana* Lç Mt 12, 18.

Lehen begiradan badirudi azpian dagoena (*nik*) (*hori*) *ene zerbitzari elegitu dut* dela. Baina orduan *neure* behar luke, eta horrek ikusarazten digu, adibide honetan, aurrekoan bezala *elegitu dudana* erlatiboak adjetibo baten funtzioa betetzen duela sintagman, guri arrotz baina Leizarragari guztiz ohizko gertatzen zitzaion joskera batez (8).

Bitxiago gertatzen zaigu oraindik ondoko joskera:

6a *Itzuliren naiz neure ilkhi naizen etxera* Lç Mt 12, 44.

(7) Beste modu batez esplikatuta,

5'c *eure Aitak rendraturen drauk,*

5'd *hire Aitak sekretuan ikhusten du, hire Aitak EQUI-NP DELETION* erregelaz ezabatzen delarik.

(8) Cf. Olabideren itzulpena: *Ara aukeratu dudana nere morroia.*

Hemen, *neure*, lehen *naiz*-ek gobernatzan du: konpara dezagun perpaus hau Leizarragaren beraren beste honekin:

6b *Itzuliren naiz neure etxera nondik ilkhi izan bainaiz* Lç 11, 24.

Horrela, legearen arabera, ondoko perpausen posesi-boak horrela agertuko lirateke:

6c *Itzuliren zara ene ilkhi naizen etxera.*

6d *Itzuliren naiz neure ilkhi zaren etxera.*

6e *Itzuliren zara zeure ilhi naizen etxera.*

Aipa dezagun azken adibide bat:

7a *hirur gizon presenta zitezen ni ninzen etxera, Zesareatik enegana igorriak* Lç Act 11, 11.

Hemen ere, funtsean erlatiboazko perpaus bat dugu txer-tatua:

7b *hirur gizon enegana igorriak izan ziren.*

“Pasibozko” (9) perpaus hau, 7c-tik erakartzen da:

7c *(X-ek) Zesareatik enegana hirur gizon igorri zituen.*

4.3. Gainerako txertaketetan ere berdin gertatzen dela dirudi.

4.3.1. Kontsidera ditzagun esaldiok:

8a *sarthurik ene etxean, zaudete* Lç Act 16, 15.

8b *eure bortha ertsirik othoitz egiok* Lç Mt 6, 6.

8c *Nork daki... ea gure urrikimendua... ikhusirik... itzuli-ko denz bertze aldera* Ax 46.

8a esaldian txertatzen den perpausak (*zuek*) *ene etxean sarthu zarete* edo antzeko zerbait izan behar du, hau da, aditz laguntzaileak 1s formantea ez duen zerbait. Berdin 8b-n (*hik*) *eure borthá ertsi duk*, eta 8c-n, (*hark*) *gure urrikimendua ikhusi du*, edo antzeko zerbait.

(9) *Ik. I. Sarasola* “Sobre la bipartición inicial en el análisis en constituyentes” *AJU* 11 (1977). 16^{hh} orr.

4.3.2. Ondoko perpausetan:

9a *ez aizela beldur eure emazte Mariaren hartzera* Lç Mt 1, 20.


9b *geure eginbidearen egitera... erdutuko garela* Ax 21. txeratutako perpausak, halaber, (*hik*) *eure emazte Maria hartzen dute eta (guk) geure eginbidea egin(go) dugu* dira hurrenez hurren.

4.3.4. 9a perpausetan eta halaber ondokoetan:

9c *badugula /aingiru/ gaixto bat... gure tentatzeko* Ax 356.

9d *Eztakik ezen bothere dudala hire kruzifikatzeko* Lç Io 19, 10,

J. Heath-ek TO-GEN erregelaren bidez askatzen duen arazoarekin (10) egiten dugu hemen topo: adibide hauetan Hegoaldekoek izenordea jarriko genukeen lekuan Iparraldekoek genitibozko forma, hau da, *guk* lan honetan posesibozko deitu duguna, ezartzen dute. Heath-ek horrela askatzen du problema: TO-GEN erregela aplikatzeko, ondoko egitura aurkitu behar da:



Aplikatzen den transformazioaren ondorioa, NP -ek dominatzen duen N-ari *-(r)en* atzizkia ezartzea da. Baina badirudi erregelak ez duela ezer esaten N hori izenorde batek betetzen duen kasurako: ez du esplikatzen kasu horretan "posesibo"ak lehen era hartzen bide duela beti, aditzaren formanteak gorabehera. Hain zuzen 9c perpausean txertatzen dena, (*aingiru gaixto batek*) *gu tentatzen gaitu* da. 9c eta 9d adibideetatik ondoriatzen bide denez, esaldi bakunaren mailan izenordea agertzen denean, TO-GEN transformazioaren

(10) Ik. J. Heath "Genitivization in Northern Basque Complement Clauses" *AJU* 6 (1972) 46-66 orr.

bidez izenorde hori genitibatzen denean gertatzen den "pose-sibo" a lehen eran agertzen da. Ezin dugu memento honetan arazoa sakonkiago aztertu.

Genitibatze hau beste kasu batean ere gertatzen da. Kasu hori Mitxelenak aipatzen du bide nabar, 10a-tik 10b-rarako iragaitza esplikatzen duenean (11):

10a *Hunetan manifestatu izan da Jainkoak guregana duen karitatea.*

10b *Hunetan manifestatu izan da Jainkoaren gureganako karitatea.*

Ikusten denez, iragaitzan genitibatze bat gertatzen da. Problema hau da: 10a perpausean izen baten (*Jainko*) ordez izenorde bat izan bagenu, zein era agertuko litzateke genitibatzearen ondorioz? Edo hobeki, aditzen batek ba al du eragirik era hartze horretan? Adibidez, *hunetan manifestatu izan duzu... gureganako karitatea* testuinguruan *zure* ala *zeure* agertuko litzateke?

4.3.5. Nominalizazioaren tratamendua da generatibisten artean eztabaida gehien sortarazi duen arazoetatik bat. Leizarraga eta Axularrenganik aztertu ditugun zatietan bi adibide interesgarri aurkitu ditugu honetaz:

11a *halatan Iainkoak bere garaziaren emaita eta gure garazia haren errezibitzeko... prestatzea ere egin ditezke laburzki* Ax 133.

11b *Zer esker... uste duzu izanen duzula... tratu gaixtoen utzteaz, eta batari eta bertzeari zeure onen utzteaz* Ax 141.

11a-ren azpiko esaldi bakunak ondokoak dira:

11c (*guk*) *garazia hura errezibitzen dugu.*

11d *gu (zerbaitera) prestatzen gara.*

Halaber 11b-ren azpian:

11e (*zuk*) *zeure onak utzi(ko) dituzu.*

(11) *Zenbait hitzaldi*, Bilbo 1972, 99 orr. Eskerrak eman behar dizkiot K. Mitxelena irakasleari hainbat perpaus zailen interpretazioan eskaini didan laguntza baliotsuagatik.

11b Perpausan, zeure posesiboak perpaus bakunaren mailan hartzen du legearen arabera dagokion ere. Ez du, beraz, orain dugun auzira ezer ekartzen. Baina 11a-n berriro aurkitzen dugu izenorde bat perpaus bakunean esaldi konposatuan lehen erako "posesibo" bezala gertatzen dena. Horrela, badirudi Linschmann-Aresti legea beste erregela batez osa daitekeela:

4.3.5.1. Azaleko egiturako posesibo bat perpaus bakuneko mailako izenorde batetik atera bada, delako posesiboa beti lehen eran agertuko da.

Horrela esplikatuko genuke:

12a *Erran nahi dut, zuen eta ene elkharrekilako fedeaz konsola nadinzat* (Lç Rom 1, 12).

perpausan agertzen den lehen pertsonako posesiboa lehen eran (*ene*) gertatzen dela: azpian,

12B *zuek eta nik elkharrekin fede bat dugu*
aurkituko genuke, hots, izenordea.

ADITZ IZENEN MORFOSINTASIA

Arrasate, 1979-XII-21

Jean Haritschelhar

Aditz izena,

Aditz ala izen?

Hasiko naiz etsenplu bat hartuz. Argainaratzen *Devoten breviarioaren* "Dotrina Christianak" emaiten daukuna 106-107.orrialdean.

Confesioneaz

Gal: Cembat conditcione dire/ necesario Vngui confesatceco?

Iha: Bortç

Gal: Cein dire hec?

Iha: Lehena, Vngui conciencia/ examinatcea.

Bigarrena, Iencoaren ofentsaceaz damu handi bat içate/

Hirugarrena, deliberacione fermu baten hartcea ez gue/hiago. Iencoaren ofentsatceco haren graciarequin batean./

Laugarrena, bekhatu guciac / apheçari Vrriqui handi bate/quin confesatcea.

Bortçgarrena borondate on/bat içatea Iencoari eta pro/ximoari satisfatceco.

Ezar ditzagun bi zatitan hemen agertzen diren aditz izenak.

*Vngui conciencia
examinatcea
damu handi bat icatea*

bekhatu guciac confesatcea

*borondate on bat icatea.
Iencoari eta proximoari
satisfatceco*

Iencoaren ofentsatceaz

*deliberacione fermu baten
hartcea*

*Ez guehiago Iencoaren
ofen tsatceco*

Lehenbiziko zerrendan aditz izena nominatibo edo datiboarekin doa, bigarrenean aldiz genitiboarekin. Genitiboa enpleatzen delarik, izen sintagma batean sartzen da aditz izena, eta, beraz, izen da berez dudarik gabe. Gramatikalarik guziak iritzi berekoak dira:

“L’infinitif nominal est un véritable nom verbal, plus exactement un nom-participe: car il participe du nom et du verbe.

Comme nom il se décline aux trois nombres et reçoit des compléments au génitif.

Ex: haren sinesteak, ses croyances “dio aita Lafittek (*Grammaire basque*, 212.or.; § 447).

Bere “*Structure du dialecte basque de Maya*” delakoan Geneviève N’Diayek aztertzen ditu genitiboa dakarten sintagma: “(10.2.2. Les syntagmes comportant un génitif. En étudiant les compléments du prédicat, on a affaire à tous les indicateurs de fonction possibles, à l’exception d’un seul: le génitif. On peut donc caractériser les prédicats, c’est à dire essentiellement les verbes, comme excluant les compléments au génitif et les nominaux comme les admettant. (138.or.).

Eta urruntxago: “La structure des syntagmes comportant un complément au génitif est rigide: Satellite + noyau. Ce complément peut-être un nominal lexical ou grammatical ou encore un syntagme comportant un verbe dérivé en -n déterminé”. Eta emaiten dituen etsenpluetan hautatzen ditut biga: *diru pixka baten idebazten* (en gagnant un peu d’argent) *nai duenain itea* (le fait de faire ce qu’il veut).

Aldiz, aditz izena aditz izan ditaikete bertze kasuetan eta Lafittek dion bezala: “Comme verbe il peut être accompagné

de sujets et de compléments d'objet et remplir des fonctions analogues à celle du gérondif latin.

Ex: *ni hari jarraitzeko* pour que je le suive (litt: pour moi le suivre).

Orduan, berez, aditz sintagma batean sar ditalke aditz izena, bere osatzaileak dituela eta ere bere sujeta.

I ADITZ IZENA — — — — — ADITZ.

a) *Inesibo zaharra*. Aditz perifrastikoan agertzen da aditz izena inesibo zaharrean, oraia markatzen duela orduan. Aditz sintagman sartzen da eta enpleatua da aditz laguntzaile batekin: *da / du*.

Sartzen da

Sartzen du

Lehen etsenpluan sujeta nominatiboan da eta osatzaileak agert ditalke.

Peio etxean / sartzen da.

Bigarreanean ergatiboan da sujeta eta nominatiboan osatzailea.

Peiok itze bat/sartzen du.

b) *Inesiboa*: aditz bezala agertzen da erraiten dugularik
meza hastean / sartu zen

meza hastean da aditz sintagma bat; *meza*, *hastean*-en osatzaile da: *meza hastean = meza hasi zenean*.

Aldareco sacramendua errecebitcean cembat gauça errecebitcen dire? (Argainaratz: D. B. 105.or)

= *Aldareco sacramendua errecebitcen denean...*

d) *Komitatiboa*

Negua jitearekin / ainharak badoatzi (Laf.)

= *negua jiten denean* (edo delarik).

e) *Nominatiboa*: Cer da bistea?

Arima gorputçarequin iuntatcea. (Arg. D. B. 100.or.).

Hemen ere perpausan agertzen da aditza (*Arima gorputzarekin juntatzen delarik, hori da biztea*).

Hor sar ditaizke jadanik hastapenean ikusi ditugun etsenpluak:

*Vngui conciencia exeminatcea
damu handi bat içatea* (Arg. D. B. 107.or.)
*Bekhatu guciac confesatcea
borondate on bat içatea.*

f) *Latiboa*

Patriarkhen, propheten eta haren beguira çaudecen arimac handi libratcera. (Arg. D. B. 100.or.).

Miraz nago, Iauna, nola batere ezten asayatu bere lengoaje propiaren faboreten heuskaraz *zerbait obra egitera* eta skributan imeitera.. (Detx. 20.or.).

g) *2e genitiboa*

Penitenciazco edo confesionezco sacramendu sainduac eta confesatceco lekhurik eztugunean acta contricionezcoac intencionerequin *gure bekhatua confesatceco* lehenbiziko paradan. (Arg. D. B. 109.or.)

Iduri luke kasu horietan idazleak aditz izena aditz bezala hartu duela eta aditz sintagma sartzen duela ere izen bat, bereziki *egin* aditzarekin, hala nola *otoitz egin, bekatu egin* eta abar...

II ADITZ IZENA -----IZEN.

Izen sintagma batean sartzen da.

(1) Izen lagun batekin doa edo erakusle batekin.

*Sineste bitxiak
Juja zazu egite hori*

(2) Genitibo batez osatua da.

a) **Nominatiboa:**

*Ontsa da lanaren egitea
haraguiaren bistera.* (Arg. D. B. 102.or.)

beti iraunen duen bicitcea. (Arg. D. B. 102.or.)
deliberacione fermu baten hartcea. (Arg. D. B. 107.or.).

b) **Ergatiboa:**

Liburu zaharren irakurtzeak balio du.
zombait gizonen ikusteak atsegin egin zautan.

d) **Instrumentala:**

Nor mintzo da *zure igortzeaz*
haren jiteaz baliatu nahi ziren.

Eta Jainko bat ber hau, gizonei zaie hunelako manifestatzen eta erakusten lehenik *bere obren kreatzeaz, kontserbatzeaz eta gobernatzeaz.* (Leiz. E. P. 11.or.).

Guk dugu sinesten, ezen Jainkoak *bere semearen igortzeaz* bere gureganako amorio eta ontasun inestimablea erakutsi ukan duela (Leiz. E. P. 20.or.).

e) **1 en genitiboa.**

Guk dugu sinesten, Davidek dioen bezala, ezen *gure justo izatearen* eta dohain ontasunaren fundament guzia dela fundatua gure bekatuen barkamenduan (Leiz. E. P. 21.or.).

f) **Komitatiboa.**

Guk dugu sinesten, ezen legeko figura guziek fin hartu ukan dutela *Jesus Kristen etortzearekin.* (Leiz. E. P. 24.or.)

g) **2en genitiboa**

Gehienetan eta bereziki ipar aldeko idazletan bigarren genitibo hori, 1 en genitiboarekin osatzen da. Nun nahi aurki daitazke etsenpluak.

Eta jinen direnek gero duten (ukan dezaten) kausa oboro *haren abantzatzeko...* (Detx. 20.or)

Eta ukhanagatik *edozein gauzaren egiteko* borondate bat... (Leiz. E. P. 16.or.)

Kausa hunegatik, Jainkoaren aintzinean *gure justifikatzeko...* (Leiz. E. P. 21.or.)

Ez *haren guehiago ofentsatzeko* haren graciarequin batean... (Arg. D. B. 107.or.)

Apecechea Perurena-k Joaquin de Lizarragaz egin duen liburuan dio 270. orrialdean:

“En el complemento directo de las formas verbales con el sufijo de sentido final *teko*, *tzeko* se usa el genitivo: *naiga-beén arintzeco ta ematzeco* (para ligerar y suavizar las contrariedades).

Bainan hemen argi eta garbi ageri dena da Apececheak analisatzen duela euskara erdararen ikuspegia, normak eta kategoriak hartuz, kasu horietan aditz izena izen baita eta ez aditz.

h) **Latiboa.**

2 en genitiboaren sistema bertsua dugu: ipar aldekoek gehienetan 1 en genitiboarekin enpleatzen dutela.

Ecen bat bedera obligatua da *bere legue sainduaren jaquitera*, ceina baita Dotrina Sainduac iracasten duena. (Arg. D. B. 94.or.)

Eta *munduaren iuiatzera* datorren arteranokotz hura zeruan izanagatik... (Leiz. E. P. 32.or.)

... *hire izen sainduaren inbokatzera.*

(Leiz. E. P. 51.or.)

i) **Ablatiboa**

Eta gure bizio eta egitate gaixtoz *hire manamendu sainduaren iragaitetik eta haustetik* gelditzen ere ez garenak... (Leiz. E. P. 38.or.)

j) **Inesiboa**

eta are bertze orduz eure *Israeleko populuaren faltén kirrijitzean* usatu ukan duan maledizione guziak gure gainera eror balitez ere (Leiz. E. P. 53.or.).

Devotac, *meza sainduaren ençutean*... (Arg. D. B. 72.or.)

k) **inesibo zaharra.**

Inesibo zaharrarekin aurki dezakegu ere genitibo bat bainan kasu berezi batzutan. Ez da inesibo zaharra aditz sintagman sartzen, aldiz aditz sintagmaren osatzaile gisa izen sintagma bat egiten du genitiboarekin.

artoen jorratzen / ari da.
uraren karreatzen / hasi da.
 ari da / hasi da:aditz sintagmak dira

artoen jorratzen
uraren karreatzen } izen sintagma bezala agertzen dira.

gero berriz hatsen da Ministroa otoitz egiten eta Jainkoari *bere Espiritu Sainduaren graziaren eskatzen*. (Leiz. E. P. 39.or.)

Han cer ari da? galderak egiten dituelarik Argainaratzek ihardesten du.

– *Damnatuen punitcen* (D. B. 95.or)

– *Bere maiteen eta hautatuen errecompentsatcen* (D. B. 96.or.)

– *Bere creatura gucien mantenatcen eta conservatcen* (D. B. 96.or.)

Lafittek (Gram. 222.or. 481.) dio:

“Quelques auteurs négligent le génitif quand le complément direct est notablement éloigné de son verbe.

Lore hoik han urrun, Ameriketan sortu landare batzuetarik *berexteko*. (On eût attendu *lore hoi*en qui est, à notre avis, plus traditionnel).”

Bainan Axular aztertzen dugularik ikus dezakegu ez duela holakorik egiten.

Eta on zatekeiela gauza hunetzaz *liburu baten*, euskaraz, guztiz ere euskararik baizen etzakietenentzat, *egitea*. (Gero. 15.or.)

Eta hala deliberatu nuen, buru eragozkarri bezala, *liburutto baten* bi partetan partiturik, gero, hunen gainean *egite-ra*. (Gero. 16.or.)

III KASU BITXIAK

Jadanik emana dut mintzaldi hau hastean (erran nahi bai ta mintzaldi hau hasten nuelarik) edo mintzaldi hunen hastean (erran nahi baitut mintzaldi hunen hastapenean)

Argainaratzen zati bat, hortan agertzen baitira aditz izenak dituen bi izaiteak.

Bertze etsenplurik ere bada.

*Confesionea vngi eguiteco, bekhatuen barkhamendua-
ren ardiasteco osoqui* necesario da, edo Contricionea edo atricionea?

(Arg. D. B. 107.or.)

Eta nola mundua gaixtakeria orotara emana den, *populua konbertitzera* eta *bizitziaren korrejitzera*, bai eta halaber *miserikordia inpetratzeko otoitz egitera* exortatu ondoan hartsen da Ministrea manera honetaz.

(Leiz. E. P. 50.or.)

Lafittek ere emaiten ditu bi etsenplu. (Gram. 223.or. 482)

etsaiari harmak hartzerat nindoazkon
harmen hartzerat nindoakon

Liburu hoik irakurtzerat doatza
Liburu hoién irakurtzerat doa.

Etsenplu horietan ikus dezakegu aditzak, pluralean delarik osatzailearen marka (nom. plur.) hartzen duela. Genitiboa agertzen delarik, ez.

Orotarat, eta azterketa hau eginik, bi ohidura agertzen dira, bereziki aditz izena latibo eta 2.º genitiboan dagolarik:

ra(t) / ko.

Bizkai eta Gipuzkoan nominatiboa galdatzen du eta aditz bezala enpleatua da.

Naparroan. (Ikus Joakin Leizarraga) eta Ipar-aldean gehienetan osatzailea genitiboan dator eta beraz izen bezala enpleatua da aditz izena, nahiz agertzen den ere hegoaldeko ohidura.

LEIZARRAGAK PARTITIBOZ DAKARTZAN PARTIZIPIOAK DUVOISINEN ORDAINEKIN ALDERATURIK

Arrasate, 1979-XII-21

Juan Antonio Letamendia

Partizipioa, dakigunez, aditza da, eta adjetiboa. Adjeti-
boa denez izen sintagmaren barruan etor daiteke (*aspaldiko
gauza jakina*) eta arrazoi beragatik atributo ere izan daiteke
(*gauza hori, jakina da*). Hala ere eta adjetibotasunari uko egin
gabe bere adiztasuna ager dezake izen multzoaren barruan
eta aditzari dagozkion inguratzaileak bereganatu Leizarraga-
ren adibide hauetan bezala: *guiçon abillamendu preciosoz
vestitu bat* (Mat. XI, 8), *sare itsassora egotzi bat* (Mat. XIII,
47), *scriba ceruëtaco resumán iracatsia* (Mat. XIII, 52),
emazte adulterioan hatzaman-bat (Ioan VIII, 3), egungo egu-
nean, agian, adjetibo edo inguratzaile zuzen gisa gabe junta-
gin kopulatiboari nahiz partitiboari ezarritako genitiboaz,
izenlagun edo zehar inguratzaile funtziotan gunearen ezke-
rretara, emango genituzkeenak, *abilamendu preciosoz jantzi-
tako/jatziriko gizon bat, itsasora egotzitako sarea* eta abar,
edota azken hauen kide dugun txertakuntza erlatiboaz Duvoi-
sinenaren arauera: *guriki jantzi den gizon bat*, e. a. Inoiz, doi-
nua eta batez ere etena lagun ez badituzte zenbait egitura
zalantzazko gerta daitezke, axalean behintzat, izenak -a
berezkoa dakarrenetan adibidez. *Bortha hertsia da* bi modu-
tara har daiteke gutxienez: *nola den bortha, batean*, 'atea
itxia dago, ez irekia', bi izen sintagma ditugularik, mintzagaia
lehena (*Bortha*), galdegaia bigarrena (*hertsia*); eta *zein bortha
den bestean*, 'ate itxia da, ez ate irekia', izen sintagma baka-
rra aditz sintagmaren barruan. Hala ere, axaleko mugatzai-
lea gora behera badugu partizipioaren atributotasun modala
sala diezgukeen beste marka bat, morfema partitiboa: *bortha
hertsirik da* esanez gero ez dagoela zabalik ulertuko genuke.
Gauza bera genuke partizipio ez diren beste zenbait adjetibo-

rekin ere. *Alaba tritea dago* perpausa bere horretan hartuz gero (ez *alaba triste dago*), zalantzazkoa litzateke, ez genekike *tritea* horrek zeregin espezifikatzaile ala modala duen; *alaba tristerik da*, berriz, argiago genuke partitiboaren laguntzaz. Azalpen gehiago behar luke transformazio bihurrixegoak dakartzan *Manex bere gelan, bortha hertsirik da* perpausak.

Partitiboa saihestu gabe (*e*)*ta* (-*da*) juntagailu kopulatio-boa ezarri ohi zaio partizipioari eta *ikusirik* formarekin batean *ikusita* ere entzun eta irakurtzen da. Leizarragak morfema askaturik ematen du, koma ondoan ipintzen duelarik: *Iosephec bada iratzarri eta, har citzan haourtchoa* (Mat. II, 14), *Baina Herodes hil eta, hundá, Iaunaren Aingueruá aguer cequión ametsetan Iosephi Egipten* (Mat. II, 19). Duvoisinek Biblean ez ezik, *Laborantzako liburua-n* ere badakartza hola-koak, koma Leizarragaren toki berean kokatzeaz gainera loturazko marratxoa tartekatzen duelarik: *Arras agor bada, irauli-eta uzten da* (L. L. 1858, 25), *Ongarria eman-eta, estal ezazu, negua hala iragan dezan* (Ibid., 26 eta *Arthoa sorthu-eta, jorratzen duzu?* (Ibid. 28). Mendebaldean, aldiz, enklisia erabatekoa da, fonetikaz leherkaria *l* eta *n* ondoan ahostun bihurtzeraino (*esanda, hilda*) eta morfologiaz aldaska gehiago ere ezartzen direla, hortik *esandako, esandakoan* e. a. Zenbait erabilera trakets gora behera —“puskatutak daude”, “nahitaz egin zuen” e. a. - badira usuago entzuten eta idazten diren badaezpadako beste batzuk ere. Duela urte gutxi murre tindatzaile gaukariak aberriaren izena *s* ala *z-z* idatzi erabaki beharraz gainera *askatuta* eta *askatua*-ren artean hautatu behar izaten zuen egunsentia baino lehen. Badirudi, haatik, egungo egunean bigarrenaren alde dagoela gehiengoa. Era berean, egoera edo adierazten duten aditzekin atributo gisa dugunean maiteago du zenbaitek artikulua hutsa (-*a*) edo partitiboa (-*ik*) juntagin enklitikoa (-*ta*) baino: *murgildua, inguratu, nekatua, hasia, josia, jasoa* edota *loturik, seguraturik, behaturik, etzanik* “egon” *hasita, jasota, jota* e. a. “egon” baino. “Perlesiak joa dago” egokiago bide da “jota” baino.

Noiz behar da nominatibo mugatua edo mugagabea, noiz *-ta* edota noiz partitiboa? Noiz partitiboa eta noiz instrumentala edo izena inesiboan? Hizketa arruntean zenbaterainoko aldea dago hori *ikusiz, ikusirik, ikustean, ikusita, ikusitakoan* eta honelakoen artean? Teoria mailan garbi bide dago

batzuek (*ikusita, ikusirik, ikusitakoan*) aditz nagusiarekiko lehentasuna adierazten dutela: *çuec hori ikussiric, etzarete emendatu guero, haren sinhestera* (Mat. XXI, 32) dakar batean Leizarragak adberbioaren bidez ekintza nagusiaren ondokotasuna azpimarratuz. Beste batzuek aldi beretasuna (*ikusiz, ikustean*), eta beste batzuek aditz nagusiaren ondoko ekintza. Batzuek, agian, ageriago daramate modaltasuna (*ikusiz*), besteek denbora (*ikustean*). Maiz testuinguruak eta batez ere perpaus nagusiak emango dio partizipioari adiera berezia eta zehatza: *beguiac cerurat goitituric, gratiãc renda citzan* (Mat. XIV, 19) eta *Hec bada ioanic segura ceçaten sepulchrea, harria ciguilaturic, goardequin* (Mat. XXVII, 66) perpausetan koma aurretik datozen partizipio biak modaltzat joko lituzke batek baino gehiagok, baina *Eta guertha cedin, Iesus propos hauc acabaturic parti bai tzedin Galileatic* (Mat. XIX, 1) perpauskoa denborazkoa dela esango genuke, eta *çuec hori ikussiric, etzarete emendatu guero, haren sinhestera* (Mat XXI, 32) kontzesiboa; *Baina Iesusec hori eçagaturic leku equin ceçan handic* (Mat. XII, 15) kausala. Eta beste askotan denbora-kausa-moduzko zirkunstantzia lainotsu batetan utziko genuke, hiztunaren edo idazlearen gogoak mezuan zehaztasun handiagorik behar ez duelako.

On litzateke, bada, zein diren nominalizazio hauek funtzioan eta adieran dakartzaten aldeak eta kidetasunak ahalik eta zehatzenik argituko bagenu; eta bidenabar forma pertsonal eta nominalizatuen artekoak; berezkuntzak non dituen zuzentasunaren edo egokitasunaren mugak eta noiz ez den idazkera eta estilistika jolas hutsa baizik. Hemen ere, bestetan bezala, diakroniaz eta geografiaz ere aztertu behar lirateke gaiok, garaiak eta euskalkiak nahasi gabe. Biltzar honetarako erabaki zen bezala, hobe dugu idazle jakinaren usadioak banaka ikertu beste toki eta garai batekoekin alderatu ahal izateko eta horrela denboraren joanean eta tokiaren luzetabalean berezkuntzarik eta aldaketarik gertatu den edo gertatzen ari ote den hatzaman. Estadistikak ere axola handia du ez baitugu deus adierazten halako autorek ehun aldiz darabilela halako forma esaten dugunean, beste berrehuntan bestela ari dela isiltzen baldin badugu, holakoak ere gertatzen baitira gure artean. Bestetik, baliteke alderatzen ditugun idazle bik forma bera erabiltzea, partizipioa partitiboan gure kasuan adibidez, baina berau salatzea ez da nahikoa,

gerta baitaiteke eta gertatzen da batengan, Leizarragarengan esaterako, maiz datozen formak urriago izatea bigarreanean edo hirugarrenean, Duvoisinengan adibidez eta are gutxiago Orixerengan, eta inoiz edo behin azaltzen zena, partizipioa instrumentalean esate baterako, ugariago izatea beste hauen gan. Bizpahiru autore aztertzea ez da nahiko irizpideak gotortzeko baina honelakoetan hobe dugu apalki esparru mugatuak xeheki atxurtu eremu zabaletan hegaka lurrik ikutu gabe jira-biraka ibili baino. Hori eginik, estadistika sinkronikoak diakroniazko joera argitzen lagunduko liguke.

Txosten honetan ikutzen dudan aztergaia, izenburuak dioenez, Leizarragak Mateoren ebangelioan partitiboz dakartzan partizipioak dira. Berrehun eta berrogei ta hemezeti bildu ditut, hor gelditzen direlarik, zalantzarik gabe, sarearen zuloetatik oharkabean itzuri zaizkidanak. Aipatu nahi dut bidenabar Azkuek morfologian (534) honi buruz dakarren zerbait, honela dioelarik: "Al sufijo *ik* muchos en AN y G añaden la enclitica *an*, en cualquiera de las varias acepciones que tiene este sufijo (441), sin reforzar en un ápice su alcance semántico. *Entzun ukan duzue nola erranikan izan zayen lehenagokoei* habéis ya oído como se les ha dicho a los antiguos (Leiz. *Matth.* V-21)". *Hordago*-k argitara berri duen faksimilean (Rochelan, 1571) nik neuk ez dut *-ikan* irakurtzen, *izan* birritan idatzia baizik, azpiko kirrua baitu ç hautsi horrek: "erraniçan içan çayen", ez "erranikan izan", eta partitiboa horrela emanik Mateoren ebangelioan behintzat ikusi ez dudanez bada-ezpadako deritzat Azkueren adibide bakar horri.

Bildutako partizipioak Duvoisinekin pasarte beretan eskaintzen dizkien ordainekin alderatu ondoan ia erdiak berdin datozela ikusi dut, partitiboz alegia, eta bestela ematen dituenak nolabait sailkatzen ahalegindu naiz. Ondoren, adibide bakar batzuk harturik, sujetoa, partizipioa partitiboduna eta aditz nagusia nola lerrokatzen dituzten autore biok gaingiroki begiztatu nahi izan dut, eta azkenean, eraskin gisa, bizpahiru zati txikiz Leizarraga, Duvoisin eta Orixe (*Urte guziko meza-bezperak* eta *Itun Berria*) parekatu ditut nominalizazio hauekiko zerak axaletik xurgatu nahiz. Pozik nintzateke, besterik gabe, lardaska nahasiok dakitenei hizpide eta mintzabide gertatuko balitzaizkie ondoko elkarrizketan zenbait auzi argi diezaguten.

Lehen zerrenda honetan zein diren partizipio erabilienak ikus daiteke: *ethorriric* eta *ikussiric*, *veniens* eta *videns* gehienetan latinez; geroago *ençunic*, *harturic*, *ilkiric* e. a. Itzulpena delarik, maiztasun horren atzean latinezko testuarena dugu, jakina, baina honek ez dizkigu pasarte guztiak argitzen. *Dicens*, adibidez, eten gabe agertzen zaigu baina gehienetan *erraiten çuela*, *cioela*, *ciotela*, *ciotsola* eta antzekoen bidez ematen digu Leizarragak, forma pertsonalez *-ela* atzizkiarekin. Nominalizaturik behin aurkitu dut, *erranik*, eta hor partizipio absoluto baten oraina dugu: *Hymno dicto* (Mat XXVI, 30). Era berean, *ioanic* hamabi aldiz dator zerrendan, baina *ibiliric* ez da ageri, eta *ambulans* 'cabilala' itzultzen du (Mat IV, 18; XIV, 25). *Ihardetsiric* ere ez dator, beti atzizki modala dugu perifrasi pertsonalari ezarria *-ten + laguntzaillea + ela*: *ihardesten + çuela*, *duela*, *ceraucotela* e. a. Ekintzaren aspektuari dagozkionak aztertu behar genituzke hemen, ekintzaren burutua edo burutugabea izatea eta aditz nagusiarekiko aldiberetasuna zertan diren.

259 PARTIZIPIOEN MAIZTASUNA

ethorriric	28 aldiz	10,8 %
ikussiric	24 aldiz	9,2 %
ençunic	19 aldiz	7,3 %
harturic	18 aldiz	6,9 %
ilkiric	16 aldiz	6,1 %
iarriric	14 aldiz	5,4 %
hurbilduric	13 aldiz	5 %
ioanic	12 aldiz	4,6 %
vtziric	8 aldiz	3 %
deithuric	7 aldiz	2,7 %
iaiquiric	6 aldiz	2,3 %
sarturic	6 aldiz	2,3 %
eçaguturic	5 aldiz	1,9 %
itzuliric	5 aldiz	1,9 %
igorriric	4 aldiz	1,5 %

Hiru aldiz datozenak:

betheric, egotziric, eguinic, hatzamanic, hedaturic, izanic, partituric, rendaturic (8 × 3)	24 aldiz	9,2 %
---	----------	-------

Bi aldiz:

appainduric, appartaturic, bilduric, emanic, estecaturic, goitituric, gorderic, iraganic, irequiric, vrriquituric (10 × 2).....	20 aldiz	7,7 %
--	----------	-------

Behin datozenak:

abandonaturic, acabaturic, accordaturic, açotaturic, advertituric, asserreturic, auañaturic, behaturic, ciguilaturic, desplegaturic, eçarriric, eramanic, eridenic, erranic, ertsiric, escobaturic, ezconduric, gueldituric, hassiric, hautsiric, iautsiric, iganic, iraitziric, iratzarturic, lachaturic, manaturic, nahastecaturic, plegaturic, scribaturic, sendaturic (30)	30 aldiz	11,5 %
---	----------	--------

259 partizipio hauetatik 127, ia erdiak (49 %), berdin datoz Duvoisinin itzulpenean, partitiboz, nahiz eta lexema beti berdina ez den, eta menpeko perpaus adberbialak, aski autonomoak, dira, ez atributo edo adberbio gisakoak.

Leizarraga**Duvoisin**

abandonaturic	utziric	XXVI, 56
accordaturic	hitzarturik	XX, 2
Açotaturic	azotarazirik	XXVII, 26
advertituric	mezu izanik	II, 22
appartaturic	harturic	XVI, 22
appartaturic	goanik	XXII, 15
auañaturic	hedaturik	XXVI, 51
betheric	bethe(rik)	XXVII, 48
bilduric	bilangazirik	II, 4
bilduric	bildurik	XXVIII, 12
deithuric	deithurik	II, 7; X, 1; XV, 10, 32; XVIII, 2
desplegaturic	idekirik	II, 11
eçarriric	ezarririk	XXVII, 48
egotziric	eroririk	XVIII, 26, 29
eguinic	eginik	XXVII, 48, 50
emanic (congit)	igoriric	XIV, 23; XV, 39
eñçunic	aditurik	II, 22; IX, 11; X, 2; XII, 24; XIX, 25; 20, 24, 30; XXII, 34; XXVII, 47

eramanic	harturic	XXVII, 27
erranic	erranik	XXVI, 30
ertsiric	hertsirik	VI, 6
estecaturic	estekaturik	XXII, 13
ethorriric	ethorririk	V, 24; IX, 10
ethorriric	goanik	II, 23; VIII, 33
ethorriric	heldurik	II, 9
ethorriric	hurbildurik	IV, 3; XXV, 20, 24; XXVIII, 2
gueldituric	gelditurik	XX, 32
harturic	harturik	XV, 36; XXI, 39; XXV, 1; XXVI, 27, 37; XXVII, 24, 59; XXVIII, 15
harturic	bildurik	XXVII, 6
harturic	lothurik	XXI, 35
harturic (compassione)	urrikaldurik	XX, 34
harturic (conseillu)	biltzar eginik	XXVIII, 12
hassiric	hasirik	XX, 8
hatzamanic	lothurik	XVIII, 28
hurbilduric	hurbildurik	VIII, 19; XIII, 10; XV, 12; XV, 23; XVIII, 21; XIX, 16; XXVI, 49; XXVIII, 18
iaiquiric	jaikirik	VIII, 26; XXVI, 62
iaiquiric	chutiturik	IX, 19
iarriric	jarririk	XIII, 48; XXVII, 36
iautsiric	jautsirik	XIV, 29
iganic	iganik	XV, 29
igorriric	igorririk	X, 2; XXII, 7
ikussiric	ikusirik	III, 7; IX, 2, 8, 11; XII, 2; XIV, 30; XVIII, 31; XXI, 15, 19, 20; XXVII, 24
Ilkiric	ilkirik	VIII, 28, 32; IX, 31; XII, 14; XIII, 1;; XV, 21; XIV, 1; XXVI, 75; XXVII, 53
Ilkiric	atheraturik	XX, 3
ioanic	goanik	XIV, 12, 15; XXVI, 39
iraganic	goanik	IV, 21
iraitziric	arthikirik	XXVII, 5
irequiric	idekirik	XVII, 27
itzuliric	itzulirik	IX, 22; XVI, 23
itzuliric	bihurturik	XXVII, 29
içanic (advertitu)	izanic (mezua)	II, 12
lachatunic	lachatunic	XXI, 2
manaturic	manaturik	XIV, 19
nahastecaturik	nahasirik	XXVII, 34
plegaturic	bihurturik	XXVII, 29
sarthuric	sarthurik	II, 11; XII, 45; XXVI, 58
sarthuric	iganik	IX, 1; XIII, 2
vrriquituric	urrikiak harturik	XXI, 29

vrriquituric	urrikiak eramanik	XXVII, 3
vtziric	utziric	IV, 13, 20, 22; XIII, 36; XVI, 4; XXI, 17; XXII, 22; XXVI, 44

Ondoko zerrendetan Duvoisinek bestela dakartzanak sailkatu ditut. Perpaus nominalizatuak ikusiko ditugu lehen-dabizi eta gero aditz pertsonala dutenak. Partizipioekin jarraitzen dugularik hamar aldiz (3,8 %) aurkitu ditut instrumentalez emanik, ekintza horiek nagusiaren une berean gertatuak bailiran eta kutsu modal nabarmenagoa dariela. Leizarragak berak ere inoiz edo behin erabiltzen du instrumentala, biziki gutxitan hala ere. Ez naiz holakoen bila ibili baina partizipio garbia delarik bat baizik ez zait eskuetara etorri, *eta haren aitzinean belhauricatus truffatzen ciraden harçaz* (Mat. XVII, 29). Bi *nahiz* elkarren ondoan datoz hamabigarren kapituluari, *haren ama eta anayeac ceuden lekorean, harequin minçatu nahiz* (XII, 46) eta *hire anayeac lekorean diaudec, hirequin minçatu nahiz* (AXII, 47), bigarrena errepi-kapen hutsa delarik bakartzat jo genitzakeenak, *nahi* gainera izena da berez, ez partizipio.

Izena dugu ere ondokoan datorren lehena: **Ençutez ençunen duçue, eta ez adituren: eta dacussaçuela ikussiren duçue eta etzaizquiote oharturen** (Mat. XIII, 149; bigarre-nean ere *dacussaçuela* dio, ez *ikusiz* (*auditu audietis, videntes videbitis*, latinez). Ez dut uste askoz ere gehiago izango direnik. Hona, bada, hemen zerrenda:

Leizarraga	Duvoisin	
ciguilaturic	zigilatuz	XXVII, 66
eçagaturic	jakinez	XII, 25
eguinic (thu)	eginez (thu)	XXVII, 30
goitituric	goitituz	XIV, 19
harturic	hartuz	XVII, 27
hedaturic	hedatuz	VIII, 3; XII, 49; XIV, 31
ioanic	goanez	XXVIII, 7
rendaturic	bihurtuz	XV, 36

Bost pasartetan (1,9 %) *partizipio* + *ondoan* dakar Duvoisinek denborazko adiera garbiz: lehen-dabizi, adberbi-ala gertatzen da, ekintza nagusia gero.

Leizarraga	Duvoisin	
conseillu		
harturic	egon ondoan	XXVII, 7
ençunic	entzun ondoan	II, 9
ezconduric	ezkondu ondoan	XXII, 25
iraganic	iragan ondoan	XIV, 34
iratzarturic	atzarri ondoan	I, 24

Baditugu Duvoisinek aditz izenez ematen dizkigun ordainak ere. Hauetako sei (2,3 %) inesibo singularrean datoz. Leizarragak ere noizpeinka erabiltzen duelarik, hona adibide pare bat: *Ez: hiracaren biltzean oguia-ere idoqui ezteçaçuen harequin batean* (Mat. XII, 29) eta *Ecen gauça haur guiçom-bat beçala da, ceinec lekorerat ioaiten dei baitzitzan bere cerbitzariac* (Mat. XXV, 14). Aldiberetasuna genuke hemen, lehenengoan behintzat.

ençunic	aditzean	VII, 10; XXII, 33
goitituric	goititzean	XVII, 8
ikussiric	ikhustean	IX, 36
ilkiric	ilkhitzean	XIV, 14; XVIII, 28

Izena soziatiboz emanik lau aldiz (1,5 %) aurkitu dut. Ekintza bion arteko lotura une berean edo bertsean gertatzen diren kausa-ondorioena dugu:

- L: *Bada regue Herodes ençunic hori trubla cedin* (Mat. II, 3)
- D: *Bada, hori aditzearekin, asaldutan sarthu zen Herodes erregea.*
: *Eçagutu duc nola Phariseuac propos hori ençunic scandalizatu içan diraden?* (Mat. XV, 12)
- D: *Badakizu Farisauek hitz hori aditzearekin gaizbiderat hartu dutela?*
- L: *Eta hori ençunic discipuluac eror citeçen, bere beguithartén gainera, eta icit citecen haguitz.* (Mat. XVII, 6)
- D: *Eta aditzearekin, dizipuluak erori ziren ahuspeka eta izialdura handia lothu zitzayoten.*

Laugarren adibide honetan zerikusia ez da kausa-ondorio, denborazko bateratasun hutsa baizik:

- L: *Baina laborariéc ikussiric semea erran ceçaten bere artean, Haur da primua.* (Mat. XXI, 38)
- D: *Bainan semea ikhustearekin, mahastizainek beren artean erran zuten: Hau da premua.*

Lafitteren hitzez —*cette forme est rare* (Gram. Basq, § 884, d)—, aski bakana den izenaren beste forma bat inesiboa mugagabez dugu (*-ten*) instrumentalez birdeklinatua (*-tenez*). Ondoko hiru adibide hauetan ere erlazio logikoa kausa-ondorioarena da, denborak, ordea, atziki biok berez aldi bate-ratasuna adierazten badute ere (*ikusten, ikusiz*), ez datoz batean bigarren eta hirugarren adibideetan bederen: lehenik adberbiala gertatzen da eta gero ekintza nagusia ezinbestez. Hala ere, lehenitasun hori hain da hurbila, Duvoisinek ez du debekurik horren bitxia deritzagun forma hau erabiltzeko.

- L: *Orduan Herodesec ikussiric nola çuhurréz enganatu içan cen, asserre cedin haguitz* (Mat. II, 16)
- D: *Orduan Herodesek ikhustenez jokhatua zela Magoez, hasarre gaitzean sarthu cen.*
- L: *Iesus bada ikussiric gendetzeac, igan cedin mendi batetara* (Mat. V, 1)
- D: *Bada, Jesusek ikhustenez halako osteak, mendira igan zen*
- L: *Èta ikussiric Iesusec gendetze handi bere inguruän, mana citzan discipuluac ioan litecen berce aldera.* (Mat. VIII, 18)
- D: *Bada, Jesusek oste handiak ikhustenez bere inguruan, manatu zuen eraman zezaten uraz haindira.*

Perpaus nominalizatuena ikusi ondoan Duvoisinek adizki pertsonalez dakartzanak aztertuko ditugu. Ugarienak (15,8 %), koordinatu kopulatiboak ditugu.

Laburki emanez hona hemen eginbide bion artean dagoen aldea. Funtsean bi perpaus bakun ditugu, transformazio ezberdinez elkartuak. Honelako zerbait, lehenean IS nominatiboa eta bigarrean IS ergatiboa, adibidez, ditugularik:

1. *Fariseuak hurbildu zitzaizkion*
2. *Fariseuek galdegin zioten*

Transformazioa nominalizazio bidez, Leizarragak dakarren bezala, eginez gero honelako zerbaiz izango genuke azkean:

3. *Fariseuek, hurbildurik, galdegin zioten.*

Horretarako elipsis bikoitza obratu dugu lehen parpau-seko IS (nominatiboa, oraingoan) eta laguntzailea ezabatuz; bestetik *-ik* atzikia ezartzen diogu partizipioari. Tokia, gehienetan, bigarren perpausoko IS (ergatiboa, hemen) eta AS artean ematen diogu, berez bigarren honen eremuan sartzen delarik, elementuen ordena ezertarako ikutu gabe.

Koordinazioan, ordea, Duvoisini gagozkiola, lehen perpausa osoki harturik *eta* juntagailua tartekatzen dugu bigarren perpausa lotzeko, galtzen zaigun beronen IS-ren kalte-tan:

4. *Fariseuak hurbildu zitzaizkion eta galdegin zioten.*

Perpau bietan IS bat falta dugu, datiboa, azken batetan bakarra litzatekeena. Erregela hauek, bestalde, honela erabiltzeko, baldintza bat eskatzen da, oinarriko perpau bietan IS berdina izatea, bestela ezin kendu genezake ez nominalizazioan (partizipio absolutoa genuke), ez koordinazioan, ondo-koetan bezala, adibidez:

5. *Haizea jaikirik, itsasoa harrotu zen.*

6. *Haizea jaiki zen eta itsasoa harrotu zen.*

Berrogei ta bat perpau koordinatu hauetan datozen aditzak ez ditugu berriak, bat edo beste kenduta Duvoisinek berak partizipio partitibodunez emanak ikusi baititugu lehen zerrendan, oraingoan baino maiztasun handiagoz gainera; berezkuntzaren arrazoia, hortaz, ez da hiztegikoa. Hasieran, ordea, ikutu dudan puntu bat berraipatu nahi nuke berriro. Duvoisinen koordinatu hauetan gehienetan juntagailuak koma dakar lagun: aurretik koma, eta gero *eta*, batean izan ezik. XIV 13an honela dugu: *Hori aditu-eta, Jesus untzichka batean urrundu zen* (Mat. XIV, 13) kakotsaren funtzioaz Leizarragaren lanetan aspaldi ohartu zen Schuchardt, eta van Eys-en iritzia aipatzen duenean *eta* ondoan (*eta* koma aurretik) partizipioaren osagarri bat ere ager daitekeela erakusten digu Dasconaguerreren pasarte honen bidez: *eskerrak bihurtu eta murde Belzunzeri, "guazin" dio printsesak Ganichi.*

Leizarraga	Duvoisin	
deithuric	deithu zuen, eta	XVIII, 32
	deithu zituen... eta	XX, 25
ençunic	aditu-eta,	XIV, 13
ethorriric	ethorri ziren..., eta	XXVI, 60
	ethorri zitzaizkon... eta	XIII, 27; XVI, 1
	ethorri direla..., eta	XXVIII, 13
	ethorriren naiz..., eta	VIII, 7
	zato..., eta	IX, 18
	goan, eta	VIII, 14
	hurbildu zen... eta	IX, 18; XV, 25; XXV, 22
	hurbildu zitzaioen... eta	IX, 20
	hurbildu ziren... eta	XVII, 19 (Duv. 18)
	hurbildu zitzaioten..., eta	XVII, 7
harturic	hartu eta	XIII, 33
	hartu zituen...; eta	XIV, 19
	hartzen eta	XIII, 31
hatzamanic	hartu zituzten..., eta	XXII, 6
hautsiric	eta hautsi eta	XIV, 19
hurbilduric	hurbildu ziren..., eta	XXVI, 50
	hurbildu zitzaizkon... eta	VIII, 25; XXVIII, 9
iaiquiric	jaiki zen eta	IX, 7, 9
	jaiki zaite, ...eta	II, 20
igorric	, eta igorri zuen	II, 16
ilkiric	ilkhi zen..., eta	XX, 5, 6
	ilkhi ziren, eta	XXII, 10
ioanic	goan naiz, eta	XXV, 25
	goan zen eta	XVIII, 30; XXV, 18
	goan ziren..., eta	XXVII, 66
	zoaz..., eta	XVII, 27 (Duv. 26)
irequiric	idequi zuen..., eta	V, 2
itzuliric	ambildu zuen..., eta	XXVII, 60
	ethorri zen, eta	XXVI, 43
rendaturic (gratiác)	benedikatu zuen eta	XXVI, 26
	eskerrak bihurtu zituen, eta	XXVI, 27

Denborazko adieraz erlatibo pertsonalez inesiboan, hamabost aldiz (5,7 %) dugu:

acabaturic	akhabatu zituenean	XIX, 1
ençunic	aditu zuenean	XIV, 13; XXII, 7, 22
ethorriric	ethorri zirenean	XX, 10
	ethortzen nintzenean	XXV, 27
	heldu zenean	IX, 23
ikussiric	ikhusi zutenean	II, 10; XIV, 26; XXVI, 8; XXVIII, 17

	ikhusi zituenean	IX, 23
	ikhusi zituztenean	XXVII, 54
partituristic	goan zenean	XII, 9; XV, 29

Hiru aldiz (1,1 %) baizik ez dut aurkitu *-elarik* akabantzaz:

behaturic	begiratzen ziotelarik	XIX, 26
iarriric	zelarik	XXVI, 7
igorric	igortzen zituelarik	II, 8

Partizipioak partitiboz esanahi kausala ere, kausal esplikatiboa, izan dezake, Duvoisinek *bait-* aurrizkiaz ematen dizkigunetan egizta daitekeenez:

eçaguturistic	baitzakien	XII, 15; XXVI, 10
	ezagutzen baitzuen	XVI, 8; XXII, 18
içanic		
(accusatu)	nola... jazartzen baitzioten	XXVII, 12
(instruitu)	irakhatsia baitzen	XIV, 8
ikussiric	ezagutu baitzituen	IX, 4
ioanic	laster egiten baitu	XIII, 46

Behin bakarrik aurkitu dut Leizarragaren partitiboa Duvoisinek *arren* kontzesiboaz emanik, eta forma konjugatua bera:

L: *eta çuec hori ikussiric, etzarete emendatu guero, haren sinhestera* (XXI, 32)

D: *zuek aldiz, ikhusten zinduten arren, etzarete hargatik urrikitan sarthu, haren sinhestekotzat.*

Partizipioa, atributoa (*haurra nekatua dago*) eta osaguri predikatiboa ere (*haurra nekatua dator*) izan omen daiteke, baldin deitura biak txosten honetarako bederen, horrela adierazirik onartzen baditugu (Aditz perifrastikoetan ditugun partizipioak ere funtsean atributuoak besterik ez dira: *zu etxetik atera zara, autoa atera duzu; gizona etorri da, gizuna jin duzu*). Bata zein bestea nominatiboz nahiz partitiboz etor daitezke. Nominatiboz partizipioaren adjetibotasuna dugu nagusi eta izen sintagmarekiko komunztadura ageri da: *Eta lurrera jautsi ciradenean ikus citzaten ikatz-AC eçarri-AC, eta arrain-A gainean eçarri-A eta oguia* (Leiz., Ioan XXI, 9). Partitiboz, aldiz, adberbio aldakaitzaren itxura nagusi zatekeen:

ikus zitzaten ikatzak ezarri-rik eta arraina ganean ezarri-rik. Honelako partizipioek autonomia txikiagoa dute aditz nagusiarekiko orain arte bahetu ditugunek baino, mendekoa izanagatik, perpaus bat osatzen baitzuten haiek, aditz nagusiaren multzotik etenak berexirik: *Jendea / plazan bildurik / oihuka hasi zen*, eta doinuak ere goruntz joko luke erdi horretan; osagarri predikatiboa denean, berriz, dena segidan ematen dugu, aditz bien arteko etenik gabe, eta doinuaren behe-rakada ere lehenago hasiko litzateke: *jendea, plazan bildurik ikusi genuen*.

Partizipioa batzuetan sujetoari dagokio: *arrainak suan ezarriak zeuden*; beste batzuetan osagarri zuzenari: *arrainak suan ezarriak erre ditugu*. Dena den, bion arteko aldea axalekoa baizik ez da, osagarri predikatiboa denean ere predikazio nominala gordetzen baita azpian, bestela esan, osagarri predikatiboa duen perpausak beste bi izkutatzen ditu, predikazio nominala duena bata, eta berbala bestea.

- I. *Arrainak suan ezarriak zeuden* (pred. nominala)
- II. *Arrainak ikusi genituen* (pred. berbala)
- III. *Arrainak suan ezarriak ikusi genituen*

Transformazioaren bidatz-erditan *zeudela* adberbialaren antzeko zerbaitekin egingo genuke inkontru, gero estaliko bada ere:

Arrainak suan ezarriak zeudela ikusi genituen (ez *genuen*)

Ez dago eragozpenik gisa horretako transformazioa obratzeko osagarri predikatiboa perpaus intransitiboaren sujetoari dagokionean:

- I. *Haurra ikaratua dago*
- II. *Haurra nolabait dator*
- III. *Haurra ikaratua dator*

Ez dut uste, ordea, horren erraz entzungo edo irakurriko genukeenik bigarrena perpaus transitiboa balitz:

- I. *Haurra ikaratua dago*
- II. *Haurrak nolabait hitz egin du*
- III. *Haurrak ikaratua hitz egin du* (?)

Errazago ikusiko genuke, agian, partitiboz: *haurrak ikaraturik hitz egin du*. Hemen, ordea, inoren usteak jakitea ez direla eta autoreen pasarte zehatzak eskatu zaizkigunez itzul gaitezen Leizarragaren baitara. Ondokoetan bederen, ez dugu partizipio bat ere aditz predikatiboaren sujetoari dagokionik; perpaus nominalak ditugu denak.

Leizarragaren usadioan partizipioa, dela atributo dela osagarri predikatibo denean, nominatiboz nahiz partitiboz agertzen da, bai partizipioa sujetoari dagokionean bai osagarri zuzenarekin datorrenean. Duvoisinek, berriz, badirudi beti nominatiboa erabiltzeko joera duela. Hamabost partizipio kontatu ditut (5,7 %) Leizarragak partitiboz emanak eta Duvoisinek nominatiboz. Lau sailetan banatu ditut adibideak.

A) PARTIZIPIO ATRIBUTOA, LEIZARRAGAK NOMINATIBO MUGATUZ EMANA

L : *aizcorá arborén errora eçarria da* (Mat. III, 10)

D : *haizkora arbolaren erroan ezarria da*.

L : *ceren baitziraden errebelatuac eta barreyatuac* (Mat. IX, 36)

D : *ehoak zirelakoz eta bazterretan etzanak*

L : *Buruco bilo guciac contatuac dirade* (Mat. X, 30)

D : *Zuen buruko ileak ere, oro khondatuak dire*.

L : *çatozte enegana fatigatuac eta cargatuac çaretan guciác* (Mat. XI, 28)

D : *Zatozte ene gana, nekhatuak eta sortatuak zaretan guziak*.

L : *bere contra partitua den hiric edo etheç, eztu irau-nen* (Mat. XII, 25)

D : *Bere baithan bi aldetara dagoen erresuma, chautua izanen da*.

L : *Eta baldin Satanec Satan campora egoizten badu, bere contra partitua da* (XII, 26)

D : *Eta baldin Satanek Satan ir aiz baleza, bere baithan bi aldetara lagoke*.

L : *Bilduac baitziraden* (Mat. XXVI, 57)

D : *bildu baitziren*

L : *scribatua duc/da*

D : *iskribatua duk/da*

(Mat. II, 5; IV, 4, 6, 7, 10; XI, 10; XXI, 13; XXVI, 24, 31)

L : *ciraden han iarriac* (Mat. XXVII, 61)

D : *han zauden... jarriak*

B) PARTIZIPIOA ATRIBUTO, LEIZARRAGAK PARTITIBOZ EMANA

<i>iarriric cegoén</i>	<i>jarria zagoen</i>	Mat. XXVI, 69; XXVIII, 2
<i>iarriric cegoela</i>	<i>jarria zagoelarik</i>	Mat. XXVII, 19; XXIV, 3; IX, 10
<i>iarriric dauden</i>	<i>plazan dauden</i>	Mat. XI, 16
<i>haourtchoac</i>	<i>haur batzu</i>	
<i>iarriric</i>		
<i>dagoenaz.</i>	<i>jarria denaz</i>	Mat. XXIII, 22
<i>iarriric dagoela</i>	<i>jarria</i>	Mat. XXVI, 64
<i>iarriric ceu-</i>	<i>jarriak zituenen</i>	Mat. XIV, 9
<i>denén causaz</i>	<i>gatic</i>	
<i>gorderic da-</i>		
<i>goenarequin</i>	<i>gordea den</i>	Mat. XIII, 44
<i>gorderic egon</i>		
<i>ican diraden</i>	<i>gordeac zaudezen</i>	Mat. XIII, 35

Batean Duvoisinek ere partitiboa dakar (Mat. XXVII, 36), honek, ordea, ez du lehen esan duguna ukatzen, Duvoisinek honelakoetan nominatibo zale dugula alegia, *jarririk* hori perpaus berexia baita kakotsak banandua, ez atributo: Leizarragak *Eta jarriric ceudela beguiratzen çuten hura han dioelarik Eta jarririk, haren zai zauden* dio Duvoisinek, ez *haren zai, jarririk zauden*, besteetan bezala *jarriak zauden* idatzi baitzukeen, segur aski.

C) PARTIZIPIOA OSAGARRI ZUZENARI ATXIKIA, NOMINATIBO MUGATUZ

Inoiz joskera bihurriak ere ez dira falta Leizarragaren itzulpenean, objeto eta partizipioaren artean perpausaren

sujeto ergatiboa, adibidez, sartzen digularik: *Eta ikussi çue-nean HURA nescato batec su bazterrean IARRIA, hari begui eratchequiric erran ceçan, Haur-ere harequin cen* (Lu. XXII, 56). Urruntasun hori txikia da, ordea, hurrenak dakarrena-ren ondoan: *Eta spirituz desertu batetara eraman nençan: eta ikus neçan EMAZTEBAT, bestia escarlata coloretaco, blasphemiotaco icenez bethe, çazpi buru eta hamar adar cituen baten gainean IARRIA* (Apoc. XVII, 3). Barka bekit ondoko adibideetan bat izan ezik Mateorenak ez izatea, ez baitut uste desbideratze honek egiztatu nahi dugunaren pisua desbaliatuko duenik.

L: *eta ikusten du harria monumentetic aldaratua* (Ioan XX, 1)

D: *eta ikhusi zuen harria hobitik khendua.*

L: *eta ikus neçan emaztea sainduén odolaz, eta Iesusen martyroén odolaz horditua* (Apoc. XVII, 6)

D: *Eta ikusi nuen emaztekia, sainduen odolaz eta Jesusen martiren odolaz hordi.*

L: *Presondegua behinçat eriden dugu ertsia diligentia gucirequin* (Act. V, 23)

D: *Presondegia khausitu dugu behar zen artha guzirekin hertsia.*

L: *Ordu hartan eriden nié purificatua templean* (Act. XXIV, 18)

D: *Eginkari horietan aurkhitu naute temploan garbitua.*

L: *ikus ceçan guiçombat peage lekuan iarria* (Mat. IX, 9)

D: *ikhusi zuen zerga bildegian jarria gizon bat.*

D) PARTIZIPIOA OSAGARRI ZUZENARI ATXIKIA, LEIZARRAGAK PARTITIBOZ EMANA

L: *Eta ethorri denean, erideiten du hutsa, escobaturic eta appainduric* (Mat. XII, 44)

D: *Eta ethorri denean, aurkhitzen du hutsa, erhaztatua eta aphaindua.*

L: *eta goiti citzaten çathi soberatuetaric hamabi sasqui betheric* (Mat. XIV, 20).

D: *Eta ondarretarik bildu zituzten hamabi saski puska
betheak.*

L: *Eta estecaturic eraman ceçaten* (Mat. XXVII, 2)

D: *Eta estekatua eraman zuten.*

L: *Eta eçar ceçaten haren buru garayan haren causá
scribaturic* (Mat. XXVII, 37).

D: *iskribuz ezarri zuten haren heriotzeko aria.*

Hona beste bi adibide Mateorenetik landa:

L: *hec estecaturic eraman litzançat Sacrificadore prin-
cipaletara* (Act. IX, 21).

D: *halakoen preso eramateko aphez nausien aitzinera.*

L: *ceren hura resuscitaturic ikussi vkan çutenac ezpai-
tzituzten sinhetsi.* (Marc. XVI, 14)

D: *Zeren biztua zela ikhusi zutenei etzioten sinhesterik
eman.*

Ez dirudi arrazoi larririk dagoenik azken partizipio hauek nominatiboz edo partitiboz emateko, gauza bera bietera esanik aurkitzen dugunez gero Leizarragarengan. Esku diferenteak ote dira batean eta bestean edota idazketaren momentu diferenteak? Hori ere azter liteke. Arestian aipatu dugun Mateoren zatian honela genuen:

Eta ethorri denean, erideiten du hutsa, escobaturic eta appainduric. Lukasenean, berriz, nominatiboa darabil Leizarragak berak:

Eta ethorriric erideiten du hura escobatua eta appaindua (Luc. XI, 25).

Bigarren honetan, behar bada, perpaus subordinatuan partizipioa partitiboz erabiltzeak eragin du ondoko partizipioak nominatiboz ematera.

Eriden-ekin ere bilduric eta bilduac aurkitzen dugu:

eta eriden ceçan anhitz gende hara bilduric (Act. X, 27)

eta eriden citzaten elkargana bilduac hamecâc (Luc. XXVIII, 33)

Berdin gertatzen da "ceruâ irequia" aipatzen diguten pasarte hauetan, eta Mateorenak ez badira ere bihoaz diogunaren argibide:

Nominatiboz:

Ikusten ditut ceruäc irequiac (Act. VII, 56)
eta ikus ceçan ceruä irequia (Act. X, 11)

Partitiboz:

Ikussiren duçue ceruä irequiric (Ioan I, 51)
Guero ikus neçan ceruä irequiric (Apo XIX, 11)

Esan gabe doa guzti hauek nominatiboz ematen dizkigula Duvoisinek: *zabaldua(k)* eta *idekia*.

Azkenik, parte honi buru emateko hogeita bat partizipio (8,1 %) geratzen zaizkigu sailkatu gabe, gehienetan Duvoisineen ordainak aski diferenteak direlako edota ordainik ere ez dutelako (*sendaturic* XV, 31, eta *betheric*, XV, 37, adibidez). Lau aldiz ordaina izena da:

Leizarraga	Duvoisisin	
asserreturic	bere hasarrean	XVIII, 34
iarriric ceudenéz	barazkaltiarrez	XXII, 10
çorthe egotziric	zorthera	XXVII, 35
scribaturic	iskribuz	XXVII, 37

Inbertsio sintaktikoa ere badugu batean behintzat mendeko perpausa nagusi bihurtzen delarik eta alderantziz:

L: *eta bertan partituristic monumentetic iciapen eta bozcario handirequin, laster equin ceçaten* (Mat. XXVIII, 8)

D: *Eta berehala ilkhi ziren hobitik ikhara eta bozkario handirekin, laster eginez dizipuluei berriaren heltzera.*

Hurbilduric, XXI kapituluan -i buruz ematen zaigu bi aldiz ia jarraian (28, 30).

Nola-nahi den, norbaitek aztertu nahi balitza, hona hemen gainerako partizipioak, aski ezagunak dagoeneko, eta pasarteen zenbakiak: *appainduric* (XX, 23), *eridenic* (XIII, 44), *ethorriric* (II, 8; VIII, 2; XIV, 33), *harturic* (XVIII, 27), *hatzamanic* (XIV, 3), *iarriric* (XI, 16; XXII, 11), *ioanic* (XVIII, 12; XXVI, 36), eta *sarthuric* (IX, 25).

Hona, bada, erkapenaren ekoizpena:


LEIZARRAGAREN 259 PARTIZIPIO PARTITIBODUNEI DUVOISINENEAN DAGOZKIEN ORDAINAK

Nominalizazioak

<i>partizipioak + -ik</i>	127	49 %
<i>partizipioa + -z</i>	10	3,8 %
<i>partizipioa + ondoan</i>	5	1,9 %
<i>partizipioa + -a(k)</i>	15	5,7 %
<i>aditz izena + -an</i>	6	2,3 %
<i>aditz izena + -arekin</i>	4	1,5 %
<i>aditz izena + -nez</i>	3	1,1 %

Forma konjugatuak

<i>koordinazio kopulatiboa (eta)</i>	41	15,8 %
<i>forma konjugatua + -enean</i>	15	5,7 %
<i>forma konjugatua + -elarik</i>	3	1,1 %
<i>forma konjugatua + bait-</i>	8	3 %
<i>forma konjugatua + arren</i>	1	0,4 %
<i>gainerakoak</i>	21	8,1 %



Gure txosten honetan Leizarragaren partizipio partitibodunak izan ditugu lan oinarri; ez dugu beste formarik bildu. Badira, hala ere, Duvoisinen partizipio batzuk, 17 aldiz gutxienez, partitiboz emanak ere, eta Leizarragarenean bestela datozenak. Hemen ere, kopuruaren urritasuna gorabehera, ondorio bedintsuetara iritsi gara: koordinazioa dugu ordainik ugariena eta ondoren erlatiboa inesiboan.

Duvoisin	Leizarraga	
	<i>eta</i>	
jaikirik	iratzarri eta	II, 14
jaikirik	iaiqui cedin eta	VIII, 15
ethorrik	ethor citecen... eta	XIV, 12
etchetargoan... emanik	aloca ciećen eta	XXI, 33
hidoi jasanarazirik	iniuria (citzaten) eta	XXII, 6
	<i>-enean</i>	
aditurik	ençun vkan çuenean	IV, 12
ethorrik	ethorri cenean	XIII, 54
ikhusirik	çacussanean	XXVII, 3
bilusirik	billuci çutenean	XXVII, 28
	<i>bait-</i>	
miretsirik	spantatuac baitzeuden	XIII, 54
	<i>ba-ere</i>	
behaztopaturik ere	scandaliza baditez-ere	XXVI, 33
	<i>-ela</i>	
gelditurik	çutic daudela	VI, 5
	<i>bestelakoak:</i>	
jauntzurik	ardi abiturequin	VII, 15
gaitzurik jarri	gaitzi cequien	XXI, 15
atzarririk (egon)	veilla(tu)	XXIV, 42; XXV, 13; XXVI, 40

Aurreko ondorioekin alderatuz gero oraingo ordainak berdin berdinak izan direla ohartuko gara (*eta*, *-enean*, *-ela(rik)*, *bait-*), kontzesiboa *arren* ordez *ba-ere* delarik. Hemen falta direnak nominalizazioak dira, partizipioa partitiboz izan ezik oso gutxi erabiltzen baititu Leizarragak. Beste nominali-

zazioen murriztasun hau ageriago gertatuko zaigu azkenean datozen zerrenda alderagarrietan Orixerekin, esate baterako, alderatzen dugunean. Hamazazpi kapitulutan Duvoisinek instrumentalez dakartzan partizipioak (*ihardetsiz, ibiliz, hedatuz, mintzatuz, hartuz*, e. a.) bildu ditut arinki eta kidetasunak Leizarragarenean bilaturik ez dut behin ere instrumentalez emandakorik aurkitu; partitiboz emanak, dagoeneko ikusiak, ez dira laurdenak ere, eta erdiak baino gehiago *-ela* atzizkiarekin datozkigu hurrengo adibidean bezala:

Duv: *Eta Jesusek inguratzen zituen hiri eta herri guziak, hango sinagogetan irakhatsiZ, zeruko erresumaren ebanjelioa erantzuneZ, gaitz eta eritasun guziak sendatuZ.* (Mat. IX, 35)

Leiz: *Eta inguratzen cituen Iesusec hiri eta burgu guciac, iracasten ari cELA hayén synagogetan, eta predicatzen çuELA resumaco Euangelioa eta sendatzen çuELA eritassun mota gucia eta langore mota gucia populan.*

Orobat diogun *-t(z)ean* akabantzari buruz (*ilkhitzean, ihardestean, jaustean, goatean, sartzean*, e. a.), noiz-behinka inesiboan datorren erlatiboaz kanpo (*sarthuren çarete-nean...*), *-ela-z* itzulikatzen dizkigu Leizarragak gehienetan. Axaleko susmo honek oinarri sendoagoak behar lituzke, jakina; ez dut uste, hala ere, ondorioak urrutiegi ibiliko liratekeenik, eta honekin ez dugu esan nahi Leizarragak ez duela partizipioa instrumentalez edo izena inesiboan erabiltzen inoiz edo behin agertzen baitira holakoak ere zegokion pasartean jadanik agertu dugunez.

Lehen bederatzi kapituluetan *suje-to* - *partizipioa partitiboz* *-aditz nagusia* sintagmen antolaketa aztertu dut, horretarako *suje-toa* agerian dutenak bakarrik hautetsiz. Hogeitamar adibide hartuta lau egitura mota hatzaman ditut Leizarragan:

1. NOR(K)	-IK	NAG
2. -IK	NOR(K)	NAG
3. NAG	NOR(K)	-IK
4. -IK	NAG	NOR(K)

LEHEN EGITURA

		SUJETO	PARTIZIPIO + -IK	ADITZ NAGUSIA	guztira:	18	
Bada Orduan	NOR	regue Herodes Herodes Iesus	transitiboa	intransitiboa	hetaric (...) mendi (...)	II,3 II, 7 V, 1	3
			ençunic deithuric ikussiric	hori gendetzecac,			
(...)en huná,	NOR	içarra hec anhitz publicano eta vicitze gaichtotacoric	intransitiboa	intransitiboa	vrdaldera (...)	II, 9 VIII, 32 IX, 10	3
			ethorriric ilkiric ethorriric,				
	NOR(?)	hec	transitiboa	intransitiboa	partii citecen	II, 9	1
			, bada, reguea	ençunic			
Eta huná, (...)en Orduan	NORK	nic sorhayo batec Nic Iesusec iaun batec emazte batec Iesusec	intransitiboa	transitiboa	hura hura hura haren (...) hura haren (...)	II, 8 VIII, 2 VIII, 7 VIII, 14 IX, 18 IX, 20 IX, 22 IX, 23-24	8
			ethorriric ethorriric ethorriric ethorriric ethorriric itzuliric eta hura ikussiric ethorriric (...) eta ikussiric (...)	ere Pierrisen etchera guibeletic			
Eta	Iesusec						
Orduan Eta	NORK	Iesusec gendetzéc	transitiboa	transitiboa	(...)	IX, 12 IX, 8	
			ençunic ikussiric	hori hori			
Orduan	NORK	Herodesec	transitiboa	intransitiboa	haguitz	II, 16	1
			ikussiric	nola (...)			

BIGARREN EGITURA

PARTIZIPIO + -IK		SUJETOA		ADITZ NAGUSIA		guztira:	10	
	intransitiboa		NORK		transitiboa			
Lotaric	iratzarturic	bada harengana	Iosephc		eguin ceçan	(...) beçala	I, 24	4
Eta	ethorriric		tentaçaleac		erran ceçan,	baldin (...)	IV, 3	
Eta	hurbilduric		Scriba batec		erran cieçon,	(...)	VIII, 19	
Eta	hurbilduric		bere discipuluéc		iratzar ceçaten		VIII, 25	
	transitiboa							
Eta haur	ençunic		Iesusec		mirets ceçan		VIII, 10	6
Eta	ikussiric		Iesusec	gendetze handi (...)	mana citzan	(...)	VIII, 18	
Eta	ikussiric		Iesusec	hayén fedea,	erran cieçon	(...)	IX, 2	
Eta hori	ikussiric		Phariseuéc		erran cieçon	(...)	IX, 11	
Eta	ikussiric		Iesusec	(...)	har ceçan	heçaz	IX, 36	
Eta	ikussiric		Iesusec	hayén pensamenduac,	erran ceçan	(...)	IX, 4	

HIRUGARREN EGITURA

ADITZ NAGUSIA		SUJETOA (NOR)		PARTIZIPIO + -IK			
aitzinerá	ethorri içan çaiçcan	bi demoniatu	thumbetaric	ilkiric		VIII, 28	1

LAUGARREN EGITURA

PARTIZIPIOA + -IK		ADITZ NAGUSIA		SUJETOA (NORK)			
eta escua	hedaturic	hunqui ceçan	hura	Iesusec,	cioela	VIII, 3	1

Leizarragaren adibide hauetan lehen egitura agertu zai-
gu maizenik (18 aldiz), eta ondoren bigarrena (10 aldiz) suje-
toa beti ergatiboan delarik, beste bi egituretan adibide bana
dugu bakarrik. Lehen egitura horretan (NOR(K) – -IK –
NAG), bestalde, gehien datorrena sujeto ergatiboa baina par-
tizipio intransitibo duena da: *NORK – intrans -ik – NAG-
trans*.

Duvoisin ere, bederatzi kapitulu hauetan bakandu ditu-
gun perpausetan bederen, ildo beretik doala esango nuke adi-
bide hauetan egiztatzen denez:

1. EGITURA: NOR(K) – -IK – NAG

*ikusi izan zuten izarra, aitzinean zihoakiotela, heldurik bara
zadien arteo haurra zagoen tokiaren gainean.* (Mat. II, 9)

Eta hekiek ilkhirik goan ziren urdeen barnera, (Mat. VIII, 32)

*gertatu zen asko zergari eta lelo tzarreko gizon ethorrik
jarri zirela Jesusekin eta haren dizipuluekin.* (Mat. IX, 10)

Eta tentatzaileak, hurbildurik erran zioen: (Mat. IV, 3)

*Hekiek ordean, ilkhirik, bazter hekietan orotan barrayatu
zuten haren omena.* (Mat. IX, 31)

Jesusek ikhusirik hekien sinhestea eriarri erran zioen: (Mat.
IX, 2)

Eta Farisauek ikhusirik, dizipuluei erraten zioten: (Mat. IX,
11)

Bainan Jesusek aditurik, erran zuen: (Mat. IX, 12)

2. EGITURA: -IK – NOR(K) – NAG

*Orduan Magoak ichilik deithurik, Herodes ardurarekin argitu
zen* (Mat. II, 7)

Hori ikhusirik, osteak beldurtasunean sarthu ziren (Mat. IX,
8)

*Jaikirik, Josepek gabaz hartu zituen haurra eta bere ama, eta
Egiptorat aldaratu zen* (Mat. II, 14)

Eta hurbildurik, iskribau batek erran zaroen (Mat. VIII, 19)

Eta itzulirik, Jesusek ikusi eta erran zioen (Mat. IX, 22)

Hirugarren eta laugarren egiturarik ez dut Duvoisinengan aurkitu, badu, ordea, bederatzi kapitulu hauetan behintzat Leizarragak ez dakarren bosgarren egitura bat: *NAG - IK - NOR*.

*aitziner*a goan zitzaizkon, *hobietar*ik ilkhirik, *bi debrudun* (Mat. VIII, 28)

Bi zatitan (Mat. II, 1 - 12, IX, 1 - 25) Leizarraga, Duvoisin eta Orixe (*Meza-bezperak* eta *Itun Berria*) erkatu ditut eta partizipioa partitiboz emanik alde handiz agertzen zaigu Leizarraga besteen aurretik 30 aldiz darabilelarik, Duvoisin eta *Meza-Bezperak* 14 aldiz, *Itun Berria*-n, ordea, 4 bider dugu bakarrik. Horren ondorioz gainerako formak urriagoak dira Leizarragarengan ondoko zenbakietan ikus daitekeenez:

partizipio + <i>-ik</i>	30	14	14	4
forma pertsonala + <i>(e)la(rik)</i>	5	5	4	2
forma pertsonala + <i>-(e)nean</i>	3	6	1	2
koordinazioa: <i>(e)ta</i>		7	4	11
enklisian: <i>-ta (-da)</i>			3	3
partizipioa + <i>-z</i>		1	2	5
aditz izena inesiboan: <i>-t(z)ean</i>		1		6
<i>bait</i>		2		
<i>-takoan</i>			1	1
bestelakoak	5	7	4	9
	43	43	43	43

Mateo II, 1-12

VULGATA	LEIZARRAGA	DUVOISIN	ORIXE (<i>Meza-bezperak</i>)	ORIXE (<i>Itun Beria</i>)	
Cum natus esset	Iayo cenean	Nola ... sorthua baitzen	jaio zanean	Jaio zanean	1
dicentes	cioitela	ziotelarik	galdezka	galdezka	2
audiens	entzunIC	aditzearekin	aditurIK	entzutean	3
congregans	bildurIC	bilazarazirIK	bilduarazirIK	bilduazi ta,	4
scriptum est	scribatua duc	da iskribatua	dago idatzia	dago idatzirIK	5
vocatis (Magis)	deithurIC	deithurIK	deiturIK	artuz	7
mittens	igorrirIC	igortzen zituelarik	bialtzen zitula	bialduz	8
cum inveneritis	eriden duqueçueanean,	aurkhitu dukezuenean	arkitutakoan	arkitutakoan	
veniens	ethorrirIC	nathorren	noakion	joanda	
cum audissent	ençunIC	entzun ondoan	entzunIK	esanera	9
veniens	ethorrirIC	heldurIK	—	—	
videntes	ikussirIC	ikhusi zutenean	ikusiz	ikustean	10
intranses	sarthurIC	sarthurIK	sarturIK	sarturIK	11
procidentes	ahozpez	eroriz	auspez	belauniko	
apertis	desplegaturIC	idekirIK	idekirIK	iriki, eta	
accepto (responso)	aduertitu içanIC	izanIK mezua	mandatua arturIK	erantzuna arturIK	12

Mateo IX, 1-25

VULGATA	LEIZARRAGA	DUVOISIN	ORIXE (<i>Meza-bezperak</i>)	ORIXE (<i>Itun Beria</i>)	
ascendens	sarthurIC	iganIK	sarturIK	igo zan ..., ta	1
iacentem	cetzanIC	etzana	etzana	etzana	2
videns	ikussirIC	ikhusirIK	ikusirIK	ikusiz	
cum vidisset	ikussirIC	ezagutu baitzituen	ikusirIK	ezagutuz	4
et surrexit, et	iaiquirIC	jaiki zen eta	jeikita	jaiki ta	7
videntes	ikussirIC	ikhusirIK	ikusirIK	ikusirIK	8
cum transiret	iragaiten ceta	goatean	—	aterata	9
sedentem	iarria	jarria	—	eseria	
Matthaeum nomine	deitzen cenIC	deitzen zena	zeritzan	zeritzan	
surgens	iaiquirIC	jaiki zen, eta	zutituta	—	
discumbente eo	iarrirIC cegoela	jarria zagoelarIK	ari zala	zeudela	10
venientes	ethorrirIC	ethorrirIK	—	etorri ziran, eta	
videntes	ikussirIC	ikhusirIK	ikusirIK	ikustean	11
audiens	ençunIC	aditurIK	entzunda	entzutean	12
dicentes	ciotela	zerratelarIK	—	—	14
illo loquente	erraiten cerauztela	erraten ziozkatenean	ari zitziola	ari zan, eta	18
accessit, et	ethorrirIC	hurbildu zen ... eta	urbildu zitzaion, eta	ondoratu ta...zitzaion	
dicens	ciola	zioelarIK	onela	ziola	
veni	ethorrirIC	zato ... eta	—	atoz, ... eta	
surgens	iaiquirIC	chutiturIK	zutitu ta	zutitu zan ... eta	19
accessit ..., et	ethorrirIC	hurbildu ... eta	urbilduz	urbilduta	20
conversus	itzulirIC	itzulirIK	itzulirIK	itzuli ta	22
videns	ikussirIC	ikhusi eta	ikusi ta	ikustean	
cum venisset	ethorrirIC	heldu zenean	etxera ezker	etxera zanean	23
et vidisset	ikussirIC	ikhusi zituenean	ikusirIK	aditzean	
cum eiecta esset	idoqui içan cenean	ilkhiazi zutenean	aienatuak zirala	irten eragiñaz	25
intravit: et	sarthurIC	sarthu zen, ... eta	sartu zan eta	sartu zan, ... eta	

ASPEKTUA EUSKAL ADITZEAN

Arrasate, 1979-XII-21

Piarres Lafitte

Sarrera

ASPEKTUA zer den zehazki erakusteko, badirudi egoki dela aditzak dauzkan bertze itxura zenbaitekin parekatzea.

Nahiz BOZ hitzari gramatikalari zenbaitek asko gauza desberdin erran-arazi dioten, egungo egunean hizkuntzalari gehienek mintzaire askori behatu-ta, hunaxe azalda lezakete:

Bozak dira aditz batek, bere baitan derabilzkan *izen-ordeen* arabera hartzen dituen formak.

Aldiak berriz, *noiztasuna* markatzen duten formak.

Modu hitzak estaltzen du aditzak dakarken egintza edo egoerari mintzatzaileak bere gogoan emaiten dion *izaite-mailaren* araberako forma.

Erran gabe doa, moduen zerrenda ez dela arras berdina hizkuntza batetik bertzera, ez baitituzte jende guziek berexkunde berak egiten, ez eta ideia berak ere ber-gisan adiarazten. Esate baterako, gure aditz-modu sintetiko batzuek balio aski desberdinak zekarzketen: **BADABILKE** hitz bakar-rak erran nahi zukeen aldika: ibil daiteke, *gogoak emaiten baitio*; **ibiltzen bide da**; edo berdin **ibiliko da**. Alemanak aldiz ahalezko horiek artoski berexten ditu: *Er kann gehen*, ibil daiteke, indarra duelakotz; *Er darf gehen*, ibil daiteke, baimena duelakotz; *Er mag gehen*, ibil daiteke, barneak emaiten diolakotz, eta abar.

Zerrenda batean aurkituko ditutzue hizkuntzetan gaindi aditzeri lotuak zaizkien Modu andana bat.

Orai goazen ikus zer den Aspektua: **Moduek** aditz egin-tza edo egoera erakusten zigutelarik, *ideia-husko, ahalezko, haizuzko, gurazko, nahizko, beharrezko, ezin bestezko, agin-duzko, eginbidezko, galdatuzko* ala *izatezko*, -beren aldetik, **Aspektuek** salatzen dizkigute mailez-mail, aditz-ibilbidean gaindiko ponduak: *apailu, entsegu, hastapen, jarraipen, aurrerapen, gelditze, berriztapen, emekitze, ondorio, bururatzte*, eta abar. (Ikus huntako ere eskaintzen zaitzuen zerrenda luzea.)

Haatik erran behar da **Aldi, Modu** eta **Aspektuak** ez dire-la liduriken bezain elgarretarik bereziak: elgar kutsatzen dute eta askotan elgar ordaintzen. Adibidez, ziberotar batek, **Date** diolarik *izango da* delakoaren orde, Modu bat erabiltzen du Aldiaren lekuan. Alderantziz, gipuztar batek diolarik: Xabier ez da etorri; **gaxo izango da**, azken hitz horietan *Geroko aldia* ba derabila *Ahalezko moduaren* orde: Geroko aldia baliatzen dugularik ohiduraren adiarazteko, Aldia erabiltzen dugu Aspektuaren orde.

Bide beretik, galde egiten badigute: Zure amak nola egi-ten du aza-zukua?, ihardetsiko dugu: Hartuko du aza-buru eder bat, hosto zuriak bereziko, urean garbituko, eltzean ezarriko. *Geroko marka horiek* ohitura-seinaletzat emaiten ditugu. Azter zazue zuen hizkuntza, eta ohartuko zarete holako kasuak noiz nahi aurki daitezkeela. Ez da euskararen berezitasun bat. Frantsesak eta bertze erdarek ere ba dituzte gisa hortako kurutzamenduak.

Aspektuen adiarazpenak

Munduan gaindiko mintzaira ainitzetan, aspektu-markak aditz-formeri lotu-lotuak dira, gureetan **izen-ordeenak, aldienak** eta **moduenak** bezala: eskuhartzen dute hertsiki aditz-jokoari. Marka horiek izan daitezke Aurrizki, Erdizki edo Atzizkiak; bertze batzutan letra baten galtzea edo aldatzea edo berdin silaba baten doblatzea.

Bainan, gauza ohargarria, aditz batek ez ditu nehun ere aspektu guziak biltzen eta askotan forma batek ba dituzke bizpahiru balio: adibidez greko klasiko zerbait nehoiz irakurri

dutenek oroit bide dira zer lanak zituzten zenbait aldiz **Perfet** baten edo **Aoristo** baten itzulpen zuzena ezin aurkituz.

Euskaldunek ez dugu segur, gure hizkuntzan, **eslaboek** berenetan bezenbat aspektu atzemanen sistematikoki apailaturik. Bainan ez gaude eskuak hutsik bilatu-ta nola euskaraz eskaintzen zaizkun aspektu andana bat, ohargabez edo bixta laburrez xehetasun asko itzuri bazaiku ere.

I. Aditzen barneko aspektua

Hasteko dugun aitor aditz zenbaiteak bederen, neholako markarik gabe beren baitarik aspektu zerbait salatzen dutela.

Zerk hobeki adiaraz dezake **iraupena**, *Iraun* aditzak baino? Zerk **hastapena**, *Hasi*-k baino? Zerk **konplidura**, *Konplik*-tuk baino? Eta ondotik berdin aipa ginezazke: *jarraiki*, *berriztatu*, *entseatu*, *artekatu*, *ohitu*, *ondorioztatu*, *bururatu*, *osatu*, *apailatu*, *lehiatu*, *kausitu*, *huts-egin*, *hurritu*, *aldatu* eta abar.

Bainan aditz gehienek ez dute berenaz salatzen holako aspekturik. Beharrik ingurumeneko hitzek lagunt detzazkete argitzen eta zehazten.

Eman dezagun hunako perpausa: **Peruk eder emaiten du**. Horrek erran nahi du Peruk fatxada puska bat ba dukeela. Aditza hemen *ez da mugatua* osagailurik ez duenaz geroz eta *ez du norakorik*.

Huna bigarren erran-aldi bat: **Arrosa ondoak lore ederrak emaiten ditu**. Oraiko huntan aditza *mugatua da*, bainan *norakorik ez du*. Bertzalde, bertze xehetasunik gabe ezin jakin aditz horren oraina *egiazkoa* den ala *itxurazkoa*, *aldiz kanpokoa*, *ohituraren markatzekoa*.

Hirugarren perpausa hauxe izanen da: **Atzo Jakesek eman daut liburu eder bat**. Hemen aditzak *norakoa ba du* eta *mugatua da*, bai osagailuz, bai aldiz.

Horiek hola, dugun ikus nola euskaraz markatuak diren aspektu andana bat.

II. Lotizkiak

Hiru lotizki (affixes) mota ba dira: Aurrizkiak, Erdizkiak, eta Atzizkiak, Aurrizkiak, izenak erakusten duenez, aditzaren haste-hasteen emanak dira; erdizkiak barnean, atzizkiak azken buruan.

A) Aurrizkiak

1) Aditz xoilek *Ba-* aurrizkia har dezakete. Baiezko marka horrek zenbaitzuri bederen emaiten die *iraupen-ikur* sendoago bat. Erdarazko itzulpenak argitan emanen du zer erran nahi dutan: **Dator**, *il vient*, "viene"; **Ba dator**, *il s'en vient*, "se viene"; **Doa**, *il va*, "va"; **Ba doa**, *il s'en va*, "se va—"; eta denbora berean egintzaren **hastapena** sendi ditake.

2) Nahiz egintzaren **errepikatzea** adiaraz ditaken aditzetik kanpo *berriz*, *berritan*, *harzara* hitzekin, **Ber-**, **Bir-** aurrizkiak lotzen ahal zaizkio hortako zenbait aditzi, eta hortik sortu zaizkigu *Berregin*, *Birregin*, *Berpiztu*, *Birpiztu*, *Berrerosi*, *Birlandatu*, *Birribindu* ta abar.

3) Iparraldean, usaia bereko, **Arra-** eta **Erre-** aurrizkiak hartu dituzte euskaldunek mintzaira erromantzetako **Redoblatzaleari**, eta horrela ba dauzkagu bizi-bizirik: *Arrabiztū*, *Arrakotxeatū*, *Arraberritu*, *Arrerosi*, *Errebidatu*, *Erregosi*, *Erremarki*. Ez uste izan haatik **Erre-**kin hasten diren hitz guztiak mota hortakoak direla.

4) **Era-** eta **Ira-** aurrizkiek **eragiteko** aditz batzu (factitifs) sor-arazi dituzte: Horrela **Ikasi-**tik jalgi da *Erakatsi*, **Ikusi-**tik *Erakutsi*, **Edan-**etik *Eradan*, **Ietsi-**tik *Iretsi*, **Jautsi-**tik *Erausi*, **Jauzi-**tik *Erautzi*, **Egon-**etik *Iraun*, **Joan-**etik *Eroan*, eta abar. Bainan hemen ere kontu: **Ereman-**ek ez du erran nahi **Eman-**arazi, ez eta **Erakarri-**k *Ekar-*arazi. Azken hitz huntan atzizkiak du markatzen eragikuntza.

5) Egintza baten ibil-bidean gerta daitezke **hurritasun** eta **denbora-galtzeak**; horiek ere markatzen ditu aspektuak. Hain xuxen altxatu ditugu Senpereko paper batzuetan bi erranbide, **Luze-** aurrizkiak hasten direnak: *Luzejoan* eta *Luze-izkiriatu*; batek erran nahi zuen *Lehiarik gabe ibiltzea*, eta bertzeak *Nagi izaitea izkiriatzeko*, **berantiar** izaitea.

B) *Erdizkiak*

1) **-ka-** eta **-ki-** lotizkiek ba dute ahaidetasun zerbait. Biek aditzondo (adverbe) zombait moldatzen dituzte (*Gizonka* eta *Gizonki*, *Ikuska* eta *Izanki*); biek batasuna markatzen dute deklinabidean: Uztaritzen **-kin** diogularik, **-kaz** diote Bilbon. Bainan ba dugu hoberik: *Ikarduki* eta *Diharduka* aditz berekoak dira, bai eta bertzalde *Eduki* eta *Ba dauka*. Ez da beraz mirakuilu hemen ere elgarrekin aurkitzen baditugu **inarroskako** eta **maiztasun** zerbaiten adiarazteko.

Konpara ditzagun bi perpausa hauk: *Mariñelek untzia porturat derabilate* eta *Haizeak bela derabilka*; edo bi hauk: *Adixkidea etxerat ba deramate* eta *Gaixtagina presondegirat ba deramakate pusaka*.

Jakingarri zaiku **Jan** eta **Jakiku** bi hitzen parean ezartzea. Azken hunen **Jaki-** erroa ez ote da **Jaki-n** aditzean kausitzen duguna? Ohargarri da *Sapere*-k latinez hain xuxen *Jakitu* erran nahi zuela eta geroxago *Jakin* erraiteko erabili zutela. *Jakitu* zer da funtsean, ahamenka, emekiño jateaz bertzerik?

2) Aditz-erabidetik (conjugaison personnelle) kanpo, **ka**, **kida**, **ta** lotizkiek adiaraz dezakete **maiztasun** zerbait. Adibidez, **Ikus-**etik jalgi dugu *ikuskatu*, latinak **Visum-**etik *Visitare* atera zuen bezala. Gisa berean, **Ausiki-**tik *Ausikatu* sortu dugu eta Gaidor-ek hunen orde *Hortzikidatu* derabila 1828 ko Testamentu Berrian.

C) *Atzizkiak*

1) Lapurdin *Ibilki*, *Egoki*, *Joaki*, *Eramaki*, *Izaki* eta holakoak ez dira Gipuzkoan bezala, *Ibili*, *Egotu*, *Joan*, *Ereman*, edo *Izatu*-ren ordainak: Ez dute baitezpada iragana markatzen, bainan egintzaren edo goeraren **iraupena**.

2) René Lafon zenak, "Système du verbe basque au XVIe siècle" bere liburuan, **mugatuaren** eta **mugagabearen** auzia sakonki argitu du euskara zaharrari buruz. Bertzeak bertze, erakusten digu *Ekarri* aditzari **-ke** atzizkiak alde askotarik **mugatasuna** kentzen diola; adibidez Leizarragak dio: *Orduan huna batzu dakarkeitela ohean gizon bat*; perpausak

ez baitu erraiten norat gizona ekartzen duten, aditzari **-ke** ezarri zaio. *Atseginak atsegina dakarke* perpausan, **-ke** horrek erakusten du egia hori ez dela aldi batekoa, betikoa baizik. Dugun erran XVI mendetik hunat galdu dela **-ke** atzizkiaren balio berezi hori, idazle klasikoen lanetan.

3) **-xe** atzizkiak adiarazten du egintzaren **bururapena hurbildua** dela; esate baterako: *Lusek bere olerki berria idatzixea du.*

4) Bainan euskarak osokienik adiarazten duen aspektua **perfeta** da. Hortakotz aditzizenlagunari (participioari) **-a** edo **-ik** aski dio eratzikitzea. (**-ik** hori xuberotarrek dute erabiltzen, manexen **-a** delakoaren orde.)

Orok dakiguna, euskarazko predikatu batzuek bi gauza adiaraz dezazkete, batto artikuluaekin, bertzea artikulua mugatzalerik gabe: artikulurik gabe egoera iragankorra adiarazten dute; artikuluaekin aldiz egoera iraunkor bat. Adibidez ikus **Eri da** eta *Eria da*, **Kexu da** eta *Kexua da*, **Ari da** eta *Aria da*.

Gisa berean **Erori da** eta *Eroria da*, elgarretarik berex-ten ditugu: **Erori da** formak lehengo eroriko bat aipatzen du. *Eroria da* formak aldiz lehen gertatu erorikoaren oraiko ondorioa, hots erori zen gizona lurrean dagola. Grekoz **Erori da** Epese lizateke, eta *Eroria da* Peptooke. Askotan forma horiek, ondorioarekin batean adiarazten dute ongi heltzea, Kausitzea.

Bainan bereziki erabiltzen dugu perfet hori erakusteko zerbañt gertatu dela, aintzinetik beldurrez ala itxaropenez igurikatu bezala: Adibidez erranen dut **Aitak emana dio**, adiarazi nahi badut uste izaiteko zela. Ez balitz izan nolazpeiteko aidururik, erranen nuen, xoil-xoilik *Aitak eman dio*.

Hortik ageri da nola aldiak, moduak eta aspektuak elgarrekin nahas daitezken. Orain berean ohartu bide gare **konpliatua** eta **perfeta** ez ditugula elgarretarik berex-ten ere euskaraz; ez gare bakarrak munduan.

5) Laugarren lerro-aldeari zenbait ohar:

+ **-a** eta **-ik**-ekilako partizipio perfetak erabil daitezke **izan** eta **ukan** bi aditzen forma guziekin, bainan **-ik** daukaten

formek ez dute aldatzerik; **-a singularra** dutenek behar dute **-ak** bilakatu, predikatua **plurala** delarik: **Erabilirik da, erabilirik dira; Erabilia da, erabiliak dira. Erabilirik düt, erabilirik dütüt; Erabilia dut, erabiliak ditut.**

++ Ziberoa forma xumegarri bitxi batzu usatzen dituzte, hala-nola *Gure haurra handixetürrik düzü; Gaixtaginek gizona lehertüxkatürrik ützi die; Gure goxaita haurñitürrik düzü.*

+++ **Perfetaren** azkartzeko, indartzeko, zenbaitek erranmolde berezi batzu erabiltzen dituzte: *Zahar okitua da; Jakintsu okitua da; Aberats okitua da; Zeken zikitua da; Hil kak'ina da,* eta abar.

III. Bikoitz batzuen berextea

Forma batzuek, lehen ikusian elgarren betekoak iduri luketelarik, maiz aspektuaz desberdintasun handia dute.

1) Aditz zenbaitek bi erabide ba dituzte: bat bakunezkoa, bertzea itzul-inguruzkoa. Ondorioz bi aldi-zerrenda ba dituzkete izen berekilakoak, baina balio bederakoak. Adibidez, buruz-buru ezar daitezke *Ukaiten du eta Du; Jakiten du eta Daki; Etzaten da eta Datza;* pare bakotzeko lehen forma **osagabeari** ba datxiko eta aditza ari-arian aurkezten du; bigarren forma **osatuari** ba datxiko eta egintza bururatutzat emaiten du. Itzulpenek ederki berexzten dituzte: *Aprende/se; Recibe/ha; Se acuesta/yace.* Bi hitzetako formek adiaraz dezakete ala **hastapena** ala **ohidura**.

2) Gisa berean euskarak berexzten ditu **Eri da** eta *Eri izaten da; Ari da* eta *Aritzen da; Mintzo da* eta *Mintzatzen da; Oroit da* eta *Oroitzen da; Kexu da* eta *Kexatzen da; Pleini da* eta *Pleinitzen da.*

3) **Heldu** aditzak bi forma ba ditu oraian: *Heldu da* eta *Heltzen da,* Lehenak ez du **Norakorik** adiarazten. Bertzeak bai.

IV. Aspektu laguntzaileak

Aldiek **Izan** eta **Ukan** laguntzaile dituzte, adibidez *Ibili naiz* edo *Ikusi dut* erraitean. Moduek ere berenak, adibidez

Ahal ukan, Behar ukan, diogularik *Jiten ahalko da, Ikusi behar dugu*. Hala -hala **aspektu-laguntzaileak** ba ditu euskarak.

1) René Lafon-ek bere dotoragoko tesisean frogatu duen bezala, euskara xaharrean, **Ukan** eta **Izan** erabiltzen ziren **norakorik** aipatzen **ez** zuten perpausetan; aldiz **Iezan** eta **Edin**, **norakoa** aipu zenean. Adibidez, *Sartzen bada* (sartzen dela egia balinbada) eta bertzalde *Sar badadi* (sartzerat heletzen bada), arras berex zauden, hala nola *Ikusten badu* eta *Ikus badeza*.

2) Lafonek berak seinalatzen du **Egon**, **Ibili**, **Eduki**, eta **Erabili**, aspektu laguntzaile direla oraino ere **noragabeko** perpausetan: *Ez nago ahantzirik; ez daukat ahantzirik; erotua nabila; erotua nerabila*. Aldiz **Jarri**, **Joan**, **Ezarri**, **Eroan** edo **Ereman**, **norakoaren** laguntzaile dauzka: *Lotsaturik jarri da; Lotsaturik ezarri du; Galdu doatza; Munduak enganatu narama*.

3) Erranbide askok adiarazten dute **jarraipena**, ñabar-dura batzu datxizkola: *Iruten ari nuzu; Sendatzeari ari da; Berotzen nago; Lanean erauntsi dugu; Kantatuz doa*.

Bertze erranbide batzuek **ohidura** markatzen dute: **Untzi erabilia hautsi doa; Iruten ohi zuen; etortzen ohi naiz**.

4) Iragankor (transitibo) ez izan arren, berrogoi bat aditzek, **Izan**-en orde, **Ukan** laguntzailea hartzen dute. Halakoak dira **Iraun**, **Dirdiratu**, **Iraki Bukatu**, **Izarniatu**, **Ihardoki**. Dirudienez, *iraupen* zerbait dakarte. Bizkitartean aitor dugu **Ukan** aditzari ez diola euskarak iraupenaren adiarazteko kargu hori guzitaratu: *Dantzatu da* edo *xerkatu naiz*, hor dira lekuko.

V. Izenorde gabeko aditz-formetan

Forma horiek biziki Modu gehiago adiarazten dute, Aspektu baino. Bizkitartean:

1) Aditz-izenak inesiboan **iraupen** zerbait marka deza-ke; adibidez *Bazkaltzean hiruzpalau kantore berri aditu gini-tuen*.

2) Alatiboan eta soziatiboan marka dezake ala **aintzinamendua** ala **hastapena**: *Zahartzerat*, edo *Zahartzearekin*, *gizona zuhurtzen da*.

3) Partizipioak ere mediatiboan, **Joan** aditz laguntzailerarekin, **aintzinamendua** markatzen du: *Gauzak makurtuz doatzi*.

VI. Aldien desaraua

Euskal joskeraren legea hauxe da: perpausa menekoetako aditz-aldiak perpausa nausikoaren arabera behar duela. Erranen dugu: *Nahi dut jin dadin*, bainan *Nahi nuen jin zedin*. Lege horri ez jarraikiz, Aspektu batzu sala daitezke.

1) Perpausa nausia lehengo aldian delarik, menekoan den aditza aurki daiteke oraiko aldian, azpimarratzeko perpausa hortan aipatua den eginkizuna **denboraz kanpoko** dela, **betierekoa** edo **ohikoa**: *Sokratek zion, gizona jitez hilkorra dela*. (Eta ez, **zela**).

2) Hala-hala, *Nahi ukan baginu, atxemanen ginuen*, erraiteko orde, erran dezaket: *...atxemaiten ginuen*, erakusteko gutik egin duela ez baitugu atxeman: **bururapenari hurbiltzea** deitzen dugun aspektua.

VII. Baia, Eza, Ezina, eta abar

Mintzaireraren gehienetan, **Eza** markatua ez denean, perpausa **baiezkotzat** emana da: *Il vient*, "viene". Euskaraz ere gehienetan halaber egiten dugu: *Peru dator*. Bizkitartean, kasu batzuetan **Ba**- eratzikitzen diogu aditzari; adibidez *Ba dio Axularrek*; *Ba du zaldi eder bat*; *Ba hiza?*; *Ba daki*; *Ba omen daki*, eta abar.

Ez erabiltzen da zerbaiten gezurtatzeko, eta orok ba dakigu nola hitz tipi horrek itzulipurdikatzen duen perpausa; adibidez **Piarres etorri da**; *Piarres ez da etorri*.

Ezin hitzarekin marka ditake ahal eskasa: **Ezin egin dut** = *Ez dut egin ahal izan*.

Ba, Ez, Ezin, zenbait gramatikalarik ez dituzte aspektuetan ezartzen bainan moduetan. Iduri zait Aldia, Modua, eta Aspektua berdin hunki dezazketela.

Azken hitza

Huntan geldituko naiz; bilduma batean erakusten ahalko nuen xeheki nola bide nabarka bezala aipatu ditudan aspektuak aurki daitezken Aldi eta Modu gehienetan gaindi, bainan ez dut uste irabazi handirik aterako zinuten berriztapen aspergarri horietarik.

Erran behar dizuet bertzalde Aspektuen auzia ez dela bururatua aditzari buruzkoekin. Aditzetik kanpo ere ez baita Aspektu eskasik, Emile Benveniste-k frogatu duen bezala.

Ondoko egunetan ba ahalko du osaturen nitaz bertze batek, nik hasia dutan lanttoa.

ERASKINAK

ALDIAK

Modu-markarik edo Aspektu-markarik gabeko Aldiak emaiten ditugu hemen.

1. Iragan hutsa
2. Iraganeko-aintzina
3. Iraganeko-oraia
4. Iraganeko-geroa
5. Orai hutsa
6. Orai historikoa
7. Orai-oraikoa
8. Orai-gerokoa
9. Gero hutsa
10. Geroko-aintzina
11. Geroko-oraia
12. Geroko-geroa.

Aldia ez da hizkuntza guzietan berdin agertzen: hemen hitz bakar batean bildua da; han bizpahiru hitzek osatzen dute.

Modu eta Aspektu markekin, 12 Aldi horiek harrigarriko andana osatzen ahal lukete.

* * *

BOZAK munduko hizkuntzetan gaindi

- | | |
|----------------------------------|-----------------------------------|
| 1. Voix intransitive | Nor-xoil-bide |
| 2. Voix moyenne | Erdi-bide |
| 3. Voix passive | Jasan-bide |
| 4. Voix transitive | Nork-bide (iragankor-bide) |
| 5. Voix possessive | Jabe-bide |
| 6. Voix obviative | Nork, nor, nori,bide |
| 7. Voix locative | Toki-bide |
| 8. Voix applicative | Nori, norat, zertako-bide |
| 9. Voix denominative..... | Izenetikako-bide |
| 10. Voix disqualificatiive | Nolazkotikako-bide |
| 11. Voix factitive..... | Eragite-bide |
| 12. Voix surfactive | <i>Ber-eragite-bide</i> |
| 13. Voix réfléchie | Nor-bere-ganako-bide |
| 14. Voix réciproque | Elgarren-ganako-bide |
| 15. Voix comitative..... | Laguntza-bide |

Euskarari buruz:

- **Nor-bidea**
- **Nor, nori-bidea**
- **Nor, nork-bidea**
- **Nor, nori, nork-bidea**
- **Dei-bideak:**
 - 1. ***Zuka-bidea***
 - 2. ***Xuka-bidea***
 - 3. ***Toka-bidea***
 - 4. ***Noka-bidea***

* * *

MODU zerranda bat, munduan gaindiko hizkuntzetarik bildua

- | | |
|----------------------|-------------------------|
| 1. infinitif radical | Aditz-errokia |
| 2. infinitif nominal | Aditz-izena |
| 3. participe | Aditz-izenlaguna |
| 4. désidératif | Gurazkoa |

5. optatif	Opazkoa
6. volitif	Nahizkoa
7. impératif	Aginduzkoa
8. prescriptif	Aholkuzkoa
9. jussif	Gonbituzkoa
10. précatif	Otoiezkoa
11. suppositif	Balinezkoa
12. éventuel	Balizkoa
13. potentiel probable	Naskikoa
14. potentiel possible	Ahalezkoa
15. permissif	Haizuzkoa
16. vétatif	Debekuzkoa
17. impossible	Ezinezkoa
18. obligatif	Eginbidezkoa
19. nécessitatif	Beharrezkoa
20. fatalité	Ezinbestezkoa
21. ironique	Murrikazkoa
22. sarcastique	Iskiriozkoa
23. dubitatif	Dudazkoa
24. simulatif	Alegiazkoa
25. équivoque	Zimardikakoa

* * *

ASPEKTU zerrenda bat, mundu gaindiko hizkuntza askotarik bildua

A) Mail emendagarriak

1.º Egiterakoan

- a) -chercher à faire (procurar hacer), *egiteko bilatu*
- b) -aller faire (*ir a hacer*), *egiteratu, egitera joan*
- c) -venir faire (venir a hacer), *egiterat etorri*
- d) -faire presque (*estar a punto de*), *egiter*

e) *-se hâter de faire (apresurarse a), egiterat lehia-tu*

f) *-tenter de faire (tratar de), egiterat entseiatu*

2.º Egintza

a) *-instantané (instantáneo), bet-betakoa*

b) *-duratif (durativo), iraupenezkoa*

– *Iraupeneko mailak*

1) *inchoatif (incoativo), hastapenekoa*
-avec gradation (con gradación), mailake-taduna

-sans gradation (sin gradación), mailake-tagabea

2) *duratif (durativo), iraupenezkoa*

3) *continuatif (continuativo), jarraikizkoa*

4) *actuel: être en train de (actual: estar haciendo), egiten ari izan*

5) *ambulatif: faire en passant (ambulatorio: hacer de paso), bide nabar egin*

6) *courte durée (duración corta), iraupen laburra*

7) *paucatif (pocativo), gutizkoa*

8) *majoratif (mayorativo), gehiagokoa*

9) *simple positif (positivo sencillo), egite bakuna*

– *Egintzaren nolakotasuna*

1) *lehentasuna*

2) *lastertasuna*

3) *goiztasuna*

4) *bizitasuna*

3.º Egintzaren berrizteko mailak

a) *-aldi bakarra*

b) *berriztatzea*

- c) *-ohizkoa*
- d) *-maizkoa*

4.º *Egintzaren bururapeneko mailak*

- a) *-bururapen bakuna*
- b) *-bururapen ondorioduna*
- c) *-bururapen osoa*
- d) *-bururapen oparoa*
- e) *-bururapen gehiegizkoa*

B) Mail tipigarriak

1.º *Iraupenari buruz*

- a) *-emekitasuna*
- b) *-arteka-marteka*
- c) *-gelditzea*

2.º *Egintzaren nolakotasunari buruz*

- a) *-mugatzea*
- b) *-hertsitzea*
- c) *berantzea*
- d) *-alegia artzea*
- e) *-dudatzea*

C) Ezezko mailak

- 1.º *Ezetzta*
- 2.º *Ezina*
- 3.º *Alderantzia*

Bibliografia laburra

- Etudes de grammaire comparée: les voix**, Raoul de la Grasserie, Paris, 1899.
- Grammaire hébraïque abrégée**, abbé Touzard, 1905.
- Grammaire allemande**, Jolivald et Poulmaire, Paris, 1913.
- Grammaire de l'hébreu biblique**, P. Joüen, Rome, 1923.
- Temps et verbe**, G. Guillaume, Paris, 1929.
- Grammaire russe**, N. Sokoloff, 1930.
- Le langage**, J. Vendryes, Paris, 1939.
- Etudes d'aspects**, J. Holt, Copenhague, 1943.
- Système du verbe basque au XVIIe siècle**, R. Lafon, Bordeaux, 1943.
- Vers une sémantique moderne**, B. Pottier, Paris, 1964.
- Noms d'agent et Noms d'action en indo-européen**, E. Benveniste, Paris, 1945.
- La Pensée et la Langue**, F. Brunot, Paris, 1953.
- Linguistique historique et linguistique générale**, A. Meillet, Paris, 1958.
- Grammaire grecque**, Ragon, Dain, de Foucault et Poulain, Paris, 1960.
- Syntaxe grecque**, J. Humbert, Paris, 1960.
- Le bon usage: grammaire française**, M. Grévisse, Gembloux, 1964.
- Problèmes de linguistique générale**, E. Benveniste, Paris, 1966.
- Le langage**, collectif, Gallimard, Paris, 1968.
- Grammaire espagnole**, J. Bouzet, Paris, 1978.
- Dictionnaire encyclopédique des sciences du langage**, D. Ducrot et T. Todorov, Paris, 1972.

“ZEREN” ETA “NOLA” ETXEPAREGAN

Arrasate, 1979-XII-21

Patxi Altuna

Beldur naiz ez ote zaizuen mintzaldi hau biziki aspergarri gertatuko, gai lehorra eta gozogabea hartu bait dut mintzagai: ZEREN eta NOLA Etxeparegan. Izenburua luzeegi gerta ez dadin, Etxepare bakarrik aipatu dut hor, baina neure lan honetan barrena Axular ere gogoan eduki dut eta batean aztertu, elkarri argitasunik emango ziotelakoan. Nolanahi ere gauzak ahalik laburren eta arinen esaten saiatuko naiz, lana osorik eta dagoen dagoenean irakurri gabe.

Joan den udan Alemanian nengoela eta San Ignazio egunean, bestetan bezala, Euskal Herriko gertarien berri jakin nahirik Paris Irratia entzuten ari nintzela, esalarietako bat eguneko albisteak eman ondoren René Lafonez mintzatu zen: haren jaiotzaren ehun urteburua betetzen zela laster eta Frantziako Institutio batek lan bat argitara berria zuela Lafonek Euskararen eta Kaukasoko hizkuntzen arteko ahaidetasunaz egin zituen ikerketez eta defendatu zituen iritziez. Ni egun haietan lan hau prestatzen ari nintzen Lafonek hain maite izan zuen eta hain sakonki aztertu izan zuen Etxepareren hizkeraren bizpahiru punturi buruz. Bere xumean eta apalean lan hau Lafon jaunaren gorasarrez eskaintzen dut.

Jakina denez, “La langue de Bernard Detxepare” deritzan artikulu luze, trinkoa idatzi zuen Lafonek, besteak beste, duela 28 urte eta hartan bildu Etxepareren hizkeraren bereizgarri eta xehetasun ia guztiak. Puntu txiki batzuetan izan ezik, zail da gaur ere lan hura gainditzten eta osatzen: hain da osoa eta gainekoa. Ezertan motz samar gelditu baldin bazen, konjuntzio menderatzaileetan gelditu zen, ene ustez, eta hauexek hartu ditut aztergai. Lafonek sei aipatzen ditu: *nola*, *non*, *zeren*, *harik eta*, *eta*, *bana*, eta, egia esan, ez da besterik

poetarengan. Hauetarik bi, *Non* eta *harik* eta, banatan baka-
rrik ageri dira eta ez dut horiezaz zer esanik. Beste bi, *eta* eta
bana, aztertuak ditut oraintsu agertu den liburuan eta horie-
zaz ere ez dut gauza berririk. *Zeren* eta *nola* gelditzen dira eta
hau ezaz mintzatuko naiz, Lafonek esanak osatuz.

I. ZEREN

Hona zer dioen Lafonek konjuntzio honezaz: "Le génitif
ceren signifie "pourquoi?" (I, 170). Il peut signifier aussi
"parce que", avec une forme verbale à préfixe *bait-* (Préf. 6)
ou "à fin que", avec une forme verbale relative (Préf. 20)" (1).
Hori galde hitzak aztertzen ari delarik dio. Beheraxeago
"Conjonctions de subordination" deritzan sailean ia hitz
berez baliatzen da. Ikus: "*Ceren*: avec une forme verbale à
préfixe *bait-*, "parce que" (Préf. 6); avec une forme verbale
relative, "parece que" (I, 275) ou "pour que" (Préf. 10)" (2).
Lafonen ustez, beraz, *zeren* nahiz kausala, *bait-* daramanean,
nahiz finala eta kausala, adizkiak *-en* atz.zkia duenean, izan
daiteke. Hala da ere gutxi gorabehera.

Baina argi gehiago beharrez azter ditzagun *zeren* kon-
juntzioa duten pasarte guztiak. Konjuntzioa diot eta hainbes-
tez *zeren* galdera (= zergatik?) deneko pasarteak ez ditut
aipatuko ere.

- a) *CEREN bascoac baitira...* (Hitzaurre, 6).
Eta CEREN oray çuc... *BAYTUÇU estimatzen...* (Hi-
tzaurre, 16).
CEREN ieyncoa egun oroz ongui ari BAYCAYGU (I,
17).
Ez gitera aycinera CEREN BAYNIZ saxuya (I, 396).
Anderetan CEREN BAYTA vertutea hobenic (III, 42).
CEREN gin VAYNENDIN egun çugana (X, 70).
CEREN hantic uqhen BAYTUC behar duyan thornuya
(XV, 3).
CEREN eceyn scripturan erideiten EZPAITZEN (XV,
8).

(1) Lafon, R.: "La langue de Bernard Dechepare", BRSVAP, VII (1951), or.
321.

(2) Lafon, R.: "La langue de Bernard Dechepare", BRSVAP, VII (1951), or.
324.

Guztiotan *zeren*-ek *bait*-erantsi dio adizkiari eta zentzuari dagozkiola kausalak dirudite pasarte guztiok. Baina zentzuaz gainera *zeren*-ek pasarte horietako bakoitzean zein leku hartzen duen ohartzen bagara, batzuetan protasian dagoela aitortu behar eta beste batzuetan apodosian, hori hor behar bezain garbi ageri ez bada ere, pasarteak labur beharrez mozturik aipatu ditudalako. Baina sines, otoi, hitzaurreko bi aipamenetan eta I, 17an protasian dagoela; beste bost pasarteetan, aldiz, apodosian. Halaz ere, nahiz batean nahiz bestean, beti *bait*-hartzen du *zeren*-en adizkiak.

Ikus, ordea, beste pasarteok:

b) *CEREN LADIN publica mundu gucietara...* (Hitzaurre, 10).

CEREN iauna hayec iqhussiric... imprimi eraci DICA-CUN... (Hitzaurre, 20).

CEREN vnsa orhit CITEN niçaz ama eztia (I, 447).

Hirurotan, Lafonek esan bezala, adizkiak *-en* atzizkia du eta zentzuari dagozkiola badirudi finalak direla.

Besterik ez balitz, gauza garbi legoke legoke. Baina hamaika horiezaz gainera beste hiru bertso gelditzen dira oraindik eta hauek dira ilunenak edo hauetako bat behintzat. Hona hirurak:

d) Ezetare *CEREN* gatic vehar *DUDAN* auciric (IX, 10).
CEREN egon vehar *DUDAN* heben hambat gatibu (XIII, 40).

CEREN DUTEN ofenditu hayen creaçalia (I, 275).

Bi lehenak latinezko *erlativo* + *subjuntivo*, balio finala dutenen, edota gaztelaniaz ere maiz subjuntiboz ematen diren (“...por la que yo haya de...”) haien kide dira. Ikus nola itzultzen dituen Lafonek berak: “Rien d’où il suive que je doive avoir un procès” lehen; eta bigarrena “...je n’ai point, que je sache, commis de faute/ Pour laquelle je doive subir ici une telle captivité” (3). Finalak biak, beraz, *zeren* erlativo gisakoa delarik. Hau lehen bertsoan guztiz nabari da, *ceren* horren orde *uqheyteco* bait dio aurreko bertsoan. Ikus: “Eztut eguyn gayzquiric uqheyteco perilic / Ezetare *ceren* gatic...”.

(3) Akesolo, L. de: 1545, *Bernat Dechepare. Olerkiak*, Donostia, Edit. Txertoa. 1968. or. 174 eta 185.

Uqheyteco eta *ceren gatic* gauza bera esateko bi modu dira, beraz, eta *uqheyteco* finala da, noski. Baina hirugarrena? Lafonen eta Akesoloren ustez kausala. Hala esan digu Lafonek goiko bi aipamen haietarik bigarreanean, eta itzuli ere, hala itzultzen dute biek: "Tout le monde sera alors contre les pécheurs / Parce qu'ils ont offensé leur créateur" eta "Todo el mundo estará entonces contra los pecadores / Por haber ofendido a su Creador" (4).

Baina hala izanik ere, zentzuari oso ongi bait dagokio, galdatzen dio batek bere buruari: zergatik ez du adizkiak, kausala izanik, *bait-* hartu goragoko beste zortzi haietan bezala, baizik *-en*? Eta areago dena, zergatik daude trukaturik partizipioa eta adizki laguntzailea? Goiko zortzi haietarik hirutan partizipiorik gabe dago adizkia, baina beste bostetan partizipioa ere ageri da eta batean (XV, 8) izan ezik, beste lauretan partizipioa laguntzailearen aurrean dago, ez atzean hemen bezala. Bakar hartan, gainera, perpausa ezezkoa izateaz gain, beste lauretan ez bezala, bertsoaren azkenean dago, bestetan ez bezala, eta agian *erideiten*-ek baino *ezpaitzen*-ek puntua hobeki betetzen zuela iruditu zitzaion poetari. Eta puntuarena norbaitek dudatan ipintzen badu, ezin uka bederen hamabosteko bertsoaren eskema (4/4/4/3) urratua gertatzen zela, *ezpaitzen erideiten* idatzi balu. Orain aztertzen ari garen I, 275 honetan, aldiz, ez perpausa da ezezkoa ez bertsoaren azkenean kokatua, eta halaz ere laguntzailea aurrean du partizipioak, batetik, eta *bait-* en ordeztatik *-en* adizkiak, bestetik. Zergatik? Kausala bada ere, eta badirudi hala dela, nolako kausala da? Ez, noski, beste goiko zortzi haiek bezalakoa. Honezaz Lafonek ez dio deus ere, nik dakidala.

Axularrengana jo dut argi bila. Honen *zeren*-ek argirik emango badu, ordea, berea argitu behar lehenik, baso hertsia eta iluna bait da. Lagun bat baino gehiago saiatu da orain baino lehen Axularren *zeren* aztertzen. Bataren eta bestearen iritziak Villasantek bildu ditu bere *Sintaxis de la oración compuesta* (1976) liburuan eta hark dakartzan legez emango ditut hemen laburturik. Villasantek *zeren*-en hiru jokaera bereizten ditu Axularrengan: a) Adizkia gorririk dago, *bait-* eta *-en*

(4) Akesolo, L. de: 1545, *Bernat Dechepare, Olerkiak*, Donostia, Edit. Txertoa, 1968, or. 148 eta 47.

gabe. b) Adizkiak *bait-* darama. c) Adizkiak *-en* hartu du. Lehenean elkartzaile soila omen da; beste bietan menderatzailea. Galde bat egiten du ondoren: zergatik, ordea, bietan menderatzaile izanik, baliatu da Axular *bait-*ez batzuetan eta *-en* atzizkiak besteetan? Patxi Goenagaren ustez *bait-* dutenek zergatikako logikoa adierazten omen dutelako; *-en* dutenek, ostera, egintzaren egiatzko kausa. Jose M. Larrarteren iritziz, aldiz, *bait-* subjuntivoko adizkiak ezin enplega omen daitekeen zergatik, autoreek modu horretako nahiz subjuntivokoen balioko indikatiboko formen aurrean aurkitzean, *bait-* ezin eta *-en* erabili behar izan omen zutelako. Eta esanak laburturik honela dio Villasantek: “Resumiendo: Cuando se trata del motivo real o determinante de la acción, se recurre a *zeren* + *bait-* o —si el verbo tiene sentido subjuntivo— a *zeren* + *-n*. Cuando se trata de un nexa relacionante o de causa lógica, se emplea *zeren* a secas” (5). Baina Mitxelenak Villasanteren liburuari ezarri zizkion orripeko oharretatik batean honela dio: “No hay causas lógicas. Hay, o se supone que hay, causas en el mundo real, pero no en inferencia lógica”. Eta beste batean: “Eso sigue más oscuro que oscuro, y hay que volverlo a examinar, en Axular y otros” (6).

Nik saio txiki bat egin dut, Etxepareren I, 275 bertso-koak bezala *-en* atzizkia hartzen duten *zeren* perpausak azterturik batez ere eta ondoren hauetara heldu naiz. Bi sail handi bereizi behar dira lehenik: *zeren* apodosian duten perpausak batetik eta *zeren* protasian dutenak bestetik. Has gaitzen apodosian dutenekin.

A. APODOSIA

1. Aginduzko perpausaren, hots adizkia inperativoan duenaren, ondoan dagoenean, *zeren*-en adizkiak ez du ia behin ere *bait-* hartzen ez *-en*, baizik soilik dago. Halako 94 bildu ditut. Salbuespenik ez al den galdatzen badidazue, erantzungo dut baietz, 94 horietarik hirurek *bait-* dutela. Hona hirurak:

(5) Villasante, L.: *Sintaxis de la oración compuesta*, Oñate, Edit. Franciscana Aranzazu, 1976, or. 149-154.

(6) Villasante, L.: *Sintaxis de la oración compuesta*, Oñate, Edit. Franciscana Aranzazu, 1976, or. 153-154.

“Esportza gaitezin, beraz, eta enseia miserikordios eta erremusinalari izaitera, ZEREN anhitz baitira...” (148).

“Ikhusazu nola batak bertzeagana utziz, ezten deskargurik egiten. Eta nola halaber handik eta halatan zuk zeure buburua galtzen duzun, eta zeure ondokoa ere galtzeko periletan ibentzen duzun. ZEREN peril baita...” (165).

Tartean NOLA-ren baitako hiru adizki (*ezten, galtzen duzun, ibentzen duzun*) sartu direlarik eta inperativoa hainbestez oso urrun gelditu, idazleak ez du agian uste izan hemen *zeren*-ek inperativo hura dela kausa *bait*-galdu behar zuenik. Hirugarrenak, bigarrena bezala ‘Ikhusazu nola’ inperativoz hasiak, honela dio:

“Ikhusazu nola filosofo hek, gizon zuhur adimendutsu hek, begirutzen ziren bere haserreduetan; beldurtasun handi batekin gobernatzan ziren bere koleretan. ZEREN *baitziakiten*...” (201).

Hemen gainera dudazko da bigarren perpausa (“beldurtasun handi batekin...”) NOLA-ren mendean dagoen ala perpaus nagusia den. Nolanahi ere, lehengo arrazoia izan da agian kausa *bait*-idazteko. Gainerako 91 pasarteetan *bait*-ik ez dugu. Ikus bat bakararra:

“Zaudete prestik eta iratzarririk, ZEREN EZTAKIZUE eguna eta ez orena” (36).

Honako hau San Mateok 25garren kapituluan dakartzan hitzen (“Vigilate itaque quia nescitis diem neque horam”) itzulpena da. Hitzok berberok Tartasek *bait*-ipinirik itzuli zituen eta bi bider gainera: batean pluralean, “...ceren ezpaitaquiçie...” [57]; bestean singularrean, “...ceren ezpaitaquiçu...” [176].

2. *Zeren*-en ondoan, *zeren*-ek hasi duen perpausa amaitu baino lehen *nola* sartzan bada (ZEREN NOLA...), *nola*-ren perpausari dagokion adizkiak bai, baina *zeren*-enak ez du komunzki *bait*-hartzen. *Nola*-z gero mintzatuko bait naiz, nakion oraingoz *zeren*-i. Hemen salbuespenak gehixeago dira (salbuespenak ote?); nolanahi ere, badirudi Axular puntu honetan liburua idatzi ahala joera horretan, horrelako perpausetan *bait*-ez erabiltzean alegia, sendotuz joan zela, sal-

buespen guztiak lehenbiziko 70 numeroetan ageri bait dira, *bait-* gabekoekin nahasirik, noski, eta 70garrenaz gero bat ere ez. Danera 65 bildu ditut eta salbuespenak, *bait-* dutenak, sei baizik ez dira. Ikus bana, gabea eta duena:

“ZEREN NOLA bat bedera bakearekin lohakartzen, ez-ansiatzen eta gorputzaren plazeretara emaiten baita, hala gerlekin, etsaiekin eta kontrastekin ernatzen, iratzartzen eta axolduritzen DA” (16).

“ZEREN NOLA ezpaikara bi mendetako eta zuk zeurea hain ongi, hain ohorezki eta dohatsuki iragan baituzu, esperantza BAITUT zeruko lorian...” (5).

Hemen bi sail bereiztea hobe litzateke, noski: *nola*-ren perpausa amaitzean *hala* dutenena (konparativak?) eta ez dutenena. *Hala* duenik ez da, jakina, *bait-* hartzen duten sei haien artean.

3. Modu berean edo beretsuan, hemen salbuespenen proportzioa handixeago baita, *zeren*-ek hasitako perpausari amaitu baino lehen *baldin* txertatzen bazaio, *zeren*-enak ez du gehienetan *bait-* hartzen. 27tarik seiretan bai, gainerakoe-tan ez. Sei horietako batean zergatik hartzen duen, nabari da: protasia bait da eta geroxeago ikusiko dugunez, *zeren*-ek protasian dagoenean beti behar bait du *bait-* edo bestela *-en*. Hona pasarteak:

“Zeure lurrean, zure baimendua eta lizenzia gabe, etxe bat hasten deratzutenean, ZEREN BALDIN obraren akhabatzera utz bazinitza peril BAILLUKE, akhometaz liazazuten zuzen dutela lur haren gainean, hartarako-tzat aitzindurik bezala ordenatzen du legeak...” (53).

Baina gainerako bostetan ez dago protasian eta halaz ere *bait-* hartu du. Ez dakit zergatik.

4. Ez du ere *bait-* hartzen *zeren*-en perpausari dagokion adizkiak, baldin gertuan *hain* badu. Honelako exenpluak urri samar dira, zortzi edo besterik ez. Ikus liburuan ageri den lehena:

“ZEREN HAIN zinez eta batetan lothu zeizkidan, non ezetz erraiteko bide guztiak hertsit baitzerauzkidaten” (6).

Salbuespen diruditenak ez dira salbuespen eta adizkiak *bait-* baldin badu, beste arrazoiren bategatik da. Hala nola:

“ZEREN HAIN prestki eta erraxki egiten BAITUZU iuramentu, halatan hain maiz...” (177).

“Baina ZEREN materia haur BAITA HAIN handia...” (226).

“ZEREN bekhatua bera BAITA HAIN itsusi...” (328).

Hirurotan protasian bait dago *zeren*-en perpausa, *hain* gorabehera adizkiak *bait-* hartu behar izan du. Modu berean *-en* hartu du beste biotan, hauetan ere protasian bait dago:

“...ZEREN HAIN gauza ttipian eta erraxean manua hautsi *zuen*, aldez hargatik...” (37).

Hau, jakina, ezin zitekeen bestela esan, lehenaldia denez gero. Baina ikus ondokoa:

“...ZEREN HORREIN gauza erraxean, aphurrean eta ttipian zeure laxotasuna eta Iainkoaren manuaz kontu egitea erakutsi DUZUN, aldez are horigatik ifernurako zarela” (37).

Azkenik beste biotan *nola*-k sartu bait du perpaus berria *zeren*-ena amaitu baino lehen, hauetan ere *bait-* dugu:

“Zeren NOLA BAITIRA eritasun batzuk HAIN handiak...” (68).

“Zeren berdin NOLA Iainkoa BAITA HAIN on eta miseri-kordios...” (89).

5. Beste horrenbeste gertatzen da *zeren*-en ondoan HALATAN dagoenean; orduan ere *zeren*-en adizkia *bait-* gabe ageri da. Honelako kaso askotan aurreko perpausa inperativoan dago; hainbestez gorago aipatutako arrazoi huragatik ere bidezko da honelakoetan *zeren*-ek *bait-* ez eramatea. Aurreko perpausak inperativorik ez izan eta *zeren halatan*-en adizkia *bait-* gabe dagoen pasarteak zazpi bakarrik dira; behin bakarrik dugu adizkia *bait-* duelarik eta, egia esan, ez dakit zergatik. Hona:

“ZEREN HALATAN berak ere bere burua gaitzetsi eta gaitzatu behar BAILUKE” (210).

6. Modu berean *zeren*-en perpausak ez du *bait*- aurrizkirik *zerenen* ondoan BERTZELA ageri bada. Hauek ere maiz *zeren*-en aurreko perpausa inperativoan dute eta arrazoi hori aski litzateke *bait*-gabe agertzeko. Aurreko perpausa inperativoa ez den eta *zeren bertzela bait*-gabe dagoen pasarteak hamaika dira; hobeki esan, hamar, hamaikagarrenean, sailaren azkenekoan, *bait*-bait darama. Hona azken adibide hau:

“ZEREN BERTZELA baldin manamenduak eman ezpale-rauzkigu, guztiak manamendu izanen BAITZIREN” (321).

Eta hori, gainera, BALDIN-eko perpausa txertatua duelarik; beraz lehen aipatu dugun sailaren salbuespen, han esan bezala.

7. Bederatzi aldiz baliatu da Axular honako esapide honezaz: EZ ZEREN... / BAINA ZEREN... eta honekin Etxepareren bertsoari hurbiltzen gatzazkio, hemen Axularrek lehen aldiz erabiltzen bait du batzuetan, ez beti, *-en* atzizkia. Zehatzago esan: bi ataletako esapide horretan beti darabil *-en* lehen atalean, ez *zeren*-enean; ez, ordea, beti, bitan bakarrik baizik, bigarrenean, *baina zer*-enean, beste zazpitan *bait*-darabilelarik. Are zehatzago: bederatzi pasarte horietarik bitan lehenbiziko atalak ez du adizkirik; horren orde z izenaz baliatu da Axular *-z* kasoan: *urrikariz, nahiz*. Hemen ohar bat egin nahi dut, gero agertuko zaigun beste sail batetako *-en* atzizkiari ere zuzen dagokiona. Adizkia lehenaldian dagoe-nean, ez daki batek, ezin jakin dezake belarriak edo haren antzeko beste esaldi batek irakasten ez badio, adizkia zenbait aldiz gorririk dagoen, hots lehenaldi soilean, ala beste *-en* atzizkia *-ez zer*-i dagokiona— bere baitan duen. Ikus pasarte hau:

“Errege Davitek bertzerdn emaztearekin huts egin zuenean, anhitz enseiu eta itzul-inguru egin zuen, huts hura estali nahiz. Eta ez, EZ ZEREN nehoren beldur ZEN, Errege zenaz geroz, BAINA ZEREN...” (274).

Horko *beldur zen* hori ezin lekike berez inork lehenaldi soila den ala, berriro esan, EZ ZEREN-i zor zaion atzizkia bere baitan duen. Beste pasarte guztiek erakusten digute bigarren hau dela egia.

8. Bigarren atalean, *baina zeren*-i dagokion horretan, somatu dugun bitariko jokabidea —batzuetan *-en*, gehienetan *bait*— ageri da horren antzeko beste esapide honetan ere: ZEREN BATAZ... / BERTZEA BERRIZ ZEREN..., baina beste modu batetara. Hamar aldiz ageri da hau Axularrengan eta adizkia, bai lehen atalean bai bigarreanean, edota soilik edota *bait*- aurrizkia duela dator. Baina ez nahasian, baizik edota biak soilik edota biek *bait*- dutelarik. Ikus adibide bana:

“Ezta gaitz ihardesten. ZEREN BATAZ, lehen erran den bezala, orduan eritasunak berak, bere gorputzeko gaitzak, emaiten BAITIO bat bederari egitekorik asko; eta BERRIZ BERTZEA ZEREN peril BAITIA orduko orhoitzea...” (137).

Aitzitik beste honetan *bait*- gabe biak:

“Ordea guztiarekin ere guztiak dira bekhatu. ZEREN BATAZ, bertzeak bertze direla, handik ikhasten DUTE umek ere maradizino egotzten eta burho egiten; eta BERRIZ BERTZEA ZEREN burhasoen maradizioneak anhitzetan heltzen ZAIZTE umei eta gelditzen DIRA maradikatuak” (173).

Lautan daude adizkiak soilik eta seitan *bait*- dutelarik.

B. PROTASIA

Gatozen orain *zeren*-ek perpausean eduki dezakeen beste lekua aztertzeraz, protasia. Hemen kontua guztiz erraza da: lehen esan bezala, *zeren*-en adizkia ezin daiteke inoiz jarrera horretan soilik eta biluzik ageri; nahitaez behar du edo *bait*-edo *-en*. *Bait*- hartu duen 28 pasarte aurkitu ditut. Entzun liburuan ageri den lehena:

“Ordea ZEREN EZPAITIRA hamar bat hitz edo baizen hunela diferentki eta bi aldetara eskiribatzen direnak, halatan nik ere zenbait aldiz eskiribatukoitut alde batera liburuan barrena eta...” (9).

Besteak dira, hots *-en* hartzen dutenak, guretzat orain eta hemen axolarik handienekoak, Etxepareren bertso bate-tako halako perpaus bat argitu nahiz bait gabilta. Diodan aurrera gabe *zeren*-en perpausak *-en* hartzen duenean nahiz

protasian nahiz apodosian egon daitekeela. Gehienetan, ordea, protasian dagoelako utzi dut honerako sail hau. Entzun berriro, otoi, Etxepareren bertsoa, baina orain ahapaldi osoa, zentzua hobeki aditzearren:

*Beqhatoren contra date orduyan mundu gucia
Ceren duten ofenditu hayen creaçalia
Ordu hartan ixil dauque triste veqhatoria
Orotaric cerraturic daude paussu guciac.*

Bi lehenbiziko bertsoetan datza korapiloa, beste biak lehenbizikoaren parataktikak edo koordinatuak bait dira; hots, *date*, *dauque* eta *daude* hiru adizki nagusi dira. Bestalde bigarren bertsoaren perpausa lehenaren mendeko da eta, dirudenez, kausala. Nolako kausala, ordea?

Entzun orain, mesedez, Axularren bizpahiru. Axular gartzelan hiltzera damnaturik eta noiz hiltzera aterako dituzten zain daudenez ari da eta honela dio:

“Othe lizateke nehor ere heken artean bizitze luzearen esperantza luenik? Edo ZEREN EZTUTEN lehena atheratzen, azkena izanen dela segur lizenik?” (38).

Beste honetan eri denari midikuak, sendatuko badu, burdin goriaz ematen dion oinazeaz ari da:

“... baldin-ba etzara burdin goriaren kontra, ZEREN erratzen ZAITUEN eta min egiten DERATZUN, haserretuko?” (205).

Salbatzeko kristau izatea aski ez omen dela eta honela dio:

“Bada zeruko loriara iragaiteko zubia miserikordia da; eta baldin miserikordiaren zubi hunetarik iragan nahi baduzu zuk ausartkiegi, fidatukiegi, esperantza erho baten biserak iauntzirik eta iduriturik ezen ZEREN ZAREN giristino eta Iainkoa ere DEN miserikordios, hargatik beragatik ere salbatuko zarela, engana ahal zindezke...” (94).

Azkena, hemen bost lerrotan bost bider ageri bait da *-en* atzizkia:

“Aitzitik, ZEREN Iainkoa DEN hain on, bihotz bera eta miserikordios, ZEREN hain maite GAITUEN, ZEREN

bekhatu egin eta berehala EZKAITUEN gaztigatzen, ZEREN igurikitzen DERAKUN, eta finean ZEREN hanbat ongi eta ontasun egiten DERAKUN, hargatik beragatik ere, hartarik okhasino harturik behar genduke..." (100).

Beste hamar ditu Axularrek honelatsukoak. Zer ageri da honako perpaus hauetan? Latina ongi samar dakienari latinez aski nabarmen diren perpaus kausal, baina kausal berezi, batzuk ekarriko dizkiote agian hauek gogora; hots, *quod* edo *quia* subjuntiboz osatuak. Horien arrazoia, latinezko liburuetan irakatsi ohi denez, zera da: inork zerbaitetarako izan omen duen barne arrazoia edo aitzakia, arrazoi subjetivoa, adierazten dutela. Konstrukzio horixe bera, *quod* edo *quia* subjuntiboz alegia, arrazoi subjetivoa denean ez ezen, *non quod* edo *non quia*..., sed *quod* edo *quia*... direlakoetan ere erabiltzen omen da. Eta lehenxeago ikusi dugu, hain zuzen, Axular ere EZ ZEREN..., BAINA ZEREN... haietan ere *-en* atzizkiaz baliatzen zela. Honenbestez eta Etxepareren bertso-ra gatozela, "Ceren duten ofenditu..." delako hori "Beqhatoren contra" izateko "orduyan mundu gueia"-k izango, aipatuko, alegatuko duen arrazoia da, arrazoi subjetivoa -subjetivoak ez du esan nahi, noski, gezurrezkoa denik-, eta horregatik darama, ene ustez, *-en* atzizkia. Gaztelaniaz, nik dakidala, ezin eman daiteke ñabardura hau aditzera, "...porque, DICEN..." edo honelatsu ez izanik. Guk komunzki ñabardura hori bera *omen* ipiniaz adierazi ohi dugu eta inork proba egin nahi badu, ohartuko da irakurri ditudan pasarte guztietan *omen* ongi datorrela. Ikus Etxeparerenean, esate baterako: "Beqhatoren contra date orduyan mundu gueia / Ceren omen duten ofenditu..."

Eta hau honela dela beste pasarte batek ematen digu, ene iritziz, argi aski aditzera, Axular zenbait kristauk etsaiaren kontra haserretzeko eta hura gaitzesteko duten arrazoiez, arrazoi subjuntiboz, berek aipatzen dituzten arrazoiez, ari baita da. Honela dio:

"Erranen duzu etzarela ez haserretzen..., eztuzula hargatik gaitzesten... Baina gaitzesten duzula bere intenzio-ne gaixtoagatik, borondate uherragatik. ZEREN zuk hari okhasinorik eman gabe eta bidegaberik ere egin gabe, guztiarekin ere hala DARRAITZUN eta gaitz nahi DERATZUN" (205).

Biziro pozik entzungo nuke puntu honetan euskara ez ezen latina ere ongi dakitenen iritzia, ea honako euskal perpaus hauetan arrazoi subjektivo delako hori ez al den edo datekeen *-en* atzizkiaren azalpena. Eta batipat iparraldeko euskaldunena, guk hegoaldeko euskalkietan ez bait dugu honelakorik esaten. Agian iparraldeko guztiek ere ez, ez bait dut Tartasengan honelakorik aurkitu (7).

Axularren perpausetara gatzela berriz ere, bizpahiru puntutxo ipini nahi nituzke agerian. Lehen esan bezala, adizkia lehenaldian dagoenean, ez daki batek adizki soilaren aurrean ala honelako *zeren* + *-en* perpaus baten aurrean dagoen. Badakit hori beste askotan ere gertatzen dela, esate baterako "Esadazu noiz etorri zinen"; baina hor geure hizkuntz senak erakusten digu hori horrela dela. Beste honako hauetan ez, ordea, hegoaldekook bederen ez bait dugu halako *zeren*-ik inoiz erabiltzen eta batzuetan zaila bait da lehenaldiari dagokionaz gain beste *-en* atzizkirik duen perpausaren aurrean gauden ala ez erabakitzea. Oso belarri fina behar dela uste dut hori atzemateko. Ikus adibide bat:

"Hala Iuduak Ejiptoko gathibutasunetik iltkirik, libre eta bere gogara, zeruko ianhariz asetzen zirela zebiltzanean, ZEREN ethorri ZEIEN haragi iateko gutizia bat eta gutizia hura ETZUTEN nahi bezain fite konplitzen, hasi ziren..." (334).

Geldi gaitezen hemen unetxo bat, merezi baitu. Mundu guztiak daki azento desberdina duela hitz honek —ETZUTEN— lehenaldi arrunta denean eta bere baitan beste *-en* atzizkia txertatua duenean. Alegia, "nik esana *etzuten* egin" eta "ea nik esana zergatik *etzuten* egin", bi ETZUTEN horiek modu desberdinez ebakitzen eta ahozkatzen ditugula. Lehena "txistúa" (=saliva) bezala; bigarrena "txistua" (=flauta) bezala. Ene galdera orain hau da: Axularren esaldi horretan ETZUTEN lehen modura ahozkatu behar al da (eta hainbestez lehenaldi soila litzateke) ala bigarrenera (eta hala balitz, beste *-en* luke bere baitan)? Ene ustez bigarrenera. Azento des-

(7) Hobeki esan, bat aurkitu dut Tartasengan, baina pasarteak ez dirudi oso garbia. Ikus: "Ezta miretsi behar, ceren herioa den hain gauça gaixtoa, itchusia, beltça, cruela, icigagarria, terriblia eta horriblia, eta guiçonari hambat othory, eta remonstrança eguiten badut ené libruto hontan, haren veldurra, eta memoria, beré bihotcian eduqui deçan onsa hilceco" 152 .

berdina ezezko formetan nabariago da, baina baiezkoetan ere aski nabaria; hots, "Iainkoaren manua hautsi zuen" eta Axularren beste honako honek "Aitzitik... ZEREN hain gauza ttipian eta erraxean manua hautsi ZUEN..." (37) ez dute inola ere "hautsi zuen" azentu berekoa. Eta inork dudan ipin baleza Axularren horrek beste *-en* atzizkirik duenik, bertantxe aterako da dudatik ondoko hau, lehengoaren numero berean datorren hau, irakurriaz: "...erran nahi deratzut ezen ZEREN horrein gauza erraxean, aphurrean eta ttipian zeure laxotasuna... erakutsi DUZUN..." (37).

Etxepareren bertsoko "Ceren duten ofenditu..." apodosian dago; baita Axularren *zeren* + *-en* 23 pasarteetarik zazpi ere; beste hamalau, ostera, protasian. Badira bi, halere, Etxepareren IX, 10 eta XIII, 40 goian aipatutako bi haietan bezala, *erlativo* + *subjuntivo* direlako finalak. Hona:

"Haur da kausa eta arrazoina ZEREN hiri hura hala galdu ZEN" (129).

"Haur da lehenbiziko arrazoina ZEREN gizon ezkonduak berea baino bertzerik nahiago DUEN" (238).

Ziburuko Etxeberrik ere badu honelako mordoska. Bizpahiru bakarrik aipatuko ditut (8):

"Beren hutsez ere badu bihotcean damua CEREN gaixqui offensatu DUEN Iuge iustua" (or. 118).

Etxeparerenaren antz handikoa, gainera: *Ceren duten ofenditu...* Etxeparek eta *Ceren... offensatu duen...* Etxeberrik. Ikus beste hau:

"Spirituec arima nahi dute beretçat
Aingueru onac beretçat, bai gaichtoac beretçat.
Aingueru beguirailleac obra iustuen gatic,
CEREN gaizqui gobernatu DEN Sathanec hargatic" (or. 58).

(8) Ziburuko Etxeberriren aipamenak HORDAGOK argitara duen liburutik egiten ditut eta ematen ditudan numeroek orrialdea adierazten dute, ez bertsoa, bertsoak ez bait daude *Manual Devotionezcoa*-n kontatuak eta numeratuak. Horrez gain, (158²) honek esan nahi du liburuaren bigarren zatian dagoela bertso hori. *Manual Devotionezcoa*-k bi zati ditu, izan ere, eta bi zatiak 1-tik hasten dira orriak kontatzen.

Beste honetan hiru adizki ditugu lau bertsoan barrena *-en* atzizkia dutenak *zeren*-en mendean:

“Presenteco defuntua halacotz ondarrera
 Damuric etchatcen dugu itsassoarenera,
 CEREN lehorra urrun DEN bazter guztietaric,
 Lur sainduan emateco berce sepulturaric,
 Eta CEREN EZTAquigun noiz porturaco garen,
 Ez eta guero fin bera ETCAICUN guerthaturen” (or.
 158²).

Hemen etengo dut ZERENekikoa, Etxeparerena osoro aztertu dudalakoan; zuzen ala oker, zuek duzue hitza. Axularrena ez, ez eta hurrik eman ere. Hurbilketa bat egin diot gehienez ere, baina ehunka gelditzen da oraindik apodosian *bait*- duena eta ez duena, zergatik bai eta zergatik ez ni bederen argitzeko gai izan ez naizena, hartan ordu piloa eman badut ere. Aski garbi dago, ene ustez, horietarik zenbait pasartetan “elementu aurkezlaria” nahiz “erlaziotzaile soila” deritzana dela, *zeren* horren perpausa euskarazkoa gabe latinezkoa ere izan bait daiteke; hala nola “...zeren *Urtica figurat acediam*” (25), bat bakarra aipatzeko, edota *-ela* duen adizkiz osaturiko perpausa ere bai, esate baterako, “...zeren, hiri hartarik sortzen zeiztela...” (18). Nolanahi ere bilduak ditut *bait*- dutenak eta gabeak eta noiz edo noiz eta non edo non argitara emango ditut sailka, ea nik aurkitu ez dudan argitasuna beste inork aurkitzen duen. Bai, noski.

II. NOLA

Adverbio eta konjuntzio, biak izan daiteke eta bietara darabil Etxeparek. Nik hemen konjuntzioa bakarrik aipatuko dut, besteak ez bait du inolako zailtasunik eta gauza berezirik. Lafonek “L’expression de la comparaison en basque” zeritzan beste artikulu bat ere idatzi zuen eta han aztertu Etxeparereren eta besteren *nola* konparatiboa: batzuetan, gure *bezala*-ren gisara, konparaburuaren atzean ezarririk eta harekin hitz andana bakarra osaturik ageri dela poetarengan (esate baterako, “atorra nola arimere...”, I, 100; “ohi nola...”, VII, 9; “Quirysayluyari nola...”, XIII, 78, eta abar) eta beste batzuetan konparaburuaren aurrean idatzirik,

hizkuntza erromanikoen arabera: "aujourd'hui comme hier" esaldian bezala, alegia, Lafonek berak aipatzen duen exenpluaz balia nadin. Hala, esate baterako, "nola erdi ixuya", I, 403; "nola gayzquiguilia", I, 116. Honezaz ere ez naiz mintzatuko. Bai, ordea, *nola* menderatzaileaz.

Honi buruz hauxe dio Lafonek: "*Nola*: avec une forme verbale à préfixe *bait-*, "comme, de même que" (I, 411); avec une forme verbale à suffixe relative, "comme, alors que" (I, 126), ou "que" (après un verbe signifiant "dire" ou "penser" (I, 2). Dans deux passages (II, 95; X, 24), contrairement à la règle, et sous une influence romane, le verbe introduit par *nola* signifiant "comme, attendu que" n'est pourvu ni du préfixe *bait-* ni du suffixe relative" (9). Beraz, Lafonen irakatsiaz adizkiak *bait-* du edo *-en* du edo deus ez du. Dirudienez, lehen konparativotzat jotzen du; bigarrena denborazkotzat edo, baina konpletivo ere izan omen daiteke, "esan" eta "pensatu" esan nahi duten aditzen ondoan; hirugarrena kausaltzat.

Aurrera baino lehen puntu bat ipini nahi dut agerian, neure liburuan itzuri egin bait zitzaidan damurik eta Lafoni zor hau kitatu gabe ez bait nago lasai. Liburuan *nola*, besteak beste, bi eratakoa dela diot Etxeparegan: benetako galdea, nahiz eta zeharkakoa (esate baterako hau: "Bat bederac pensa veça arimaren gaynian / NOLA saluaturen duen hura vere finian", I, 173-174), eta konpletiva ordezkoa (hala *nola*: "Munduyan den guïçon oroc behar luque pensatu / Iangoycoac NOLA duyen bat bedera formatu", I, 1-2). Ni, egia esan, ez nintzen orduan konturatuLafonek ere atzeman zuela "esan" edo "pensatu" ("oroitu" ere bai, diot nik neure aldetik eta "miraz nago" ere bai) aditzen ondoan Etxeparegan ageri den *nola* bitarikoa izan daitekeela; hots, inoiz galdera eta inoiz konpletiva, lehen adverbioa eta bigarrena konjuntzioa, goiko hitz dioskunez. Baina beste puntu bat ez zuen, dirudienez, Lafonek somatu; ez du bederen, nik dakidala, inon aipatzen: bereizkuntza horren arabera Etxeparek partitzipioa laguntzailearen aurrean ezartzen duela lehen kasuan eta atzekoz aurrera bigarreanean.

Lafonek *nola*-ri buruz egin duen azterketa zuzena den ala ez ikusteko eta ahal bada zehazkiroago aldi-aldeak finka-

(9) Lafon, R.: "La langue de Bernard Dechepare", BRSVAP, VII (1951), or. 324.

tzeko, bil ditzagun *nola* konjuntzioa ageri den pasarteak, lehen aipaturiko konpletiva ordezkoa utzirik, itxuraz zehar galde-razkoak bezalakoxea bait da.

- a) “...ecin deus ere scriba dayteyela lengoage hartan, NOLA berce oroc BAITUTE scribatzen beryan” (Hitzaurre, 15).

“Cuc guibela demaçuna NOLA VAYTA galduya çure gomenduyan dena halaver da salbuya” (I, 411-412).

“Ene gogoia NOLA VAYTA çucen iarri hargana Harenere Iangoycoac dacarrela nygana” (V, 25-26).

“Libertatia NOLA VAYTA gaucetaco hobena Gathibutan egoytia hala pena gaycena” (XIII, 98-99).

Lau pasarte hauetan adizkiak *bait-* du, nahiz apodosian (lehenak) nahiz protasian (beste hirurek) eta badirudi laurak Lafonek konparativotzat jo dituen sailean ongi sartzen direla. (Beste honetan ere “NOLA ere hil VAYTADI doha salbameduyan”, I, 183, hala du, baina hau oso bestelakoa da, *adverbio* nahiz *erlativo* + *ere* gisakoa, eta hauek ere, jakina denez, antzineko idazleengan *bait-* daramate beti.)

Hona bigarren saila:

- b) “Iudicio generalaz NOLA orhit EZTIRA Beccatutan vici dira bethi bere aysira” (I, 226-227).

“Beccatoren saluaceco ieyncoac eguin cinducen Bere buruya eguin dici iuge iusticiaren çu misericordiaren refugio cinaden NOLA berac iustician ecin salua LICAQUE çure misericordiaz remedia litecen Balinetan eguiazqui çugana gin valite” (II, 93-97).

“Cineste bat dicit gogoan honela Nic NOLA DADUCAT amore çugana Ieyncoari ere eder çaycala Hargatic gaycexi ezquiçaquela” (X, 23-26).

Hauek lirateke hizkuntza erromanikoen kutsuz eta euskal arauen kontra, Lafonek dioen bezala, *bait-* ez *-en* gabeko *nola*-ren pasarteak, Lafonek bi azkenak bakarrik aipatzen

baditu ere. Ez dut uste besterik denik. Hirurotan "comme, attendu que" esan nahi du *nola*-k, Lafonek dioen bezala; kausal edo dira, beraz, hirugarrenean zentzu hori ilunxko bada ere. Baina hori nolana ere den, beste bertso bat itzuri zaio Lafoni eta ikusi batera bederen horiek bezalaxe kausal itxura badu ere, horiek ez bezala *bait*- du adizkiak. Ez dirudi inola ere lehen saileko konparativo edo haien artean sar daitekeenik; oso zentzu desberdina du behintzat. Honenbestez gauzak uste baino pixka bat nahasiago gertatzen dira. Zergatik honek *bait*- eta beste hirurek ez? Hona bertsoa:

"Ene arima orduyan har othoy çure glorian
NOLA VAYTA redemitu çure odol saynduyaz" (I, 74-75).

Zer esan honi buruz? Arretaz begiratzten badiegu, berehala somatuko dugu alde handi bat hiru haien eta azken honen artean: haiek protasian dute *nola*-ri dagokion perpau- sa; honek, aldiz, apodosian. Honenbestez ez da ukatzen inola ere hizkuntza erromanikoen kutsua, baizik explikazio txiki bat ematen, poetak bi modutara moldatu zituen eta itxuraz esanahi bereko, kausal edo, diren perpaus horiek argitu nahirik. Hiru haietako bigarrenean (II, 95) *nola* protasian dagoenik dudan jar dezake inork, perpaus nagusiak ahapaldiaren bi lehenak direla ikusirik; halaz ere, *nola*-ren perpauza, ene ustez, perpaus nagusiari baino ondoko "çure misericordiaz remedi litecen" dioen horri lotuago dagokio; bertso horren "explikazioa" ematen du *nola*-k hurbilen eta gertuen eta honekiko, dudarik gabe, protasian dago (10).

Lafonek "avec une forme verbale à suffixe relative" dela eta aipatzen duen pasartean neretzat *nola* adverbioa da. Ikus bertsoa:

"Viocian diraustaçu guertuz ama ezta
çure orduco doloriac eta vihoz çauriac
Beghiez NOLA CENACUSAN çure iabe han-
dia" (I, 124-126).

(10) Zail da batzuetan *nola* nahiz *zeren* protasian ala apodosian dagoen asmatzen. Hona Tartasen hau: "Bide saindu hontan makhur etcitian, ennuya etcit-
tian, eta Iencoac eman diçaçun dohaigna, eta gratia perseueratceco, eta hon edu-
quiteco, ceren ezpaita moyenic salba guitian, ezpadeçagu perseuera obra honian,
erran dian beçala guré Iaunac, *Qui perseuerauerit vsque in finem hic saluus erit*,
Norc eré perseueratuco baitu azquen finera drano, halacoa salbatu içanen da,
Erraçu Iencoari, Daud Erreguiac erraiten cian beçala..." 177 .

Hemen ez du, ene ustez, "como" esan nahi, baizik "cómo". Hala ez balitz, bakarra litzateke Etxeparegan. Akesolok ere haba itzultzen du (11).

Axularrek agian argitasun pixka bat emango digu edota atzekoz aurrera behar bada Etxepareren *nola*-ri buruz egin dugun azterketak berak emango argitasuna Axularrena hobeki sailkatzeko. Villasantek honela deskribatzen du Axularren *nola*, *Comparativas de modo* deritzan kapituluari eta perpaus horiek gaztelaniaz *nola* diren adierazi ondoren: "Esta clase de oraciones se construyen con *Nola*... La subordinada precede a la principal. El verbo de la subordinada lleva el prefijo *bait-*, o, en su defecto, el sufijo complementario *-n*". Eta Axularren zerbait exenplu aipatzen du "en que *Nola* establece por sí sólo la comparación, sin que tenga en la principal otro término que haga juego con él". Aitzitik *nola*-ren korrelatiboa perpaus nagusian dutenak honelakoak izan omen daitezke: *Nola... hala...*; *Nola... halatan...*; *Hala... nola...* (12).

Bi hitz guzti honi buruz. Lehenik orripeko ohartxo batean Mitxelenak dioena: "Algunas de éstas con *Nola* (cf. Ax 273) a mí no me parecen comparativas. Sí, claro, las de *nola... hala*" (13). Bigarrenik, "La subordinada precede a la principal" ez da beti egia; 273. Numerotik harturiko bi exenpluetarik batean ("Bere tokian dagoenean, *nola* baitago bekhaturik etzuenean...") apodosian dago; bestean protasian ("...*nola*... ordenantzatik... iltkia baitago, ezin sosega diteke"), baina hor, Mitxelenak dioten bezala, ez da konparatiba. Hirugarrenik, konparatibak ala kausalak ala bestelakoak diren alde batetara utzi eta ezer baino lehen forma aztertzea hobe dela uste dut; balioa zein den, gero erabaki beharko da testu inguruari eta zentzuari begiratu.

Axularren *nola* guztiak 445 dira eta guri hemen dagozki-gunak hiru talde handitan bildu eta sailka daitezkeela uste dut: apodosian dagoena, protasian dagoena eta galderazko adverbioa. Azter dezagun talde bakoitza.

(11) Akesolo, L. de: 1545. *Bernat Dechepare. Olerkiak*, Donostia, Edit. Txertoa, 1968, or. 33.

(12) Villasante, L.: *Sintaxis de la oración compuesta*, Oñate, Edit. Francisca-na Aranzazu, 1976, or. 121-123.

(13) Villasante, L.: *Sintaxis de la oración compuesta*, Oñate, Edit. Francisca-na Aranzazu, 1976, or. 123.

A. APODOSIA .

Jarrera honetan beti hartzen du *nola*-ren adizkiak *bait*-. Hona aipamen bakarra:

“Erraiten du Aristotelek on dela alferkeriaren herritik khentzeko eta desterratzeko eta herrien ere bere erregeren edo bertzeren kontra iaikitzetik begiratzeko, zenbait obran handiren hastea, zenbait dorreren edo gazteluren egitea eta hetan iendearen enplegatzea. NOLA ageri BAITA...” (15).

Eta beste 37 pasartetan orobat. Honako hauetan *nola*-k ez du protasian bere kideko partikularik, *nola*-ren korrelativa edo daitekeenik, baizik eta bera bakarrik dago, nolazpait esateko. Ondoren aipatuko ditudan hiru sailetan, aldiz, protasian ageri den beste adverbio bati lotzen zaio eta harengandik dago zintzilik bezala. Hauek hirutarakoak dira. Hiru sailok elkarren antzeko direnez gero, elkarren antz hori hobeki ager dadin, batera idatzirik emango ditut. Hona:

HANBAT... NOLA
HAIN... NOLA
HALA... NOLA...

HANBAT, HAIN, HALA (kuantitatezkoa, kualitatezkoa eta adverbio modala) euskaraz noiz eta nola erabiltzen diren dakiena berehala konturatzen da gauza batez: HANBAT + NOLA Axularrek maiz darabilen BEZANBAT berbera dela, bitan banatua; HAIN + NOLA, berebat, BEZAIN erditik ebaki eta bi zati egina; eta azkenik HALA + NOLA bestetan BEZALA dioen berbera. Hots, Lafonek dioen bezala, hizkuntza erromanioken arabera Axularrek, eta gainerakoek ere bai, bat bitan banaturik ematen dute. (Etxeparek ere baditu horrelako bizpahiru.) Har dezagun exenplu bana:

“Baldin egin baliz euskaraz HANBAT liburu NOLA egin baita latinez...” (10).

hori honela esan zezakeen: “...latinez egin den BEZANBAT liburu”.

“Zeren halatan ez lizateke euskara HAIN labur, eskas eta ez hertsi, NOLA munduak uste BAITU...” (10).

hori ere bai honela: “...munduak uste duen BEZAIN labur...”.

“Ezta... harrik haragia HALA... gastatzen duenik NOLA konzientzia gaixtoak egiten baitu” (274).

eta hau berebat honela: “...konzientzia gaixtoak egiten duen BEZALA haragia gastatzen duenik”. Hirurok, beraz, elkarren kide dira, ageri denez, eta bikotea ez da euskarak bereago duen beste adverbio baten destolestatzea baizik. Beste kontua da, baina hemen ez dut xehetasun guztietarako astirik, zergatik darabilten Axularrek eta bestek horrelako bikoteak; hobeki esan, noiz darabilten euskal forma eta noiz hizkuntza erromanikoen kutsukoa. Dena dela, aipatu ditudan pasartee-tan *nola*-ren adizkiak *bait*- hartu du; hala behar ere, apodosian *bait* dago. Baina ez da nahitaezko *nola*-ren perpausak era horretako esaldietan adizkirik izatea; batzuetan hiru sail horietako *nola* adizkirik gabe dago; adizkirik baldin badu, ordea, beti *bait*- hartzen du. Hona adizkirik gabeko bana:

“Anhitzetan egiten derakute etsaiek HANBAT ongi eta ontasun NOLA adiskideek” (16).

“Zeren Iainkoa HAIN da iustiziati NOLA miserikordios” (90).

“Nik uste dut ezen munduko ararteko guztiek eztezake-tela zure etsaia HALA balaka eta ez sosega NOLA zero-rrek” (196).

Diodan azkenik batzuetan HALA adverbioetik sortutako HALAKO adjetivoaz baliatzen dela eta hori ageri protasian; lau bider. Ikus bat:

“...baina erremedio naturalik, haragiaren tentamendu guti izaiteko, ezta HALAKORIK NOLA ez usatzea” (253).

Zer esanik ez, hor bikotea BEZALAKORIK ipiniaz esan zitekeela.

Bada oraino apodosian beste modu batetako *nola*. Adibide bat emango dut eta beste gabe ohartuko zarete zeinezaz ari naizen:

“Baina zeren komunzki HALA eskiribatzea NOLA min-zatzea nori berea iduritzen baitzaika hoberenik...” (10).

Latinezko “*tum... cum...*” delakoaren pareko da hau. “*Tum... cum...*” diot, ez “*cum... tum...*” edo besterik, latina pixka bat dakienari nabari zaion arrazoiagatik.

B. PROTASIA

Hemen ere, oraintsu ikusi dugun gisara, protasian dato-
rren *nola*-k izan dezake apodosian bere korrelaziozko hitza,
hala, baina ez da nahitaezko. Nahiz izan nahiz ez, protasiko
nola-k ere beti erasten dio adizkiari *bait*- Axularrengan. En-
tzun exenplu bana:

“Ordea NOLA EZPAININTZEN neure buruaz fida,
desenkusatu nintzen ahal bezanbat” (6).

Honelako 63 kontatu ditut obran barrena.

“NOLA hegaztinari emaiten BAITZAITZA hegalak aira-
tzeko eta hegaldatzeko, HALA gizonari ere emaiten zai-
tza eskuak traillaatzeko” (20).

Honelakoak 74 dira. Batzuetan *hala* ordez *halatan* ira-
kurtzen dugu apodosiaren hasieran; hamabi aldiz. Eta kito,
protasian ez da beste *nola*-rik.

D. GALDERAZKOA

Honi buruz ez nuke deus ere esatekorik, baldin esapide
batek atentzioa eman ez balit. Bost bider aurkitu dut liburuan
barrena eta, egia esan, berandu arte ez nintzen konturatu zer
zen, gramatika aldetik okerra iruditzen bait zitzaidan, eta
geroago Villasantek ere bere liburu batetan ukitzen zuela iku-
si nuenean, ez bait ninduen haren explikazioak, egia esan,
lasai utzi. Honela dio Axularrek ageri den lehen pasartean:

“Bahi bat tabernara arnozun igortzen duzunean, gazti-
gatzen diozu tabernariari eduki dezala zenbait egunez
bahi hura, eta heken buruan atherako duzula. Baina zuk
nola atherako duzun ezen barrenago sartzen duzu”
(54).

Beste laurak laburkiro aldatuko ditut, zertan diren ber-
dinak ikus dezazuen:

“Baina zu nola aitzinatuko zaren ezen gibelatzen
zara” (101).

“...eta... nola bereak emanen dituzten ezen bertzere-
nak ebatsten dituzte” (155).

“eta nola mendekatuko zen ezen besarka bere anaiei lothu zeien...” (218).

“Eta zuk... nola egotziko duzun ezen hartan zaphorazten zara...” (242).

Villasantek esapide honi buruz honela dio: “*Nola... ezen...* “Cómo..., si...” Hemos dudado mucho sobre el lugar en que debíamos incluir este giro. En él se corresponden el *Nola*, tomado como interrogativo, con *Ezen*. Expresa una contraposición: “Cómo has de hacer una cosa, si precisamente haces la contraria...”. La oración que lleva el *Nola* tiene la *-n* sufijada al verbo. Bajo este aspecto este giro se asimila a las oraciones interrogativas indirectas” (14). Eta Mitxelenak bere alde tik hauxe erasten dio orripean: “Estas parecen interrogativas indirectas, pero la cosa queda imprecisa por falta de contexto”.

Batetik *nola*-ren adizkiak *-en* atzizkia du eta beste gabe zehar galdera dirudi esapide horrek, zeharka esana zein aditzen edo hitzen mendean dagoen ageri ez bada ere, eta hainbestez elipsi baten aurrean gaudela aitortu behar badugu ere. Bestetik, eta hau da punturik ilunena, ene ustez, *ezen*-i dagokion adizkiak ez du *-(e)la* atzizkirik ez *bait*- aurrizkirik, bestetan ohi duen bezala. Villasanteren ustez *nola* eta *ezen* “se corresponden”, bere hitzez esateko, eta badirudi, garbiro esaten ez badu ere, *nola* lehen perpausari bezala, *ezen* bigarrenari dagokiola. Ene ustez, ez; ene ustez, *ezen*-i darraikion perpausa nagusia da, *ezen*-ekin zer ikusirik ez duena, eta *ezen*-ek *nola*-ren perpausa osatzen du. Honela ebaki behar da, beraz: “Baina zuk nola atherako duzun ezen barrenago sartzen duzu”, guk *nola atherako duzun ezik* esango genukeena eta itzulpenari nagokiola “lejos de, además de (no saber) cómo retirarlo” edo eman behar litzatekeena. “No saber” edo hala-ko zerbait da, beraz, elipsia.

Hori dela bide, Villasantek Axularren *nola*-z gorago esan diguna “Esta clase de oraciones se construyen con *Nola*... El verbo de la subordinada lleva el prefijo *bait*-, o, en su defecto, el sufijo complementario *-n*”, honela züzendu behar da ene ustez: “El verbo de la subordinada lleva siempre el sufijo

(14) Villasante, L.: *Sintaxis de la oración compuesta*, Oñate, Edit. Francisca-
na Aranzazu, 1976, or. 123.

bait-, tanto en la prótasis como en la apódosis". Hala ikusi bait dugu eta *-n* duten *nola* perpausok *nola* konjuntzioarekin zer ikusirik ez bait dute, zehar galderazkoak direnez gero eta horien *nola* adverbioa.

Lafonek bere aldetik Etxepareren *nola*-z esan diguna, berriz, honela: "*Nola*: con una forma verbal provista del prefijo *bait-* "como, del mismo modo que" (Pref. 15; I, 411; V, 25; XIII, 98), o bien "como, dado que" cuando va en la apódosis (I, 75); carece, en cambio, de *bait-* y del sufijo relativo, cuando está en la prótasis (I, 226; II, 96; X, 24); cuando la forma verbal lleva sufijo relativo, *nola* no es conjunción, sino adverbio (I, 126)".

Erka ditzagun orain, lan hau amaitzeko, Etxepareren eta Axularren *nola* perpausak. Etxeparek ez dio *bait-* erasten *nola*-ren adizkiari protasian dagoenean (I, 226; II, 96; X, 24); bai, ordea, apodosian dagoenean (I, 75). Axularrek, aldiz, beti erasten dio, bai protasian bai apodosian.

ARRASATE, 1979-XII-22

ERLATIBOAK IDAZLE ZAHARRENGAN

Arrasate, 1979-XII-22

Rudolf P. G. de Rijk
Leiden-go Ikastetxe Nagusian

Aurreko hitz bi:

Idazburu hau lan honi ekitean baino lehen emana nuen eta zen bezala utzi dut. Hala ere, zabalegia da nere lan apal honentzako. Euskal idazle zaharrek erabilitako erlatibosistema behar bezala aztertzeko lan luze-luze bat beharko litzateke, eta gaiak merezi lukeen hainbat egiteko astirik eta kemenik ez dut izan.

Bidaliko nuen ala ez, zalantzan ibili naiz, eta azkenean lantxo hau dagoen bezala argitaratzen badut, arrazoi bakar batengatik dela aitortu beharrean nago. Euskaljoskera sailean hainbeste zor diodan Altube-tar Seber maisuaren oroimen argitsua ospatzen dutenen artean huts egin nahi ez nukeelakoa, alegia.

I. ERLATIBOA ZERTAKO?

Berehala gaian sartzearren, begira diezaiozun honako esaldi honi:

1. Aitak irakurri nahi du amak erre duen liburua.

Zer jakiten dugu hori entzunik? Aitak liburua irakurri nahi duela, alegia. Jakite hau perpaus nagusiari dagokio:

1a. Aitak irakurri nahi du liburua.

Jakin ere, gehiago dakigu. Zein liburu irakurri nahi duen aitak dakigu ere: amak erre duena. Hori, perpaus erlatiboari esker dakigu:

1b. Amak liburua erre du.

Ohar gaitezen, bidenabar, (1)b hau egiaztat ematen dugula nahitaez, esaldi (1) esatean. Eta egiaztat ematen duguna ez da 'amak zerbait erre duela' bakarrik, 'amak liburua erre duela' ere bai.

Esaldi (1) entzutean, *liburu* hitza behin baizik ez dantzugu. Gramatikalariek diotenez, esaldiaren azaleko egituran *liburu* hitza behin baizik ez dager. Bainan esaldi horrek daukan erlatiboa berez ikertu nahi badugu, hor *liburu* hitza sartzeari egoki zaigu analisisa egiteko. Horrengatik perpaus erlatiboa *amak liburua erre du* dela esan dugu, ez *amak erre du* bakarrik.

Hori dela eta, esaldiaren sakoneko egituran *liburu* hitza bitan dagerrela diote gramatikalariek. Honelatsu, alegia (1):

(1'). Aitak irakurri nahi du amak liburua erre duen liburua.

Era berean, esaldi (2) -ri begiratzen badiogu, sakonean (2') dela ikus dezakegu:

(2). Atzo etxea saldu nion gizonak dirurik ez du.

(2'). Atzo etxea gizon bati saldu nion gizonak dirurik ez du.

Azaleko egitura ez badago ere, sakoneko egitura agertzen den izen sintagma hau "isilekoa" deituko dut. Hemen, beraz, *gizon bati*.

Azaleko egituraraino irauten duen izen sintagma "ondokoa" deitzen du Goenaga-tar Patxi aitak bere *Gramatika bideetan* deritzan liburuan, eta nik ere hala deituko dut.

Azken adibidean ikusten denez, isilekoak eta ondokoak atzizki ezberdinak eraman ditzakete: *gizon bati* eta *gizonak*.

Ba-liteke, esaten ez den zerbait sakoneko egitura sartzeari gramatikalarien joko huts bat iruditzea. Bainan ez dut uste hala denik. Hiztun arruntak ere, esaldia ulertzeko beste

(1) Esaldiaren egiazko sakoneko egitura, hori baino askoz korapilotsuagoa da. Baina ematen duen forma hau gure oraingo xedeetarako nahikoa da.

horrenbeste egiten duela uste izateak bidezkoa baitirudi. Bihur gaitezen orain lehengo harira.

Esaldi (1)-ean eta beste honelakoetan, perpaus erlatiboaren eginbeharra bistan dago. Perpaus nagusiak liburu bat aipatzen digu eta erlatiboak adierazten nongo liburua den. Eginbehar hau, ordea, nola betetzen du erlatiboak?

Erlatiboak, perpausa baita, egokera nahiz egikera marrazten digu. Lehengo adibidean, amak liburua erre duela-koa, eta bigarreanean, atzo etxea gizon bati saldu niolakoa. Erlatiboak, nolabait esateko, dei giten digu: begira nik aurkezten dizudan egikera horretara, hor aurkituko baituzu bilatzen duzun zera. Nongo liburua? Amak liburua erre delako kontu hartan dagoen liburu bera. Nongo gizona? Atzo etxea gizon bati saldu niolako kontu hartan dagoen gizon bera. Holaxe laguntzen digu erlatiboak esaldia ulertzen.

Aurten Mundaizen egindako mintzaldian (2) azaldu dudanez, erlatibo-atzizkia *-n* da, lokatibo-atzizkia bezala. Honen zergatiaz orain erraz jabetzen gara, erlatiboaren egin-kizuna ikusirik. Perpaus erlatiboak ondokoaren nor-izatearen giltza non dagoen erakusten baitigu, bera lokatiboan jarritako perpaus bat izateak ezin egokiago dirudi.

Neurria ez pasatzeko, gauzatxo bat euki behar dugu gogoan, hala ere. Erlatiboa genitibotzat jo dutenak ugari badira ere, lokatiboa dela ez du inork orain arte baieztatu. Horrekin ikusten da ez direla gaurko euskaldunak erlatiboak lokatiboarekin duen zer-ikusiaz konturatzen. Egia esateko, lokatibo atzizki hutsa tokiizenetan bakarrik agertzen den ezkerreko, bestetan beti (*g)an* edo *-tan* erabiltzen delarik, ez da batere harrigarri oraingo hiztunak erlatiboan den lokatiboaz ez ohartzea.

Izan daiteke, beraz, gaurko hiztunen gogoan erlatibo-atzizkia eta lokatibo-atzizkia bat ez izatea, baina euskarazko erlatiboa lokatiboaren bitartez sortu dela ez dut zalantzarik egiten.

Orain, argibide horietarik zer ondore atera dezakegun ikus dezagun.

(2) *Euskalmorfologiaren zenbait gorabehera* izeneko mintzaldi haren textua E.U.T.G.-k sarri argitaratuko duelakoan nago.

II. ERLATIBO MUGATUAK ETA MUGAGABEAK

Ba omen dira bi erlatibo mota: mugatuak edo restriktiboak eta mugagabeak edo esplikatiboak. Zer alde dago horien artean? Hona hemen: bigarren motako erlatiboa duen esaldian, ez dugu erlatiboaren beharrik ondokoa zertaz mintzotzen jakiteko. Adibidez:

(3). Guztia dakien Jaungoikoak barkatuko dizu.

Hemen, erlatiboa kenduta ere, esaldia lehen bezain argi dago:

(3)a. Jaungoikoak barkatuko dizu.

Beraz, erlatiboa hemen mugagabea dugu.

Erlatibo mugatuetan bestela gertatzen da:

(4). Goizean ikusi dudana emakumea zure izeba ahal da?

Hor, erlatiboaren beharrean gaude *emakume* hitzaz nor aipatzen dugun jakiteko:

(4)a. Emakumea zure izeba ahal da?

Esaldi (4)-ren ordean (4)a esaten badut, "ez dakit zein emakumez ari zaren" egoki erantzun lekidake. Mugatua da, beraz (4)-k daukan erlatiboa.

Gorago esan dudana egia bada, hiztunak erlatiboaren jatorriaz ohartzen zireino, *-n* atzizkia duten erlatibo guztiek mugatuak izan behar zuten nahitaez, erlatiboaren eginkizunaz niona mugatuei baitagokie soil-soilik. Behialako batean, beraz, ez bide zegoen *-n* atzizkiarekin moldaturikako erlatibo mugagaberik.

Abialdiak honaino ekarri gaituelarik, ideki dezagun Goenaga-tar Patxi aitak idatzi duen liburu bikaina, *Gramatika bideetan* deritzana. Hor, hauxe irakur daiteke 297. orrialdean: "Euskaraz, *bait-* erabiltzen ez badugu, ez dugu *erlatibo ez restriktiboak* (edo *esplikatiboak*) sortzeko modurik".

Hori esanez, gaurregun ere *-n* -dun erlatibo arrunta beti mugatua dela aitortzen digu gramatikalarik horrek. Hizkuntzaren hutsak gidaturik ote dio hori? Ez dakit, baina hala dirudi, ezpaitigu beste zernolarik ematen. Ba-daiteke, beraz,

Goenagaren mintzaeran dioen bezala gertatzea. Hala balitz, indartu egingo lirakete erlatiboa dela eta agertu ditudan sinistreak.

Beste zenbait indargarri ere ba-da.

Izen-ordain pertsonalak ondoko dituzten erlatiboak mugagabeak izango dira nahitaez. Honelakoetan, *bait-* ez baliatzen diren euskalkiek ez dute eragozpenik:

(5). Lehenago hi baitintzan lengoajetan azkena, orai, aldiz, izanen iz orotako lehena. (Etxepare.)

Besteek bai, ongi baitakigu ez dagoela inongo euskaran
(6) bezalako esaldirik:

(6). *Berandu etorri naizen nik ez dakit zer gertatu den.

Honen ordez (7) bai erabiltzen da:

(7). Berandu etorri naizen honek ez dakit zer gertatu den.

Erlatibo honen ondokoa *hau* erakuslea dugu, azaleko egituran behintzat.

Erakusledun ondokoek erlatiboak nola onartzen dituzten ez da erraz esaten.

Hemen auzi horretan ezin sar gaitezke. Behar bezala garbitzeko, erakusleek sakonean nola jokatzen duten zehatz-mehatz aztertu beharko litzateke eta. Goazen, bada, aurrera.

Pertsona bati dagokion berarizko izena edo izen propioa ondoko duen erlatiboa mugagabea da beti, ezpaitu izen horrek erlatiborik beharrik izendatzen duena aipatzeko. Beraz, hurrengo esaldi honek daukan erlatiboa mugagabea da, ondokoa *Meltxor* baita:

(8). Ala, batian, nere gantzontzilluak jartzera dijuela, esan zion erdiko gelan dagon Meltxorrek... (3).

(3) Ikus, Iraola Aristiguieta: *Oroitzak ta beste ipui asko* (Tolosan 1962), 15 orr.

Orobat, mugagabea da (9) hau:

(9). Nik asko maite zaitudan Andone: (4).

Lehengo batean, erlatibo mugagaberik ez bazen, 8 eta 9 bezalakorik ere ezin izan zitekeen. Hau Larramendi ospe-suak egiaztatzen du: "Cuando el nombre que viene con relativo de persona que hace es nombre propio de hombre o mujer, no se hace en bascuence la oración por relativo, sino por otros modos equivalentes. 1.º por ablativo absoluto: *Pedro aimbeste izanic, certacó naidu gueiago?* Pedro que tiene tanto, para qué quiere más? 2.º con la partícula pospuesta de los verbos determinantes y determinados: *Pedroc aimbeste due-lá, certacó*, etc. 3.º Con las partículas condicionales: *Pedroc aimbeste baldin badeu, certaco*, etc.

Horiek ditugu erlatibo mugagabeak betidanik ez direlako aurkitzen ditudan seinaleak. Onenean gehiago ere aurki dezake ni baino jakintsuagoak.

Dena dela, behialako batean ez zela *-n* atzizkidun erlatibo mugagaberik erizten zait, aipatu ditudan arrazoiengatik. Behialako batean diot. Ba-dakit erlatibo mugagabe hek ez dutela huts egiten, ez gaurko gipuzkeran, ez eta iparraldeko idazle zaharrengan.

Gaurko gipuzkeraz denaz bezain batean, (3), (8) eta (9) adibideak ba-direla ikusi dugu. Gainera, euskaldun askori erakutsita ere, ez zizkidan inork esaldi hauek gaitzetsi, nere tesia egiten nuenean (6):

(10). Egunero kilo erdi bat txokolate jaten duen Beobide-tar Pantxika ez da bat ere gizentzen.

(11). Egunero kilo erdi bat txokolate jaten duen Beobide-tar Pantxikak txokolategile batekin ezkondu nahi du.

Ba-dirudi, beraz, ez direla Gipuzkoarrak erlatibo mugagabeen hain etsai.

(4) Ikus Lopez Mendizabal Ixaka-k egindako *Erdel-euskel alkarriketako idaztitxoak*, 222 orr.

(5) Ikus, M. de Larramendi: *El Imposible Vencido* (Bigar. Argit.), 152 orr.

(6) Ikus, Rudolf P. G. de Rijk: *Studies in Basque Syntax: Relative Clauses*. (Massachusetts Institute of Technology, Sept. 1972), 153 orr.

Iparraldeko idazle zaharretan, Leizarraga hautatu dut. Hor ere adibide franko agertzen dira. Liburu osoa ez dut aztertu, bainan zerrenda hau nahikoa da erlatibo mugagabeen ugariak konturatzeko. (Adibide hauetan erlatibo mugagabeak azpimarkatuko ditut.)

(12). ...*Iesus Christ gure Iaunac bere domesticoey eta fideley baicen emaiten eztrauzten* vianda saindu hauc pollui eta satsu eztitzatençat. (*Cenaz*, Biii (v).)

(13). Gaineracoaz, *trebucatu gabe beguira, eta bozcariorequin irreprehensible bere gloria aitzinera eraman ahal çai-tzaizqueten* Iainco zuhur bakoitzari. (S. Iuda, 24.)

(14). Baldin nehorc erran badeça, Maite dut Iaincoa: eta bere anayeari gaitz badaritza: gueçurti da: ecen bere anaye dacussana maite eztuenac, *ikusten eztuen* Iaincoa nola maite ahal duque? (S. Ioan. I, IV-20.)

(15). ...*laudorio gucia appartenitzen çayon* Iaincoa bai-than glorifica ledinçat. (*Advertimendua*, o.)

(16). Haur da *beguiraz dituen ardiéz arrangura handia duen* Iacob artzain iratzarria. (*Advertimendua*, vii (v).)

(17). Haur da *bere gloria guciarequin bere anaye bachoén eta on-beharrén eçagutzea eta recebitzea laido içan etzayon* Ioseph anaye gogaberá eta ona. (*Advertimendua*, vii (v))

(18). Haur da *bethierecotzat behingoaz sacrificio equin ukan duen* Melchisedech Sacrificadore eta Ipizpicu handia. (*Advertimendua*, vii (v))

(19). Haur da *bere Leguea gure bihotzezco tauletan bere Spirituaz scribatzen duen* Moyses Legue-eçarle subiranoa. (*Advertimendua*, vii (v))

(20). Haur da *puissança desobedient gucia bere suiectionera erekartan duen* David victoriosoa eta noblea. (*Advertimendua*, vii (v))

(21). Haur da *baque eta prosperitate onetan bere resu-má gobernatzen duen* regue Salamon triumphantia eta magnifico. (*Advertimendua*, viii (r))

(22). Haur da *bere herioaz bere etsayac accablatu eta desequin dituen* Sanson erscona eta verthutetsua. (*Advertimendua*, viii (r))

Ohargarria da, bestalde, *bait-* aurrizkiarekin moldatutako erlatiboak mugatuak izan daitezkeela Leizarraga-ren lumapean:

(23). Baina ethorriren dirade egunac edequiren baitzaye ezcondua eta orduan barur eguinen baituqueite. (S. Mattheu, IX-15.)

Eta berriz ere,

(24). Baina ethorriren dirade egunac edequiren baitzaye ezcondua, eta orduan barur eguinen duté egun hetan. (S. Marc II-20.)

Erlatiboa mugagabea eta ez mugatua dela adierazi nahi duenean, beti *zein* hitzaz baliatzen da Leizarraga. Adibidez:

(25). ...emanen draucat iatera vicitzeco arboretik cein baita Iaincoaren paradisoaren erdian. (Apoc. II-7.)

Hor "Iaincoaren paradisoaren erdian den vicitzeco arboretik emanen draucat iatera" ipini balu, beste zenbait tokitan ere bizitzeko arboreak daudela pentsa zitekeen, erlatiboa mugaturik bezala hartu ezkeroz.

Leizarraga-ren joskera uste izaten den baino garbiagoa dela esatera ausartuko nintzateke hemen. Nabari baita ez duela *zeineta* abar nolanahi erabiltzen, beti jakinaren gainean baizik, esaldia ilunegi edo itsusiegi geldi ez dadin. Esate baterako (26) bere *zein* eta guzti ez dago batere gaizki, nere ustez:

(26). Eta eriden ceçan han Eneás deitzen cen guiçon bat ia çortzi urthez ohean cetzanic, cein baitzén paralytico. (Apos. Act. IX-33.)

III. ERLATIBOETAN ISILTZEN DIREN POSPOSIZIOEZ

Erlatiboaren isilekoa zer den gogora gaitezen. Posposizio edo erlazio-atzizkia eraman dezake isileko honek. Adibidez:

(27). Gutiago barkatzen çayonac gutiago onhesten dic. (Leiz. S. Luc. VII-47.)

Erlatibo honetan, isilekoa *hari* da, noritasun-atzizkiarekin.

Isilekoa isiltzen dugu azaleko egituran, eta horrengatik, noski, daukan atzizkia ezin daiteke edozein izan, erlatiboak ongi ateratzea nahi badugu. Esate baterako:

(28). *Eskerrak ematen ditudan liburuak laister irakurriko ditut.

Esaldi hau ezin ontzat eman, ezin igarri baitzaio liburu horiengatik eskerrak ematen ditudala.

Beraz, erlatibo pasagarri baten isilekoak zein posposizio eraman ahal dezake? Nere tesia egiterakoan, galdera honi erantzuten saiatzen nintzenean, bi euskaldun mota direla idoro nuen.

Ba-dira soilki erlatiboko aditzean eskuhartzen duten isilekoak onartzen dituzten hiztunak. Horiek ez dute onartzen (29) hau:

Besteek, ordea, erizpide zabalagoa dute, lehengoez gainera *-n*, *-ra*, *-tik* eta *-z* atzizkia duten isilekoak ere onartzen baitituzte. Adibide bana ipiniko dut:

(30). Laister joango aiz, Arantxa, beste maitasun batzuek izango ditunan etxera. (Martin Itziar Aguirre, *Larraundiko sendia*, 23. orr.)

(31). Eta ziur egon, zu lekaime sartuko zeran etxe ura, nik kixkali-eraziko dedala su ta gar. (A. Albisu Ayerdi: *Erreka-zuloan...!*, 43. orr.)

(32). Zoaz etorri ziñan lekura! (A. Labayen, *California... ku-ku!*, 149. orr.)

(33). Zuek ez zenduten gu ohartu ginen arriskua ikusten.

Jo dezagun orain idazle zaharrengana, auzi honetan nola jokutzen duten ikusteko.

Isilekoa lokatiboan duten adibideak non-nahi agertzen dira. Aurkitu ditudan guztiak ezartzea luzeegi litzateke eta, baten batzuek bakarrik aipatuko dizkizuet:

(34). Arech asco dan urtea, besteac bano ez ohea. (R. S. 109.)

(35). Hora il daguien mendian guiçona idoro ez didila. (Garibay, G. 139-52.)

(36). Aca donde yo estoy: ona, ni nagoan lequra. (Lan- duchio, 227 v, 50. orr.)

(37). Andre hona den lekhura ailtxa itzak begiak. (Etxe- pare.)

(38). Eta hec bethiere usatzen çuten bere lehen ceuden hirico leguez, çuçenez eta privilegioéz. (Leizarraga, ã, ii (v).)

(39). Eçagut eraci ieçaguc ebili behar garen bidea. (Leiz. ABC, *Othoitzak*, Ps 143.)

-ra atzizkia duen isilekoa daukan erlatiborik ez dut aur- kitu idazle zaharren textuetan, bai, ordea, -tik atzizkia duen isilekoko bat:

(40). Itzuliren naiz neure ilkhi naizen etxera. (Leiz. Mat. XII-44.)

Isileko instrumentala duten adibideak ere ba-dira. Hona bi:

(41). Eta ecin phoroga citzaqueé ni orain accusatzen nauten gauçac. (Leizarraga, *Apost. Act.* XXIV-13.)

Leizarragaren mintzaeran *accusatu* aditzak atzizki ins- trumentala eskatzen du: *Eta anhitz gauzaz accusatzen çutén hura Sacrificadore principaléc.* (Marc, XV-3.)

Hura cerçaz accusa lutençát. (S. Ioan., VIII-6.)

Hilén sperançáz eta resurrectioneaz ni accusatzen naiz. (Apost. Act. XXIII-6.)

Mereci onez arintassunez accusa ahal neinde. (Eskein- hitzak, 1.)

(42). Nic igorri çaituztet nekatu etzaretenaren biltzera. (S. Ioan. IV-38.) ("Ego misi vos metere quod vos non laboras- tis.")

nekatu aditzak instrumentala eskatzen du, hala nola: *eskerrak ematez ez zen nekatzen*.

Dakigunez, erlatibo baten isilekoak eta ondokoak atzizki bera dutenean (edo hobeki esateko, era berdineko atzizkia), erlatibo hau ontzat hartzen da beti. Hona hemen, horri esker ongi dagoen erlatibo bat:

(43). Cergatic gaichto iudicatzen naiz nic esquerrac emaiten ditudan gauçagatic? (Leiz. 1 *Cor.* X-30.)

Gehienetan, isilekoak *-gatic* atzizkia daramanean, erlatiboa ez da ongi ateratzen, esaldi (28)-an ikusi dugunez. Baina hemen bai isilekoak bai ondokoak *gatic* atzizkia daramatela-ko, oso ongi gelditzen da (43) hau.

Azkenean, adibide guzti horiek ikusita, sistima zahar-aren eta gaurkoaren artean ez dela alde haundirik nabaritzen esango nuke, orain gagozkion arlo honetan behinik behin.

IV. JOSKERA BITXIA

Erlatiboa bere ondokoaren aurrean ipini ohi dugu:

(44). Behin ba-zen hiru seme zituen errotari bat.

Egitura hori apur bat aldatzen ere ba-dakigu:

(45). Behin ba-zen errotari bat hiru seme zituen.

Bainan erlatiboa bere ondokoaren atzean daukan esaldi (46) hau, ez da, dakidanez, gaur asko erabiltzen:

(46). Behin ba-zen errotari hiru seme zituen bat.

Idazle zaharren textuetan, ordea, erruz aurki daiteke (46) bezalakorik. Adibide batzuek aipatzera noa:

(47). Artu-eguisu beyñ onaco trapu iqusleac ecarridituanac. (Micoleta, *Modo breve de aprender la lengua Vizcayna*, 30 orr.)

(48). Memoria ene gasaben trapu ycusleac eroan eguisanena. (Micoleta, 30 orr.)

(49). Cure pena dioçunoc... (7) (Etxepare.)

(50). Monument agueri eztiradenac beçala çareta. (Leiz. *S. Luc.* XI-44.)

(51). Prophetén hitz Sabbath guciatz iracurtzen diradenac complitu ukan dituzté. (Leiz. *Apost. Act.* XIII-27.)

(52). ...ceren ezpaitituc sinhetsi ene hitz bere demborán complituren diradenac. (Leiz., *S. Luc.*, I-20.)

(53). ...bere anaye dacussana maite eztuenac... (Leiz. *I Ioan*, IV-20.)

(54). Ceren ikustera ilki içan çarete desertura? canabera haiceaz erabilten den baten? (Leiz. *S. Luc.* VII-24.)

(55). ...guiçon abillamendu preciosoz veztitu baten? (Leiz. *S. Luc.* VII-25.)

San Mateoren itzulpenean bestela jokatu du, ordea:

(56). Ceren ikustera ilki içan çarete desertura? haiceaz erabilten den canabera baten? (Leiz. *S. Mat.* XI-7.)

Baina *Mat.* XI-8, *Luc* VII-25 bezalaxe dago.

(57). ...emazte testificatu çuenaren erranagatic. (Leiz. *S. Ioan*, IV-39.)

Erronkarin joskera hau ere ezaguna zen. Azkuek honela ematen digun esan zaharra: *min emoiten daian agina arranka zak*, Urquijok hola ematen baitigu:

(58). Agin min emoiten dayana arranka zak (8).

Bitxia deritzaigun joskera hau erdalkeriatzat jotzekoa ahal da? Ba-da halaxe uste duenik, baina nik ez dakit hala ote den. Har beza hitza nik baino gehiago dakienak.

(7) Lino Akesolok prestatu duen argitalpen berrian, hitz horiek zeharo aldaturik agertzen dira. Akesolok *zure penak diotzunak* jarri baitu, (45) esaldiaren eredur.

(8) Ikus, R. M. de Azkue, *Particularidades del dialecto roncalés*, 278 orr. eta J. de Urquijo, *Los Refranes de Garibay*, XXI orr.

PERPAUS KAUSALAK LAPEYRE IDAZLEA BAITAN

Arrasate, 1979-XII-22

Fr. Luis Villasante
M.^a Pilar Lasarte

1. *Idazlearen eta liburuaren berri laburra.*—Etienne Lapeyre apaizari buruz berriak *Euskera* aldizkarian datoz, P. Lafitte jaunak emanak (1976, 111) eta bai L. Villasante-ren *Historia de la Literatura Vasca-n ere* (2.^a ed., p. 190). 1840an jaioa eta 1893an hila. Azkainen sortu zen. Beraz, bete-betean lapurtarra dugu, bai euskalkiz eta bai eskualdez.

Apaiztu ondoan Baionako Saint-Léon ikastegian Filosofia irakasle izan zen, eta gero Bidart-eko erretore. Osasun eskasiagatik erretorgoa utzi behar izan zuen. Gero ohorezko kalonje eta Camp-de-Prat xahartegiko kapeilau egin zuten. "Conferences ecclesiastiques" direlakoen buru ere jarri zuten elizbarruti osorako. Hortik ageri da jakintsu handitzat zeukatela Apezpikutegian. Gazterik hil zen, 53 urterekin, alegia.

Liburu bat utzi digu, 1891.ean Baionan inprimatua: *Credo edo Sinhesten dut Esplikatua*. Liburu hau hartzen dugu aztergai. Dirudienez, egilearen gogoan obra hirukoitz baten lehen atala baizik ez da, baina heriotzeak galerazirik ez zuen bere asmoa bururatu ahal izan. Beraz, egin gogo zituen hiru liburuetarik batto hau bakarrik utzi digu.

Esan behar da, halere, ezagutzen dela idazle honek idazitako beste zerbait. 1892an liburu bat argitaratzen da Baionan *Hazparneko Kalbarioa* izenaz. Apaiz askoren predikuak datoz bertan. Bi gure Et. Lapeyre-renak dira: "Jesus Olibetako baratzean" eta "Jesus Judasez saldua".

Guk *Credo* izeneko liburua soilki aztertu dugu.

Zer moduzko liburua da berau? 438 orrialde ditu. 4 partez eta 60 kapituluz osatua da. Axular-en *Gero*-k ere 60 kapi-

tulu ditu, baina Axular-en kapituluak gehienetan luzeagoak dira. Lapeyre-ren liburua, beraz, Axular-ena baino zerbait laburragoa da hedaduraz, nahiz eta beharbada ez asko laburragoa.

Liburuaren edukinari bagagozkio, esango genuke Lapeyre-renak ez duela Teologia jakintsuaren maila jotzen, noski, baina eliz prediku arrunten maila, bai, gainditzen duela. Tartean bada Katekesi maila deritzana: hor uste dugu kokatu behar dela liburu hau (1).

Zernahi gisaz, gauza bat dago garbi: liburu hau ez dela eliz prediku batzuen bilduma, zati batzuk beharbada elizan predikatuak izan badira ere. Erabateko batasun trinkoa du. Liburu bezala eta xede jakin batekin egilearen buruan kontzebitua izan da, eta gero, kontzebitu bezala idatzia eta argitara emana. Ez da, bada, ongi elkarganatzan ez diren gaiez osatua. Hasieratik hartu duen xedeari jaurtikitzen dio etengabe eta bere xede horretatik ez da sekula saihesten (2).

Idaztankeraz eta estiloz zer kalitate maila du liburu honek? Ez dakit engainaturik egongo naizen. Beharbada guztiz sujetiboa izango da ene iritzia. Teologi ikasle nintzela, liburu honekin topo egin nuen. Ordurako ezagutzen nuen Axular, baina ez Iparraldeko beste autorerik. Iparraldeko euskaldunak ipuinetako euskaldunak ziren enetzat. Bainan irakurria nuen Ibar-en *Genio y Lengua*, zeinetan aurrez-aurre jartzen baitira Iparralde eta Hegoaldeko literaturen joera eta dohainak, hangoak goratuz, noski, eta hemengoak jorratuz. Eta egia esango badut, liburu hau irakurri nuenean guztiz maitemindu nintzen berarekin. Hemengoetan —behintzat gure arokoetan— eskas den zerbait aurkitzen nuen bertan: halako jario gozo eta maitagarri bat, naturaltasun bat. Egileak badaiki tresna —mintzaira— mamiaren zerbitzutan erabiltzen, eta ez alderantziz. Liburuan nabari da halako hurbiltze bat egi-

(1) Katekesi mailako lana dela diogunean, ez dugu inolaz ere esan nahi haurrentzat egina dela. Ez. Liburua girstino euskaldun arrunt eta helduarentzat egina da, dudarik gabe. Girstino honi nahi dio eman eskola sistematiko bat, berari egokitua, erlijioeko egien gainean.

(2) Egileak liburu bezala sortu eta gorpuztu duela obra hau ikusteko, aski da hirugarren zatian, 23 eta 24. kapituluetan (297 eta hurrengo orrialdeetan) datorenari ohartzea. Liburu honen mamiari buruz aspaldiko lagun batekin egileak izan duen elkar hizketa dator hor.

learen eta irakurlearen artean. Egileak irakurle guztiz konkretuak eta haragiz jantziak ditu begien aurrean, horientzat ari da eta horien egunoroko hizketa darabil.

Zein girotan idatzia da liburua? Frantzian hirugarren Errepublikak jarri zenean, halako egoera larria gertatu zitzaion Elizari. Eliza eta Estatuak mokoka bezala dira. Fraide eta serorak atzerrira jaurtiak izan ziren. Erlijioaren irakuntza eskoletarik kentzen da. Herrixka bakoitzean errieta —maisua— eta apaiza elkarren etsai dira. Herriko haurrak eskola nazionalera joatera beharturik daude; han ez zaie Jainkoaren aipurik egingo, eta egitekotan, erlijioa maxiatzeko izango da. Estatuak maisua pagatzen du. Apaizak, berriz, berak ikusiko du nola bizi.

Eta guretzat notatzekoa dena: Burruka honetan Estatuak frantses hizkuntza bakarrik aitortzen du. Elizak, aldiz, neurri handi batean, euskara darabil tresna bezala.

Persekuzio giro bat edo fedea erasotua delako giroa pizten da katolikoen artean (3). Halaz guztiz, edo beharbada egoera horrek berak eraginik, Iparraldeko Euskal Herrian halako loratze edo suspertze bat ezagutzen du orduan euskal literaturak. Inoiz entzun diot Iratzeder-i 1870 eta 1914.era bitartean urrezko aro edo mende-erdi bat ezagutu zuela Iparraldean euskal literaturak. Izan ere, aldi horretan idazle mordo polita dugu, eta ez dira nolana hiko idazleak, guztiz bikainak baizik. Ez idazleak bakarrik. Kazetariak, olerkariak, teatrolariak, gramatikariak ere bai. Horra izen batzuk: Arbelbide, Adema "Zalduby", Joannateguy, Hiriart-Urruty, Barbier, Etchepare, Elisamburu, Frère Innocentius, Lhande, eta abar. Horien artean sartu behar da, noski, gure Lapeyre ere. Osoki eta bete-betean aro horretakoa dugu.

Edukinari begiratzen badiogu, badu liburu honek bere garaiko marka, eta gaur onartuko ez genituzkeen zenbait ikuspuntu. Hertsiegia da agian. Badirudi harentzat Eliza barreneko dena dela zuri eta kanpoko dena beltz. Ez du agian begirik Elizatik kanpoan egon daitezkeen balioak ikusi eta aitortzeko. Gainerakoan, erlijioaren aldeko arrazoiketak eta kristau fedearen frogantzak betetzen du liburuaren parte

(3) Egoera politiko honi buruz, ikus J. Intxausti-ren saioa: *Iraultzaren hildotik*, Jakin 1972.

magusia edo gehiena. Razionalismo idor eta bista laburreko baten erasoei, inoiz molde bereko beste razionalismo batekin erantzuten diela esan genezake. Baina prosa mueta baten eredu da liburu hau, gure ustez (4).

2. *Aztergaiaren mugaketa*.—Perpaus kausalak Et. Lapeyre-ren liburuan: horra gure azterketaren gaia. Prosazko liburu luze samarra utzi digu Lapeyre-k. Prosa ongi egiten, perpausak ongi lotzen eta erreskadatzen daki. "Estilo lógico-discursivo" deitzen den hori ageri da nagusi liburuan. Orai bada: jite honetako liburuetan perpaus kausalek toki nabarmena dute. Lapeyre-gan ere halatsu gertatzen da. Beraz, uste dugu aukerakoa dela liburu hau honelako azterketa egiteko.

Kausalitatea adierazteko zer sistema darabilen Lapeyre-k: hori da, bada, aztertu nahi duguna.

3. *Perpaus kausalak Gramatikan, eta bereziki euskal Gramatikan*.—Sintasiak bi alor edo barruti ditu: Koordinazioa eta Subordinazioa.

Latinaren gramatika perpaus kausalak bietan sartzen dira. Beraz, perpaus kausaletan batzuk koordinatuak dira; beste batzuk subordinatuak. Hizkuntza honetan, gainera, erraz bereizten dira: "nam", "enim", "etenim"... konjuntzioak ageri direnean, koordinatuak dituzu; "quod", "quia", "quoniam", "quare" dituztenak, berriz, subordinatuak (5).

Esannahitik ere antzematen zaie, noski. Esannahiaren aldetik, subordinatuak kausa erreala adierazten dutela esan ohi da; subordinatuek, aldiz, kausa logikoa. Utz dezagun alde batera izen kontua, hots, ea izen hauek egokiak diren ala ez, baina bereizketa bat badela bi muetatako kausalen artean bistan da, nahiz eta kasu batzuetan mugak hain garbi ez egon

(4) Et. Lapeyre-k izan zuen beste anaia bat, Damien, Belokeko Aita Beneditana. —Gainerakoan, esan behar da 'tradizionalismo' deitzen den teologi eskolaren eragina garbi ezagun dela gure autorean.

(5) Adibidez, Erromatarren epistolaren badira pasarte batzuk "enim" eta "quia" asko dituztenak (Rom. 1, 16-18; 10, 1 ss.). Pasarte horietan Leizarragak "enim" beti ezen itzultzen du; "quia", berriz, *zeren... bait*. Duvoisin-ek "enim" itzultzeko, batzuetan *ezen* eta beste batzuetan *alabainan* darabil, eta abar.

(6). Adibide bat jartzeko, "Porque él mismo, la noche en que iba a ser entregado, tomó pan...", esaldi hau ezin eman daiteke latinez "quod", "quia", "quoniam", "quare" konjuntzioekin; ez eta ere euskaraz *-lako* atzizkiaz. Eta arrazoia: koordinatu hutsa dela (7).

Gaztelaniaz halako nahaste bat sortu da "porque" konjuntzioa orotarako erabiltzen delako, eta orduan badirudi subordinatu eta koordinatuen arteko bereizketa egiterik ez dagoela. Baina zehatzago mintzatuz, bereizketa berezkoa da, eta hor dago, nahiz eta konjuntzioaren nahasteagatik zailago izan noiz den sail batekoa eta noiz bestekoa jakitea. "Pues" esate baterako, beti da koordinazio marka edo seinale. Fransesez ere "car" koordinatuetan bakarrik erabiltzen da.

Sintaxi barnean edonork daki zer alde dagoen koordinazio eta subordinazioaren artean. Perpaus koordinatuetan esaldien arteko lotura oso lasaia izaten da; subordinatuetan, berriz, askoz hertsia da.

Euskarari bagagozkio, Koordinazio eta Subordinazioa berezi behar direla esan behar da. Adibidez, aditz joko etiko edo alokutibo horiek koordinatuetan erabil daitezke; subordinatuetan ez, inondik ere. Pujanak ateraberi duen liburuan hau garbi aitortzen du (8).

(6) Aita Oleza-ren *Gramática de la lengua latina* (Barcelona, 1945), vol. II, p. 9, hara nola ematen diren irizpideak kausal subordinatuak eta koordinatuak bata bestetik bereizteko: "Criterios de diferenciación entre causal subordinante y coordinante: 1.º la subordinante expresa la razón de que realmente sea así lo que se dice en la oración principal: la coordinante expresa la razón de que uno afirme o sepa o se explique lo que se dice en la oración anterior relacionada con ella. 2.º La relación causal subordinante existe, aunque nadie la piense ni la considere; la relación causal coordinante es lógica (= existe en la mente del que habla) sin negar con todo que haya elementos objetivos para establecerla. 3.º La relación causal subordinante es más interna a las cosas que la coordinante, y une íntimamente la oración causal con la principal, convirtiendo a aquella en circunstancia o elemento de ésta".

(7) Latinez honela dio: "Ipse enim in qua nocte tradebatur accepit panem" (Prex eucharistica III). Lapeyre-k honela edo, itzuliko luke: *Ezen Berak, saldua izan behar zuen gauean, ogia hartu...* Liturgi batzordeak honela itzuli du: *Berak, saldua izan zan gau artan, ogia artu...* Itzulpen honetan kausal kutsu guztia kendu zaio esaldiari.

(8) Pujana (Pedro), *Oletako euskal aditza. El verbo vasco de Oleta (Araba)*, Vitoria 1979; p. 97.—Villasante (L.), *Sintaxis de la oración compuesta*, p. 14 nota (Mitxelenaren oharra).

Bait- atzizkiaz, esate baterako, ezin erabil daiteke aditz joko alokutiborik; *-lako* atzizkiaz ere ez. *Eta* konjuntzioaz, berriz bai: *Ez hadi joan, dirua gastau baino etxoak egingo ta.* Euskarak badu, bada, hemen erregela bat guztiz argia koordinatuak eta subordinatuak elkarren artean bereizteko.

Azkuek beste erregla hau ere ematen du bi sail hauek bata bestetik bereizteko. Honela dio: "Las conjunciones afijos son, por lo general, subordinativas, y coordinativas las conjunciones vocablos" (9).

Axular-ek, Espainia aldeko kulturaren eragina zuelako, nonbait, gaztelanian dagoen nahaste bera egiten du. Esan nahi dut: *zeren* 'porque' erabiltzen du bai subordinatuetan eta bai koordinatuetan ere; baina subordinatuetan aditzean subordinazio marka ezarriko du beti, hots, *bait-* aurrizkia edo *-bakanago-* *-n* atzizkia. Lapeyre-k, berriz, frantsesa izanik, ez du horrelako nahasterik. Autore honengan *zeren* konjuntzioak beti du berekin subordinazio marka aditzean: *bait-* edo *-bakanago-* *-n*. Koordinatu hutsetan Lapeyre-k ez du sekula erabiltzen *zeren*, *ezen* baizik. Eta orduan aditzak ez du inongo aurrizki edo atzizkirik.

Axular-en erabilera ezagun da gaur artio Espainia aldeko euskaldunetan, bai euskara idatzian eta bai *-eta* areago-mintzatuan. *Zeren*, *zergatik*, *ze*, *zergatik ze* etab. arrunt erabili ohi dira, baita koordinatu hutsetan ere. Bizkaitarrekin, esate baterako, ez dakigu hitz egiten zorioneko *ze* etengabe sartu gabe, koordinazio hutsa adierazteko, noski, eta aditzean bate-re aurrizki edo atzizkirik jarri gabe. Eta bizkaitar ez direnei ere maiz entzuten dizkiegu *zergatik*, *zeren eta* eta horrelako partikulak. Ez da, bada, guztiz egia Txillardegik bere Gramatika dioena: ezin erabil daitekeela *zeren*, aditzean aurrizkia edo atzizkia jarri gabe (10). Hegoaldean, behintzat, bi erabilera ditu konjuntzio honek: bata koordinazio hutsa adierazten duena, eta orduan aditza ez da ezertarako ukitzen; eta bestea

(9) *Morfología*, p. 478.

(10) *Euskal Gramatika*, 401 orrialdean.

subordinazioa adierazteko, eta orduan aditzak aurrizkia edo atzizkia behar du (11).

Eta honenbestez, ikus dezagun kausalitatea adierazteko Lapeyre-k darabilen tresneria.

4. Kausalitatea adierazteko Lapeyre-k erabiltzen dituen konjuntzio eta atzizki-aurrizkiak, bana-banaka aztertuak.

Oharra. Azterketa egin aurretik bagenituen dudak konjuntzio eta aurrizki batzuei buruz: ea Lapeyre-ren usarioan benetan kausalak ote diren ala ez, alegia. Azterketa egin ondoan, horietako zenbait kausal ez dela frogatu da. Halaz guztiz, geure lanetik ez dugu kendu. Kasu honetan dago, adibidez, *bada* konjuntzioa.

A) *Bada*

Bada konjuntzioari sarri ematen zaizkio, Hegoaldean behintzat, gaztelaniazko "pues" en balioak. 'Pues' gaztelaniaz, perpaus ondoriotsuak (kontsekutiboak) eta perpaus kausalak (kausal koordinatuak) sortzeko erabiltzen da. Baita ere erabiltzen da esaldia-eren hasieran halako indar edo enfasia esanari emateko.

Lapeyre-k maiz erabiltzen du *bada* edo *eta bada* esaldia-eren hasieran, adibideetatik ikusiko den bezala, baina esaldi horiek ez dira kausalak. Hegoaldean, bai, erabiltzen da *bada* edo *ba* kausal koordinatuak sortzeko. Lapeyre-gan ez da ageri usario hau.

Adibideak:

Bada nik erraiten dautzut, errexkiago gauza hau eginen dudala, zuk konprenituko duzun baino, Trinitate Sainduko mixterioa (46. zatian) (12).

(11) Kausal koordinatua eta harekin har-emanean den perpaus askatua errazki truka daitezke edo atzekoz aurrera jar, kausala askatua bihurtuz eta askatua zena kontsekutiba eginez. Aski da horretarako perpausen ordena eta konjuntzioa tokiz aldatzea. Adibidea: "Cuida tu salud, pues oigo que tienes fiebre" (kausal). "Oigo que tienes fiebre; cuida, pues, tu salud" (Consecutiva). Euskaraz, mende-ebaleko zenbait idazleek era honetara egingo lukete: Zaindu egizu zeure osasuna, ba kalenturea dozula entzun dot (kausala). Kalenturea dozula entzun dot; zaindu egizu, bada, zeure osasuna. Lapeyre-k batean *ezen* eta bestean *bada* jarriko luke. Frantsesak batean 'car' eta bestean 'donc'. Gaztelaniaz bietan 'pues'.

(12) Lapeyre-ren liburua *Lekukoak* bilduman emateko asmoa dugu, eta aipamenak erraxkiago egin daitezen beronen testua 194 zatitan partitu da. Hemengo aipamenak ere partiketa horren arabera eginak dira.

Bada, badire gizona baitan hirur puxantzia edo bothere, izaita berean (46. zatian)

Bada huna kurutzearen seinalearen hitzak: Aitaren eta Semearen eta Izpiritu Sainduaren izenean (45. z.)

Bada denbora eta leku guzietako jendek onhetsi eta sinhetsi dutena, ez daiteke egia baizik izan (33. z.)

Bada, horiek dira gauzak, Fedeaz eta Erlijioneaz kanpo, mundu huntako amodioak emaiten ahal ez dituenak (26. z.)

Bada, fede ephleko, eta erran dezagun, fede hotzeko denbora huntan, ez othe da ardura, gauza bera gerthatzen gure Eskual-Herri maitean berean? (117. z.)

Bada, zuk, mirakuilua deitzen duzuna, niri zait ez daiteken gauza bat (20. z.)

Eta bada, nik, ez dezaket onhets ene adimenduak onhesten duena baizen (15. z.)

Ageri denez, *bada*-ren betekizuna adibide hauetan ez da presiski perpaus kausalak sortzea, esaldien artean loturak egitea baizik. Gaztelaniazko 'pues'ek ere bere ofizioen artean badu hau.

Gure gramatikalariek erabilera hau txartzat jo dute, baina, egia esan, adibideak ehunka eta milaka aurki daitezke bai Iparralde eta bai Hegoaldeko idazleetan: Axular, Añibarro, Ubillos eta abarretan.

Hegoaldeko idazleetan, gainera, kausal koordinatuak sortzeko ere erabiltzen da. Hona hemen Ubillos-en pasarte bat:

baña alferric bada orregatic ere, aec gueroago, ta gaiztoago (Hordago, Euskal Klasikoak 371. orrialdean) 'Pero en balde, pues a pesar de ello, aquellos fueron cada vez peores' (13).

(13) Euskara mintzatuan ere arrunt erabiltzen da *bada* edo beronen laburdura den *ba*, balio honekin. Nere ilobaren idazlantxo batean hau irakurtzen dut: "Abuztuaren seian eldu gintezen Arantzazura, eta gainera oso arin, ba auto-stopak ondoreko oso ona euki zuan".

B) *Bait-* soilik

Edozeinek daki zein usu eta txairoki erabiltzen duten sortaldeko euskaldunek aurrizki hau. Badirudi, azkenaldi honetan, sartaldeko idazleetan geroago eta gehiago erabiltzen dela; baina ni beldur naiz hemen ez dugula beti ongi erabiltzen; behintzat aurrizki honek duen erabilera nagusia (zeren...bait-) ez da gehienetan gordetzen.

Sortaldekoen artean *bait-* aurrizkiak betekizun asko ditu: batzuetan afirmazio hutsa adierazten du eta orduan gatzelaniaz ez du itzulpen beharrik; beste batzuetan erlatiboaren balioa du, eta orduan 'que' izango da beronen itzulpena; perpaus kausalak —kausal subordinatuak— sortzeko ere usu erabiltzen da, baina esaldiaren buruan *zeren* duelarik; erlatiboazkoak sortzeko ere bai, baina *zein* edo *zoin* esaldi buruan delarik, etab. Ikus zer dioen Lafon-ek:

“Les propositions où figurent des formes à préfixe *bait-*..., ont été d'abord des phrases indépendantes, juxtaposées, avant de devenir ce qu'elles sont dès la date des plus anciens textes: des propositions subordonnées” (14).

Beherago ikusiko dugu nola Lapeyre-k perpaus kausalak aurrizki honen eta *zeren* konjuntzioaren bidez sortzen dituen. Erlatiboazkoak ere sortzen ditu, noski, *bait-* eta *zoin*-en bidez, baina horiek ez dira gure aztergaietan sartzen.

Orai aztertu behar dugun puntua hau da: erabiltzen ote du Lapeyre-k *bait-* aurrizkia huts-hutsik kausalitate adierazteko? Inoiz edo behin bai, baina oso bakan.

Zinez, oso guttitan ageri da Lapeyre-gan aurrizki hau interrogatibo batekin erlazionaturik ez bada. Hala ere, liburuan badira adibideak. Hona pasarte batzuk:

Nola bada, gizon argitu eta aipatu horiek, hala baitire Platon, Aristote eta bertze asko, hainbertzetaraino errebelatu izan dire, gizonen bizia gidatu nahi izan dutenean, eta erakutsi nola behar den Jainkoa adoratu eta zerbitzatu? (6. z.) (erlatiboazko balioa du hemen: 'Esos hombres célebres y sabios, que son Platón...')

(14) *Le système du verbe basque au XVI siècle*, I, 489.

Gure Erliño sainduan badiren bezala mixterioak, erran nahi baita, aintzinean esplikatua izan dena, gure adimenduaz goragoko egiak, badire ere mirakuiluak (20. z.) (Erlatibo balioa hemen ere: 'que quiere decir').

Aitortu behar da, haatik, afirmaziotik kausalera zubia ez dela bat ere zaila. Horra etsenplo hau:

Bada, denbora eta leku guzietako jendek onhetsi eta sinhetsi dutena, ez daiteke egia baizik izan; hori baita, gu baino goragoko norbeitek gu baitan emana duen argiaren lekukotasuna (33. z.)

Bai; bainan Jainkoa leku guzietan baita, eta haren begia bethi, gau eta egun, gure gainean baita (40. z.) (Hemen afirmazio hutsa adierazten du: 'Dios está en todos los lugares').

Ohore handia da gure arimentzat, bakotxak baitu, lehen mementotik, Aingeru bat, haren gainean atzarria egoiteko egorria dena (50. z.) (Erlatibo balioa hemen ere: 'Gran honor es para nuestras almas que cada uno tenga...').

Jainkoak egin du gizona, zuzena, erran nahi baita, justua eta saildua (50. z.) (Berriz ere erlatiboazko balioa: 'lo que quiere decir...').

Ezen zoineri da lehenik agertzen? Nori lehenik agintzen du zeruko kantuak, bihotz ona duten gizonen bakea? Artzain pobre eta errumes batzueri. Bainan noski, bihotz garbi eta xuxenak baitzitzuzten (84. z.) (Erlatiboaren balioa berriz ere: 'pero que, a buen seguro, tenían corazones puros y rectos') (15).

Baina ez da behin ere izan erakaspén bat bertzearen kontra dohana, Jainkoa bera baita bethi argitzen gaituena, eta ez baita hura baitan ez mudantza ez ilhumberik. (153. z.) (Hemen, bai, ezpairik gabe, kausal baten balioa du: 'porque es el mismo Dios el que siempre nos ilumina y porque no hay en él mudanza ni oscuridad').

(15) *Lekukoak* bilduman ateraberrri den Elkanoko Lizarragaren liburuan (I. 131) honela irakurtzen dugu: *Seguitzendá explicatcecéo artículo bigarrena baitio...* (Erlatiboaren balioa hemen ere: 'Siguese para explicar el 2.º artículo del Credo, que dice...').

Txillardegi-k dio bere Gramatikan (16) —eta beste gramatikalari batzuek ere hala diote, noski— sortaldeko *bait*-sartaldekoen *eta* horren kidea dela. Nik duda egiten dut. *Bait*-ek subordinazioa adierazten du, eta *eta* horrek koordinazioa.

C) *Ezen*

Konjuntzio honek betekizun bat baino behiago du, noski. Perpaus kausalak sortzen duenekoa bakarrik azalduko dugu hemen.

Gure autoreak maiz eta arrunt erabiltzen du *ezen* perpaus kausalak sortzeko; eta beti kausal koordinatuak dira. Aditza beti gelditzen da bere hartan, hots, aurrizki ez atzizkirik gabe. *Ezen* hau esaldiaren hasieran dator, gainera. Gaztelaniaz 'porque' edo 'pues' itzul daiteke.

Etsenploak erruz aurkitzen dira liburuan. Batzuk aipatuko ditut:

Haren harat hunatak, bozkariozkoak trixteziuzkoak bezala entzun ondoan, ezen gizon guzien bizia horietaz egina da, erran nion ni ere ene aldetik zer hari nintzen, ene ustez Jainkoaren gloriarentzat eta arimen onarentzat (135. z.).

Oi! zer bizitze trixte eta tormentatua! Ezen, bere ilhunbe guzien erdian, duda bat bederen oraino gelditzen zaio (9. z.)

Zorionean eta bakean bizi nintzen; ezen, aurkitzen nuen ene sosegua, fede bizi eta dudarik gabeko hortan (10. z.)

Ez daiteke deus asma zoroagorik, inpioagorik, eta adimenduaren beraren kontra gehiago dohanik. Ezen, nahiz, Fedea gure adimenduaz gorago den ez daiteke hargatik hoi-kien artean, egiazko gerlarik sekulan izan (15. z.)

Ezen, mirakuilua jainkozko obra bat da (20. z.)

Lege hori ez da gu baitarik heldu. Ezen, ardura, dorphea eta garratza da (34. z.)

(16) O. cit., 402 orrialdean.

Bada beraz, gutaz kanpo, eta gutaz gorago, lege emaille bat. Ezen, gizon guziak bere naturalezaz igualak dire, eta lege horrek guztieri manatzen diote (34. z.) (17).

Zertarako segi etsenploak aipatzen? Hau da Lapeyre-k duen bidea, errege bidea, perpaus kausal koordinatuak muntatzeko. Esaldiaren hasieran *ezen*; aditza, berriz, ezein atzizki edo aurrizki gabe. Lhande-ren hiztegian ere hau da *ezen*-en lehen esannahi edo balioa: 'car', frantsesez kausal koordinatuak adierazteko erabiltzen den partikula.

D) *-Lakotz* atzizkia

Sartaldean erabiltzen dugun *-lako* atzizkiaren kide edo bariante hutsa da, noski.

Beronen bidez perpaus kausal subordinatuak sortzen ditu Lapeyre-k. Eta ezein konjuntziorekin erlazionatu gabe, gainera. Esan nahi dut: esaldiaren hasieran ez duela jartzen *ezen*, *zeren* edo honelako tresnarik. Kausa erreala adierazten da atzizki honekin. Lapeyre-k batzuetan esaldi subordinatua printzipalaren aurretik jartzen du, beste batzuetan ondotik. Badirudi, gainera, esaldiak laburrak direnean jotzen duela konstruzio mueta honetara.

Beste nonbait esan genuen harrigarria dela Axular-ek atzizki hau kausalak sortzeko behin ere ez erabiltzea (18). Lapeyre baitan agertzen da, bai, baina esaldi laburretan batez ere.

Hona hemen adibide batzuk:

Gizona zelakotz bekatorea, haren arrazakoa behar zen ere erreparazionea eginen zuena (69. z.)

Entzun dut zure boza Parabisuan, eta beldurtu naiz, biluzia naizelakotz, eta gorde naiz (61. z.)

Gauza hori egin dukalakotz, madarikatua haiz (61. z.)

(17) Hona hemen Leizarraga-ren testu hau: *Ezen Herodesek bilhaturen dik haurtxoa hiltzeko* (Mt. 2, 13). Latinez honela dio: "Futurum est enim..." *Ezen*-en enplegu hau erruz ageri da Arbelbide eta beste autore askorengan. Axular-ek, berriz, esan den bezala, *zeren* erabiltzen du balio honekin.

(18) *Sintaxis de la oración compuesta*, p. 150.

*Izpiritu huts bat delakotz, naturalezaz, gu baino bothe-
retsuagoa da* (49. z.)

*Asko gizon zorionean direla atxikitzen ditugu, hala dute-
lakotz itxura* (25. z.).

*Nahiz ez ditugun erlijioneko mixterioak osoki konpreni-
tzen ahal, gure izpiritu flakoaz gorago direlakotz, konpreni-
tzen dugu hargatik, izan ditezkeela, gehiago diot, badirela mix-
terioak* (18. z.)

*Bada, bi argi horiek, adimendua eta Fedea, Jainko bera-
ren ganik heldu direlakotz, ez daitezke bat bertzearekin
guduan izan, ez dezakete batek bertzea kolpa* (17. z.)

*Jesu-Kristo, ez gizonen bothereaz, bainan berak hala
nahi zuelakotz, hil zen kurutzearen ginean* (128. z.)

*Hori gertatu izan da Protestanten artean, ez dutelakotz
buruzagi bat Jesukristok emana, bethi Fedezko sinheste bera,
Jainkozko bothere batez erakusten ahal duena* (164. z.)

Eta ez goaz etsenplo gehiago aipatzera. Bakarrik esango
dugu Lapeyre-k inoiz *-lakotz* atzizkia erabiltzen duela itzulika
berezi bat sortzeko: 'por causa de', 'por razón de' esan nahi
duen itzulika, alegia. Adibidez: *Hekien krima delakotz* (60. z.)
'por causa del delito de ellos'. *Adamen bekatua delakotz* (64.
z.) 'por causa del pecado de Adán).

E) *-Naz geroz, -Naz geroztik* (19)

Gaztelaniaz bada makina bat lokuzio bere gisako per-
paus kausalak sortzeko erabiltzen direnak; adibidez, 'pues
que', 'puesto que', 'supuesto que', 'ya que', 'como que', 'co-
mo', 'por razón de que', 'en vista de que', 'por cuanto', 'a cau-
sa de que', 'visto que'... Gisa honetako perpausak sortzeko
-naz geroz eta *-naz geroztik* lokuzioez baliatzen da Lapeyre.
Azken batean atzizki bat da. Kausal subordinatuak sortzen
ditu, beraz.

Hona hemen adibide batzuk:

*Zer gintezke hura gabe, Jouffroy zen bezain izpiritu argi-
tuetan, fede eskasak, eskas bat hain ilhuna eta hain trixtea
uzten duenaz geroz?* (11. z.)

(19) Sartaldean, jakina denez, beste era honetara azaltzen da: *-n ezkerro*.

Mundua gobernatzen duten legeak egin dituen Jainkoa, ez da, bera, lege horietaz estekatua, haren nahitik dutenaz geroz bere indar guzia (22. z.)

Jaunak, gizontto hunek hainitz abilki frogatu dauku, ez dela bestia bat baizen, ez duenaz geroztik arimarik (55. z.)

Arima ez da hilkor. Izpiritu huts bat denaz geroztik, ez dire harentzat eginak gorphutzentzat eginak diren legeak (55. z.)

Arimak eta gorphutzak, ungia edo gaizkia, elgarrekin egin dutenaz geroztik, zuzen da, elgarrekin izan ditezten sariztatuak edo gaztigatuak (179. z.)

Nola daiteke gauza hori, ez dudana geroztik gizonik eza gutzen? (72. z.)

Jesu-Kristoren anaiak garenaz geroz Inkarnazioneaz, gure pentsamendu, sentimendu, hitz eta egintzetan, errespetu dezagun ahaidetasun saindu hori (82. z.)

Ageri denez, esaldi subordinatu hau, bai printzipalaren aurretik eta bai ondotik ere jartzen du Lapeyre-k. Gaztelaniaz 'puesto que' lokuzioak duen balio berbera du.

F) Zeren... bait

Jakina denez, Iparraldeko idazleetan *bait*- aurrizkia interrogatibo batekin relazionatua egon ohi da gehienetan: *zein (zoin), nor, noiz, zeren, zer...*

Zeren, jatorriari bagagozkio, *zer* interrogatiboaren kasu posesiboa baizik ez da. Beraz, 'de que' esan nahi du.

Hain zuzen ere, sefarditek beren gaztelania arkaikoan 'de que' esaten omen dute orai ere, 'por que' esan beharrean. Badirudi 'de que' horren itzulpena dela gure *zeren*. Baina ez da hori arrazoia hizkuntzan hain erro sakonak dituen konjuntzioa kanpora jaurtitzeko; badakigu, gainera, euskal testurik zaharrenetan ere ageri dela *zeren* hau. Euskarak hori hartu baldin badu, horren beharra sumatu duelako izan da, eta orai kentzen bazaio pobretua eta behar dituen tresnez gabetua uzten dugu. Ez dezagun ahantz Unamunok aspaldi esan zuena, hots, gaiak kanpotik hartzea dela hizkuntzak bere burua aberasteko eta eraberritzeko duen bide nagusietarik

bat. Bide hori euskarari galerazten bazaio, hainbat okerrago harentzat... eta guretzat.

Gainera, *zeren* (edo *zerren*) hizkuntzaren hedadura guztian erabili da eta erabiltzen da: sortaldeko euskalkietan *bait*-aurrizkiarekin eta sartaldekoetan *-n* atzizkiarekin erlazionaturik. Beraz, hau izan da —*lako* atzizkiarekin batean— kausa erreala adierazteko modu nagusia —nahiz eta ez bakarra izan—.

Perpau aski luzeetan konstrukzio honek badu abantaila bat nabaria: esaldiaren hasieran *zeren* hori jartzen duzu berri ekarle bezala. Orduan badakizu jadanik kausala dela esaldi hura: gero aditzean *bait*-aurrizkiak bururatzen edo borobiltzen du *zeren*-ek iragarri zuena. —*Lako* egokiagoa da, beharbada, esaldi laburretan. Gainerakoan, bai batak eta bai besteak kausa erreala adierazten dute.

Oker ez banaiz, gisa honetako kausalak Lapeyre-k beti esaldi printzipalaren ondotik jartzen ditu, behin ere ez aurretik.

Hona adibide batzuk:

Fedean aurkitu izan dituzte bere argirik segurenak. Han bilhatu dituzte, zeren baitzakiten, Fedean zela itzalik gabeko iguzki argia (16. z.)

Credo! sinhesten dut, zeren zuk, egia bera zarenak, erakutsi baideraukuzu (19. z.)

Har dezagun amodioetan hazkarrena, garbiena, sainduena: ephel daiteke eta iraungi, gizonaren bihotzeko sentimendu guziak bezala, zeren berenaz, gizonaren bihotza flakoa eta itzultzeko errexa baita (26. z.)

Emazu gathe bat, nahi duzun bezain luzea, zerutik lurre-rat jausten dena; erreztun guziek batzuek bertzeri atxikitzen diote. Bainan ez baduzu eman nahi erreztun bat edo haren egile bat, bethitik dena, hastapenik gabea, zure gathe guzia airean eta herbail gelditzen da, zeren ez baitu hastapeneko sostengurik (37. z.)

Jainkoa baitan, bethi, urrikalmendua justiziarekin doha; eta erran behar da, Jainkoa baitan xoilki, urrikalmendu handiena eta justizia osoa aurki ditezkelá, eta elgar besarka

dezaketela, bat edo bertzea, kolpatua izan gabe; zeren, bata-sun osoan, perfezione guziak aurkitzen baitire Jainkoa baitan (65. z.)

Zertako hori? Zeren zorra eta pagamendua, neurri eta izari berean izan behar baitire; hola du galdatzen justiziak; zeren, gizon kreatura ez deusak, Jainko guziz handiari egin zion laidoa mugarririk gabekoa izan baitzen (68. z.)

Gizona zelakotz bekhatorea, haren arrazakoa behar zen ere erreparazionea eginen zuena. Gizona behar zen oraino, zeren gizonak xoilki, sofri, jasan eta paira baitezake, merezitzeko moldean (69. z.)

Erori zen Petri, zeren ez baitzen othoitzari jarraiki (116. z.)

Hori da gure sinhestea eta azken hatseraino atxikiko dugu, zeren Jainkozkoa baita (154. z.)

Eliza Jainkoaren obra da eta bethi bera egonen da, zeren Jainkoa bethi bera baitago eta ez baita kanbiatzen (154. z.)

Dohatsuak ezti direnak, zeren lurra beretuko baitute (92. z.)

Dohatsuak nigarretan direnak, zeren kontsolatuak izanen baitire (92. z.)

G) Zeren ...-n

Aurreko konstrukzioa baino askoz bakanago, baina noiz-bait agertzen da hau ere gure autoreagan.

Bestea bezala, kausal subordinatuak sortzeko eta kausa erreala adierazteko erabiltzen du hau ere.

Hona hemen adibide bat edo beste:

Zeren zure emaztearen boza entzun duzun, eta jan duzun nik debekatu arbolaren frututik, lurra madarikatua izanen da, eta zure bizi guzian, lan hainitzen gostuz kenduko diozu zure bizitzekoa (61. z.)

Vedius Pollion deitzen zen gizon aberats batek, urerat aurtikarazi zuen esklabo bat, arrainez jana izaiteko, zeren uste gabeen, baxera balios bat hautzi zion (71. z.)

Ene Aita! barka diozozute, zeren ez dakiten zer hari diren! (118. z.)

Hasarretua, erreboltatua zagoen, zeren gisa hortako emazte batek, haren etxean sartzeko, eta Jesusen oinetaraino ethortzeko, ausartzia izan zuen (103. z.)

Zergatik batzuetan erabiltzen du *Zeren...* -n, eta beste batzuetan *Zeren... bait-?* Egia esan, ez dakigu zuzen. Axular-ek ere erabiltzan ditu bi konstrukzio hauek (20).

Iparraldeko euskaltzainei eskatuko genieke argia puntu honetan (21).

5. *Kausal koordinatuak adierazteko zenbait idazletan aurkitzen diren beste era batzuk.*—Kausal koordinatuen sorretan halako ondoez bat nabari da gure artean. Horregatik ez da alferrik izango honelako perpausak beste zenbait idazlek nola moldatzen dituzten gaingiroki ikustea (22).

Beraz, gaztelaniaz 'pues' (eta 'porque') eta frantsesez 'car' konjuntzioaz eraikitzen diren kausalak, zer moduz adierazten dituzten zenbait idazlek azaldu nahi dugu laburzki.

Zeren.—Hau da Axular-ek erabiltzen duen era, aditza bere hartan utzirik. Kausal subordinatua denean, berriz, *zeren* jarriko du eta gero aditzean *bait-* (edo inoiz *-n*). Hegoaldeko idazle zaharretan ere maiz erabiltzen da *zeren* (edo *zerren*) kausal koordinatuak sortzeko.

(20) Villasante, *Sintaxis de la oración compuesta*, p. 152.

(21) Jakina denez, Sartaldeko idazle zaharrek beti *-n* era-bili izan dute sartaldekoek *bait-* edo *-n* jartzen zutelarik.

(22) Liturgi batzordearen bidea askotan izaten da —dirudienez— koordinazio partikularik bat ere ez erabiltzea; beraz, perpaus horiek erabat askatuak balira bezala tratatzea. Beste batzuek *bait-* erabiliko dizue koordinatu hutsak adierazteko, baina horrela aurrizki hau bere ofizio jatorretik (subordinazio tresna izatetik) ez ote da ateratzen? Altube berak ere *bait-* aurrizkia eta *eta* konjuntzioa balio berdinekotzat jotzen ditu; ez du bien artean beste alderik ikusten honako hau baizik: bata sartaldean eta bestea mendebalean erabiltzen dela (Ikus *Erderismos*, p. 208). Baina *eta*-k kausal koordinatuak adierazten ditu; *bait-*ek, aldiz, subordinatuak.

(22 bis) Lafitte jaunari galdetu diogu ea bi erabilera hauen artean (*zeren... bait-*; *zeren... -n*) esannahiaren aldetik diferentziarik somatzen ote den sartaldeko idazleen usuarioan. Baietz esan digu. *Zeren... bait-*ez eraturako perpausetan kausa erreala adierazten da; *zeren... -n*-ekin, berriz, ustezko kausa (beharbada erreala izango da hau ere, baina sujetibitatearen aldetik hartzen da).—Bereizketa honek balio du agian Axular-en eta aspaldiko idazleen erabilera esplikatzeko. Lapeyre-rena esplikatzeko, ezetz esango nuke.

Alabaina (edo *alabainan*).—Hau da kausal koordinatuak sortzeko zenbait idazlek erabili duten beste era bat. Esate baterako, Asteasuko Agirrek, Ubillosek, Duvoisinek, eta abar. Baina, jakina denez, konjuntzio honek hizkuntza orokorrean balio adbersatiboa edo aurkaria du: 'con todo', 'sin embargo'. Hortik sortuko litzatekeen nahasteagatik ez dirudi gomendagarri.

Bait.—Era hau oso erabilia da gaur Hegoaldean. Ikusten diogun akatsaz gorago mintzatu gara.

Bada.—Konjuntzio hau ere erabili izan da sartaldeko zenbait idazletan betekizun hau betetzeko. Hona hemen Ubillos-en pasarte bat. Bertan *alabaina* eta *bada* ageri dira kausal koordinatuak adierazteko erabiliak:

Etziran orregatic cenzatu Noeren ondorengoac; bada asco luzatu gabe, heren Jainco eguiazco Munduaren eguillea utzi, ta jarri ciran, heren burutic asmatu cituen, edo infernu-coac eracutsi cizten, Idolo edo guezurrezcò Jaincoetara. Ez baldinbere ezagumenturen gabez: baciequien alabaña, iñorc esan gabe, onetan, eta beste gauz ascotan gaizqui egiten zuela (23).

Eta (*ta*).—Hegoaldean *eta* konjuntzioa ere erabiltzen da balio honekin: *Goazen etxera, hamarrak dira ta. Harrapetako kostunbrerik ez dogu ta* 'como no tenemos costumbre de robar'. Erabilkera hau jatorra da, noski, baina ez du balio kasu guztietarako (24); ez du balio, esate baterako, esaldia oso luzea denean. Orduan esaldiaren hastapenean partikula bat ezartzeko beharra somatzen da.

Ezi.—Zuberoako euskalkian erabiltzen da, *ezen*-en balio berbera duelarik (25).

(23) Ubillos, "Euskal Klasikoak", 3, 67-68 orrialdean; Hordago.

(24) Ikus Lhande, *Dictionnaire Basque-Français*, s. v.

(25) *Eta* daukan esaldia, bai bestearen ondotik eta bai aurretik ere ikusten da. Adibidea: *Ardorik ez du edaten eta, gaixotu egin da*. 'Como no bebe vino, se ha enfermado'.—*Nola (zelan)* interrogatiboaz ere adieraz daiteke, aditzari *bait*- edo *-n* itsatsirik: *Nola ez baitu edaten; nola ez duen edaten...* Egiturari bagagozkio, era hau subordinatua da. Ikus "Comparativas de modo", *Sintaxis de la oración compuesta*, 121 orriald.

Ze, zeren eta, zergatik, zergatik ze.—Arrunt erabiliak dira, batez ere hizkuntza mintzatuan: *Goazen aguro etxera, ze bestela berandu egingo zaigu.*

Izan ere.—Lokuzio honekin ez dira presiski perpaus kausalak sortzen, baina bai horien mugan diren perpaus askatuak. Balioz perpaus kausal koordinatuen antzeko edo hurbil diren esaldiak, alegia.

Adibidez:

Askok bekatu egiten dutenean edo iraina egiten zaizenean, etsaiari edo lagun hurkoari errua botatzen diote. Baina ez da hori hala; izan ere, bakoitzak du bere menean bere etsaia —gorputza, alegia—, eta horren bitartez egiten du bekatu (26).

MAIZTASUNAREN NEURKETA ETA PASARTEEN AURKIBIDEA.

Lapeyrek kausalak adierazteko erabiltzen dituen atzizki juntagailu eta azaltzen diren horrialdeak hauek dira:

EZEN (45): 9, 10, 15, 20, 34, 34, 34, 50, 57, 58, 59, 60, 61, 63, 65, 73, 75, 75, 79, 82, 83, 84, 85, 85, 95, 101, 104, 109, 117, 127, 128, 130, 135, 139, 141, 148, 150, 163, 166, 166, 167, 173, 173, 188, 192.

-LAKOTZ (43): 8, 9, 10, 10, 17, 18, 25, 33, 40, 48, 49, 60, 61, 61, 63, 63, 64, 69, 69, 69, 93, 111, 118, 119, 122, 126, 128, 135, 145, 153, 155, 161, 163, 163, 164, 164, 168, 169, 177, 181, 184, 188, 189.

-NAZ GEROZ (10): 11, 22, 49, 63, 82, 118, 127, 137, 163, 167.

-NAZ GEROZTIK (13): 41, 55, 64, 72, 81, 160, 164, 169, 177, 179, 179, 190, 55.

ZEREN BAIT- (41): 15, 16, 19, 26, 30, 36, 37, 52, 54, 65, 68, 68, 69, 69, 80, 88, 92, 92, 92, 92, 92, 92, 92, 92, 97, 99, 109, 116, 116, 153, 154, 154, 155, 156, 161, 162, 165, 165, 165, 168, 188.

(26) *Anai Frantzisko. Arreba Klara. Idazkiak*; 41 orrialdean.

BADA (37): 15, 20, 20, 20, 21, 23, 26, 30, 30, 31, 31, 32, 33, 34, 45, 46, 46, 51, 54, 64, 68, 69, 72, 72, 75, 79, 79, 85, 89, 115, 116, 117, 124, 125, 125, 153, 190.

ZEREN -N (6): 61, 67, 98, 103, 118, 127.

BAIT - (16): 6, 20, 40, 50, 58, 73, 84, 115, 118, 130, 148, 153, 160, 161, 166, 177.

Kontutan eduki behar da "Bada" eta "bait-" nahiz eta kausalak beti ez izan azaltzen diren guztiak sartu ditugula hemen.

AZKEN ONDORIOAK

Hau da Lapeyre-ren prosagintzan perpaus kausalak munatzeko ageri den sistema:

- a) *Perpaus kausal koordinatuak*: Ezen konjuntzioaren bidez.
- b) *Perpaus kausal subordinatuak*: -lakotz, -naz geroz (edo -naz geroztik), zeren... bait- eta zeren...-n atzizki edo aurrizkien bidez.

Bait- aurrizkiaren bidez inoiz sortzen dituenak ez dakigu zuzen balioz zein muetatakoak diren.

ERASKINA

Lan honetan batez ere Lapeyregan gertatzen denaren berri eman besterik ez dugu egin nahi eta -LAKOTZ atzizkia daramaten esaldi guztiak aztertu ondoren eta Altuberen mendehurrena ospatzen ari garenez geroz *Erderismos* liburuan dakartzan teoria batzuk aipatuko ditugu: 207, 208, eta 209 horrialdeetan honela dio: kausala eta kontsekutiba daramaten esaldiak perpausa kausala galdegaia (elemento inquirido) denean -LAKO atzizkia daramala eta salbuespen batzuetatik kanpo kausala aurretik doala. Adibide hau jartzen du: "Nai dodalako joango naz".

Lapeyregan joera hori ez dago oso argi, kausal bezala jo daitezken perpausak -LAKOTZ atzizkia daramatenak berrogeitahiru dira eta hauetatik hogeitabost aditz nagusiaren atzetik doaz.

Hau esatean ez dugu deus berririk esaten beste batzuk ere horretaz konturatu bait dira. Adibidez P. Goenagak bere *Gramatika Bideetan* 184 horrialdean honela dio: "Galdegaia-
ren legea batez ere perpausa laburretan eta elkarrizketan errespetatu ohi da, galdera erantzun bidez ari garenean alegia".

Mitxelenak ere E. U. T. G., en emandako hitzaldi batetan "Galdegaia eta mintzagaia euskaraz" izenekoa eta oraindik kanporatu ez bada ere, laster argitaratuko den lan horretan hauxe dio:

"Elkarrizketa hartu dut ahotan, eskuarki, hori delako behar bada Altuberen azterketan behar adina garbitu gabe gelditu zen puntua. Izan ere, haren oinarritzko iritziaren ondoren, baiezko eta ezezko perpausak (hobe, agian, esaldiak) gertatu edo, maizago, gertakizun diren galderen erantzun gisa ulertzen eta moldatzen ditugu. Molda-modu horrek ez luke, beraz, balio, berez behintzat eske eta aginduak aditzera ematen direnerako, ezta ere bihotz barruan irakiten daramakeguna bridarik gabe isurtzen zaigunean. Edo, berdin dena, itsumustuko eta eriosuarreko ahapaldiak artoski eratzen ditugunean hotz hotzean.

Direlako lege horiek ez dute ere balio ez gogoetan ari garenerako eta ezta ere kontu kontari mintzitzen denarentzako".

Altubek dakarren teoria hori perpausa luzeetako ez digula balio, Mitxelenak eta Goenagak baieztatu duten bezala Lapeyrengan ikusteko, ondoren jartzen ditugu aztertutako liburuan -LAKOTZ atzizkia daramaten perpausak.

8

...haur ttipi batek berak, bere katiximarekin, badaki, gauza premiatsu guzien gainean, Sokratek, Platonek eta Aristotelek eta bertze jakintsun pagano aiphatuenek, bere adi-mendu xoilaz, jakin ahal izan duten baino mila aldiz gehiago. Eta hori, Fedez argitua delakotz.

9

Eta horra zertako, bai lehen, bai eta orai, egiazko Erlijio-nea eskastu zaiotelakotz, Erlijionerik batere gabe egonen

diren baino lehen, populu paganoek munstrokeria izigarrienak sinhetsiko eta asmatuko dituzten.

10

“Ene Jainkoa maite nuen, enetzat zituen xede onak zirelakotz: eta bakean bizi nintzen”.

10

sinhetsi nituen gauza guziak, Jainkoaren, ene buruaren eta ene zortearen gainean, bizi huntan eta bertzean, ez nituen gehiago sinhesten; arbuiatu nuelakotz gauza horiek sinhetsarazi zauzkidan autoritatea.

17

Bada, bi argi horiek, adimendua eta Fedea, Jainko beraren ganik heldu direlakotz, ez daitezke bat bertzearekin gudian izan, ez dezakete batek bertzea kolpa.

18

Dezagun beraz erran: nahiz ez ditugun Erlijioneko mixterioak osoki konprenitzen ahal, gure izpiritu flakoaz gorago direlakotz, konprenitzen dugu hargatik, izan ditezkel, gehiago diot, badirela mixterioak.

25

Asko gizon zorionean direla atxikitzen ditugu, hala dute lakotz itxura.

33

Ikusten ditutzu zure eta ene pentsu eta sentimenduak? ez; eta, hargatik, gauza hoikien guzien gainean baduzu sinhestea; hekien efetuak eta obrak ikusten ditutzulakotz.

40

O Bekatorea, zenbatetan menturaz, gizonen begieri gordetzen zinela kotz, uste izan duzun, ez zinduela beldur izaiteko!

48

Jainkoaren obra guziek badute bere perfeziora eta edertasuna. Bainan guzietan perfetenak eta ederrenak, Jainkoaren perfezionari gehienik hurbiltzen direnak dire Aingeruak, Izpiritu hutsak direlaketz, gorphutzak berekin dakarzen flaketzak gabe.

49

Izpiritu huts bat delaketz, naturalezaz, gu baino botheretsuagoa da: bainan Jainkoa gurekin denean, nor daiteke aski botheretsu gure garaitzeko?

60

Izan ziren ere bihotz gabe ondokoentzat; ezen, berek merezitu duten zorte deithoragarrirat herrestatu gaituzte guziak. Hekien krima delaketz, Jainkoaren madarizione justua gizon guzien buruaren gainean da.

61

Ihardetsi zion Adamek: Entzun dut zure boza parabisuan, eta beldurtu naiz, biluzia naizelaketz, eta gorde naiz.

61

Eta orduan, Jainko Jaunak erran zuen sugeari; gauza hori egin dukalaketz, madarikatua haiz, lurreko animale eta bestia guzien artean.

63

Hitz horietarik ageri da, guziek gizon batean bekatu egin dugula, eta guziak hiltzerat kondenatuak garela, Adame gure lehen aitaren bekatuan sortzen garelaketz.

63

S. Athanasiok dio: "Legea hautsi delaketz gizonen arrazaren Aitak, heriotzea jautsi da haren ondorio guzirat. Guziak bekatuan kontzebituak gare".

64

Emagun oraino Prinze bat. Ez, justiziaz obligatua delakotz, bainan, bere amodio eta nahi on xoilaz, gainditzen du bere zerbitzari bat, ongi, aberastasun eta ohore guziez, erraiten diolarik:

69

Bekatuak egin kaltea erreparatuko zuena, baitezpada, gizon behar zen izan. Gizona zelakotz bekatorea, haren arrazakoa behar zen ere erraparazionea eginen zuena.

69

Bainan ere, Jainko behar zen denbora berean, mundua salba zezaketen sakrifizioa eta bitartekoa osoki sailduak eta garbiak behar zirelakotz.

69

Jainko eta gizon izan da Jesu-Kristo gure Jauna. Gizon zelakotz, guk bezala pairatu ahal izan du.

93

Zer nahi den, eta Jesus Jainko-Gizonak badaki, gure bihotzak hazkurri bat nahi du eta bilhatzen du. Horra zertako, amodiozko Jainko bat zelakotz, gure bihotzen beharrak ongi ezagutzen zituena, Jesusen Lehen manamendua amodiozko manamendu bat izanen zen.

111

Jesus laiteke bakarrik gai, lan hortako, harek bakarrik, bere Saindutasun Jainkozkoan konprenitu ahal izan duela-kotz, zer den bekatua...

118

Behar ginduke orduan, beldur izan, Jainkoaz madarikatua garela, Jesusen heriotzea guretzat alfer egon litekenaz geroz, gure faltaz eta gure nahi eskasa delakotz.

119

Hire gatik, hire hutsak direlakotz nagok, ene Aitaren madarizionearen pean lehertua.

122

Jainkoak kondenatu gaitu, egia da, justiziak horrela galdegiten zuelakotz.

126

Jesusen Ama delakotz, Mariak badu bere Semearen bihotzean mugarririk gabeko bothere bat.

128

Jesu-Kristo, ez gizonen bothereaz, bainan berak hala nahi zuelakotz, hil zen kurutzearen gainean,...

135

Haur haurretik bere aita-ama onekin ikasi zuen gizon guzien eginbide handi, erran daiteke bakarra, bertze guziak, hortan sartzen direlakotz.

145

Ez da dudarik Jainko Aitak eta Jainko Semeak saildu-tzen gaituztela. Bainan Izpiritu Saindua delakotz Aitaren eta Semearen arteko amodioa, eta Saindutasuna Jainkoaren amodioa delakotz, molde berezi batez emana zaio Izpiritu Sainduari, amodiozko eta Saindutasunezko Jainkoaren izena.

153

Egia bera delakotz, ez dezake bere erakaspenetan deus ere izan mudatzeko.

155

Mudakorrak dire gizonen erakaspenak, gizonak berak hala direlakotz...

161

Huna zer dion Elizak: Nor eta ere baitago egiazko Elizaz kanpo, bere faltaz, dakielarik gezurrean dela, edo bederen funski dudatzen delarik; nor eta ere baitago, egiaren bilhatzeko lazakeria handizki hobendun den batez, egiaren bilhatzeko lehia eskasez, berak hala nahi duelakotz, Eliza katolikoaz kanpo, gauza premiatsu horren gainean argitua izan nahi gabe; hura ez daitekela izan salbatua.

163

Bainan horietaz bertzalde, izan ditezke eta egiazki hainitz eta hainitz badire, gu bezala agerian eta kanpoz Elizaren menbro izan gabe, Eliza hori ezagutzen ez dutelakotz, hargatik Elizaren ariman direnak.

163

Ez; ez dire galduak izanen, bere sortzearen ixtripu batek Elizaren gorphutzaz kanpo eman dituelakotz.

164

Bainan, bilkura bat bada Eliza, behar zaio buruzagi bat; ... eta hura bakarra, Eliza bakarra delakotz, sekulan mudatzen ez dena bere erakaspenean.

164

Hori gertatu izan da Protestanten artean, ez dutelakotz buruzagi bat Jesu-Kristok emana, bethi fedezko sinheste bera, Jainkozko bothere batez erakusten ahal duena.

168

Haren ganik heldu dire guziak; erakaspentak, sakramenduen minixtroak, Izpiritu Saindua, salbamendua; ez, bere baitarik zerbeit duelakotz.

169

Jesu-Kristok Aita Saindua eman izan duenean, Elizaren erakaspenaren erakustaille eta argi ezin ilhunduzkoa, ez da gauza horietaz mintzatu nahi izan; hoikietan utzi du gizona,

bere adimenduaren indarrez baliatzera, bere libertate osoan; nahiz bethi, bainan bertze molde batean egia haren ganik heldu den; hura delakotz egiaren ithurria, eta mundua erregelatzen duten lege guziek haren baitan dutelakotz bere hastapena.

177

justu eta zuzen da, gorphutza izan dadien arimarekin sariztatua. Hala nola ere, hainitz gaizki egiten baitu arimak gorphutzaren medioz, eta gorphutzeko jaidura tzarrak direlakotz, zuzen baita, parte izan dezan gorphutzak gaztigan, nola izan baitu bekatuan.

184

Hortik hainitz gaxtagin ontzat atxikiak; eta hainitz on, kontrarat, gaizki ikusiak, gaxtotzat atxikiak, gizonen maleziaz, edo, hexien justizia, enganatua, errebelatua izan delakotz.

188

Eta, bere ustez argituxago direnek erraiten badautet, arimak ez dezakela suaren pena jasan, izpiritu delakotz, erranen diotet:...

189

Arimatik berexia en gorphutz batek, ez dezake deus jasan; jasaiten du, sofritzen du, arimarekin juntatua delakotz.



PERPAUS KAUSALAK:

PERU ABARKA eta LABORANTZAKO LIBURUA

Arrasate, 1979-XII-22

Rikardo Badiola

Lan eskema

A.—Perpauk edo esaldi kausalei buruzko azalpen bat:

- 1.—Autore batzuren testigantza
- 2.—Axularren kasua
- 3.—Egun erabiltzen dena
- 4.—Kausalei buruzko alokuzio batzu
- 5.—Adibide batzu
- 6.—Perpauk hauek izen sintagma.

B.—*Peru Abarka* Liburuan agertzen diren kausale moetak. Adibideak. Oharrak.

C.—*Laborantzako liburua*. Kausale moetak. Adibideak. Oharrak.

D.—Azken xehetasun batzu.

A. PERPAUS KAUSALAK

1.—Perpauk hauek esaldi nagusiaren kausa, errazoia eta karia azaltzen dute.

Honela ikusi ahal dugu hurrengo esaerotan:

— “Zeren baskoak baitira abil”. Etxepare Bernat: *Lin-*

guae Vasconum Primitiae, 1445 (1). Txertoa Argitaletxoan, Donostia, 1968, 20. Orrialdea.

– “Zergatik baitiozu, Salbatzailea ekhartzen”. Etxeberri Ziburukoa: *Noelak*, 54. Orrialdea.

– “Ezin daiteke ni zuek aztutea, zerren neure eskuetan beti zarabildezan”. Añibarro: *Kurutze Santuaren*, 35. Orrialdea.

– “Erdera berba egin biarko dogu, zergaitik euskaria iya aztu da”. Balentin Berriotxoan donea, gutunak. *Anaitasuna* aldizkaria, 1958, Iraila, 52. alea.

Zenbait Alokuzio

1.—“(e)lako, (e)lakotz: “Entzun duelako adierazi du” “zeren — bait-”: “Gazteok etxerantz datoz zeren euria baita” (2).

2.—“-naz gero, -naz geroz edo -naz geroztik”:

– Mendebaleko euskalkietan. “-n zkero, -n ezkeroz”.

3.—“-n ezkeroztik”: “Segurantzarik eztugunez geroztik”.

4.—“Halaz eta ... -naz geroztik”: “Ordenatu zuen ezen halaz eta legearen arauz ... zeitzanaz geroztik ...” Axular: *Gero* 231. Orrialdea.

Zenbait adibide

1.—Gaur egun, Perpaus Kausalak adierazteko hurrengo bi moetak gelditu zaizkigu, gehienbat:

(1) a) Iparraldeko hizlari eta idazleek pittin-pautean erabiltzen dute, egun ere: “zeren eta... bait”.

b) *Alabaina* konektagailuak bai Gipuzkoan eta bai Bizakaian kausal kutsua du, baina Iparraldean azalpenezkoa edo esplikatioboarena.

(2) “-(e)lako eta “-(e)lakotz konektagailuak ez ditu inoiz ere erabiltzen Axularrek, Tartasek behin bere *Ontsa hiltzeko bidia* liburuan. Axularrek ia beti *zeren*: hots, *zer + en* genitibo posesiboa eta inoiz ez “-(e)lako, “-(e)lakotz”. Joannes Leizarra idazleak, askotan.

1. Egindako galderei erantzuna ematea nahi diegunean -“(e)lako” eta -“(e)lakotz” konektagailuak erabiltzen ditugu, hots:

– Irakurketa hau, Jonek, gu etorri garelako egin du.

2.–Zeharkako erantzun bat eman nahi dugunean, alegia:

a) “zeren – bait – (3)

b) “... eta”.

– Goazen lanera zeren ordua da eta; edo goazen beharrera ordua da eta.

– “Ezin entzun neike eguerditik gaberarte lan egin biar izaten *dot eta*”, Altube Sebero, *Erderismos*, 213. orrialdean.

Perpau hauetako izen sintagma

“Esanak esan, *-elako* atzizkia daraman perpaua, gehienetan, ez zaigu izen sintagmaren barruan agertzen, *aditz sintagmaren* barruan baizik. Gehienetan, esan nahi da, *-elako* atzizkia duen perpaua, *aditzlaguna* izango da” (4).

– “Horregatik, bigarren perpauan, *aditzlaguna* dugu eta lehenengo perpaua txertatzen badugu, *aditzlagun* honen orde, badirudi txertatutako perpau hori ere *aditzlaguna* izango dugula. Horretaz, *diru guztia galdu dudalako* (= *diru guztia galdu dut +elako aditzlaguna* izango litzateke. *Aditzlagun honek zergatik* galderari erantzun baitio, *balio kausala* du: kausazkoa dela esango dugu” (5).

(3) a) “Zeren – bait”- gehien batetan Iparraldean erabiltzen da eta bestea Hegoaldean, batez ere, Bizkaian. Baina, egun, idazterakoan lehenak bigarrenari tokia kentzen dihardu.

b) “-(e)lako erlazio edo konektagailua daraman perpaua, *aditzlaguna* da eta beronen esannahia kausazkoa, adibidez:

Lan neketsua egin dutelako poz pozik ikusten ditugu.

(4) Patxi Goenaga: *Gramatika bideetan*. Erein. Donostia, 1978. 234. orrialdea.

(5) O. C. 235. orrialdea.

— “Zeren joera bezala behintzat, badirudi, *-elako* atzizkia daraman perpaus honek aditzaren aurrean joan behar duela, hots: galdegaia izan behar duela.

Dena dela, argi dago, *-elako* erlazio atzizkia daraman perpaus hau *aditzlaguna* dugu eta bere esanahia kausazkoa da” (6).

Sarrera gisara

Denok jakingo duzue, orain dela hogeitun urte, hots, 1959-XI-6 eta 7an, Euskaltzaindiak Juan Antonio Mogel idazleari omenaldi bat eskaini zion, Eibarren, *Euskaltzaleen Bilzarra* delakoaren izenean (1).

Nik hemen gogora-araziko dizuet, bakar bakarrik, orduan Juan San Martin jaunak, Euskaltzaindiko *euskera* aldizkarian idatzi zuena:

“...Mogel-engan naikoa ikasbide dugu, bere gaiak, antzianakoak izanik ere, oraindik irakurgarri ditugu. Zergatik? Berak ongi aditu zitualako euskeraren oiartzunak, ta orregatik jo zuen jatortasunaren garbizaletasunera, ta oraindik gaur ere, euskeraren onerako, izango al dugu bere lana gure erdugarri (2).

Beste gabe orain ekingo diet *Peru Abarka* eta *Laborantzako Liburua*-n agertzen diren perpaus kausalei.

Perpau kausalak

B.—**Peru Abarka** liburuan agertzen diren kausale moetak:

(6) O. C. 235. orrialdea.

(1) Juan Antonio Mogel: *Peru Abarka*. La Gran Enciclopedia Vasca. Bilbao, 1978.

(2) *Euskera*, 1960, 50. orrialdea.

1. "Zerren" + "-n" edo "-n" gabe:

1.1.—"... esango bazendu apaindu, *apeitan*, ordean, ederto esango zenduko, *zerren* zuek apainduten dituzun gure arpegiak uraz eta gero bizarra kendua". *Peru Abarka*, La Gran Enciclopedia Vasca. Bilbao, 1978. 19. orrialdea.

1.2.—"*Zerren* bestelango gaiso ikustetan baiño aloger edo bearsari geiago emoten baiatzu odola ateratearren". 21. orrialdea.

1.3.—"Egizu laster sangria egingo dozuna, *zerren* nire burua miñez ebaten daukat, ta besoa ez gitxiago". 45. orrialdea.

1.4.—"... aldi gaizto txaarren bat geien egingo iatzu ta obago zuretzat; *zerren* gitxiago sentiduko dozun mina". 46. orrialdea (2).

1.5.—"Ekartzuz abarka ta oneen mantaak, (3) baiña zeuk iantzi (4) beharko deutzazuz, *zerren* eztakit nik zelan iminten direan". 77. orrialdea.

2. "Elako":

2.1.—"Zuk barriz diñozu astaki bat izango dala, dongaro ianzen dalako, nekezaleakaz bat egiten dalako ta liburu zaararak austu ta baztertuta eukiko ditualako". 18. orrialdea.

2.2.—"... emoidazu esku ori, ta adiskide garelako ezau-garriztat egin daigun alborokea, ta au neure diruti". 24. orrialdea.

2.3.—"Beraz zor deutzaguz eskerrak Jaungoikoari gure bizitzeari iraun eragiteko emoten deuskulako zer ian". 38. orrialdea.

(2) Iparraldean egun ere erabiltzen da: "zerren + n"; berdin da: "zeren + eta" — zeren zuk esan duzun... "Zeren eta edo "zerren + (e)n" delakoek ba dute paralelismo nahiko beste hauekin: "-gatik" "-arren"; Adib: *etortzearengatik; etortzearren*. Gaztelania zaharrean, eta egun ere, Sefardiek hau erabiltzen dute: "¿De qué has abierto esa ventana?" eta ez "Por qué ...".

(3) *mantaak*: Mogelek "-a" itsatsia denean, gehien batetan, "-a" bi idazten du": "Olaan, alabaagatik...".

(4) *iantzi*: Haseran, egungo "j" gabe "i-" idazten du, ia beti: "iazo, iakin, ia, iagi, iosi ...". Behar bada orduan ez zen euskaraz "j-" erabiliko, gero behar bada, gaztelaniaren eraginpenagatik, sartuko zen...

2.4. "Iri guztiak deuee gorroto: eizaan dabilzanak, eroaten dituazalako eurak il gura iituen eperrak. Gurago ioek ilako bat sei eper baino, egiten dituazan kalteak gaiti. Etxee-tan ezin ikusi abee, oilloak "atrapetan" dituazalako". 55. orrialdea.

2.5.—"Etzaitu usigiko (haginka eginen) neugaz zakusanean, igarriko deutsalako zatozala bakez, ta ez ezer eroatera". 58. orrialdea (5).

2.6.—"Etorri nintzanean etxera esan eustan bere amaker iazo zan; ta dei eginda emon neutsazan eskerrak neure alaba onari, aserratu zalako, aserratu bear dabenean neskati-lla batek". 69. orrialdea (6).

2.7.—"Egingo naz gizon, ogia irabazteko duin, ta alan geroko nekeai emongo deutseet arpegi, irabazte obeaz ta gogorrangoak ikusita nagoalako" 83. orrialdea.

2.8.—"Onela ongi datorkio eizari, edo azeriaren izena, oillagor, eper, erbi, oillo ta gauza askoren eizaan ibilli oi dalako usaika zakurrak bezala". 120. orrialdea.

2.9.—"Sugea da subagea, otz otza dalako, ta au edozeinek daki". 120. orrialdea.

2.10.—"Katamotza esaten iako musu motza dabelako, ta katua dirudialako". 120. orrialdea.

2.11.—"Ardia da l-ardia. larrako belar-zalea dalako: ardiak eskatzen du larran ibiltea, an belarra iatea". 121-122. orrialdea.

2.12.—"Mingorra esaten da soinurik ioten eztabelako, dalako mutu ta isilla". 124. orrialdea (7).

(5) Seber Altube jaunak esaldi honen joskera ez zuen onartuko. *Erderismos* liburuan oso gogor eta biziki kritikatzten du Mogelen lan hau.

(6) Dabenean: duenean. Mogelek askotan erabiltzen du adizkera hau, eraz plurala baina esannahiez singularra. Gaur egun ere, hau askotan gertatzen da Bizkaiko zenbait tokitan, ia denean ez esateagatik.

(7) Hemen ere nabarmen agertzen zaigu joskera, hots "dalako mutu ta isilla", "Mutu ta isilla dalako" esan beharrean.

—Bestalde, berriz ere aditza era pluralean: *eztabelako* nahiz eta zentzua singularra eduki. Egun ere, hizketan gehien bat, honela erabiltzen da Markinaldean.

—Ikusi ahal dugunez, Mogelek ez du erabiltzen egun egiten dugun bezala "jotzen", "ibiltzen"... "ioten", "ibiltzen" etab. baizik. "-tzen" atzizkia fonetikaren eboluzioz etorritako zerbait dela nabari da hemen. Egun ere, Bizkaian, toki oskotan honela erabiltzen da, adibidez, Arratian.

2.13.—“Mirua esaten iako me-iruten *dabelako*; ta esaten da me iruten *dabela*, txito zuurra ta arte andietakoa dalako, txori ta txitatxuak atrapatako”. 126. orrialdea.

2.14.—“Gabillaia da osoz ega-billaia, *dabillelako* egaa, billatu, aratu, ta aztertuten zozo, birigarro ta beste txoriak”. 126. orrialdea.

3. “-nez + gero”:

4.1.—“Adiskidea: etzazaudaz zeure izenez, ta baketu *garean-ezker*o, iakin gura neuke zelan deritxun”. 26. orrialdea.

4.2.—“Eztaukat zuri zer itaundu geiago, ain ondo erantzun daustazun *ezker*o”. 122. orrialdea (8).

C) LABORANTZAKO LIBURUA edo BI AITA SEMEEN SOLASAK LABORANTZAREN GAINEAN

Jean Pierre Duvoisin

Ed. Hordago. Donostia, 1978

1. “Zeren + bait”:

1.1.—“Ez-da onthasunetik heldu dohatsutasuna, bainan bai eginbideak ongi bethetzetik, *zeren* bere eginbidea ongi bethetzen duen gizon prestua, eroria *baitago* bethi Jainkoaren nahira”. 4. orrialdea.

1.2.—“Bakea eta amodio ona izanen dira hekien artean, eta zeruak ere lagunduko ditu, *zeren* Jainkoari bakea eta amodioa baitzaizkio ederrenik”. 11. orrialdea.

(8) Nire ustez *ain* gabe *horren* erabili behar zuen, *zeren* bigarren pertsonari baitagokio eta ez hirugarrenari.

1.3.—“*Zeren* jakinez geroz nola eginak diren lur onak, hartarik ezagut baititake nola medea daitekeen lur tcharra”. 17. orrialdea (1).

1.4.—“Bigarrenekorik, hautsa da onkhailu hobeentatarik bat, *zeren* lurra ernatzen *baitu*, hala nola arno chorta batek gizon nekhatua?”. 32. orrialdea.

1.5.—“Euskal-herrian ikhusten direnetan, hobeena da habareta deitzen dena, *zeren* barna iraultzen baitut”. 32-33. orrialdeak.

1.6.—“Bainan egungo egunean, ez-da bizarrari hainbat begiratzan, *zeren* askotan ogi bizargabeak bizarra hartzen *baitute* tokiz aldatzetan”. 39. orrialdea.

1.7.—“Lur mehean ez-da hain bakhan egiteko, *zeren* aldaska gutiago eginen *baitu*”. 56. orrialdea.

1.8.—“Beretzat berriz ere, *zeren* bertze gehienek hola eginenez, berak ere lur hotzak kausitzen *baititu* dihoan lekhuari; *zeren* laborari ona balitz, ez-*bailitake* den tokitik khendua; eta bere burutarik goaten balitz ere, etche hobea atzeman *bailezake*, bere omen onaren kariaz”. 84. orrialdea (2).

1.9.—“Berentzat lehenbizikorik, *zeren* makhurrik baizik ez-baitute beren etchetiar tcharrekin”. 87. orrialdea.

1.10.—“Gizon bakhar batek lantzen badu golde bat lur on, bi gizonak ez-dute eginen golde bat eta erdi lur tchar, *zeren* lantzeko gaitzagoa *baita*”. 90. orrialdea.

1.11.—“... *zeren* lurrari ez *baitiote* khentzen gozo mota bera”. 95. orrialdea.

1.12.—“Ez-da hedatzen belharra. Sorhoan bezala, *zeren* gal *bailezake* hostoa eta ez-laite khuzkurra baizen geldi”. 96. orrialdea.

1.13.—“Eta ez-da han berean treflarik erainen bortz urthez *zeren* ez *bailaite* ongi ethor”. 97. Orrialdea (3).

(1) Adibide honetan kasu berezi bat ageri zaigu: “*zeren* + *n*”, “*bait*- + *-n*”: gehigarritzko era bat, baina idazleak, dirudienez, garbi markatu nahi du daukan asmo edo nahia.

(2) Kasu honetan hiru perpaus zergatikako edo kausal daude, bata bestearen ondoren, erreiteratibo gisara.

(3) Duvoisinek bai “ez” eta bai “bait” beti batzen ditu hurrengo aditzaz; lehena marratxo batez eta bigarrena aditzaren lehen fonemaz, fonetikazko arauak jarraituz.

1.14.—“... *zeren* hezetasuna maite *baitu* belharrak”. 101. orrialdea.

1.15.—“Zoletako lurra berenez aberatsena da, *zeren* urek gain-beheiti ekhartzen *baitiote* lur ona eta belhar onda-kinak”. 101. orrialdea.

1.16.—“Maldetako sorhoak izanen dira agorrak, *zeren* aspalditik uharrek larrutu *baitituzte* beren onkhailu guzietarik”. 105. orrialdea.

1.17.—“Ikhusten dut ez-dela zuhurtzia barnean edukitzea idorra ez den belharra, *zeren* hutsalduko *baita* segurki, eta etchea erreko *baitu* menturaz”. 122. orrialdea.

1.18.—“Bainan ez-dut hekietaz aiphu handirik eginen, *zeren* Eskal-Kerrian, erosi gabe, egin *erosi gabe*, egin *baitika-ke* behar den ongarrri guzia”. 138. Orrialdea.

1.19.—“Gehienetan azpira, *zeren* iguzkiak eta haizeak *ez-baitiote* hala indarrrik gutituko”. 142. orrialdea.

1.20.—“Zilhoa hesiz inguratzen da eta estaltzen mandio bat bezala edo teilaz, *zeren* estalia ez-balitz uriak ahul *baile-zake* urina”. 151. orrialdea.

1.21.—“Buru gaichtoa duenak adiskide on guti izanen du, *zeren* halakoekin ihardukiz makhur-biderik baizen *ez-baita*”. 159. orrialdea.

1.22.—“Ongarriari gisua ematen ez-da zuhurtzia, *zeren* ahulerazten *baitu*, lasterregi ernaraziz, eta indarra aireari emanez”. 162. orrialdea.

1.23.—“Oilo ongarrria etche guzietan bada eta balio du arthatsuki biltzea, *zeren* onkhailu beroenatarik *baita*”. 175. orrialdea.

1.24.—“Gisua, azpira ezarri gabe lurraren gainean uzten bada, bere balioaren erdia galtzen du, *zeren* mariatzen *baita* lurrari bere eginbidea egin gabe”. 182. orrialdea.

1.25.—“Ez-dezazula bihia erain, gisua mariatu den aintzinean, *zeren* ordu hartan ernatzen den haziaren botea erre *bailitake*”. 183. orrialdea.

1.26.—“(Igeltsu) ñabarra da hobeetik laborantzako, *zeren* gisu gehienik harek *baitagoka*”. 196. orrialdea.

1.27.—“Bai, ene semea, *zeren* askok ez-*baitakite* zer bidegabea egiten duten beren buruei, aziendentzat gogorrak izanez”. 241-2. orrialdeak.

1.28.—“Azienda batzuetan izarra ongi ageri da, *zeren* goitiko ileek eta beheitikoek, elkhar jotzearekin, kizkurdura bat egiten *baitute*, bizkitartean ez inguru guzian”. 246. orrialdea.

1.29.—“Hortako naiz ni-ere, *zeren* ez-*baita* gauza alferra hazgei ona edo tcharra etchean idukitzea”. 252. orrialdea.

1.30.—“Uste nuke hola ez-dela ongi, *zeren* belhar guzia *ezbaita* hain ongi berotzen”. 264. orrialdea.

1.31.—“Ardia maithagarri bezain ona da. Ez-naiz hartaz oraiarteo mintzatu, *zeren* azienda churia ez-*baita* gorria bezain guzizkoa laborarientzat”. 267. orrialdea.

1.32.—(Ardi) antchuek laguntza nahi dute eta beren bildotsekin lakhetarazi behar zayote, *zeren* ama batzuek beren lehenbiziko umeak higuin izaten *baitituzte*”. 272. orrialdea.

1.33.—“Bildotsen chikhiratzekotzat, dembora eder eta ezta hautatzen da, *zeren* aire kolpe gordin bat aski *baita* bildotsari herioaren emateko”. 272. orrialdea.

1.34.—“Bai *zeren* ez-*baitute* izaten behar den artha”. 275. orrialdea.

1.35.—“Gastuak ordean izituko ditu asko etcheko- jaun ttipi, *zeren* ez-*baitukete* larreen herstekoa ahalik”. 334. orrialdea.

1.36.—“... bainan bizi dagoeno uztea da hobeena, *zeren* adar nausia bethi hazkartuz *baitihoa*, eta geroago eta errechiago estaliko *baitu* muthurraren ebakilekhua”. 353. orrialdea.

1.37.—“Negu akhabantza da chederratzeko tenorerik hobeena, *zeren* zauriak orduan estaltzen *baitira* lasterrenik”. 356. orrialdea.

1.38.—“Urkhila hautsi nahi duzunean, mendebal aldeko adarra utz nozu nihondik ahal bada, *zeren* bertze alderdia errechiago sendatzen *baita*”. 358. orrialdea.

1.39.—“... erditarik laburtu behar dira, *zeren* erditarik mostua den adarra harritzen *baita*, *ez-baita* loditzen eta zurak hartzen *baitu* orduan arbolaren urtheko indarretik gehiago”. 360.361. orrialdeak (4).

1.40.—“Hemen mintzatuko naiz bereziki sagarraz, *zeren* hura *baita* guretzat baliosena, eta sagarrari dioazkien artha berak orobat on *baitira* bertze guzientzat”. 379. orrialdea.

2. “Ezen” + aditza arruntki:

2.1.—“Laboraria Jainkoaren obretan hari da; *ezen* Jainkoak egin *ditu* gizon guziak, eta Laborariaren eskutik hazten *ditu*”. 8. orrialdea (5).

2.2.—“Ongi atsegin handiarekin entzunen zaitut; *ezen* geroago eta gehiago maithatzen *dut* laborantza”. 13. orrialdea.

2.3.—“Ahalkagarri ere bada laborarientzat arbolarik ezizatea, *ezen* nor-nahik *erran dezake* alfer bat dela”. 16. orrialdea.

2.4.—... “*ezen* hazi sobera erainez, lasto chebe hainitz erakharrarazten *da* eta guti”. 55. orrialdea (6).

2.5.—“Hori ederra da, *ezen* hola bardinki eraiten *da*, ez da hazi galdurik eta lana ere ttipitzen *da*”. 69. orrialdea.

3. “-Elakotz”:

3.1.—“Behar da gisuztatu eta legarreztatu, legarrak gisuki hainitz *baduelakotz*”. 19. orrialdea.

(4) Dakusagunez hiru perpaus berdin agertzen zaizkigu jarraian; erreiterazio hau, behar bada, intentsitatea hobeki adierazteko erabiliko du.

Bait beti ez da kausala, batez ere, Iparraldean nonnahi edo kasu askotan erabiltzen baitute. Era berean, Bizkaian “ze” erabiltzen da; Zuberoan “ezik” eta Arrasaten “eze” < eze-(n).

(5) Kasu honetan “ezen” konektagailuaren ondoren eztarabil “-n”, eta “bait-” delakoak, azalpen kutsua baitu. Egun ere, askotan gertatzen da hau, batez ere, Hegoaldeko erabiltzean ahaztu egiten baitugu azken “bait-”. Adibidez: Ama etorri da, *zeren* poltsa etxean ikusi dugu.

(6) Kasuon nabari da lehen ezaugarria “ezen”, baina aditzak ez darama ezertxo itsatsirik. Honek adierazi nahi du idazleak nahiz eta jakin erabiltzen, askotan, gramatikazko legeak albo batetara uzten dituela.

3.2.—“Behinik behin, hazi gaichtoak erretzen dira asko marmutzekin eta iraulpena errechten, belhar tzarrak goan *direlakotz*”. 32. orrialdea.

3.3.—“Bai, lana errechago da, bainan ogi, arthoak ere errechkiago eramaten dira, gutiago *delakotz*”. 33. orrialdea.

3.4.—“Ez-dakit heya hori hola egiten duten, noiz-nahi gisua eskuanago *dutelakotz*”. 51. orrialdea (7).

3.5.—Lur oneko ogia, usu erainez, sasituko da, aldaska hainitz eginen *duelakotz*”. 56. orrialdea.

3.6.—“Frantziako laborantza ederretan eraiten da hainitz zaldibaba, ez bakharrik aziendentzat ona *delakotz*...”. 99. orrialdea.

3.7.—“Lurra hainitz urtsua delarik eta ondo handikoa, han barnacheago sartzen dira, ura berago jausten *delakotz*”. 115. orrialdea.

3.8.—“Samats horrek bertzeak baino luzezago egon behar du egiten, hotzagoa *delakotz*”. 152. orrialdea.

3.9.—“Neguan da hobeena, eta orduan ere da gure tokietan gehienik, abereek harbia jaten *dutelakotz*”. 167-168. orrialdeak.

3.10.—“Baratze-lurra arina balimbada, emozu behi ongarria, hezeena *delakotz*”. 169. orrialdea.

3.11.—“Alde hetan ez-*delakotz* hemen bezala ihaurkinik, gu baino ohartuagoak dira ongarri egiteko bide guziei”. 172. orrialdea.

3.12.—“Urak eta iguzkiak goizegi ernaraz *letzazketelakotz*, atherbean behar dute metatu”. 174. orrialdea.

3.13.—“Legarrak ez-du berotzen, bainan bai zathitzen eta hezatzen ura beregana deitzen *duelakotz*”. 183. orrialdea.

3.14.—“Abereek ez-dute teila-arrasa lakhet, hotzak eta beroak hobeki jotzen *ditulakotz* halako heyan”. 218. orrialdea (8).

(7) Dirudienez “bait-” lokarriaz hobe litzateke, baina ikusi ahal dugunez Duvoisinek ez du arau tinkorik betetzen.

(8) Ohar gisara, baina hona hemen Jean Pierre Duvoisin-ek proposatzen dituen urteko hilabeteen izenak, eskierki: “Urtharrila, Otsaila, Martchoa, Aphirila, Maihatza, Erayeroa, Uztaila, Aboztua, Buruila, Urria, Hazila, Abendoa”.

3.15.—“Mentura tchar gutiago dukezu, ephea laburrago *delakotz*”. 259. orrialdea.

3.16.—“Zertako prentsätzen da bazka?

Hobe *delakotz* dudarik gabe”. 262. orrialdea.

3.17.—“Hiru aste duten umeei ematen zayote goiz-arrets ura artho irin liphar batez churiturik hazkartzen hari *direlakotz* eta belhar alhatzen hasiak”. 284. orrialdea.

3.18.—“Bainan badira larre hainitz ezin-phezoinetzta daitezkeenak, lekhuana ez-*duelakotz* manatzen”. 337 orrialdea.

3.19.—“... halere laborariak ez-du izanen zur motzik bai-zen, hastetik landarez ez-*duelakotz* goiti bidatu”. 348. orrialdea.

3.20.—“Erditik labur zatzu. Hekien gainekoak, meharra-goak *direlakotz*, arrasa detzaketzu, baldin moztu beharrak badira”. 362. orrialdea.

4. “Ø . bait-”:

4.1.—“Nekhe da hori chuchen jakitea, ez-*baita* errecha ezagutzen”. 50. orrialdea.

4.2.—“Noiz-ere hain beroa izanen *baita* ur hura ...”. 51. orrialdea.

4.3.—“... bertzenaz bertze urthekotzat pozoina utz *bailezake*”. 54. orrialdea.

4.4.—“Ongarri Angelatarra batentzat bederatzi hiratze angelalara, erran-nahi *baita* batentzat bederatzi”. 162. orrialdea (9).

4.5.—“... kalte egin dezake; hainitz emanek toki berean, beharrak erreko *baititu*”. 167. orrialdea.

4.6.—“Egia soberatua! ene semea; eta hartarik heldu da landare hainitz hiltzen *baita*”. 343. orrialdea (10).

(9) Kasu honetan ez da aurremarkarik nabari.

(10) Perpaus honetan ez da ageri aurreloturarik, orain arte ia beti agertzen izan baita ere. Bestalde “Landareak hil” erabiltzen du. Nire gurasoek “hil” aditzta pertsonentzako mugatzen dute, bakar bakarrik, eta beste kasuetarako *galdu*. Ohi-tura hau dirudienek, lehen behintzat, nahiko hedatua zen euskal hizlarien artean. Kasu hau, askotan, frogatua daukat.

4.7.—“Handik bertze urthean, hori izanen *baita* hirugarrena, ondotik...”. 352. orrialdea.

4.8.—“Chederratzeak egiten dira izerdia geldi dagoeanean, erran-nahi *baita* negu haste edo akhabantzetan”. 356. orrialdea.

D) AZKEN XEHETASUN BATZU

Ikusi ahal izan dugunez, *Laborantzako Liburua*, *Peru Abarka* baino zatiz ere aberatsagoa da perpauk kausal sailean.

Honela ba gonbara ahal ditugu:

1. “Zerren + -n”:
 a) *Peru Abarka*: 6 perpauk
 b) *Laborantzako Liburua*: 0 perpauk.
2. “Zeren + bait-”:
 a) *Peru Abarka*: 0 perpauk
 b) *Laborantzako Liburua*: 54 perpauk.
3. “-elako, -elakotz”:
 a) *Peru Abarka*: 14 perpauk.
 b) *Laborantzako Liburua* (-elakotz): 20 perpauk.
4. “-nez + gero”:
 a) *Peru Abarka*: 2 perpauk.
 b) *Laborantzako Liburua*: 0 perpauk.
5. “Ezen” + aditza gradu Ø:
 a) *Peru Abarka*: 0 perpauk
 b) *Laborantzako liburua*: 5 perpauk.

6. " \emptyset + bait":

- a) *Peru Abarka*: 0 perpaus
- b) *Laborantzako Liburua*: 8 perpaus.

Kausale moetak *-elakotz*, *bait*- izan ezik, gaur egun ia hizketa mailan, ez dira erabiltzen, behinik behin, Hegoaldean. Egungo idazle batzuk bai erabiltzen dituzte, nahiz eta batzutan astun gisa iruditu irakurleari.

Guztionez adierazten digu, nola Mogekek elkarrizketa gisa idatzi duen, gehien bat, eta pobreago ateratzen esaldi txertatueta. Duvoisin idazleak ere, elkarrizketa gisa idazten du, baina alegoria mailan edo literatura kutsu haundiagoz.

Bestalde ia Mogelen garaian, XVIII. mendearen amaieran, agertzen den euskararen maila nahiko murriztua ikusi ahal dugu; baina gehien bat, Mogekek esaldi txertatuak albo batetara uzten dituelako, esaldi labur eta ulerkorak eginez, edo, behar bada, idazleak ezagutzen ez zuelako gehiagorik.

Azkenez esan beharra dago, hizkuntza mailan ez dagoela, matematikan moduan, $2 + 2 = 4$. Hizkuntzan salbuespen asko ageri da eta horrengatik, askotan, zein moetatako esaldiak diren ez da erraz garbi ikusten.

PERPAUS KONPLETIBOEI BURUZ

Patxi Goenaga

Arrasate, 1979-XII-22

Beste edozer baino lehen ohar bat egin behar dut: nere lana *corpus* txiki baten deskribapena, aurkezpena, besterik ez da izango. *Corpus* hau Juan Bautista AGUIRREren *Eracusal-diac obraren* lehen liburua izango da. Liburu horretan jasotako zenbait datu aurkeztera mugatuko da nere lana. Gramatika Sortzaileak Estrukturalismoari egozten dion akatsa *taxonomia* hutsean gelditzea da, hots: hizkuntz fenomenoen deskribapen eta sailkapen soilean. Baina, bistan da, euskaraz behintzat, fenomenoen deskribapen hori ere oraindik, hein handi batean, eginkizun dugula. Askotan deskribapen lana ere egiteko baitugu. Honenbestez, zilegi bekigu, Agirre Astea-sukoaren zati bat *corpus*tzat harturik honen deskribapen bat egitea. Deskribapena egitea eta datuen esplikazioa ematea bi gauza dira. Gure kasuan, esplikazioetara iristeko —denok ulertuko duzuenez— azterketa sakonagoak egin beharko dira eta, gainera, benetako esplikazioa lortu nahi bada, *corpus* guztien gaineratik altxatu beharko ditugu begiak. Horregatik, *corpus*-az gainera gramatikariaren beraren "gaitasunera" ere sarri jo beharko da, gauzak behar bezala aztertzeke.

Egia esateko, lan honi heldu nionean, Altubek eta Azkuek (1) -LA eta -NA-ri buruz ziotena egiaztatu edo gezur-

(1) Ik. Sebero ALTUBE, *Erderismos*, 119-121 orr. eta baita *Observaciones al tratado de "Morfología Vasca"* de Don R. M. de Azkue, 74 orr.

Eta baita, R. M.^a de AZKUE, *Morfología Vasca*, 559 parr. eta *Diccionario Vasco-Español-Francés*, -NA-ren sarreran.

tatu nahian ekin nion, uste bainuen agian semantika arrazoiak egon zitezkeela bereizketa horretan. Baina nere lehenbiziko asmoak porrot egin zidan berehala, Agirrek *-NA* inoiz erabiltzen ez zuela ikustean. Baina bi atzizki horiek gora behera, interesgarri iruditu zitzaidan konpletiboei begirada bat ematea. Izan ere, *-LA/-NA* bereizketarik agertzen ez bazaigu ere, bada beste bereizkuntza zenbait, denok normalki egiten ditugunak, baina hori zergatik den galdegingo baligute, ez genuke, seguru asko, erantzuten jakingo. *Etortzea pentsatu dut / etorriko naizela pentsatu dut; ez dut etortzerik pentsatu / ez dut etortzea pentsatu; Ez dut etorriko naizela pentsatu / ez dut etorriko naizenik pentsatu* erako perpausei buruz ari naiz. Semantika gorabeherak tartean direlarik, oso polita izango litzateke banan banan semantika desberdintasun bakoitzari subordinatzaile bereizia dagokiola aurkitzea. Hori, zoritxarrez, ezina da. Zenbait korrespondentzia gerta daitezke —iruditzen zait— baina askotan gauzak elkarrekin gurtzatzen eta nahaspilatzen dira. Kontua da badirudiela askotan semantika era berdineko egiturek jokabide berdina dutela zenbait transformazioren aurrean. Eta, horregatik, agian, perpaus hauen azpiegitura bilatzen hasten bagara, perpaus subordinatu hauek klase semantiko desberdinetakoak baldin badira, esan nahiko du sakonean representazio sintaktiko berezia izango dutela (2).

Baina hau dena lan luzea da eta ez daiteke *corpus* txiki eta mugatu batekin egin. Hau lehen pauso txiki bat besterik ez da, egiteko asmoa dudan lan zabalago baten lehen urratsa. Hortaz, eta gure harira etorritz, lan honen helburua zenbait arazo aurkeztea besterik ez da izango. Gramatiketan eta, gauzak oso era sinplean agertzen zaizkigu, baina ikusiko dugun bezala, gauza hauek sinpletik oso gutxi dute, edozein egituraren aurrean pila bat galdera sortzen baitzaizkigu. Horregatik, Agirre Asteasukoak eskaintzen dizkigun datuen

(2) Espainolari buruz aipa daiteke Violeta DEMONTE-ren *La Subordinación sustantiva*, Madrid, Cátedra, 1977. Autore honek hiru tipo semantiko bereizten ditu: faktiboak, proposizionalak eta ekintzazkoak, bakoitzari sakoneko egitura berezia dagokiolarik. Dena dela, holako perpausei buruzko lanak ugari dira eta jakina, gauzak esplikatzeko orduan, ez datoz bat. Horretarako, ikusi besterik ez dago Demontek aurrreko bibliografiari ematen dion errepasoa. Euskaraz, noski, ilunpe osoan gabiltza oraingoz.

aurkezpenaz gainera, gehienez ere, zenbait puntu —han hemenka aterako zaizkigunak— aipatu besterik ez dugu egingo, inolako sakontasun eta osotasun asmorik gabe. Gehiengotan, galderak aidean geratuko dira.

Bi zatitan banatuko dut nere lana: a) -LA atzizkiaren erabilera eta b) aditz izenaz lortzen ditugun perpaus txertatu batzuren aurkezpena. Bereziki, lehenbizikoekin duten zerikusia dela medio. Bigarren honetan ez ditugu aztertuko aditz izenaren erabilera guztiak, -T(Z)EA forma baizik.

a) -LA atzizkiaren erabilera

1.—Aditza indikatiboan doalarik agertzen zaigu lehenbizi perpaus konpletiboa. Adibidez:

(1) *adirazteco, Jainco bat bacarra bada ere, dala iru Persona* (57)

(2) *aitortu det, ez naizala, ni, zu nere biotzera etortzeco diña* (320)

(3) *beldur naiz, zure confesioac izan dirala gaiztoac* (242)

Adibide pila bat eman genezake, baina denek eskema berdintsua jarraitzen dutenez, adibide horiekin aski dela deritzat. Hala ere ohar bat egin behar dela uste dut ordenari buruz. Altubek -LA atzizkia perpaus txertatua galdegai denerrako uzten zuen eta, gainerako kasuetan, berriz, -NA. Agirrek, ordea, -NA inoz ez erabiltzeaz gainera, ia beti perpaus txertatua perpaus nagusiaren ondoren botatzen du. Goiko adibide horiek lekuko. Egia da, inoiz aditz nagusiaren aurrean ere jartzen duela, baina perpaus horiek oso kopuru txikia osatzen dute. Dena dela, guri interesatzen zaigunerako ez dut uste ordena kontu honek gauzak gehiegi aldatzen dituenik, zeren beti, eta hutsik egin gabe, -LA atzizkiaz baliatzen baita.

Bestalde, interesgarri izan daiteke perpaus nagusian zein aditz agertzen diren ikustea. Hots: zein aditzen menpean dauden direlako perpaus konpletibo horiek. Gramatika tradizionalan beti hartu izan dira kontutan aditz mota desberdinak, eta transformatibistek ere —ikuspegia aski desberdina

bada ere— kontutan hartzen dute aditz nagusia (3). Hona hemen, beraz, -LA atzizkidun perpaus hauek zein aditzen mendean aurkitzen diren: *adierazi, aditu, aditzera eman; agindu* ("prometatu" zentzuan); *aitortu, ahaztu, atera, begiratu, beldur izan, kontatu, kontuegin, dio, demagun, hitza eman, ikusi, erabaki, erakutsi, erantzun, eritzi, esan, ezagutu, gaztigatu, gogoratu, gogorra ekarri, igerri, iritsi, dirudi, jakin, oroitu, sinistu, ukatu, uste.*

2.—Aditz hauen mende agertzen zaizkigun perpaus konpletibo hauek gehienak objetoaren lekuan egongo dira baina badira bakarren batzu perpausaren sujeto gisa agertzen direnak ere:

(4) *¿Nori gogoraco zayo illac eta ustelduac daudela oriec?* (32)

(5) *Guero gogoratzen zatzu iru aldiz Aitari eguin ceniola birau* (153)

Honela hartu beharko dira perpaus kopulatibo batean txertatuak agertzen zaizkigunak ere:

(6) *Eztaquigu, cer igaro citzayon becatari oni; baña beldur izateko da, aimbeste Comunio gaiztoren buruan gogortua gueratu citzayola biotza, eta etzala Jaunagana biurtu biotz osoz* (431).

(7) *Fedeco gauza da, Jesusen neque-oñaceac izan cirala neurric gabe baliotsuac* (295).

Holakoetan honako predikatuak aurkitu ditut: *egia da, fedeco gauza da, gauza jaquiña da, jaquintsuen iritzia da, da*

(3) Adibidez, "prometer" —dio Demontek— formaría parte de los verbos que, por diversas razones que aún no hemos expuesto, admiten un infinitivo como completivo y sería un verbo proposicional de "logro", mientras que "adivinar", también con esquema de logro, no acepta infinitivos y "desear", verbo proposicional de "estado", exigirá obligatoriamente una completiva de infinitivo en determinadas circunstancias sintácticas (...). Creo, sin embargo (...) que a despecho de esas diferencias más o menos profundas, a todas estas oraciones les debe corresponder una misma estructura subyacente puesto que todos los verbos de sus matrices son proposicionales. Con ello replanteo la hipótesis de que hay tantas estructuras profundas para las oraciones completivas como *tipos semánticos de verbos que toman subordinadas. Tipos, repito, que se establecen no de acuerdo con el significado de los mismos (deseo, lengua, entendimiento), [gramatika tradizionalean bezala], sino con el tipo de objeto que sea la subordinada por ellos regida* (algo en el mundo real, algo en el mundo lingüístico), y, en cada caso, por tanto, cuál sea el contenido descriptivo de la misma". V. DEMONTE, *op. cit.*, 127 orr. (azpimarratuak nerek dira).

siñale aguiria, beldur izateco da, esan dezaquedana da, ecusia dago.

Lehenbiziko biak izan ezik (eguia da eta fedeco gauza da, alegia) beste guztietan aditz batekin zerikusia duen adjetibo bat nahiz izen bat aurkitzen dugu: jaquiña, iritzia, esan, ecusia... Eta agian horrek esplikatuko luke hemen -LA atzizkidun konpletiboa agertzea eta, itxuraz behintzat egitura berdina duten beste perpaus hauetan, berriz, -T(Z)EA forma agertzea.

(8) *batec bere anima galtzea, gauza izugarria da* (225)

(9) *besteric esatea da heregia bat* (107)

Gauzak nola gertatzen diren uste dut argi dagoela. Zergatik diren horrela jakitea beste kontu bat litzateke. Hain zuzen (8) perpausaren ordeztu beste hau jartzea ez da zilegi:

(8') **batec bere anima galdu duela, gauza izugarria da*
Bestalde, zergatik esan daiteke, berriz, beste hau?

(8'') *(gauzarik) izugarriena da batec bere anima galdu duela.*

Jakina, perpaus hauek neuk neure kolkotik atera ditut, baina inork ez dit ukatuko arazo direla (ala *direnik?*).

3.—Antzeko egituratzat jo daitezke denbora adierazteko erabiltzen ditugunak ere. Hona hemen jaso ditudanen eredu-tzat eman daitezkeenak:

(10) *Aspaldi da iguesi zabilzala Jaunaren itzagandic*
(88)

(11) *Sei milla urte bezala dira Cain ara jachi zala* (178)

(12) *Urte betera dioa, dotrina batzuec adituta, Jaunac biotzean uquitu ninduala* (214)

4.—LA atzizkia ager daiteke, baita ere, perpaus moduzkoetan. Hauek gure gaurko aztergaia ez direnez, albora utziko ditugu. Norbaitek, hala ere, galde dezake zertan oinarrituta bereizten ditugun bi eratako perpaus horiek. Ez da zaila. Esanahiaz aparte, edozein aditzi lotuak agertuko zaizkigu, baina aditz horrek bere Izen Sintagma (objetoa, alegia) duela-rik edo inolako Izen Sintagmarik behar ez duelarik. Bestalde, -LA hori -LARIK-ez aldatzen badugu, esanahiak ez du inolako aldakuntzarik izango. Hona hemen zenbait adibide:

(13) *Orra, ceñ miragarria dan graciaren doai, eta apaindura, uqitu diran iru alde oetatic beguiratzen zayola* (36)

(14) *Arrituric, eta cer guertatzen zatzun eztaquizula gueratzen cera* (34) (4)

5.—Perpaua nagusia ezezka ematen denean

Gauza jakina da perpaua nagusia ezezka agertzen baldin bada, perpaua txertatuak -LA atzizkiaren ordez -NIK atzizkia hartzen duela askotan. Teoriaz behintzat, badirudi bi atzizkiak ager daitezkeela perpaua ezezka doanean. Kontua da, hala ere, zein den bien rteko desberdintasuna, zeren pentsa daiteke badela desberdintasunen bat... Bestela, nola esplikatu perpaua batzuren ezgramatikaltasuna -LA-ren ordez -NIK jartzen badugu ezezko testuinguru batean? Adibidez:

(7') **Ez da fedeco gauza, Jesusen neque-oñaceac izan ciranic neurriric gabe baliotsuac.*

Honen ez-gramatikaltasuna zeharo nabarmena dugu (7) perpauarekin konparatzen badugu (3) I⁵.

Dena dela, oraingoan behintzat gure *corpus*-etik kanpora atera beharko genuke, Agirre Asteasukoak, irakurri dudatan zatian behintzat, ez baitu inoiz ezezko perpauetan -NIK atzizki hori erabiltzen. Egia da oso adibide gutxi jaso ahal izan dugula, baina jasotako guztietan, beti -LA atzizkia agertzen zaigu. Hona hemen adibide batzu:

(4) Bestalde, ohartzen gara, neretzat behintzat aski harrigarria den fenomeno batez alegia. Agirrek, guk erabiliko genukeen *partizipio burutua* + $\left\{ \begin{matrix} \text{ik} \\ z \end{matrix} \right\}$ egituraren ordez, ia beti *P + La* dakarrela.

eta gueyenac vici dira becatuaren ur ustelac edaten dituela (41); *guertatzen da cenbait aldiz, ama (...) aurra ecin eguin duala egotea* (66); *Ecín iguerri bada (...) batayatu diteque guizon jaquintsu ascoren iritzian, esaten dirala itzac era onetan...* (65)

Hau ia ia sistimatikoa da. Hasieran ez nion honi jaramon handiegirik egin baina, dena dela, *esanaz* eta *esanik* erako adizkiak oso gutxitan agertuko zaizkigu, -La atzizkidun perpaua behin eta berriro agertuko zaigun bitartean. Hala ere, adibideren bat edo beste eman daiteke: *aren fruta janaz vici citequean guizonna* (481) *Orregatic, utziric quezca farregarri oec, arreta andia ipiñi bear degu* (11).

(5) Kasu hauetan, bestalde, argi dago zergatik ez den -ik atzizkirik agertzen. Perpaua kopulatibo baten sujetoa partitiboan, beraz mugagabea, joan ez daitekeen bezalaxe: berria egia da / *berririk ez da egia.

(15) *ez uste izan nolainai eman digula Elizak Sacramentu au* (80)

(16) *batzuec ez due uste, onezco damu, edo contricioa-requin Jaunagana biurtzera daudela beartuac* (185)

(17) *eciñ ucatu diteque, asco laguntzen duela liburu onac* (463)

(18) *Eztaquizue, zuen gorputz oriec dirala Espiritu Santuaren vicilecu edo Eliza?*

Ez dut oraingoz datu gehiegirik, baina agian -LA/-NIK bereizketa hiztunaren *presuposizio* desberdinetan egongo litzateke. Alegia, -LA-k konpletiboaren egia presuposatuko luke eta-NIK-ek, berriz, ez. Hala ere, agian -zorioneko agian-bereizi egin beharko lirateke (15) eta (16) perpausa. Esan nahi da, behar bada, bereizketa horrek ez lukeela agintezko aditz formetarako balioko. Hau dena susmo mailan utzi nahi nuke, zeren Agirrek ez baitigu gehiagotarako oinarririk ematen. Baina zenbaitetan, edo zenbait aditzek, nahiz eta ezezka emanak izan, beren konpletiboari -NIK atzizkia hartzen ez uzteak zerbait esan nahi duela iruditzen zait. Baina oraingoz behintzat hipotesi bat besterik ez da. Hobeto aztertu beharko litzateke eta, Riverok espainolarekin egiten duen bezala⁶ ikusten saiatu zer gertatzen den esaldi horiekin zenbait transformazio jasan arazten zaienean, "ezeztapenaren garraiatzea", "sujeto baliokidearen ezabatzea" eta abar. Baina oraingoz, eta ezin bestean, galdera hor uzten dut beste baterako.

6.—*Perpaus konpletiboak aditza batzutan subjuntiboan darama.*

a) Deklaratibo soilak izan gabe agindu bat edo eskari bat adierazten dugunean, subjuntiboa ager daiteke perpaus konpletiboan:

(19) *eta emengo legueac aguintzen du, ecarri ditezela jayotzatic amar egunen barrumbean* (68)

(20) *eta agindu zuan, quen cequiola Erreguiñari vicia* (74)

(6) M.^a Luisa RIVERO, "El modo y la presuposición", bere *Estudios de Gramática Generativa del Español* liburuan, 39-67 orr. Eta baita, liburu berean, "Estudio de una transformación en la Gramática Generativa del español: el Transporte de la Negación" 19-35 orr.

Baina *agindu* aditzaz aparte beste zenbait aditzekin ere agertuko zaigu era bereko agitura:

(21) *Cer aditzera ematen ote digu S. Pauloc itz oetan? Beguira deguiogula bacoitzac bere biotzari* (438)

Perpau nagusian agertzen diren aditzak honako hauek dira: *deitu, dio, erakutsi, esan, erregutu, eskatu, gaztigatu, hotsegin*.

b) Inolako perpau nagusirik gabe, azaleko egituran behintzat, agertzen da SUBJ + LA erako egitura.

(22) *oec izan ditezela guchi, edo asco, quentzen, eta barcatzen ditu Comunioac* (383)

(23) *Miñance au izugarria da, nondic nai beguira daquiola* (402)

Hauek baino "normalagoak" —nere belarrietarako behintzat— beste hauek dira:

(24) *Nere Cristaua, etzaitzela engañatu munduaren losencha eta erausiaquin* (308-309) (7).

7.—Zehargalderak

Hasieran esan dudan bezala, nere kezkarik nagusiena, hasieran, -LA/-NA berizkuntza zen. Horregatik, zehargalderen arazoa ez zitzaidan kontutan hartzekoa iruditu, zehargalderetan beti atzizki bera agertzen baitzaigu: -N. Problema, agian, atzizkiarena ez, baizik zein aditzekin egin daitezkeen era honetako galderak, hori izango litzateke. Zeren begien bistakoa da edozein aditzekin ez daitekeela zehargalderarik agertu. Kontua, hortaz, galderazko konpletiboak amititzen dituzten aditzak zein diren jakitea izango litzateke. Baina

(7) Subjuntiboarekin gora eta behera ari garenez, aipatu beharko lirateke beste egitura batzu ere, nahiz eta -LA atzizkirik ez eraman. Adibidez, *beldur*-en inguruan agertzen zaigun subjuntiboa:

—*egin dituzu (...) batzuetan aur asco izan ditzatzun beldurrez* (244) Perpau hau *etorri dediñ arte* eta antzekoen tankerakoa dela esango nuke. Holako perpau denborazkoak ugari aurkituko ditugu Agirrerenagan. Baina agian, beste hau ez da era horretakoa:

—*beldurtu zan Josue, illundu cequion etsayac osotoro desequin baño len* (360)

Agian azken hau ere konpletibotzat hartu beharko da edo, bestela *illundu cequion beldurra*-tik deribatu.

nere lantxo honek bere mugak dituenez, arazo hori lanaren mugetatik kanpo uzten dut.

Hala ere, aipatu nahi nuke, zehargalderak direla eta, zenbait aditzen jokabidea galderei edo galdetzailerei buruz. Adibide batekin hobeto ulertuko da:

(25) *Certaco etorri dala uste dezu?* (463)

Certaco etorri da? galdera dela argi dago. Hala ere, ez dugu -N atzizkia aurkitzen. Horrek zer esan nahi du, ez gaudela zehargalderaren aurrean? Badirudi ezetz, ez dela zehargaldera. *Uste* bezalako aditzek, nonbait, permititzen dute menpean duten perpausetik zenbait atal kanpora ateratzea. Kasu honetan galdetzaila izan da kanpora atera duguna transformazioren baten bidez. Eta, horregatik, (25) perpausa beste perpaus bati txertatua agertzen bazaigu, *certaco* galdetzaila *uste dezu*-rekin doala ikusiko dugu eta ez, *etorri da*-rekin:

(26) *Galdetu dizut certaco etorri dala uste dezun*
edo agian hobeto:

(26') *Galdetu dizut certaco uste dezun etorri dala*

-N atzizkia *uste dezu*-ri erantsi behar izan diogunez, bistan da *certaco* goiko perpausera igo zaigula. Perpaus txertatutik elementuak ateratze hau ez omen da posible aditz faktiboekin eta hau izango litzateke sakoneko egitura berezia proposatzeko arrazoi bat (8). Datu asko izan behar dira kontutan fenomeno sintaktikoak eta semantikoak aztertzerakoan, baina hau izango litzateke bat. Ez dugu honetaz gehiago esateko astirik. Baina hor dago datua.

b) *Aditz izenaren erabilera*

Hemen gure datuak bi sailetan banatu beharren aurkitzen gara. Zeren perpaus nagusiko zenbait aditzek beti forma hau eskatzen du bere konplementoan, baina beste zenbait

(8) Ik. P. Kiparsky eta C. Kiparsky, "Hechos", in V. Sánchez de Zavala, *Semántica y sintaxis en la linguística transformatoria* 2 gn. alea, 59 eta hurr. orr. eta baita, John Robert Ross, *Constraints on variables in Syntax*, 66Z-68.

Hain zuzen, *certaco etorri dala uste dezu?* galde badaiteke ere, **certaco etorri dala jaquin dezu* ezin daiteke galde. Horrek esan nahiko luke, agian sakoneko egitura berezia dutela perpaus batak eta besteak. Hala ere, ikus kiparskytarren lanak daraman 9-grn. oharra.

aditzekin, berriz, -LA atzizkiduna eta -T(Z)EA, biak, agertuko zaizkigu. Eta hemen ere galde daiteke zein den bien arteko desberdintasuna, desberdintasunik baldin bada. Beste hizkuntzetan, ingelesez adibidez, zenbaitek bientzako sakoneko egitura berdina proposatu izan du (9). Baina ez dirudi gauzak horrela direnik. Euskaraz ere aztertu behar den puntu bat dugu. Hemen, datuak aurkeztuko ditugu, beti bezala.

= Hortaz, zenbait aditzek, beren menpekoan -T(Z)EA bakarrik onartzen du. Hona hemen adibide batzu:

(27) *eta cenbat costa citzayon Jesus onari doai au guretzat irabaztea* (631)

(28) *David Erregueac damu zuan testamentuco cucha Jerusalemen ez eduquitzea* (429) (10)

Hona hemen beste zenbait aditz -T(Z)EA erako konplementoa daramatenak: *debekatu, deitu, ekarri, egon (dagoca), eman, eragotzi, etorri, galerazi, gertatu, kendu*.

Nominalizazio hauetan betidanik bereizi izan ditugu batzu besteengandik, batzu beste batzu baino "izenago" edo, agertzen zaizkigulako. Adibidez, agian, ez genituzke zaku berean sartu behar honako bi perpausotan agertzen diren nominalizazioak:

(29) *ascotan guertatzen da, Cristaua arquitzea confesioac berritzeco premian* (139)

(9) Baina "Nuestro análisis de las presuposiciones en el sistema de la completivación constituye un buen ejemplo de la relación entre sintaxis y semántica, y nos permite subsanar un error que se ha cometido en la mayor parte de los trabajos realizados en sintaxis transformacional; error que consiste en suponer que diferentes tipos de complementos (cláusulas con *that*, gerundios, infinitivos) tienen todos la misma estructura profunda y por tanto son semánticamente equivalentes", P. eta C. Kiparsky, "Hechos", 76. orr.

Ik. baita V. Demonte, *op. cit.* 5. kapitulua.

(10) Baina bigarren perpaus honen ondoan beste hauek ere agertuko zaizkigu:

– *Urliari neque andi gabe damutuco zayo mandamentu batzuen contraco becatuaz, ¿baña lagun gaiztoaquin biltzeaz?* (165)

– *Berendiac errez damu izango du lagun urcoari bota cion birauaz; baña ez, duana, eta ez duana edariari emateaz* (165)

Eta baita, azkenean, partizipio burutuaz baliatuz ere:

– *Damu det zu ofendituaz* (195)

(30) *Ez dezazula, dio, egunetik egunera luzatu Jaunagana biurtzea* (186)

Agian azken perpaus honi sujetoa agerian jarri beharko bagenio, genitiboan jarriko genioke, (29)-k nor kasuan duen bitartean.

(30') *Ez dezazula (...) luzatu zure Jaunagana biurtzea.*

(30'') *Ez dezazula (...) luzatu zu Jaunagana biurtzea*

Bestalde, perpaus hauen "izentasun mailan" beste aukera batzu ere ager dakizkiguke, erakusleak eta adjetiboak direla tartean:

(31) *Jaungoico Gucialduna bera sua eracequitzen, eta vizcortzen ari dala esate au da adierazteco...* (269)

(32) *ceren guertatu diran gauza nazcagarriac aitatze utsac ciquindu litzaquean zuen gogo, ta biotzac* (249)

= Baina arazoa da zenbait aditzek bi eratako konplementoak onartzen dituztela. Hona hemen *Eracusaldiac* liburuak eskaintzen dizkigun adibideak:

1) Aditu:

(33) *Cer aditzen dezu confesioaren icenez? Aditzen det eguindaco becatuac airtortzea edo esatea barcatzeko escua duan Apaizari* (231)

(34) *Cer aditzen dezu (...)? Aditzen det, comunioco Sacramentua artu bear degula...* (437)

2) Agindu:

(35) *aguindu cenduan cere estadu edo vicimoduan obra onakin arguieguita* (89)

36. *eta ordutanik aguindu cenduan, icasico cenduala Jesusen legue Santa* (88)

3) *Izan*: Lehenago aipatu ditugu honi buruzko zenbait gorabehera.

4. Iritsi:

(37) *onela iritsico dezu, beticotasun gucian zure Jaunarequin Ceruan vicitzea* (309)

(38) *fedearen arguiarequin iristen degu, eguin dezaqueala Jaunac...* (361)

Hemen, agian, *iritzi* bi zentzu desberdinetan hartu dago.

5) *Eritzi*:

(39) *Orregatic gauz egoquia deritzat, Comunioco liburuac asmo onen gañean dacarrena ugarisêago azaltzea* (200)

(40) *Bâderitzat, nere Cristaua, aditzera eman ditudan gauz oetatic iguerri dezaquezula...* (147)

Bi perpau hauetan, -T(Z)EA formakoa eta -LA duena leku desberdinean txertatuak agertzen zaizkigu. (39) perpaua agian hobeto legoke *azaltzea*-ren orde *azaltzeari* esango balu. Baina arau horren kontra jo gabe ere zuzentzat eman daiteke perpau hori, honela ulertzen badugu, hots: (...) *ugarisêago azaltzea gauz egoquia dela deritzat*. Gauzak honela badira, *eritzi* aditzaren mende doan konpletiboak beti -LA atzizkia eramango luke.

6) *Erabaki*:

(41) *osotoro erabaquitzen du bertatic beti betico utzitzea becatu diran gauza guciac* (202)

(42) *Elizaco Concilioac erabaqui zuen, balio duala eregeac emandaco batayoac* 60

7) *Ikusi*:

(43) *Bein baño gueyagotan ecusi da (...) beco erza escuetan artzea* 458

(44). *eta ecusten dezu bacoitza dagoala ninicaz, edo motez betea* (42)

8) *Uste*:

(45) *Onela uste izan dezaquegu gure egunac ongui bucatzea, eta betico vicitza iristea* (280)

(46) *Era onetan uste degu, emendic aurrera Zu biotz garbiarequin artzea, zure gracian irautea...* (457)

(47) *uste osoa daucat Jaunagan, ecerc ere galerazoco ez didala nere Jesus ona amatzea* (202)

(48). *Luteroc (...) uste izan zuan, Cristau guciac duela Sacramentu au emateco escua* 110

(49). *Uste det (...) beñ, eta berriz jarrico litzaqueala erioztzaren perillean* (36)

Eta hauekin batera, beste hauek ere aipatu beharko lira-teke:

(50) *Eta onela garaitu uste dezu oitura gaiztoa?* (406)

(51) *Onen gañean itzeguin uste det luzaro* (106)

Uste gaur egun aditzat hartu ohi dugu, nahiz eta izen gisa ere funtzionatu. Dena dela, gaur egun, *usteko* eta antzekoak tartean direlarik, aditzat hartzen dugu. Bestalde, oso elementu interesgarria iruditzen zait eta horregatik eman ditut hainbeste adibide. Izan ere, ez nago ziur (45) - (49) perpausetan agertzen den *uste* hori zentzu berean hartu behar ote den kasu guztietan. Bestalde, ezezka agertzen zaigunean ere gauza bereziak gertatzen direla uste dut. Nik ez dakit nola aztertu behar diren datu hauek, baina hor gelditzen dira. (50) eta (51) perpausak ere pentsa arazi egin behar ligukete, tartean zenbait transformazio direla baitirudi, edo, baita, agian *uste* izen bat baldin bada, *itzeguin uste* izen elkartutzat har genezake. Edo, agian aditz elkartutzat. Ez dakit.

9) *Behar*:

(52) *Bear da beñic beñ becatutic aldeguitea* (353)

Baina honen ondoan beste hauek ere aurkituko ditugu:

(53) *arreta andia ipiñi bear degu*

(54) *Ceruraco eguin bear dituan lanac* (31)

Behar-ekin normalki erabiliko dugun egitura (53) eta (54)-koa da. (52) esaldi horren esplikazioa, nolabait, ordenuan bila liteke. Hori iruditzen zait. Edo, bestela, zein da (52) eta (52') perpausen arteko arteko desberdintasuna?

(52'). *Becatutic aldeguin bear da beñic beñ*

Uste dut, *nahi*-rekin gertatzen den gauza bera gertatzen dela *behar*-ekin ere.

10) *Nahi*: Hau ere, *uste* eta *behar* bezala, batzutan aditz gisa eta beste batzutan izen gisa agertuko zaigu. Hemen aditzat hartuko dugu eta bere jokabidea aztertuko. Aztertuko edo aurkeztuko, agian hobeto, zeren *nahi*-ren jokabidea ongi aztertu beharrekoa dela uste dut, hemen egin dezakegun baino hobeto, alegia.

Agirreren arauera, hiru posibilitate bereziko ditugu:

a. 53. *Nai luque* Elizac confirmatu guciac *bendicio au artzea* (96)

IS₁ IS₂

Perpaus honetan bi izen sintagmak desberdinak direnez (*elizac* eta *confirmatu guciac*), ezin daiteke bigarren izen sintagma ezaba eta, bestalde, -T(Z)EA forma agertuko zaigu.

b. 54. (Jesusek) *Nai izan zuan gure artean gueratu* (339)

Honen azpian duguna hau da: *Jesusek nahi izan zuan* [*Jesus gure artean geratu*]. Bi izen sintagmak berdinak direnez, perpaus txertatuko IS ezabatu egiten da eta -T(Z)EA gabe -TU forma agertuko zaigu.

Bi kasu hauetan gertatzen dena izango litzateke, ordena kontuak gora behera, arautzat eman ohi den jokabidea.

c. Hala ere, (54) perpausean betetzen diren baldintzak betearren, bi IS-ak berdinak izatea, alegia, Agirrereangan -T(Z)EA forma izango da normalena:

(55) *nai izan zuan gugana etortzea, eta gure artean, eta biotzetan egotea* (338)

(56) *Egarri andiarequin nai izan det apari au zuequin eguitea* (339)

Agian ordenak badu zerikusia jokabide honetan. Normalki perpaus txertatua perpaus nagusiaren ondoren jartzen duenez eta sarritan urruti samar gelditzen denez aditz nagusitik, normala izan liteke ia ia sistimatzat hartzea jokabide hori. Hala ere, dudarik gabe formarik ugariena izen sintagmen kidetasun hori kontutan hartu gabe, -T(Z)EA jartzea baldin bada ere, perpaus txertatuak elementu gutxi dituenetan eta *nahi*-ren aurrean doanean, partizipio burutua ere agertzen zaigu:

(57) *Sacramentu au artu nai duanac...* (46)

Perpas txertatuak hartzen duen forma desberdin horrek bere ondorioak ditu aditz nagusian ere.

Perpaus txertatuko izen sintagmek (*nor*, *nork* eta *nori*-k) komuntadura ezartzen diote aditz nagusiari, *nahi*-ri, kasu honetan:

(58) *Sakramentu hau hartu nahi dut*

(59) *Sakramentu hauek hartu nahi ditut*

(60) *Sakramentu hauek gizonari eskaini nahi dizkiot*

eta abar.

Baina:

(61) **Sakramentu hauek gizonari eskaintzea nahi dizkiot*

(61') *Sakramentu hauek gizonari eskaintzea nahi dut*

(11)

Hau oso aditz gutxirekin gertatzen da. Ez dakit *ezin* eta *ohi* aditzat hartu behar diren, baina askotan *nahi*, *behar* eta *ezin* eta *ohi* testuinguru berdintsuan agertzen zaizkigu. Hala ere, desberdintasunak baldin badira, *nahi*-k perpaus txertatuko sujeta ez bezalakoa eraman dezakeelako gertatzen dira. Esan nahi da, *nahi*-ren sujeta eta perpaus txertatuarena desberdinak izan daitezke. Horregatik, -T(Z)EA forma. Baina, *behar*-en sujeta eta perpaus txertatuarena berdinak izan ohi dira normalki:

(62) *nik [zu joan] behar dut* \implies ? *nik zu joatea behar dut*

Dena dela, *ezin*-ek eta *ohi*-k ez dut uste inolaz ere amestitzen dutenik sujeta desberdintasun hori.

Bestalde, *ezin*-ek eta *ohi*-k oso lotura handia dute ondoan duten aditzarekin. Aditz hori nor-erakoa bada, laguntzaile gisa *da* agertuko da. Nor-nori erakoa bada, berriz, *zaio*. Nor-nori-nork erakoa izanez gero, aditzaren laguntzailea *dio* edo izango da. Baina *behar*-ekin eta areago *nahi*-rekin jokabidea nahiko asimetrikoa da: *nik garaiz joan behar dut baina ni zuri garaiz joan behar natzaizu* (eta ez, **dizut*) (12).

(11) Bestalde, *nahi*-k eta *nahiago*-k jokabide desberdina dute:

– **Sakramentu hauek gizonari eskaini nahiago dizkiot*

– *Sakramentu hauek gizonari eskaintzea nahiago dut.*

Hala ere, nahiago-rekin -*tu* forma ere ager daiteke konparatzen diren terminoak bi direnez, lehenbizikoan:

– *nayago zuala munduarenbucaeraraño suscobide batean ibilli, ecen ez berriz ere ura ecustea* (35)

(12) *Nahi*-ren jokabidea autore zaharrengan aski bitxia gertatzen zaigu askotan eta agian bere adiztasuna zalantzan jartzen digute. Axularrek eta Etxeparek badituzte exenplu bitxi samarrak gure gaurko eta hemengo belarrietarako. Hona hemen, LAPITZEK ematen digun adibide bat: *Nahi bazare gurekin ethorri idekiko darotzugu* (35 orr.).

Hala ere, *ezin*-en adiztasuna zalantzezkoa denez, ez ditugu Agirreren testuan honi dagozkion gorabeherak kontutan hartu. Hala ere, erdi laguntzaile gisa agertzen diren elementu hauekin zer egin erabaki beharko litzateke: aditz soiltzat hartu behar diren, laguntzailearen barnean modal antzeko zerbaitzat, ala zer (13). Horretaz, eta *nahi*-ri dagozkion kontu hauek denak nolabait uzteko, esango genuke *nahi* aditz gisa agertzen zaigula. Sujetoak korreferenteak direnean, *behar*, *ezin* eta horiekin batera doala, baina beste guztietan —eta Agirrek gehienetan ez dio kasurik egiten sujetoen kidetasun horri— beste edozein aditzekin batera doala, *erabaki*-rekin batera adibidez.

Eta amaitzeko.—Ez dut aurrera jarraitzeko asmorik, gaurkoz. Honelako lanak ondorioekin, konklusioekin amaitu ohi dira. Zoritxarrez, ondorio garbiegirik ez dut uste atera daitekeenik nere lan honetatik. *Corpus* txiki bat deskribatzen saiatu naiz baina hortik aurrera gauza gutxi aurreratu dugu. Beraz, atera daitekeen ondorio nagusia hau izango litzateke, gauzak hobeto eta gehiago aztertu behar direla, *corpusa* zabalagotu egin behar dela eta datu gehiagorekin jokatu, soluzioak bilatzen saiatu. Hemen galdera edo arazo batzu harrotu dira besterik ez. Erantzunak, badaezpadakoak izango badira ere, egunen batean etorriko dira. Hori espero dut.

(13) Adibidez, Violeta Demontek Hadlich-en planteamendua gaitzetsiz beste bat proposatzen du: "si no hay razones para establecer diferencias entre verbos auxiliares y no-auxiliares, no hay que pensar en consecuencia, que los infinitivos vinculados a estos verbos, se generen como parte del constituyente auxiliar. Pero, por otra parte, la prueba de que no existe una distinción entre auxiliares y no auxiliares no determina que estos infinitivos no nominales que estamos considerando sean oracionales. Es posible postular, por ejemplo, un SV que se describa como un verbo seguido de otro verbo: SV → V SV, *op. cit.* 163 orr.

ZENBAIT KONPLETIBOREN AZTERKETA J. LEIZARRAGAGAN

Arrasate, 1979-XII-22

José Antonio Mujika

Azterketa honen mugak eta zer-nolakoak

Euskaraz, inguruko hizkuntzetan bezala, perpaus bat beste batean txertatzen dugunean, lehena bigarrenaren menpeko eginik, txertatua zenbait aldaketa gertatzen dira: edo aditzari morfema menperatzaileraren bat eransten diogu (-eN, -eLA...) edo izenki bihurtzen dugu (-tea, -ten...), hau da, edo pertsona adizkia gordetzen dugu honi zerbait erantsiz edo pertsona morfemak ezabatzen ditugu. Horixe bera gertatzen da, noski, lan honetarako aztergai aukeratu ditudan konpleti-boetan ere (*joango naizela erabaki dut / joatea erabaki dut*). Azterketa honetan pertsona adizkia gordetzen duten konpleti-boetara mugatuko naiz, aditz izenkiak eta hauen ingurukoak alde batera utziz.

Konpleti-boetan, bestetik, hiru sail nagusi, gutxienez, berezi ohi dira normalean: deklaratiiboak (*badakit joan zarela*), galderazkoak (*etorriko zaren galdegin du*) eta nahi-agintezkoak (*etor dadin nahi dut*). Nere azterketa hau lehen-goien multzora, deklaratiiboen multzora, mugatuko da. Pertsona adizkia gordetzen duten deklaratiiboak hartu ditut beraz aztergai.

Azterketa burutzeko, hirugarrenik, zehazki mugaturiko *corpus* bat aukeratu dut: Leizarragaren Mateo ebanjelioa eta, den dena itzulpen huts izan ez dadin, hark bere *Testamentu Berria*-ri aurretik ezarritako sarrera hitzak ere (1) gogoan hartu ditut zenbaitetan. XVI mendeko euskara, beraz, eta Leizarragarena hain zuzen.

(1) *Gucizco, Heuscalduney, Aduertimendua eta Sommariaoa.*

Lanak bi une berezi eta nahiko desberdin izango ditu: hasteko, 2. eta 3. puntuetan, aipaturiko konpletiboen formez eta hauen erabilkeraz mintzatuko naiz eta gero, 4. puntuan, konpletibo berorien azpisailkatze semantiko-sintaktikoaz ari-tuko naiz, faktibotasuna ardatz harturik, eta hori dela eta hipotesi bat aurkeztuko dut.

Inoiz, faktibotasunari buruz aritzean batez ere —egungo euskarari ere bete betean, nik uste, dagokion arazoa—, gorago aipatu dudan *corpus* mugatutik atera eta beste eredueta-
ra ere, joko dut.

1. Pertsona adizkia gordetzen duten konpletibo deklarati- boak

Leizarragak maizenik, baina ez beti, erabiltzen duen for-
ma, honako hau da: (*ezen*) ... *aditza* + *eLA*:

badaquiçue ecen udá hurbil dela (Mc 13,28)

badaquiçue udá hurbil dela (Mt 24,32)

Erabiltzen du ordea, franko gutxiagotan bada ere, beste honako hau ere: *nola* ... *aditza* + *eN*:

Eçagutu duc nola Phariseuac (...) scandalizatu içan dira-
den? (Mt 15,12).

Behin, sarrerako orrietan *nola* ... *bait* + *aditza* egitura ere ikus dezakegu:

(...) sendi eraci liecêçat, nola hura baithâ desplegatu
behar baitzen (...) (Sar 14).

Sujetozko konpletiboetan, *gertatu*, *heldu* etabarren suje-
toetan alegia, *bait* + *sintetikoa* edo *bait* + *laguntzailea* erabil-
tzen dira:

Eta guerta cedin (...) populua miraz baitzegoen haren
doctrináz (Mt 7,28).

Içanen da, guiçonaren Semea liuraturen baita guiçonen
escuetara (Mt 17,22).

Ez dira, ordea, Leizarragagan beste euskalkietako
-*eNA* eta -*eNIK* ageri. Ezezkoetan, adibidez, beti -*eLA* edo
nola ...-*eN* erabiltzen ditu eta inoiz ez -*eNIK*.

2. eLA konpletibo deklarati boak

Ageriko egiturari dagokionez, hiru perpau s mota berez ditzakegu *-eLA* deklarati boak daramatenen artean:

- (a) aditz nagusiaren aurrean doazenak: *-eLA* - AN
- (b) aditz ondoko *ezen* gabeak: AN - *eLA*
- (c) aditz ondoko *ezen*-dunak: AN - *ezen...eLA*.

AN = aditz nagusia.

Adibidez:

(...) Sadduceuac, resurrectioneric eztela dioitenac (Mt 22,23).

(...) badaquiçue udá hurbil dela (Mt 24,32).

Eguiaz erraiten drauquet, ecen çuetaric batec tradituren nauela (Mt 26,21).

Leizarragak hiru perpau s mota hauek erabiltzen baditu ere, ez dugu gehiegi nekatu behar ez luzeegi saiatu behar ere horietako bat besteak baino aski maizago erabiltzen duela ikusteko: (a) eta (b) motak erabili arren, konpletiboak (c) motaz emateko joera garbia du.

Griegoz $\delta\tau\iota$ konpletiboak 89 aldiz erabiltzen da Mateorenean; badira gainera 4 infinitibo eta 9 perpau s koordinatu Leizarragak *-eLA* perpau s az itzuliak (2). Ikus dezagun, beraz, nolako perpau s aukeratu dituen Leizarragak testu horiek itzultzeko:

GRIEGOZ			EUSKARAZ
$\delta\tau\iota$ (89)	infinitiboak	zuzenki	
—	3		(a) <i>eLA</i> - AN : 3
18	1	6	(b) AN - <i>eLA</i> : 25
54		3	(c) AN - <i>ezen...eLA</i> : 57
5			AN - nola...eN : 5
12			zuzenki : 12

(2) Ez ditugu hemen *ikus*i eta *eriden* aditzen ondoko *-eLA* perpau s sartu, hauek konpletiboak nahiz moduzkoak izan daitezkeelako.

Garbi dago horrenbestez maiztasunari dagokionez (c) motak duela lehentasuna. Kontutan hartzen badugu gainera *ezen* partikula, beherago esango dudan bezala, zenbait kasutan erabili ezina dela, aukerako testuetan, hau da, itxuraz *ezen*-ez nahiz gabe eman zitezkeenetan, Leizarragak *ezen* gabeko perpausa oso gutxitan eman duela ikusiko dugu: 10 bat kasu dira gutxi gorabehera itxuraz aukerakoa izanik (b) motan sartzen direnak (3).

Horiek horrela, *ezen* partikularen inguruan mogituko dira nere azterketa honen lehen urratsak: noiz, noiz ez eta nola erabiltzen du Leizarragak?

2.1. Eta, hasteko, noiz ezin den erabili aztertuko dut edo, zehatzago esan, noiz ez den erabiltzen azalduko dut eta hortik *ezen* partikulari ezartzen zaizkion mugak finkatzen saiatuko naiz.

2.1.1 Aditz nagusiaren aurrean doan *-eLA* konpletiboak ez darama sekula *ezen* partikularik. Goragoko (a) motari dagokio lehen arau hau. Izan ere, Leizarragagan ez dugu inoiz aditz nagusiaren aurreko konpletiboetan *ezen* partikularik ikusiko. Are zehatzago: holako konpletiboen aurre aurrean ez *ezen* konpletiborik ez perpaus nagusiko *ezen* kausal ilatiborik ez dut aurkitu:

* * PK_[ezen ...eLA] PK

* * Ezen PK_[...eLA] PK

Konpletiboa nagusiaren erdian txertatua dagoenean, ordea, eta haren aurrean nagusiaren elementu bat edo beste denean, ez dirudi haren aitzin buruan *ezen* kausala emateko eragozpenik dagoenik. Testu bat bada, Sarrerako 24. orrian, hori frogatzen duena:

(3) H. Schuchardt-ek, Leizarragaren *Testamentu Berria*-ri egin zion Prologoan, LXXXVII or., bi testu paralelo aipatzen ditu: batek *ezen* du eta besteak ez. Honek partikula, zenbaitetan, aukerakoa dela adierazten du.

Ecen haraguiaren opinioneari PK [eçagutze hunen beharquia gauça gauça communa eta gauça bachoa dela] PK iruditzen baçayo-ere (...) (4).

Ondoko egitura hau, beraz, dokumentaturik dago:

Ezen - X - PK [...eLA] PK - AN

Muga hau garbi ikusi eta adierazi zuen Larramendik, baita berriki A. Villasantek ere Axularren *Gero* aztertu duela-rik (5).

2.12 Perpaus nagusiak *ezen* daramanean, ondoko konpletiboak ez darama:

*Ezen - AN - PK [ezen ...eLA] PK

Perpaus nagusiak loturazko *ezen* daraman guztietan, beherago argituko ditudan bi kasutan ezik, konpletiboa *ezen* gabe ageri da. Eta ez da hori gertatzen zoriitsuak gauzak hola egokitu dituelako, horretarako zerbaitetan oinarrituriko joera berezia dagoelako baizik. Eta bada, hori esateko, froga edo froga antzeko bat: griegozko $\gamma\alpha\rho$ eta $\delta\tau\iota$, biak, Leizarragak gehienetan *ezen* partikularen bidez itzultzen ditu; biak perpaus berean aurkitzen dituzenean, ordea, ez du *ezen...ezen* itzultzen. Griegoz, alegia, $\gamma\alpha\rho$ PN - $\delta\tau\iota$ PK dugunean, Leizarragak ez du *ezen* PN - *ezen* PK itzultzen.

(4) Ez da erraza *eçagutze hunen beharquia* sintagma perpaus nagusian ala konpletiboan dagoen erabakitzea. Gorabehera horrek, ordea, ez du darabilgun arazoan zer ikusirik.

PK = perpaus konpletiboa

X = edozein elementu

(5) "(...)estas oraciones (...) se hazen tambien con partículas correspondientes al *que* del Romance, y son *eccen, ece, ce*, las cuales no por esso quitan el *la* puesto, que acabamos de explicar, v. g. *badio, eoen jaten-degula* (...) La diferencia esta, que quando estas oraciones se hazen sin las partículas *ecen, ece, ce*, puede anteponerse, ó posponerse el verbo determinante al determinado; pero no quando se hazen con ellas, por que va siempre antepuesto". M. Larramendi, *El imposible vencido*, Hordago, Donostia, 1979, 307 or.

Ikus baitare Fr. Luis Villasante, *Sintaxis de la oración compuesta*, Ed. Franciscana, Oñate, 1976, 52 or.

Hamar kasu dira Mateorenean $\gamma\alpha\rho - \theta\tau\iota$ bikotea ematen dutenak. Leizarragak aurrean zuen itzulpen frantsesak (6) hamar horietatik zazpitan *car ... que* ematen du, bitan *car...* estilo zuzena eta behin *car...* infinitiboa. Leizarragak berak, berriz honela ematen ditu:

Ezen - AN ...PK |eLA| PK: zazpitan

Ezen - AN ...PK [ezen...eLA] : bitan

Ezen - AN ... estilo zuzena : behin.

Bestetik, sarrera orrietan gisa honetako zazpi testu ditugu eta seitan menpekoak ez du *ezen* konpletiborik hartzen. Eta zazpigarrenak ere, itxura bestelakoa izan arren, ez du legea hausten:

(...) ecen promessac ecin falta daidi, ceinetan erraiten baitzaicu ecen Iauna garaitic truffaturen dela (...) (Sar 21).

Izan ere, loturazko *ezen* hori ez doa zuzenki konpletiboaren nagusiari lotua, nagusiaren nagusiari, nolabait esan, baizik.

Garbi da, beraz, bai Mateorenean bai sarreran, perpaus nagusiko *ezen* partikulak menpekoa eragozten duela.

Bi kasu ditugu, gorago esan bezala, itxuraz legea hausten dutenak (Mt 4,6 eta 6,3):

Ecen scribatua duc, *Ecen cargu emanen drauëla (...) (Mt 4,6) (7)

Griegozko testuan $\theta\tau\iota$ irakur dezakegu, egia da, baina partikula honek gehienetan menpetasuna adierazten badu ere, zenbaitetan estilo zuzeneko aipuei ematen die sarrera eta

(6) A. Lafitteri zor diot testu hori fotokopiatzeko izan dudana aukera. Fotokopietan ordea, testua baizik ez izanik, lehen orria eskas denez, ez dakit testu hori noiz eta nongoa den ez eta Leizarragak hori xuxen ala antzekoren bat erabili zuen. Gure kasurako, ordea, ez dirudi horrek garrantzi handiegirik duenik.

(7) Izartxoia (*) perpaus ezgramatikalak nahiz dokumentatugabeak adierazteko erabiltzen dut. Leizarragaren testuetan ageri denean, berriz, zita edo zitaren antzekoa dela esan nahi du.

gure bi puntuen (":") funtzioa betetzen du (8). Eta holakoa da, hain zuzen, testu honetako ὅτι hori eta frantsesezko itzulpenak ondo jasotzen du: "*car il est escrit, *Il donnera (...)*". Leizarragarenean ere, bide erdian geldituagatik, horrelako zerbait somatzen dugu: "*ecen..., *Ecen...*". Aipua zeharka eta konpletibo gisa emana badago ere, pausa handi bati jarraitzen zaio eta aipu zuzenen izartxo eta hizki handiz idatzia dago, subordinaziorik ez balego bezala. Eta hortxe dago, beraz, itxurazko salbuespenaren arrazoia: nagusiaren eta konpletiboaren artean pausa dago eta pausa honek nagusiko *ezen* hura nolabait urrunduz menpekoari bidea zabaltzen dio.

Mt 6,32 da bigarren salbuespena:

(Ecen gauça hauc guciac Paganoéc bilhatzen dituzté) ecen badaqui çuen Aita cerucoac, ecen gauça hauen gución beharra baduçuela.

Egia da testu honetan *ezen AN - ezen ...eLA* egitura dugula, baina egia da halaber badela, hemen ere, itxurazko salbuespena argi dezakeen arrazoinik: aditz nagusiaren eta perpaus konpletiboaren artean perpaus nagusiko elementu bat ("*çuen Aita cerucoac*") tartekatu da, hots, konpletiboa ez dator aditz nagusiaren ondo ondoan. Eta behar bada egitura hau da, *ezen - AN - X - ezen ...eLA*, itxurazko salbuespena argitzen duena: X elementuak, hain zuzen, pausak betetzen duen paperaren antzekoa betetzen du.

Puntu hau amaitzeko, araua zeharka bezala frogatzen duen testu bat ekarriko dut:

(...) ikas eçaçue, ecen segura da, *ignoranta bere ignorantiarequin galduren dela (Sar 19)

Aditz nagusiaren eta konpletiboaren artean *ezen* duen perpaus bat tartekatu da, mako arte gisa. Horrelako kasu bakarra da, baina puntu honetako araua sendotzera dator: beste *ezen* bat hurbilean dagoenean konpletiboa *ezen* gabe ematen da.

(8) Si istud ὅτι praemittitur orationi *directae* aequivalet nostro puncto duplo (":") eta dicitur ὅτι "recitativum". M. Zerwick, *Graecitas biblica*, Roma, 1966, 141, or., 2. oharpena.

2.13 Osagarri zuzen konposatuaren elementu batek ez badu *ezen* onartzen, ez bestek ez konplementu osoak ere ez dute onartzen.

Muga honen funtsaz ondo jabetzeko beherago aipatuko dudan zerbait hartu behar da gogoan: *ezen* partikula, alegia, konplementu osoaren aitzin buruan, eta ez zeinahi zatiren aurrean, ematen dela beti. Eta horregatik, konplementu konposatuaren zatiren batek edo bestek ez badu, edozein arrazoi-rengatik, *ezen* onartzen, konplementu osorako dago eragotzia partikula hori.

a) Hori gertatzen da, adibidez, konplementuaren osagai bat, dela IS dela perpaus konpletiboa, aditz nagusiaren aurrean ematen denean. Horrelako bi kasu aurkitu ditut aztertuturiko testuetan eta biak *ezen* gabeak:

(...) Christ bere Iainco (...) aboatu eztuenic eta hura dela
(...) (Sar 17)


(...) Aitabat badugula (...) segur gara: *eta are Iesus
Christ paubre eguin içan dela (Sar 20).

Honako aditz sintagmak, berriz, ez ditut aurkitu:

*IS - AN - eta ezen ...eLA

*eLA - AN - eta ezen ...eLA

b) Muga bera aurkitzen dugu osagarri zuzen konposatua aditz nagusiaren ondoan joan arren, elementuetako bat IS denean. Aditz sintagma, alegia, honakoa denean:



Muga honen adibide bakarrak, Mateorenean, 21,15 eta 9,23 dira. Hauetan, ordea, aditz nagusia *ikusi* denez, menpeko perpausak konpletiboak ala moduzkoak diren eztabaida dai-

teke. Axularren testu batek (Ax 203) emango luke, inongo zalantzarik gabe, adierazi nahi dudanaren adibide egokia:

Ikusten duenean haurrak bere amaren eskuan zigorra eta hartzaz eman nahi diola (...)

c) Gauza bera gertatzen da konpletiboari *bait* perpausa jarraikitzen zaionean. Azken perpaus hau konpletiboan sartzen den ala ez eztabaida daiteke, baina ez, nik uste, estuki loturik dagokiola eta horregatik behar bada konpletiboak *ezen* ez daramala:

Ecen eguiaz erraiten drauquet, anhitz Prophetac eta iustoc desiratu ukan ikustera çuec ikusten dituçuen gaucen eta ezpaitituzte ikussi (Mt 13,17) (9).

Uste duc ecin othoitz daidiodala orain neure Aitari, eta baitinguzquet bertan (...) (Mt 26,53).

2.14 Osagarri zuzena bi *eLA* perpaus koordinatuz, edo gehiagoz, osaturik dagoenean, agertzekotan lehenaren aurrean agertzen da *ezen* eta ez bestearen, edo besteen, aurrean.

Griegoz *ὅτι* bakarra azaltzen da beti holako testuetan: frantsesez, berriz, beti ez bada bai askotan konpletibo koordinatuek *que* bana daramate. Hona euskarazko bi adibide:

(...) bacequiagu eguiati aicela, eta Iaincoaren bidea eguiazqui iracasten duála, eta nehoren ansiaric eztuála (Mt 22,16).

Baina are nic erraiten drauat, ecen hi aicela *Pierris, eta Harri hunen gainean edificaturen dudala neure Eliçá (Mt 16,18).

Gisa honetako perpausak *ezen* gabe gerta badaitezke ere (Mt 22,16 bera lekuko), gehiagotan agertzen dira, luze direlako edo, *ezen* partikula dutela. Esan bezala, ordea, partikula hori lehen konpletiboaren aurrean ematen da (10).

(9) Hemen, egia esan, *ezen* eragozteko bi arrazoin ditugu: osagarri konposatuarena eta nagusiko *ezen* kausalarena

(10) Muga hau Villasantek eta Mitxelenak aipatua dute berriki. Ikus, Fr. Luis Villasante, aipatu liburuan, 50. orrian.

2.15 *eLA* konpletiboak menpeko perpausak eraman ditzaiteke eta bera ere menpekoen menpeko izan daiteke, baina holakoetan *eLA* konpletiboaren menpekoak ez darama *ezen*:

* [ezen ...*eLA* (ezen ...*eLA*)]

* [... *eLA* (ezen ...*eLA*)]

Perpaus konpletibo bati, *ezen* eraman nahiz eraman ez, nonahi txerta dakizkioke menpeko perpausak, aurrean, tartean nahiz ondoan, multzo konpletibo zati askoduna osatuz. Hona zenbait adibide:

(...) erraiten drauçuet PK [(baldin abundosago ezpada...) MP çuec etzaretela sarthuren...] PK (Mt 5,20).

(...) diotsuet PK [errachago dela MP (...iragan dadin) in] (Mt 19,24).

(...) eçagun dençat PK ezen [hec MP (teztuan aditzen diraden hitzac içanagatic) MP eztiradela...] PK (Sar 6).

Azterturiko testuetan ordea, esan bezala, ez dut *eLA* konpletiboaren menpeko *ezen ...eLA* perpausik aurkitu (11).

- Bi kasutan (Sar 3 eta Sar 29) *ezen ...eLA* perpausa *eLA* eta *eLARIK* perpausari jarraitzen zaie, baina azken biok ez dira konpletiboak moduzkoak baizik eta ez dute, beraz, aipaturiko muga gainditzen.

2.16 Konpletiboaren ondoan nagusiaren beste menpeko bat doanean, hark ez darama *ezen*:

*AN - PK [ezen ...*eLA*] PK - MP [...] MP

Nagusiaren menpekoa konpletiboaren aurrean dagoenean ez dago eragozpenik *ezen* erabiltzeko; hura honen ondoan datorrenean, ordea, *ezen* partikula eragotzia dagoela dirudi, partikula honen eragina menpekoraino iritsiko litzatekeelako, behar bada, konpletiboaren eremuan sartuz. *Ezen* gabe, berriz, dokumentatua dago segida hori:

Nehorc ecin eguiazqui cõfessa deçaque PK [Iesus Iainco eta Iaun dela...] PK, MP [baldin...inspirationez ezpada] MP

(11) Hau ere Mitxelenak aipatua du Villasanteren aipatu liburuan, 50. orrian.

2.17 Joskerak (12) *ezen* konpletiboari dizkion mugak. Laburpena.

1. Aditz nagusiaren aurreko konpletiboak ez darama <i>ezen</i> .	<i>ezen...eLA</i> - AN
2. Perpaus nagusiak <i>ezen</i> daramanean, konpletiboak ez darama, beste arau ren bat tartekatzen ez bada.	ezen PN - <i>ezen ...eLA</i>
3. Osagarri zuzen konposatuaren elementu batek ez badu <i>ezen</i> onartzen, ez besteek ez konplementu osoak ez dute onartzen.	IS...AN...eta <i>ezen ...eLA</i> eLA...AN...eta <i>ezen ...eLA</i> PN - IS eta <i>ezen ...eLA</i> PN - <i>ezen ...eLA</i> eta bait-
4. Bi konpletibo, edo gehiago, koordinaturik daudenean, multzo osoaren aurrean eman daiteke <i>ezen</i> eta ez beste inon.	PN - eLA eta <i>ezen... eLA</i> PN - <i>ezen ...eLA</i> eta <i>ezen ...eLA</i>
5. <i>eLA</i> konpletiboaren menpeko konpletiboak ez darama <i>ezen</i> .	PN - [eLA (<i>ezen...eLA</i>)] PN - [<i>ezen...eLA (ezen...eLA)</i>]
6. Konpletiboaren ondoan nagusiaren beste menpekoren bat doanean, hark ez darama <i>ezen</i> .	PN - [<i>ezen...eLA</i>] - menpekoa

2.2 *Ezen* bereziki eskatzen duten joskerak

Ezen konpletiboaren mugak ikusi ondoan, inoiz, beharrezko ez izan arren, partikula hori erabiltzeko joera berezia ba ote den ikusi nahi nuke ondoko lerroetan. Aztertu ditudan testuetan bi joskera aurkitu ditut *ezen*-en laguntza, derrigor ez bada ere, bereziki eskatzen dutenak. *Corpus* zabalagoak behar bada bestelako ondorioetara eramango gintuzke, baina aztertu dudan honetan bi egitura aurkitu ditut, *ezen*-en erabilkera dela eta, azpimarratzekoak.

2.21. Hiru kasutan gertatzen da konpletiboa izen sintagme baten aposizio eta hiruretan egitura bera aurkitzen dugu:

IS - Ad, *ezen ...eLA*

(12) "Joskera" hitza, sintasia askoz ere zabalagoa izanik, perpausa osatzen duten elementuen segidari dagokion zerbait da, ageriko egituran gauzatzen den elementuen ordena. Sakoneko egitura sortzeko erregelak, axaleko egiturara darमतен aldaketa legeak etab. sintasian bete betean sartu arren ez dira, berez, joskeraren barruan sartzen. Horrelako zerbait, proposamen gisa, entzun nion behin, oker ez banago, Mitxelenari.

Hona testuak:

Eta hura iaquiçue, ecen ...eLA (Mt 24,43)

Haur bay erranen dut, ecen ...eLA (Sar 5)

Prophetez erran cena compli ledinçat, ecen ...eLA (Mt 2,23).

Lehen perpausa griegoari (ἐκεινο...ὅτι...) eta frantsesari (...*cela, que...*) jarraikitzen zaie; bigarrena frantsesari (...*ceci, que...*). Erakusle horiek, beraz, ez dute zer ikusirik "joskera garbiaren" zaleek, eta behar bada S. Altubek berak (13), galdegaita dela eta, proposatzen dutenarekin. Hemen erakuslea ez da luzearen aitzakiz aditz ondora pasa den konpletiboaren ordaina: "hau esan du, ...eLA", "zera esan digu, ...eLA". Leizarragak ez zuen problemarik, galdegaita gorabehera, konpletiboa aditz ondoan emateko, ageri agerian dagoenez, gehienak hola ematen bait ditu. Perpaus hauetan, griegoari eta frantsesari jarraikiz, enfasiaren zerbitzuan gertatzen dira erakuslea eta honen aposizioa, bigarren perpausaren "bai" horrek adierazten duenez ("haur bay").

Hirugarren perpausari buruz, berriz, bada gogoratzea merezi duen zerbait. Itzulpen frantsesak hamalau kasutan ematen du estilo zuzenez griegozko ὅτι perpausa; Leizarraga hamabitan jarraitzen zaio frantsesari honetan; beste bietan, ordea, zenbaitetan bezala, frantsesa alde batera utziz eta griegozko testuari jarraikiz konpletiboz eman du itzulpena. Horietako bat orain aztertzen ari naizen hau. Aposizio delako behar bada?

Gogoratzekoa, bestetik, aipaturiko hiru testuetan sintagmaren eta honen aposizioaren tartean beste elementu bat dagoela: aditza. Eta urruntze honek badu, agian, *ezen*-en erabiltzean zer ikusirik.

2.22. Gorago urruntze mota bat aipatu dut. Orain beste bat aipatu behar dut: aditz nagusiaren eta konpletiboaren artean haren sujetoa edo konplementuren bat tartekatzen denean, horrenbestez aditz nagusia eta konpletiboa bata bestetik urrunduz, azken honek *ezen* darama:

AN - X - ezen ...eLA

(13) Ikus *Erderismos*, Bilbao. 1975, 11. orrian.

Honelako tartekatzea hamalau kasutan gertatzen da azterturiko testuetan: horietatik hamabik *ezen* erabiltzen dute eta beste biak, itxura holakoa izan arren, ez dira egiazko salbuespenak:

Ikhussiric bada anhitz ethorten ciradela (Mt 3, 7)

“Bada” partikula ez daiteke tarteko elementutzat hartu eta ez ditu aditz-konpletiboak berezten eta urruntzen.

Ikas eçaque, ecen segura da, ...eLA (Sar 19).

Tartekatu den elementuak berak darama *ezen* partikula eta horrexek eragotz dezake bestela konpletiboak behar bada eramango zukeena. Aditz-konpletiboen urruntzeak *ezen* eskatuko luke, baina beste *ezen* baten hurbiltasunak eragozten duela dirudi.

2.3. *Ezen* konpletiboaren lekua eta zeregina.

Ezen konpletiboaren leku bakarra, eta honetan ez dago inolako salbuespenik, multzo konpletiboaren aurre aurrean dago, multzo osoaren aitzin buruan. Ezin da beste inon jarri: hor edo inon ez. Multzo konpletibo hori era askotakoa izan daiteke: konpletibo soila duena, konpletiboarekin honen menpekoak daramatzana, bi konpletiboz edo gehiagoz osatua... Baina, era batekoa nahiz bestekoa izan, *ezen* hori multzoaren aurre aurrean baizik ez daiteke jarri, horretan, bistan denez, inguruko erderen *que* juntagailuak ez bezala jokatzuz.

Zereginari dagokionez, berriz, hau hartu behar da gogoan partikula hau beharrezkoa ez dela, espletiboa baizik, kenduta ere perpausaren esanahi osoa aldatu gabe uzten duena. Jarri eta kendu, beraz, aukeran egin daiteke bestelako eragozpenik ez dagoenean (14):

badaquique udá hurbil dela (Mt 24, 32)

badaquique ecen udá hurbil dela (Mc 13, 28).

Baina nic erraiten drauquet, ecen norc-ere...eLA (Mt 5, 22).

Baina nic erraiten drauquet, Norc-ere...eLA (Mt 5, 28).

Griegoaz eta frantsesez testu horiek berdinak dira.

(14) Ikus Villasante aipatu liburuan, 52. orrian.

Zertan laguntzen du, bada, partikula espletibo honek? Betetzen duen lekuak eman diezaioke erantzuna galdera horri: konpletiboaren eremua aurretik markatzen duen "mugarria" da *ezen*; agertzen denean eta agertzen den tokian konpletiboa hasten dela adierazten du:

Badakit ezen orain...

eta

Badakit orain ezen...


adibidez ez dira berdinak. Eta menpekoak konpletiboaren multzokoak diren ala ez ere *ezen* partikulak adieraz dezake:

Esango dut baldin... ezen...

eta

Esango dut ezen baldin...

ez dira berdinak. Eta partikula hori gabe perpausa zalantzazkoa gerta daiteke:

Badakit - orain - ...eLA


Villasanteren ustetan (15) batez ere konpletibo luzeen lagungarri da *ezen*. Hori ukatu gabe ere eta behar bada gauzak orokorkiago ikusiz, aditz nagusia eta konpletiboa arrazoin bategatik edo bestegatik urrun gertatzen direnean eta bien arteko mugak behar adinako zehaztasunik ez duenean gertatzen dela lagungarri partikula hori esango nuke nik. Eta hori konpletiboaren aurrean elementuren bat sartu denean edo, konpletiboa luze izanik, *eLA* morfema aditzetik urrun doanean gertatzen da:

ANezen ...eLA

AN ezen eLA

Holakoetan batez ere da lagungarri, baina ez, noski, holakoetan bakarrik.

Esan behar da, azkenik, erdarazko *que* partikularen antza izanik ere, ez dela erabat haren pare, ez dituela haren funtzio denak betetzen, ez bait da ez menperatzaile ez konpletibatzaile, perpaus konpletiboaren hasieraz ohartarazten duen marka baizik.

(15) Ikus leku berean.

2.4. eLA konpletiboa aditz nagusiaren aurrean.

Galdegaiaren arauak perpausaren joskeran nolako eragina duen aztertzen hasi gabe ere eta S-O-V egituraz ezer esateko asmorik gabe ere, Leizarragak "hori ençunic" baina "ençunic ...eLA" erabiltzen duela gogoratuko dut, hau da, galdegaia izanik ere, konpletiboa gehienetan aditzaren ondoan ematen duela (ez "nekatu dela esan du", "esan du (ezen) nekatu dela" baizik). Aztertu ditudan testuetan bederlatzi kasutan baizik ez dut konpletiboa aditzaren aurrean ikusi: hiru Mateoren testuan, bat 26. kapituluaren tituluetan eta lau sarrera orrietan.

2.41. Lehenik 26. kapituluaren titulua aztertuko dut:

Iesusec Christ dela aithortzen.

Eta frantsesak, griegoak ez du holako titulurik, honela dio:

Iesus se confesse le Christ.

Kasu hau argitzea erraza dela dirudi. Holako tituluetan, izan ere, aditz laguntzailearen elipsia egiten delarik, adizki nagusiak perpausaren azken lekua hartzen du, aposizio edo luzamen modukorik ez badu behintzat. Horregatik doa konpletiboa aditzaren aurretik.

2.42. Hirutan, eta hiru horietan bakarrik, aurkitzen dugu honako egitura: inter...eLA - AN.

Ni nor naicela dioite guiçonec...? (Mt 16, 13).

Eta çuec nor naicela dioçue? (Mt 16, 15).

Nola dela, edo certain dela erran ahal daite çuen esperança? (Sar 19).

Perpaus hauen konpletiboa ez da zehar galdera: barnean galdekatzailea izan arren, galdera ez da menpekoarena, nagusiarena baizik. Eta "nor naizela" sintagma galdekatzaileak, galdekatzaile denez, aditzaren aurrean du bere lekua (*doa nor?), "zein etxetan" edo "nolako mutila" galdekatzaileak bezala.

2.43. Beste lau kasutan, azkenik, erlatibo batean txertaturik gertatzen da konpletiboa:

(...) Sadduceueac, resurrectioneric eztela dioitenac (Mt 22, 23).

(...) glorificatuac içanen garella segurança ematen çaicunaren gainean (Sar 20).

(...) possedituren dugula seguratzan garenaren gainean (Sar 25).

(...) guçaz eguinen ciradela preparatu eta ordenatu cituen obra onez (Sar 29).

Holako erlatiboetan aditzak perpausaren azken lekua betetzen du (*etorri den gizona gaur) eta, horregatik, konpletiboak haren aurrean behar du nahitaez.

Bestelako erlatiboetan ez dago holakorik:

(...) ceinetan erraiten baitzaicu ecen...eLA (Sar 21).

Ikusten denez, beraz, testu hauetan ez da S-O-V egitura ez eta galdegaia ere konpletiboa aditzaren aurrera daramatenak, ez zuzenean behintzat. Hurbileko arrazoia beste bat da: laguntzailearen elipsia, sintagma galdakatzailaren lekua, erlatiboaren egitura...

3. *Nola...eN* konpletiboa

P. Altunak, Etxepareri buruz egin berri duen azterketan, *nola...eN* egituraz ari delarik, galderazkoa ezezik konpletiboa ere izan daitekeela dio edo behintzat, haren hitzak euskaratu, "konpletiboa ezkutatu eta ordezkatzan duela" (16). Altunak "konpletibo" hitzaz deklaratiiboak izentatzen ditu eta, horrenbestez, *nola... eN* egitura galderazko konpletiboa ezezik deklaratiibo ere izan daitekeela esaten du. Eta arrazoin osoz esan ere, nere ustetan. Leizarragaren testuek ere hori bera frogatzen dute.

Mateorenean bost testu ditugu sail honetan sar daitezkeenak:

Orduan Herodesec ikussiric nola çuhurrez enganatu içan cen (...) (Mt 2, 16).

(16) "A nuestro juicio la única circunstancia que explica y opone todos los casos es la de distinguir entre un *nola* propia y estrictamente interrogativo y otro (que sólo es otro por su valor), que en realidad oculta y suple una completiva". F. Altuna, *Versificación de Dechepare*, Ed. Mensajero, Bilbao, 1979, 176. orrian.

Ençun ukan duçue nola erran içâ çayê lehenagoceoy (Mt 5, 21).

Edo eztuçue iracurri Leguean nola (...) Sacrificadorec (...) hausten duten eta hoguengabe diraden? (Mt 12, 5).

Eçagutu duc nola Phariseuac (...) scandalizatu içan diraden? (Mt 15, 12).

Iauna, orhoitu gaituc nola abusari harc (...) erran ceçan (...) (M7 27, 63).

Bost testu hauetan griegoak $\theta\tau\iota$ konpletibatzailea erabiltzen du eta ez $\pi\omega\zeta$ galdekatzailea; frantsesak, bere aldetik, lauetan *que* konpletiboa eta behin partizipioa (17).

Are gehiago, 5, 21 testuaren paralelo diren beste bi pasarte Leizarragak berak *eLA* konpletiboz itzultzen ditu. Testu bera bi era hauetara itzultzen du:

ençun ukan duçue ecen lehenagoceoy erran içan çayela (5, 27.33).

ençun ukan duçue nola erran içâ çayê lehenagoceoy (5, 21).

Horrek frogatzen du *nola ...eN* egitura deklaratihoa dela testu horietan eta ezin dela *nola hori zer eratan* moduzko galdekatzaileaz ordezkatu:

*orhoitu gaituc cer eratan erran ceçan.

Leizarragak frantsesetik hartu dituen tituluetan ere baditugu egitura honen adibideak:

Nola hura (...) emazteaganic iayo içan den (Mt 1, tit)
fr: nay de la vierge Marie.

Christ prometattu içan cena, nola Iesus den (Mt 16, tit)
fr: Que Iesus est le Christ promis.

Iesusec aitzinetic erraiten nola hil behar çuen (Mat 26, tit)

fr: Christ predict sa mort.

(17) Zehar, eta bigarren mailako froga bezala honako hau ere aipa daiteke behar bada: Duvoisinek bost testu hauetatik lau *eLA* konpletiboaz itzultzen ditu eta boskarrena partizipioz; Olabidek bostak *eLA* konpletiboaz...

Sarrera orrietan gisa honetako 18 bat testu ditugu. Batzuk frantsesezko sarreran ordaina dute:

consideratu nuenean nola (...) anhitz personaje iaquinsuric (...) enplegatu içan den (...) (Sar 4).

fr: quand ie consideroye que (...) tant de sçavans personnages se sont employez (...).

fr: ecen bethi orhoitic nola Iaincoaren manu expressa den... (Sar 5) me souvenant tousiours de l'express commandement de Dieu...

P. Altunak gorago aipaturiko azterketan, Etxeparez ari dela, zehar galdera eta konpletibo deklaratioa esanahian ezezik joskeran ere berezten direla dio, aditz perifrastikoa duten aditzetan behintzat.

galdera: nola - ad. izenkia - ad. laguntzailea
"nola gobernacen dugun"

deklaratioa: nola - ad. laguntzailea - ad. izenkia
"nola duyan eguin"

Leizarragak ez du holakorik egiten. Segida bera dute biek: nola - ad. izenkia - ad. laguntzailea. Doinueraz eta azen-tuz bereziko ziren, behar bada, haren euskaran *nola* galdekatzailea eta *nola* konpletiboa. Idatzian, ordea, ez dugu esanahiaren aldea baizik somatzen.

Nola konpletiboak perpausean duen lekuari dagokionez, *ezen* partikularen antza badu zerbaitean, ez ordea denean: hau bezala multzo konpletiboaren aitzin buruan doa honen eremua aurretik mugatuz. *Nola*, ordea, *ezen* ez bezala, a) aditz nagusiaren ondo ondoan doa; b) konpletibo koordinatuetan bakoitzean eman daiteke; eta c) ez da ken eta ezar daitekeen espletiboa, beti jarri behar den konpletibatzailea baizik.

4. Deklaratioen azpisailak

Aurreko atalean ikusi dugunez, konpletibo deklaratioak bi eratan ageri dira Leizarragagan (*eLA* eta *nola...eN*) (18). Bi perpaus mota horien arteko aldea formala al da huts

(18) Leizarragak, aztertu ditudan testuetan behintzat, ez du *-eNA* eta *-eNIK* konpletiborik erabiltzen.

hutsean, hau da, bestelako baliorik eta funtsik gabekoa ala formaren azpian eta honekin batean balio desberdintasuna ere berarekin daramana?

Lafitteren ustetan, itxuraz, bi era hauek egun balio beretsukoak dira berak aztertu duen euskalkian. Konpletibo deklaratioa batzaz zein besteaz eman daitekeelarik (19).

Leizarragagan, ordea, ez dirudi bi era hauek balio berekoak direnik. Izan ere, *eLA* perpausa beti eta edozein kasutan erabil daitezkeen bitartean, *nola...eN* kasu berezi eta aski zehatz muga daitezkeenetan erabiltzen da. Bien arteko muga berezitasun semantiko eta sintaktiko zenbaitek markatzen dutela esango nuke, itxurazko desberdintasunak sakoneko aldea salatzen duela alegia (20).

(1) Uste dut (ezen) etorri dela
entzun eta irakur daiteke adibidez. Ez ordea.

(2) *Uste dut nola etorri den.

(3) *Iruditzen zait nola etorri den.

Hori batetik. Bestetik *nola...eN* konpletiboa "hori" izenordainaz ordezkatu daiteke, ez ordea "hola" aditzondoaz:

(4) Ezagutu duk nola eskandalizatu diren

→ Ezagutu duk hori

*Ezagutu duk hola

eLA perpausaz osaturiko zenbait konpletibok, aldiz, bai "hori" izenordainaz bai "hola" aditzondoaz ordezkatu daitezke:

(5) Etorri dela esan du

→ Hori esan du

Hola esan du

Badirudi beraz, areago sakondu gabe ere, deklaratioaren artean bi mota, bi gutxienez, berez daitezkeela edo hobeto esan berezi behar direla eta zalantzarik gabe goiko ziriborro

(19) "Comme équivalent de proposition déclarative on trouve l'interrogation indirecte avec *nola* et le conjonctif (cf. le français populaire *comme quoi*)". Pierre Lafitte, *Grammaire basque*, Bayonne, 1962, 448. orrian.

(20) Hemendik aurrera Laizarragaren testuak ezetik neronek egindako perpausak ere aurkeztuko ditut esandakoen frogagarri.

horretan adierazitako bidean barrena aztertzeak merezi due-
la.

Hasieran alderdi semantikoa ikusiko dut, konpletiboen sailkapenerako lehen hurbiltzea eginaz eta gero zenbait gora-behera sintaktiko aipatuko dut.

4.1. Semantika eta gramatikaltasuna.

4.1.1. *Nola...eN* perpausiek eta *eLA* motako batzuk ez dute ondoan beraiek adierazi eta baieztatu dutena ukatu edo zalantzan jartzten duen perpausik onartzen. Edozein euskaldunek, nik uste, arraro eritziko lizkioke ondoko perpausiei, ez joskera edo morfologia aldetik gaizki antolatuak daudelako, esanahiaren aldetik onartu ezinak direlako baizik. Semantika aldetik ezgramatikalak direla esango genuke:

(6) Oroitzen gara nola Lupe etorri zen, *baina ez zen etorri.

(6a) Oroitzen gara nola Lupe etorri zen, *baina behar bada ez zen etorri.

(6b) Oroitzen gara nola Lupe etorri zen, *baina behar bada oker gaude.

(7) Koldok badaki bihar jai dela, *baina ez da hola.

(7a) Koldok badaki bihar jai dela, *baina agian ez da jai.

(7b) Koldok badaki bihar jai dela, *baina behar bada oker dago.

(7c) Koldok badaki bihar jai dela, *eta sentitzen du jai ez izatea.

Perpausaren lehen partean egiaztat ematen dena ezin da bigarreanean ukatu.

Bestelako *eLA* perpausetan, ordea, aurrean esandakoa lasai uka daiteke inolako eragozpenik gabe:

(8) Etorri zela uste nuen, baina ez da etorri.

(9) Etorri dela esan didate, baina behar bada ez da etorri.

(9a) Etorri dela esan didate, baina behar bada oker daude.

Bi jokabide horien arteko aldea, dudarik gabe, aditz nagusiaren esanahian dago eta honek konpletiboan duen eraginean.

4.12. Antzeko zerbait gertatzen da konpletiboak gauza nabarmen faltsua dioenean. Arraroa da, edo behar luke behintzat, EGB-ko klaseak pasa dituen ikaslerik txarrenak ere honelako zerbait esatea:

(10) Anderrek badaki Paris Alemanian dagoela.

(11) Anderrek gogoan hartu du nola Cervantesek Waterlooko gerra galdu zuen.

(12) Anderrek gogoan hartu du Napoleonek "Don Kijote" idatzi zuela.

Perpaus hauek, noski, ondo antolatuak daude gramatika aldetik eta ezin daiteke, besterik gabe, ezgramatikalak direnik esan. Komunztadurak, joskera, morfologia... dena dago ondo. Zerbait ikasi duenak, ordea, ez lituzke horren erraz onartuko. Zer dela eta? Aditzak egia dioen konpletiboa eskatzen duen bitartean, konpletiboak edozein eskolaturentzat egiatik urrun dagoen zerbait esaten duelako.

Bestelako *eLA* perpausetan, berriz, ez dago horrelako eragozpenik eta neke handirik gabe onar daitezke:

(13) Felipek Paris Alemanian dagoela esan du

(14) Lupek "Don Kijote" Napoleonek idatzi zuela esan du

Aditz hauek eta antzekoek ez bait dute egia dioen konpletiboa eskatzen; honek hiztunaren ustetan egia nahiz faltsua dena esan dezake. "Uste", "esan", "idatzi" etab. edozer gauza egin bait daiteteke. "Gogoratu", "jakin" etab., berriz, egiaz dena edo gertatu dena baizik, hobeto esan hiztunaren ustetan egiaz dena edo gertatu dena baizik, ez daiteke egin.

4.13 Gauza bera gertatzen da iraganeko perpausari bestelako oraina kontrajertzen zaionetan: *nola ...eN* konpletiboek eta *eLA* batzuk ez dute horrelako segidarik onartzen.

(15) *Goizean oroitu naiz nola Mikel alkate den, baina orain oroitzen naiz sekretario dela eta ez alkate.

16. *Banekien beltza zarela, baina orain jakin dut txuria zarela.

Perpauş hauen onartu ezina ez dator konpletiboaren gezur nabarmenetik. Guk, adibidez, ez dakigu Mikel benetan, bere zorionerako nahiz txarrerako, alkate den ala ez. Eta geure kasorako bost axola zaigu gainera. Mikel halako gradura igoa izan edo ez, goiko perpausa gaizki eginga dagoela badakigu, konpletibo batek egiazat jotzen duena besteak zalantzarik gabe ukatzen duelako. Gauza bera esan dezakegu (16) perpausaz ere: perpauş hori ez da txarra lehen konpletiboa faltsua delako, lehena bigarrenarekin uztartu ezina delako baik.

Bestelako *eLA* perpausetan, berriz, ez da holako eragozpenik aurkitzen:

(17) Atzo Koldo alkate dela esan nuen, baina orain ezetz diot.

(18) Koldo alkate zela uste nuen, baina ikusi duzu sekretario dela eta ez alkate.

4.14 *nola ...eN* konpletiboak eta *eLA* batzuk bitan zatitza onartzen dute, biz emandakoa bakarraz esandakoa bera delarik:

(19) Herodesek ikusi zuen zuhurrez engainatua izan zela

→ "Herodes zuhurrez engainatua izan zen" eta "(Herodesek) hori ikusi zuen".

(20) Jakin dugu nola partidua 2-0 irabazi duzuen

→ "Partidua 2-0 irabazi duzue" eta "guk jakin dugu hori"

eLA daramaten bestelako perpausak, berriz, ez dute holako zatiketarik onartzen:

(21) Trena iritsi dela uste dut

Ezin da ⇒ "trena iritsi da" eta "nik hola uste dut"

(22) Norbait dabilela iruditu zaio

Ezin da ⇒ "norbait dabil" eta "hori iruditu zaio".

4.2 Faktibotasuna: konpletibo deklarati­boen sailkape­nerako irizpide.

Aurreko azterketa semantikoaren ondorioz, bi konpletibo mota berezi daitezkeela ikusi dugu eta, gero­koak gerorako

utziz ere, zerbait nabarmendu dela edo bederen nabarmen-tzen hasi dela uste dut: aditz batzuk, alegia, egia dioen kon-pletiboa eskatzen dutela. Aditz horiek, gaurko gramatikari-aren usadio berriari jarraikiz, "faktibo" izendatuko ditugu (21).

4.21 Hiztunak, holako aditzak erabiltzean, konpletiboa egiazkoa bezala aurkezten du. Baina, kasu, ez konpletibo hori berez eta zuzenean baieztatzen; hura egiazko dela suposatuz, hari hurrez beste zerbait eranstean du. Faktiboetan beraz bi urrats ematen ditugula esan daiteke: batetik zerbait alde-z aurretik suposatu —ez, berriro diot, berez eta zuzenean baie-ztatu!— eta horri buruz zerbait deklaratzeko dugu:

(23) Inor ez da Lupe gaiso dagoela ohartu

Batetik: Lupe gaiso dago (aurrez suposatua)

Bestetik: Inor ez da horretaz ohartu (zuzenean baieztatua).

Faktibo ez direnetan, berriz, urrats bakarra ematen da, hots, zuzenean aipatzen dena mugatzen da hiztunaren per-pausa. Baieztatze, ukatze edo galdetze bakarra dago:

(24) Norbait datorrela uste dut (zuzenean baieztatua).

Eta faktibotasun hori da, hain zuzen, goiko puntuetan (4.11 - 4.13) aipaturiko berezkuntzak eragiten dituen:

(a) faktiboek ez dute jarraiko baieztatze-ukatzeko onar-tzen:

(7) Koldok badaki bihar jai dela, baina ez da horrela.

Izan ere, perpaus horren analisia hau da: "jai da" eta "Koldok badaki hori", baina "ez da jai" eta perpaus horiek, dialektika guztiak gorabehera, uztartu ezin dira.

(b) Faktiboek ez dute, ironiarik gabeko perpausetan behintzat, konpletibo nabarmen faltsurik eramaten:

(10) Anderrek badaki Paris Alemanian dagoela.

(21) Izen hori Paul Kiparsky-k eta Carol Kiparsky-k proposatu zuten orain hamabi bat urte argitaratu eta gerora behin eta berriro aipatua izan den "Fact" artikuluan. Ikus gaztelaniazko itzulpena, *Semántica y sintaxis en la lingüística transformatoria*, 2 bilduman, Alianza, Madrid, 1976, 31-76 orrietan.

Perpaus honen analisia hau da: "Paris Alemanian dago" eta "Anderrek badaki hori" eta asko ikasia izan gabe ere edozeinek daki Paris ez dagoela Alemanian.

(c) Faktiboek ez dute aurkako suposaketarik onartzen:

(16) Banekien beltza zarela, baina orain jakin dut txuria zarela.

Perpaus horren analisia hau da: "zu beltza zara" eta "nik banekien hori", baina "zu txuria zara" eta "orain jakin dut hori". Ikusten denez suposatuak diren lehen eta hirugarren perpauusak uztartu ezinak dira.

Faktibo ez diren aditzetan, aldiz, ez da holakorik gertatzen, horietan aditz nagusiak deklaratzan duenera mugatzen bait da guztia, inongo suposaketarik gabe.

4.22 Faktiboetan "suposatzen" dena et beraz egiaztat ematen den konpletiboa, beste aldetik, ez da aldatzen nagusia aldatuagatik: azken hau baiezkoa, ezezkoa nahiz galderazkoa izan daiteke, baina hark berean jarraitzen du:

(19) Herodesek ikusi zuen nola zuhurrez engainatua izan zen (BAI).

(19a) Herodesek ez zuen ikusi nola zuhurrez engainatua izan zen (EZ).

(19b) Herodesek ikusi zuen nola zuhurrez engainatua izan zen? (GALD).

Holako perpausetan, berriro ere lehen esandakora nator, bi perpaus ematen ditugu eta bigarrena aldatuagatik "suposatuak" lehenean jarraitzen du, inongo aldaketarik gabe:

Herodes zuhurrez engainatua izan zen eta	}	Herodesek ikusi zuen hori Herodesek ez zuen ikusi Herodesek ikusi zuen?
--	---	---

Ezfaktiboetan, berriz, deklarazio bakarra dugunez, nagusia aldatzarekin batera menpekoa ere erabat aldatzen da ezin bestean:

(22) Norbait dabilela iruditu zaio

(22a) Ez zaio iruditu inor dabilenik

(22b) Norbait dabilela iruditu al zaio?

Aurrez suposatzea eta zuzenean baieztatzea ez dira gauza bera. Horregatik

(25) Egia da etorri dela

perpaua ez da faktiboa, zuzenean baieztatzen bait du "etorri dela". Eta, horrela, nagusia aldatzean konpletiboa ere aldatu-rik geratzen da:

(25a) Ez da egia etorri dela/nik

(25b) Egia al da etorri dela?

4.23 Faktiboak eta axaleko egitura. Aurrera baino lehen ohar bat egin behar dut. Faktibotasuna, gorago ere behin eta berriz esan dudanez, ez da *nola ...eN* egitura bakarraz ematen; (*ezen*)...*eLA* ere askotan faktiboa da, hala nola

(...) badaqui çuen Aita cerucoac, ecen gauça hauen gucién beharra baduçuela (Mt 6,32).

Orduan adi ceçaten discipuluec ecen Ioannes Baptistaz erran ceraucala (Mt 17,13)

eta beste asko.

Nola ...eN konpletiboari beti eta berez dagokio faktibotasuna (22); *eLA* konpletiboari aldiz ez; hau inoiz faktiboa eta inoiz ezkatiboa izango da.

Kiparskytarrek ingelesezko *that* partikulaz diotena errepika daiteke euskarazko *-eLA* morfemari buruz ere: berez ambiguo dela eta faktiboentzat nahiz ezfaktiboentzat balio duen egitura arrunt eta neutroa dela (23).

(22) Hori ikusi ahal izan dut Leizarragan eta Altunak Etxepareren azterketan aurkeztu dituen *nola* konpletiboetan.

(23) "I regret that John is ill
lamento que J. esté enfermo

A pesar de que esta última oración factiva tiene la misma forma superficial que la no factiva,

I believe that John is ill
creo que J. está enfermo

de acuerdo con nuestro análisis difiere fundamentalmente de ella en forma sintáctica: de hecho, las dos oraciones poseen estructuras profundas diferentes (...). Las cláusulas simples con *that* son ambiguas y representan el punto de imbricación (neutralización) de los paradigmas factivo y no factivo". Aipatu liburuan, 56. orrian.

Eta Leizarragarena baino hurbilago dudan euskarara etorriz, arazoaren beste alderdi bat aipatu nahi nuke, susmo gisa besterik ez bada ere: konpletiboaren jokamoldea ezezko perpausetan. Hauetan ezfaktibotasuna, hau da, konpletiboaren egiarekiko neutraltasuna agertu nahi denean, badirudi zenbait euskalkitan *-eNIK* morfemaz baliatzen garela:

(26) Ez esan inori alkate zarenik

Holako perpausean ez da suposatzen mintzalaguna alkate denik. Agian bai, behar bada ez. Hori baino zerbait zabala goa da hor adierazi nahi dena: ez esan inori alkate zaren berririk/konturik/asmakeriarik...Perpaus honek ez du eskatzen "alkate zara, baina ez esan hori inori".

Beste perpaus hau aldiz

(27) Ez esan inori alkate zarela

bi eratara erabil daitekeela dirudi. Faktibo gisa: "alkate zara", baina "ez esan inori". Ezfaktibo gisa: "ez esan inori alkate zarela", agian zara agian ez.

Susmo hori egia balitz eta euskalkien mugak une batez alde batera utziz honako eskemaz agertuko nuke orain artekoa:

nola ...eN	-eNA(24)	}	FAKTIBOA
	-eLA		EZFAKTIBOA
	-eNIK (ezezoetan)		

4.3 Faktiboen berezitasun sintaktikoak

Konpletibo deklaratiiboak arrazoibide egoki eta ahalik zehatzenez, eta ez irudimenak eraginiko uste hutsalez, sailkatu nahian alderdi semantikoa aztertu dut gorago. Eta, nahi hori dela eta, faktibotasuna nolabait mugatzera iritsi gara. Orain, berriz, aurrera jo eta alderdi sintaktikoa aztertuko dut, faktibotasunak sintasian ere ondorioak badituen ikusteko.

(24) Hemen sartuko litzateke, nik uste, lan honetan aztertu ez dudan bizkaierazko eta bestetako *eNA* konpletiboa.

Ondorio horiek, nik ikusi ahal izan dudan neurrian behintzat, aldaketa batzuei ezarritako mugan gauzatzen dira.

4.31 Ezaren igotzea edo luzatzea. Perpaus nagusiaren eta konpletiboaren artean sortzen diren lotura sintaktikoen artean bada bat, gramatika sortzailearen aldeko zenbaitek argitara ekarria, ezezkoaren balio eta eraginari dagokiona: perpaus nagusian ageri den "ez" partikula zenbaitetan: (a) berez konpletiboarena zen eta nagusira igoa izan da; (b) konpletiboraino luzatzen du bere eragina, honek behar zuen ezezkoa ordezkatzuz.

a) *Uste, iruditu, pentsatu eta nahi, aholkatu, agindu* aditzak dira, besteren artean, ezaren igotzea onartzen dutenak:

(28) Uste dut / ez duela kurtsoa atera

(28a) \Rightarrow Ez dut uste / kurtsoa atera duenik

(29) Iruditzen zait / ez dabilela oso ondo

(29a) \Rightarrow Ez zait iruditzen / oso ondo dabilenik

(28) eta (28a) —eta berdin (29 eta 29a)— esanahi berekoak dira eta horrenbestez pentsa daiteke, oker aritzeko arrisku handirik gabe, biek sakoneko egitura bera izan arren aldaketa desberdinak izan dituztela eta bigarrenean "ez" partikularen leku aldaketa bat izan dela. "Ez" horrek menpeko perpausuan zuela lekua frogatu daiteke: "deus" partikula ezezko eta galderazko perpausetan erabiltzen da, ez baiezkoetan (*deus dakit). Hala ere

(30) Ez dut uste / deus dakienik

gramatikala da, lehen menpekoan zegoen "ez" hori nagusira igo eta harekiko eragina deusetan galdu ez duelako.

b) Beste zenbaitetan perpaus nagusiko "ez" partikula ez dator menpekotik, baina hala ere menpekoraino luzatzen du bere eragina, nagusiaren mugak gaindituz eta menpekoaren osagai batzuei ezezkotasuna erantsiz:

(31) Ez dut esan / deus egin duzunik

(32) Ez dugu entzun / batere egin duenik

Hemen, erraz ikus daitekeenez, ezezkoa ez dator menpekotik

(33) Ez dugu entzun / deus egin duenik

eta

(34) Entzun dugu / ez duela deus egin

ez bait dira berdinak eta sakonean ez dute egitura bera. Hala ere (31) eta (32) perpausetan "deus" eta "batere" horiek nagusiko ezezkoaren eragina jasotzen dute.

Harira itzuliz eta berriro ere faktiboetara gatozela, ondorio hau atera genezakeela uste dut: faktiboek ez dute ezaren eragin hori, ez lekuz aldatuarena ez bestearena, onartzen. Faktiboetan, izan ere, nagusiak eta konpletiboak bi multzo berezi osatzen dute, bien arteko muga gainditu ezina delarik:

(35) *Ez naiz ohartu / nola deus egin duzun

(36) *Ez da oroitzen / nola batere zegoen

(37) *Ez zaio ahaztu / deus egin zenuela

4.32. Nagusiaren galdera konpletiboaren barnean. Leizarragagan gisa honetako hiru perpaus ikusi ditugu:

(38) Ni nor naizela/diote gizonek?

Holako perpausetan galdekatzailea konpletiboan dago, baina halere hau ez da galderazkoa (ni nor naizen...); deklaratioben itxura du. Eta nagusian berriz gauzak alderantziz daude: ez du partikula galdekatzailerik eta halere galderazkoa da. Zer esan nahi du honek? Menpekoaren galdekatzaileak nagusiaren moldean eragina duela edo, bestela esanik, biek batasun estua dutela eta galdekatzaileak perpausen arteko muga gainditzen duela. Ez dago beraz bi perpausen koordinazioa: auresuposaketa eta hari buruzko galdera. Urrats bakarra dago, galdera bakarra. Holako joskera, beraz, galerazia dute faktiboek:

(39) *Nola ni nor naizen/diote?

(40) *Ni nor naizela/dakizu?

4.33. "Hori" eta "hola" konpletiboen ordezkotza. *Nola...eN* konpletiboek eta *eLA* faktiboek erakusle baten bidez ordezkatu nahi ditugunean, *hori* (edo *hau*, *hura*) nominati-

boaz baliatzen gara (25). Ezfaktiboetan, berriz, ordezkoa *hori* nahiz *hola* izan daiteke (26).

Ezfaktiboetan:

(41) Lupek aski dela uste du eta Felipek ere $\left\{ \begin{array}{l} \text{hori} \\ \text{hola} \end{array} \right\}$ uste du

(42) Gaur jai dela esan du Pellok eta Lupek ere $\left\{ \begin{array}{l} \text{hori} \\ \text{hola} \end{array} \right\}$ esan du

Faktiboetan:

43. Badakit lanetik bota zaituztela eta amak ere badaki $\left\{ \begin{array}{l} \text{hori} \\ * \text{hola} \end{array} \right\}$

44. Herodesek ikusi zuen nola zuhurrek engainatu zuten eta haren lagunek ere ikusi zuten $\left\{ \begin{array}{l} \text{hori} \\ * \text{hola} \end{array} \right\}$

Hemen ere, ezezkoaz ari ginenean esandakoa errepika dezakegula dirudi: faktiboen ordezkoa IS nominatiboa da beti eta hiztunak haren egia suposatzen du. Ezfaktiboen kasuan, berriz, bi posibilitate ditugu: a) hiztunak neutraltasuna markatu nahi duenean *hola* erabiltzen du ("hola esan dute"); b) neutraltasun hori markatu gabe utzi nahi denean, *hori* ere eman dezake ("zuk esan duzu hori").

4.4. *Faktiboak, semifaktiboak, ezfaktiboak.*

P. Kiparsky-k eta C. Kiparsky-k "faktibo" hitza lehen aldiz erabiliz, gai honi eskaini zioten artikulu aipatuan aditzak bi sail zehatzetan banatzen dituzte: batzuk faktibo dira eta besteak ezfaktibo. Muga zehatza da: hau edo hura, ez dago beste aukerarik. Hori ingelesari dagokionez.

M. Luisa Riverok, berriz, gaztelania aztergai duelarik, batera nahiz bestera erabil daitekeen aditz multzoa dagoela dio: konpletiboa subjuntiboz doanean ez dago faktibotasunik

(25) *Oroitu, ohartu, ahaztu* etabarretan konpletiboaren ordezkoa *horretaz* da. Ikus Mt 27, 63.

(26) Hemen, laburtu beharrez, *hori* eta *hola* hartu ditut ahotan, baina gauza bera egin genezake beste ordezko batzuek gogoan harturik: *zer / nola, gauza bera / berdin* etab.

("Los corredores no creen que el belga ganara la carrera"); indikatiboan doanean, berriz, faktiboa da ("Los corredores no creen que el belga ganó la carrera") (27).

Andrée Barillo-k, frantsesari buruz ari dela, aditz batzuk berez faktibo ez izanik ere, zenbait kasutan faktibo gisa erabiltzen direla dio ("Jean a remarqué que je boîtais", "Jean n'a pas remarqué que je boîtais"). Eta aditz hauei, J. Hooper-en hitza jasoz, *semifaktibo* izena ematen die. Aditz hauek ezezkoan, adibidez, ez dute faktibotasunik (28).

Euskaraz ere, gorago aipatu eta azertu ditugun datoei diotenez, sailkapen hirukoitz horretara jo behar genukeela dirudi: faktibo, semifaktibo eta ezfaktibo, nahiz eta egia esan faktibo huts den aditzik nik azertu ditudan testuetan erabat dokumentatu ezin, edo ez behintzat zalantza guztiak uxatuz.

Ezagutu, senditu, miraz egon (29), *kotsideratu I* (30)... beti faktibo direla dirudi. *Oroitu, jakin, ikusi, sinetsi, pentsatu I, esan I, entzun I* (31)... baiezkoan faktibo dira eta ezezkoan faktibo nahiz ez faktibo. *Uste ukan, iruditu, espero ukan, pentsatu II, esan II, entzun II* ...beti esfaktibo dira.

Hona eskema:

Faktibotasunari

lotuak	FAKTIBOAK	ezagutu, senditu, miraz egon, kotsideratu I...
irekiak	SEMIFAKTIBOAK	oroitu, jakin, sinetsi, pentsatu I, esan I, entzun I...
itxiak	ESFAKTIBOAK	uste ukan, iruditu, espero ukan, pentsatu II, esan II, entzun II...

(27) M. L. Rivero, *Estudios de Gramática generativa del español*, Cátedra, Madrid, 1977, 39-68 orrietan.

(28) A. Barillo, *Syntaxe et sémantique du français*, Quebec, 1978, bilduman, 37. or.


(29) Ikus Etxepare, prologoan eta I, 88...

(30) Bi *kotsideratu* direla esan daiteke: I "gogoan hartu" ("kotsidera eza- zu egunak 24 ordu dituela"); II "pentsatu, eman..." ("Kotsidera ezazu, eman eza- zu, ilargian bizi naizela").


(31) *Pentsatu, esan, entzun* etab. ere bitara uler daitezke. I: "pentsa egunak 24 ordu dituela", "euskaldunok gerra galdu genuela aitak esan zidan"...; II: "pentsa Napoleon naizela", "Ni Napoleon naizela mukizu horrek esan du"...

4.5. Faktiboen egitura sakona.

Faktiboen sakoneko egiturari buruz bi hipotesi agertu dira. Batetik Kiparsky-tarrek hau proposatzen dute (32):



Konpletiboa, beraz, "fact" izenaren osagarria izango litzateke. V. Demontek ere, gai horri eskainiriko lan sakon batean, egitura hori bera proposatzen du gaztelaniazko faktiboetarako (33):




M. L. Riverok eta Conxita Lleók, berriz, bi perpausen koordinazioa dagoela diote eta honako egitura proposatzen dute gutxi gorabehera (34):

(32) Aipatu artikuluan, 53. orrian.

(33) V. Demonte, *La subordinación sustantiva*, Cátedra, Madrid, 1977, 151. orrian.

(34) Ikus M. L. Rivero, aipatu liburuan, 39-68 orrietan. C. Lleó, *Estudios de Gramática generativa* bilduman, Labor, Barcelona, 1976, 135-6 orrietan.


“Lamento que haya llovido”




Ausartegia litzateke orain, beste azterketarik gabe, euskarazko faktiboen egitura sakona zein den porposatzea, baina lehen hurbiltze batean azken honen antzekoren bat dagokiela esango nuke, hipotesi gisa. Batetik ez dut ikusten zein izan daitekeen konpletiboaren izen nagusia (*fact* eta *hecho* horien pareko); bestetik izenaren konplementuen ezaugarriak ez dira ageri; azkenik egitura horrek nahiko egoki argitzen ditu aurkeztu ditugun berezitasun semantiko guztiak.

Laburtuz:

Faktiboak: “Felipe ona dela badakit”.



Ezfaktiboak: “Felipe ona dela entzun dut”.



4.6. Bukatzeko.

Nere lanaren bigarren parte honetan konpletibo deklarati-
boen sailkapenerako irizpideen bila saiatu naiz, ez forma
hutsean sona daitezkeen irizpideen bila, egitura sakonean
oinarrituriko eta alderdi semantiko-sintaktikoan ageri diren
irizpideen bila baizik. Eta bat aurkitu dudala uste dut: fakti-
botasuna. Ez da bakarra, noski, baina bai euskal gramatikak
gogoan hartu behar duena.

Donostia, 1979.eko Abendua

J. A. Mujika

BEZALA GAIZKI ERABILTZEAZ

Arrasate, 1979-XII-22

Endrike Knörr

Gero eta maizago, aho-lumetan agertzen den esaera batez aritu nahi nuke hemen oso labur.

Gauza ezaguna da *como* / *comme* erdal aditz-lagunak askotan expletiboak direla, hots, ez dutela berez adierarik:

Mi padre estuvo como gudari en Artxanda

edo

Comme directeur il est efficace

perpausetan, partikula horiek ez dute deus egiten, atribuzioa sartzen laguntzea besterik.

Honelako perpausak euskaratzean, oso oker ez banago, ezin dezakegu, hizkuntzaren sena bortxatu gabe, *bezala* erabil. Honetaz arrazoin osoa zuen Lafitte kalonje jaunak, bere Gramatikan honako hau idatzi zuenean:

“De même qu'en français l'attribut est parfois introduit par *comme*, *en qualité de*, *en guise de*, de même en basque on recontre le nominatif indéfini suivi de *bezala*, *comme*, *gisa*, en guise de; *cette construction ne paraît pas très basque*” (1).

Autore zaharretan nekez aurki daiteke *bezala* honelakoetan erabilia. Konparatibo funtzioa du beti *bezala* aditz-lagunak, nik ikusi ditudan exenpluetan bederen. Orobat *gisa*, *legez* eta kidekoek.

(1) *Grammaire Basque*, Baiona 1962, 126. orr. Azken perpausa nik nabarmendua.

Nola itzuli, orduan, erdarazko partikula horiek euskarara? Ez noa gauza berriak esatera, ageri-agerian dauden bi bideak errepikatzen baizik:

a) Nominatibo mugagabea: *mandatari, soldado*.

b) Prolatiboa: *zorotzat*.

Noiz zein erabili ez da erraz esaten. Badirudi, halaz guztiz, bata edo bestea gabe, bata ala bestea erabiltzen direla zenbaitetan. Lafitte apaiza luzaz mintzatu da honetaz, aditzi kasu eginez (2). Guk hemen zerbait erantsi nahi genuke, *como / comme* nola itzul daitekeen kontutan hartuz:

1. Sujetoaren atributoa *nominatibo mugagabe*an joan ohi da.

Pellok ez zuen irabazle atera nahi.

2. Lanbidea, kargua e. a., orobat, *nominatibo mugagabe*an.

Morroin ibili zen garai hartan Aitor.

3. Okerreko identifikazioak *-tzat* du maizenik.

Sorgintzat hartu zuten (= Adiskide hartu zuten).

Gainerakoan, prolatiboak eta nominatibo mugagabeak ordainkide dirudite:

Liburu hau erabiltzen dugu ikaspide tzat.

Horra, bada, txosten xume hau. Ongi esanak onar, gaizki esanak barka.

(2) *Ibidem*, 123 eta darr. orr. Interesgarria da ere Txillardegiren *L'emploi de l'indéfini en souletin. Fontes Linguae Vasconum*, IX (1977), 29. orr.

(3) Puntu hau Txillardegik aipatzen du bere *Euskal Gramatikan*, Donostia 1978, 50. orr.

A [HA] L, -A ETA Ø DIRELA ETA PROPOSAMENA

Arrasate, 1979-XII-23

Endrike Knörr

Ahal sailkatu nahi izanez gero, honetara egin genezake:

1) **Aditza.** Adibidez:

Ikusi ahal dut edo Ikusten ahal dut.

Ikus dezakegu.

Ezin konta ahal bekatu. (Agirre Asteasuko, *Erakusal-diak*, I, 268).

Ikus ahala urrun, "aussi loin que se peut voir". (Ithurri, 39)

Sartu ahala hiltzen zituen.

Ahal azken hiru exenpluotan zail da jakiten aditza ala partikula den, baina bego: sail honetan sartu dugu.

2) **Izena.** Adibidez:

Zoin bere ahalen arabera. (Ithurri, 24)

3) **Galde retorikoak egiteko partikula.** Adibidez:

Bakharra ahal iragan zara Ierusalemen hoin arrotz zarena, non ezpaitakizu zer iragen izan den azken egun haue-tan? (Haraneder, Lk. 24, 18).

4) **Perpauk desideratiboak egiteko partikula.**

Exenpluak:

Agur, Aita nerea, ta gogoango al nazu zure otoitzetan.
(Larramendi, *Eskualdunen Loretegia* deritzan antologian, Baiona 1931, 69. orr.)

Ilko al-duk. Amen. = "Así se muera. Amén."

Itoko al-duk. Amen. = "Así se ahogue. Amén."

Lertuko al-duk. Amen. = "Así revienta. Amén."

Tximistak eřeko al-dik. Amen. = "Así lo abraza el rayo. Amén."

Lupuak jango al-dik. Amen. = "Así lo coma el lobanillo. Amén."

Lepezurřa autsiko al-dik. Amen. = "Así se rompa el pescuezo. Amén."

Amaika milla demoniřok erámango al-tek. Amen. = "Así lo lleven once mil demonios. Amén."

(M. Lekuona, *Anuario de la Sociedad de Eusko-Folklore*, III (1923), 85. orr.)

Onezkerok ez al dugu porrot egingo. (Orixe, *Karmel* aldizkarian agertu gutunetan, 4 (1979).

Bidean... zortzialdirako bederen iritxiko al zaizu. (*Ibidem.*)

Hauxe du gogoan Lafitte apaizak, naski, *ahal*-en "sense votif" delakoaz mintzo denean (*Grammaire Basque*, 350. orr.). Bideabar esanda, desideratzen den hori pasea bada, aditz nagusia ez dugu futuroan izango. Hona Lafitte apaizaren bi exenplu:

Bere aitetamak ikusi ahal ditu, "il faut espérer qu'il a vu ses parents". (Ikusi, ez ikusi, iragana da.) *Ikusiko ahal du*, "il faut espérer qu'il le verra". (Gerorako desira.)

5) **Dudazko perpausak egiteko partikula.** Oso guti erabili.

Exenplua:

Ordean nihor ez ahal da, ehun urte thormenta handitan iragan nahi lituzkenik, hetarik lekhora oren-laurden batez atseginetan egotekotan: nihor ez ahal da hoin zentzu-gaberik, ta bere buruaren hoin etsai denik. (Duhalde, *Medit.*, 199)

6) Horrez gain, egungo gipuzkerak *a [ha] l galde arruntetan* sartzeko joera du. Partikula hori bestelako galde-partikularik (*non, zer, ote*, eta abar) ez denean agertzen da, inolako marka semantikorik gabe.

Zentzu honetan, jakina, oso berria da. Ubillosengan, esaterako, ez da aurkitzen, Mitxelenak behin oharrerazi zidanez, eta alferrik da autore adinkideetan eta are harez gerokoetan bilatzea. Azkuek berak, bere Hiztegian, ez du *ahal* galdepartikulatzat jotzen, bai ordea bere *Prontuario*-n erabiltzen:

ezalduzu belarririk (60. orr.)

Batentzako lan geitxo ezalda? (95. orr.)

Gerra ondoko belaunaldian zabaldu da usadio hori Gipuzkoako autoreetan. Salvatore Mitxelenak, esaterako, maiz erabiltzen du.

Ezaguna da gainerako euskalkiek ez dutela horrela erabiltzen galde arruntetan. Ekialdeko zenbait hizkeratan *-a* atzizkia aurkitzen dugu (*a*, *o*, *u* bokalen atzean *-ia* bihurtzen dena):

Jakin duka berria?

Ikusi duzuia?

Nika?

Hemena?

Baia?

Eza?

Ikaspideetan bilatzen badugu erabilera hau, ikusgarria da nola gipuzkoarrek egindakoetan bakarrik ageri den, hots, *Euskara hire laguna*, *Jalgi hadi* eta *Método radiofónico*-n.

Harrigarria da hau: tradiziorik eta hedadurarik gabeko usadio batek nolako **nagusideria** hartu duen. Baina ez da hori dena. *A [ha] l* partikula galde arruntetan sartzen bada, *ahal* aditza ostenduz doa, galduz doa.

Hortaz, euskararen onerako, ken dezagun betiko *a [ha] l* galde arruntetatik... garaia deno. Eta otoi tradizio, eta literatur euskararen defendatzaile eta aitzindariak ez daitezela eskandalu-harri izan.

ADIERAZPENA

1. Biltzar honetara aurkeztu diren lanak, bai erabili diren gaiez eta bai duten mailaz, Euskaltzaindiak aurrerapide dauzka.

2. Honelako iker-lanak beharrezko ikusten ditu, bereziki euskara historian zehar erabiltzearen usadio on eta ereduak euskal idazle eta irakasleengana zabal daitezen.

3. Bide honetan barrena jarraitzeko lan talde batzuren beharra, premia eta nahia erakusten da. Horretarako batzordeak sortuko dira.

4. Bere burua eskaintzen du koordinatzaile hizkuntza alorrean egiten eta eginen diren lanetarako.

Arrasaten, 1979.eko Abenduaren 23an

**IX. BILTZAR ONDOAN EUSKALTZAINDIAK IZENDAPEN
BERRI HAUEK EGIN ZITUEN:**

1. Euskaltzain ohorezkoak:

Gerardo Lopez de Gereñu Galarraga
Santiago Onaindia Baseta
Bedita Larrakoetxea Agirrezabala
Nemesio Etxaniz Aranbarri
Casto Inza Arbeo (Aita Jorge Riezu)
Etienne Salabarry
Justo Garate Arriola
Julio Caro Baroja

2. Euskaltzain urgazleak:

Daniel Landart
Jean Baptiste Etcharren Lohigorri
Junes Casenave-Harigile
Juan Apezetxea Perurena
Francisco Ondarra Erdozia
Federico Barrenengoa Arberas
Pedro Sancristobal Murua
Pedro Pujana Agirregabiria
Karmele Rotaetxe Amusategi
Jose Antonio Arana Martija
Eustasio Etxezarreta Zelaia
Jose Ignacio Telletxea Idigoras
Jose Garmendia Arruebarrena
Patxi Goenaga Mendizabal
Jose Antonio Mujika Casares

AURKIBIDEA

ARRASATE, 1979-XII-20

<i>J. A. Ardantza</i> , EUSKALTZAINDIKO IX. BILTZARRERA ONGI ETORRIA	317
<i>Fr. Luis Villasante</i> , EUSKALTZAINBURUAREN BILTZAR-HASIERAKO HITZAK	321
<i>Alfonso Irigoyen</i> , SEBERO ALTUBE ETA EUSKAL HIZKUNTZAREN PLEGUAK	325
<i>Adolfo Arejita</i> , ADITZAREN GALDEGAITASUNAZ	355
<i>Lino Akesolo</i> , GALDEGAIAREKIKO AZTERGAI BAT EDO BESTE ..	371
<i>Patxi Altuna</i> , ZENBAIT SINTAGMAREN BATASUN HAUSKORRA ZIBURUKO ETXEBERRIGAN	381

ARRASATE, 1979-XII-21

<i>Miren Azkarate Villar</i> , -N/-Z ERLAZIO HIZKIAK DENBORAZKO ADITZ LAGUNETAN AXULAR ETA ETXEBERRI SARAkoa-RENGAN	401
<i>Karmele Rotaetxe</i> , ERGATIBOAREN SUJETOTASUNAZ	417
<i>Karmele Rotaetxe</i> , LEKUTASUNEZKO FORMEN MUGABIDEA	425
<i>I. Sarasola</i> , NIRE/NEURE, ZURE/ZEURE LITERATUR TRADIZIOAN	431
<i>Jean Haritschelhar</i> , ADITZ IZENEN MORFOSINTASIA	447
<i>J. A. Letamendia</i> , LEIZARRAGAK PARTITIBOZ DAKARTZAN PARTIZIPIOAK DUVOISINEN ORDAINEKIN ALDERATURIK	455
<i>Piarres Lafitte</i> , ASPEKTUA EUSKAL ADITZEAN	483
<i>P. Altuna</i> , "ZEREN" ETA "NOLA" ETXEPARENGAN	499

ARRASATE, 1979-XII-22

<i>Rudolf P. G. de Rijk</i> , ERLATIBOAK IDAZLE ZAHARRENGAN	525
<i>Fr. Luis Villasante</i> eta <i>M.^a Pilar Lasarte</i> , PERPAUS KAUSALAK LAPEYRE IDAZLEA BAITAN	537